

MATXALEN



ZUBIRI'TAR IÑAKI

EUSKERAZAINTZAKOA (euskeraren erri-akademia)

“EUSKERAZALEAK” ALKARTEAK ARGITARATUA
BIZKAI'KO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAZ

MATXALEN

MATXALEN

ZUBIRI'TAR IÑAKI

EUSKERAZAINTZAKOA (euskeraren erri-akademia)

“EUSKERAZALEAK” ALKARTEAK ARGITARATUA
BIZKAI'KO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAZ

“Matxalen”. Zubiri'tar Iñaki (Euskerazaintzakoa)

Lege gordailua: BI-2670-01

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Flash Composition. Alda. Rekalde, nº 6,
Bilbao

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	7
EDESTI – AURRE	11
GUDARI	21
VIÑALES KAPITANA	29
ANDONI'REN EZBEARRA	43
ASKATASUNAREN ALDE	59
BIZKAIA MENPERATUTA	63
GARBIÑE'REN IDAZKIA.....	69
IRU URTEKO ESPETXALDIA	79
ETXERA	95
YOLDI – ENEAN ESKUTITZA ARTZEN DABE	121
IRRIBARRE BATE N ITXARKUDEA	127
LIXETTE	143
PIANO – IRAKASLE	147
PARROKIKO ORGANULARI	151
OSABA – IZEKOEN ERIOTZA	161
BEIÑAT'EN ARRENKURAK	179
YOLDI – ENEATIK ALDE	191
JAUREGIKO OIÑORDEA	201
DOXANDABARATZ – ENEAN	213
PARIS'EN BARRIRO	223
ZILTZA TA BURRUKA	227
MITXEL'EN BIURPENEA	243

AURKEZPENA

Irakurle! Eskuetan dakazuna, euskeraz idatzitako liburu irakurgarria dozu. Zubiri'tar Iñaki adiskide ta lankideak egiña da. Eta idazlea liburu onetan nondik nora dabillen itauntzen ba'daustazu nik auxe esango dautzut: Ez dabil ur sakonetan urpelariak lez, ez dabil zeru goietan izarlariak lez. Lur-gaiñean dabil, euskaldunen eguneroko bizitzan, Iparraldean naiz Egoaldean.

ELBURUA

Idazleak, idazkiñaren aurrean jesartzen danean, beti izaten dau elburu bat edo geiago, beti lortu nai dau biotzak eskatzen dautson zerbait. Zein da gure idazleak dauan elburua liburu au idatzikeran? Ori berak ez dau argi esaten, baiña irakurle zorrotzak laster igarten dau. Itzi daigun alde batera euskeraz irakurteko zaletasuna. Orrez gaiñera Iñaki'ren elburua liburu onetan beste bere liburuetan baiño zabalagoa dala dirudi eta zati bitan agertuko neuke nik elburu ori: 36n. urteko guda eta an agertu ziran euskaldun jatorrak eta albotik agertzen ziran arerio maltzurak, erbestera joan bear izan ebenak eta Iparraldeko euskaldunen laguntza, euskal giroko sendibizitza jatorra agertu; baiña elburu aundi orren alboan beste elburu txikiago bat ikusten dot nik: Etxeko osagilleen alde jokátzea, gaur etxeko osagille oneik ez daukelako lenagoko indarrrik, baiña bearrezkoak dira eta asko laguntzen dautsoe sendiari. Elburu oneik lortzeko bide lez idazleak elebarria artu dau, idazpurua "Matxalen" dala.

Baiña zein motatako elebarria da?

Sarritan jazoten dan lez, eleberriak nastean erabilten dauz mota orreik. Orrelan "Matxalen" elebarrian be: Lenengo, "realismo" girokoa dala esango neuke, eguneroko bizitzan diran oiturak agertzen dauzalako, baiña ez naturalismo girokoa, sekula sartzen ez daualako jazokizun edo norki itxusirik. Elebarri katolikoa dala esan bear da, elburuak naiz norkiak naiz jazokizunak naiz eguneroko bizitza argi-argi bide orretatik doazelako. Edesti-girokoa edo istori-arlokoa be bada baiña ez erromantikuen tankerakoa eguneko gaiak edo oraintsukoak darabiltzalako, baiña elebarri areitan lez emen be sarritan agertzen da barru-min aundia edo negar-gurea. Beste mota batzuren ikutuak be ba-daukaz, esaterako zelatari edo espia diranen giroa eta au naikoa zeatz eta bizi agertzen da, esaterako zelatari edo espi diranen giroa, "Gestapo" gazko artu-emonetara eltzen da eta euskaldunen artekoa be agiri da "Burdin-zezko Garrikoa"ren inguruan.

Zeazketa edo zelakotasuna agertzen daben zatiak billatzen ba'dozuz, ugari aurkituko dozuz, toki-zeazketak edo topografiak naiz norkienak edo prosopografiak naiz etografiak, baiña beti labor-laburrak

ARIA

Asieran ariak lerro bi artzen dauz, alkarren parekoak, bata Bilbao-Otxandiano'tik eta beste Burgos'tik, baiña gero beti da lerro batekoa.

ALDIA

Eleberriaren ekintza guztia 1936n. urtean asi eta ogeta amar bat urtean luzatzen da eta urte orrean barruan sarritan esaten da zein egunetakoa dan jazokizuna eta urteak be zeatz agertzen dira. Orrelan ba geiena lerrobidekoa edo lineala da.

TOKIA

Tokia be ondo zeaztuten dau idazleak baiña lau toki nagusi agertzen dira batez be: Bata Otxandiano, Legutiano, Gernika ta Santurtze'ra zabaltzen da, bigarrena Balladolid, Gasteiz, Alemania, Paris eta Iruñanguruetan dabil eta irugarrena Santoña Dueso, Puerto Santa Maria, Bilbao Iparraldera ta Paris'eraño eltzen da.

NORKIAK

Norkiak oso ugari agertzen dira elebarrian, batzuk aundiak esan geinke eta beste batzuk txikiak. Aundien artean Andoni, Garbiñe, Matxalen, Viñales, Lekaimeak Bilbao'n naiz Donibane'n, Lixette ta Mitxel dira. Oneik irakurleak ondo ezagutuko dauz, diran lakoak eta euren aldaketak dabezela. Eta txikiak be asko eta geienetan ondo zeaztuak dira. Guztiz irakurleak berrogeta amar norki ezagutuko dauz.

EUSKERIA

Idazleak darabilten euskerea Bizkai'koa da eta 1968n. urtean egin ziran aldakuntzak baiño lenagokoa, Bizkai'ko euskaldunak beti erabili dabenaren bidetik doana. Adizki batzuk zer-pentsatu emongo dautsoe irakurleari, biña irakuriz dana ulertzen dala ondo eta errez ikusiko dau.

Orra or, irakurle, atsegiñez irakurriko dozun liburua zeure eskuetan, liburu ederra, garbia, atsegintsua ta pozgarria. Zoriona opa dautsagu eta eskerrak emon be bai Zubiri'tar Iñaki idazleari.

OLAZAR eta URIBE'tar MARTIN'ek

EDESTI - AURRE

1.936'ko Garagarrilla'ren (Uztailla'ren) 22'garreneko arratsalde aretan, eguneko betebearra eginda, Andoni lantegitik urteteko zorian zala, lagunen arteko zurrumurru batek erakarri eban. Otxandiano, bere jaioterria, egazkin batek eraso izan eban, sarraski andia sortuz ango erritarren artean. Geiago jakitearren aalegindu bazan be, ez eban beste barririk artu, eta kezka jabetuta, etxera eldu zan. Emazteak atea edegi eutsanean, aren aurpegiaren itxura illuntsua ikustean,

– Baiña Andoni– itaundu eutsan–, zer jazoten yatzu orren antz goibela etxera ekarteko...?

– Begira, Garbiñe, lantegitik urtetea, gaur Otxandiano egazkiñez eraso izan dala entzun dot, eta orrek kezka andia sortu daust...

– Ez uste, zure etxeokai kalteren bat ekarri izango dautsenik, baiña badaezpadan kezka ori uxatzeko, nire ustez biar zure jaioterrira joan zaitezala onena izango litzake.

– Zuzen zagoz, Garbiñe, eta biar bertan, goizean goizik Durango'rako trena artuko dot, lenbailen etxeokak ikusteko.

Kaleko janzkia etxean egotekoaz aldatu ondoren,

– Zelan dago gure alabatxua...?

– Loak artuta bere askatxuan. Zatoz ikustera.

Biok ume-gelatxura sartu, eta Matxalentxu'ren aurpegi zuri-gorri samurrean, Andoni'k apa-laztan maitekor, biguna, jarri eban.

– Gure alabatuaren zoragarria...!– esan eban mintzo bigunaz–.

Guda zikin augaitik izan ez ba' litz, gure zoriona oso-oso izango litza-ke.

– Bai Andoni, Jaungoikoari eskatu dagiogun luzaro barik amaitu daitela.

– Olan bedi...!

Urrengo goizean, Andoni, etxetik zazpiretan urten zan lenengo trenara artzeko, eta

Durango'ra eldu zan. Alboko kalean Gazteiz'erako erri-berebilla itxaroten egoan, eta bidariak laster abiatu ziran. Mañaria igarota, Urkiola'ko bidean gora asi ziran, eta noizbait, aldapako gaillurra atzean utzita, Amaitermin auzoa igaro ta gero, Otxandiano aurrean agertu zan. Erriko enparantzan Andoni jatsi, eta astirik galtzeke etxerantz jo eban. Etxadi estu bateko bizilekua zan; kale-sestrako zatian atadia egoan, eta etxera eltzeke zorian zala, ustekabez, auzoko emakume batek ikusi eban, eta urreratuta, auxe esan eutsan:

– Tamal andia dot zureai etorritako kaltea, edozelan be...

Andoni'k ez eban besterik entzun gura, eta zaplada luzetan etxerantz jo eban. Beeko zatia esne-beien kortarako egokitua zan, eta zuru-bi baten bidez bizi-lekua zan lenengo maillara igon zan. Arin baten goiko atean oles egiñik, Agate'k, arreba nagusiak, edegi eutsan. Bere neba ikustean, negar baten,

– Mugonez etorri zara, Andoni– esan eutsan–, gure kutunari azken agurra emoteko. Goizean, txori baizen alaia urten, eta eguberdi barik illotza etxera ekarri euskuen... Ai ene, etxe onetako bake ta alaitasuna betirako ostendu dira...!

Eta bere atsekabea jabetu eziñik, nebea etxeko aretora eroan eban. Zerraldo baten, burua lotuta bere anai kutuna ikusi eban. Alboan jesarrita, agurtza baten aleak erabillezala, ama egoan. Seme arrotza ikustean, etxekoandrea jagi zan, eta alkar besarkatzen ebela, bere atsekabeak negar-zotin luze batez ler egin eban. Noizbait, zeozer baretu zanean, auxe esan eutsan:

– Au atsekabe mingotsa...! Gure kutuna goizean txori baizen alaia etxetik urten zan, eta eguberdi barik, zerraldo onetan zetzan. Ai ene bada...! Etxe onetako alaitasun eta zoriona zan, eta ez dogu barrero be bizirik ikusiko...!

Amaren naigabea baretu naiez,

– Jesarri zaitetz, ama, nekatuta zagoz-eta– esan eutsan maitetsu, eta aren oiñazea baretzeko gurariz, Andoni'k jarraitu eban–, atzo, emen jazotako ezbearra entzunda gero, ona etortea erabagi neban, eta orregaitik etxean ikusten nozu... Nire suzmorik illunenak bete dira... Esan, ama, aita non dago...?

– Batetik bestera dabil, ezbear onek zoratuta nora joan jakin barik...

– Non ikusi dagiket...?

– Beiak zaintzen alagunean egongo da urrean; atzo gabea, etxeko astrapalaz, ez genduzan kortara ekarri, eta nire ustez an ikusi dagikezu. Ez aztu, seme, eguberdi ildakoan illetak ospatuko dirala...

Ondo ezagutzen eban bidean gora, Andoni etxeko alagunera abiatu zan, eta andik laster, zugaitz baten ondoan jesarrita bere aitaren irudia ikusi eban, burua eskuen artean ebala, eta olan ikustean, beraganako tamal esaneziñak menperatu eban. Zugaitz tantai bat tximistak jota zirudian... Urreratu zanean, gaztearen urratsak entzunik, burua jaso eban, eta seme nagusia ezagutzan, itxura neketsuz jagirik, alkar estu-estu besarkatu eben. Aitaren aurpegi zimurrari malkoak mara-mara eriozan, eta orduan Andoni'k beraganako samurtasun neurribakoa oartu eban. Ildako seme kutunak, etxeko lanetan laster ordeztuko leukean irurogei eta bost urteko zan aita, eta orain ames au ondatu izan zan... Andoni'k aitaren aurpegi oiñazetua maitasunez begiratu eban, eta biok zugaitzaren ondoan jesarri ziranean,

– Aizu, aita, zelan jazo zan atzokoa...?– itaundu eutsan–.

– Ara, seme... Bederatzi ta erdietan inguru, gudari batzuk enparantzan janaria atontzen ziardeen, eta gure semea beste lagunekin gertakizun orreik ikustera joan izan zan. Alako baten egazkin bat agertu, eta gauza dizdiratsu batzuk botaten asi zan... Gero, infernua sortu zan jaurtikiak ler egiten eta eriotza barreiatzen asi ziranean. Ni emen nen-goan gure esne-beiak zaintzen, eta arin baten errira jatsi nintzan jazotakoa ikustearren. Jendeak iñoanez, lerkaikeeta Andikona'ko iturriko enparantzan gertatua zan, eta astirik galtzeke aratu nintzan. Eldu nintzanean, ikusi nebana izugarria izan zan... Amaika zaurituen artean, irudi batzuk lurtean etzanda, ez eben zirkiñik egiten, gorpua ziralako, eta batetik bestera joanda, alako baten gure Augustintxu geldi-geldi ikusi neban buruari odola eriola. Zer egin ez nekiala, besoetan artu eta etxera ekarri neban, baiña etxeko zurubitik igotean, gorpua zala oartu nintzan. Gero, zoro baten antzera batetik bestera ibilli nintzan. Noiz-

bait, zentzun apur bat etorri yatan, eta erriko arotzagana joanda, gure kutunarentzat zerraldo bat eskatu neutsan, eta arekin etxera biurtu nintzan. Gero, zure ama-arrebak il-jantzi eben eta burua lotu eutsoen... Ni zoro baten antzera batetik bestera ibilli nintzan gaba egin zan arte. Etxeko alaitasuna zan, eta sekulako galdu dogu ... Bere irribarre goxoa ta mintzo argia betirako joan yakuz, eta izan be, niretzat bizitzaren erakarpena amaitu yat...

Eta oiñaze biziak eraginda, Egizabal'go etxejoauna etsipenezko negar-zotin batek itota, isildu zan. Andoni'k aitari erruki andiz begiratu eutsan. Bazirudian ezustez aguretuta, eta izan be, urte gitxi batzuk igarorik, bere seme kutunak ordeztuta, merezi eban atsedenaldua artuko leukean. Orain baiña, ames au ezereztua zan, eta besterik ezean, bearrak eraginda zartzaroa bizitzaren zear narratzu bear izango leuke... Andoni'k, une batez ausnartzen irauan eban, eta bere buruari zin egin eutsan, zelan edo alan aitaren egoerea atondu bear izango leukela... Gero, maitasunik andienaz jagiteko lagundu eutsan, auxe iñotsala:

– Goazen etxera, aita, amak esan daustanez, eguberdian illetak izango dira, eta ori baiño len, jantzi-aldaketea egin bear dozu. Abia gaitezen ba, astirik galtzeke.

Semearen besoari eutsita, ibilte neketsuaz etxejoauna bidean beera asi zan, eta biok isillean etxera eldu ziran. Etxekoak arein begira egozan, eta etxejoaunak arin baten jantzi-aldaketea eginda, aurretik gurasoak joiazala, Andoni ta bere arrebak eleizeara abiatu ziran. Bidean zear joiazala, multzoka ta multzoka eleizkizunetara joiazan beste taldeekin batu ziran, eta onein samin-agur adeitsuak artzen ebezala, parrokira eldu ziran. Orduko barrukoa mukurru-bete egoan, eta eurontzako egokitutako aurreko aulki baten, aurreguneko berrogei ta amar ildakoen sendien artean jesarri ziran. Erri osoa eleizkizun aretan tartekoa zan, isiltasun betean otoitzetan il-mezeari itxaroten eutsoela. Parrokiko abadeak gaiñera, inguruetatik abade asko mezea alkarrekin ospatzeko etorri izan ziran.

Noizbait, erriko parrokoa bere lagun ugariekin il-mezeari asiera emon eutsan. Abestua izan zan, eta bazirudian ereti aretan organuari oiñazeko soiñuak eriozala. Gero, parrokoa sermoitegira igonda, itz bakun eta unkiarriakaz eleiztarrai mintzaten asi yaken, gudea munduko madarikaziño bat zala, eta bide guztiakaz uxatua izan bear leukela. Errian egindako sarraskiaren egilleentzat barkapena ta damua eskatu eban, eta oparien sendiai euron oiñazean itxaropena izan egien, gogora ekarririk, beste mundura joandakoak Jaungoikoaren argi ta aintza beti-

rako gozatuko leukiezala. Eta olan, maitasun eta itxaropen-berbakaz, parrokoak bere itzaldiari amaia emon eutsan.

Entzundakoak unkituta, Andoni'k indarraldi andi bat egiñez, bere anaiaren iltzailleai barkatu eutsen, eta anai kutuna biotzean untzatuta, bere sendiarekin jaunartu eban; gero, bere gurasoen etorkia arindu egian Jaungoikoari eskatu eutsan. Ezin egikean burutik kendu, aitari bere zartzaroen etorriko litzakion lan astuna, eta ezagunen dolu-miñak artuta, etxera biurtzen ziranean, ezin egikean oldozkun au burutik kendu, eta orduan bere arreba Agate banazean artuta,

– Aizu, Agate– esan eutsan–, lengo baten, erriko mutil batekin ezkongaietan ziarduala entzun neban. Egia al-da ori...?

– Bai, Andoni, Iturbe'ko Imanol'ekin aspalditxu bat dala arremonetan asi naz, baiña ez dakit noiz ezkonduko garean. Mutil on-ona da, baiña ezkontzeko beste ez dau irabazten. Etxegille batekin or-emen dabil, baiña bere jarduna ez da ziurra, bein-beiñekoa baiño, eta augaitik ezkontza luzatu egin bear izango dogu, noiz arte ez dakigula...

Orduan, tximista baten antzera, burutapen bat etorri yakon gogora Andoni'ri, eta arrebeari auxe esan eutsan:

– Ustekabez gauza bat otu yat, Agate... Zergaitik ez zarie ezkontzen etxera...? Ara... gure aitari adiñez ez dagokio etxeko lanakaz jarraitu, beien zaintza, oncin jaisketea egunean bi aldiz egin, esne-pegarrak Gaisteiz'eko berebillera eroan eta ekarri, etxeko ortua zaindu, eta negurako egurketea ta onen zatiketea egin bearra. asko da berarentzat, eta are geiago, orain, seme kutunaren utsak aguretu dauanean. Nire ustez, beraz, etxekoentzat eta zuretzat baita be, Imanol'ekin etxera ezkondu zaitezala biderik onena da. Nirekin bat ba'zatoz, gaur bertan aita-amari orixe burutara emongo dautset. Zer deritxazu nire asmoari...?

– Etxekoek ontzat artzen ba'dabe, nire aldetik oztoporik ez; ogei ta bost urteko naz, eta adin onetara eldu ezkerro, ezkontzea ez da geroratu bear...

– Ondo da, Agate; orduan arazo ori gurasoekin niretara erabiliko dot, eta Jaungoikoak lagun guztien onerako atonduko da...

Atan orretan, etxera eldu ziran, eta Andoni'ren alaba biek janari arin bat atondu ondoren, maian jesarri ziran. Bere gogo itunetan murgilduta, maikideek ez eben itz askorik esateko guraririk, eta nekearen nekez aitak bazkal-osteko biagoa lo egiten ebal, Andoni'k erritik oste-

ratxu bat egin eban. Onen ostean, danok eleizeara biurtu ziran agurtza edo errosari nagusia ospatzeko.

Etxera biurtu ziranean, gurasoak banazean artuta, Andoni'k Agate'rekin izandako alkarrizketea azaldu eutsen, eta onen ostean,

– Begira egizue– esan eutsen–: nire ustez, zuontzat eta aitarentzat batez be, etxeko lanak ondoen erabilteko, bearrekoa da gizon gazte baten erabilketea, eta Agate Iturbe'ko Imanol'ekin ezkontzeko asmotan dagoan ezkerero, zuentzat eta gure Agate'rentzat, biderik onena ta zentzuduna ezkondu daitezela da. Biar Bilbao'ra biurtuko naz, eta orduan, arazoari buruzko zuen erabagia jakin gura izango neuke.

– Nire aldetik, ez dozu biar arte itxaron bear gure erabagia ezagutzeko - amak esan eutsan -. Neuk, baietz esango dot, eta etxe onetako nagusia nirekin bat ba'letor, orduan ez da besterik esan bear....

Aitaren esatekoari ardurarik andienaz itxaron eutsoen, eta isillune labur baten ostean,

– Egia esateko, etxeko lanak gero ta astunagoak yataz, eta orain, gure kutun barik, baderitxat eziñagoa oartzen nazala. Aspalditik ezagutzen dot Iturbe'ko Imanol, eta gurera ezkondu gura izango ba'leu, beso zabalik artuko neuke...

Andoni kezkatzen eban arazoa atondua zan beraz; eta jarraian, Agate jakifnaren gainean ipiñi ostean, danok ezkontzarako gora-beerak aalik ariñen atondu egiazan aolkua emon eutsoen.

Urrengo egunean, Imanol etxekoekin bazkaltzera deitu izan zan, eta otordua amaitu zanean, Egizabal'go etxekojaunak bere alabea emaztetzat eskeiñi eutsan, eta senargaiaren baietza artuta, aalik ariñen etxera ezkonduko litzakezala, erabagi zan. Andoni'ri, Iturbe'ko Imanol mutil begiko ta zentzuduna begitandu yakon, eta etxerako arazo garrantzitsu au onez atonduta, etxera biurtzea erabagi eban, eta arratsaldean, Gasteiz'etik etorren erri-berebilla artuta, Durango'ra jatsi, eta emen Bilbao'rako azken trena artu eban. Gurasoen etxetik urten zanetik, etenbarik bere anai kutunaren eriotzak, eta berarekin ildako berrogei erritarrek (izan be, kanpotik etorritako gudari bat kenduta, ildakoak erritarrak ziran), gogoan baretu ezin egikean atsekabeak Andoni'ri eragiten eutsan. Trenean Bilbao'ranta urreratzen zala, bere bizitzaren azken zatia gogora etorri yakon. Orain zortzi urte, ogei urteko zala, bizibide errazago baten billa, erria utzi, eta Bilbao'ra joan zan. Aita sasoi onetan egoan etxaldea erabilteko, eta zaarra biurtu orduko, etxeko kutuna zan bere anai Augustiñ'ek aitari bere lanetan lagunduko leus-

kio, eta asmo oneikaz bere barrua nasaituta, etxetiko agurra errazagoa biurtu yakon .

Bilbao'ra lenengo aldiz eldu zanean, etxeko ezaugun baten bidez Andoni'k etxegintza-baltzu baten beso-langilletzat jardun bat idoro eban, eta buru-belarri lanari adore guztiaz emonda, nagusiaren on-eritxia irabazita, etenbarik gora egiten asi zan, eta urtebete bien epean, lan-maisuaren jarduna irabazi eban, langille-talde baten agintzea lortuz. Eta gero, Garbiñe ezagutu ta biok maitemindu ondoren, ezkondu ziran. Esan bear dogu, Otxandiano'ko semea izanik, euskalerrian askotan erabilten dan lez, Bilbao'n erriko izena laburtuz danok ezagutua zan, eta Otxandio esaten eutsoen.

Andoni'k bere aberria sutsu maite izaten eban, eta trenez etxera biurtzean, erritarren eta anaiaren sarraskia gomutara etorkion, bere baitan guda madarikatu aren aurka jarkipen garaitezina oartzen ebalatzen, eta etxera urreratu-ala, bakean uzten ez eban gogapen batek etenbarik zirikatzeten eban... Gertatzen ziran basakeriak ezer egin barik jasan, ala benetako gizon bateri egokionez, indar guztiaz aurka egin, beretarren eta euskalerriko eskubideen alde...

Edozelan be, emazte ta alabatxu bat zaindu ta babestu bear zituan, eta beraz, egokia zan ezkonbageak lenengoak izan zitezkan burruka aretan. Baiña au, ez zan benetan aiko-maiko bat baiña bere burua ziritzeko, eta besteen aalegiñetan atsedean izateko...? Eta etxerantz urreratzen zala, Andoni'ren barru zintzoak urtenbide egokia billatzen eban, eta amaikagarrenez bere egitekoaren on-gaitzak aztertzen zituala, Bilbao'ko geltokira eltzen zanean, ezerk aldatuko ez leuskion erabagia artu izan eban.

Bere olesari Garbiñe'k atea edegi eutsanean, alkar estu-estu besaratu eban, eta gero,

– Zelan dago gure Matxalentxu...?– emazteari itaundu eutsan–.

– Oso ondo, Andoni, zatoz ikustera.

Umearen askatxura urreratu ziran, eta alabatxua maitasun biziz begiratuz, musu luze ta biguna aurpegiñoan ipiñi eutsan..

– Gure Matxalentxu dan zoragarria...!– esan eban astiro–.

Gero, gelatxutk urten, eta sukaldera joanda,

– Aizu, Andoni– esan eutsan emazteak–. Aparia zuretzat atondu bitartean esaidazu errian jazotakoa.

– Izugarria izan da, Garbiñe, Augustintxu gure etxeko kutuna eta erriko beste asko il dira. Ara...

Eta begiak malkoz estalita, Andoni'k iru egun lenago jazotakoa edestu eutsan. Amaitu ebanean, biok negar egiten eben, eta Garbiñe'k auxe esan eutsan:

– Otoi egin dagigun agurtza bat bere alde. Augustintxu zan ona...!

Biaramonean, Andoni lantegira joan zan, eta nagusiari jazotakoa edestu ondoren, oiko zeregiñai emon eutsen, baiña egun aretan, ezin egikean bere erabagia burutik kendu, eta lan-aldia amaitu zanean, etxera biurtu-bearrean, Bidebarrieta kalean egoan Euzko Gaztedi'ra joan zan, eta ango burukide batekin berba egitea eskatu eban. Gizon gazte bat azaldu yakon, eta onen itaunari erantzunez,

– Begira Jauna– esan eutsan–, asaldatuen aurka burrukan egiteko gerturik nagoala esatera nator, eta beraz, nire izena emon gura dot.

– Ondo da, gazte ori, baiña. zeu lez beste asko etorri dira. Zoritxarrez bearreko iskillorik ez ditugu orain, eta augaitik itxaron bear izango dozu. Edozelan be, zure izena artuko dot, eta geroago, bearreko orniketak etorri daitezenean, deituko dautsugu. Ordurarte, egon zaitez etxean, eta oraingo zure elbidera gure barriak elduko yatzuz.

Itz oneikaz biok banandu ziran, eta Andoni'k etxerako bidea artu eban. Kaleetan zear joiala, gogora etorri yakon, bere erabagiaren barria ezagutzeko, iñork ez beste eskubiderik bere emazteak baiño, eta olan ez jokatzekotan, zitalkeri parkaeziña izango litzakela. Etxera iritxi zanean, sei illabeteko zan Matxalentxu besoetan artu, eta aurpegitxua lastanakaz beteten eutsala,

– Aizu, Garbiñe - esan eutsan -, nire anai kutuna il ostean, erabagi garrantzitsu bat artu dodala jakin bear dozu, eta ain zuzen be, guda zikin onetan burrukan egitera gerturik nagoala. Orain bertan, Euzko Gaztedi'an nire izena emotetik nator. Oraingo, gudaritzat onartua izateko, bearreko iskillorik ez dabe, baiña oneik artu dagiezanean, dei egingo dauste.

Itz oneik entzutean, begiak zabal-zabal eginda, Garbiñe'k itxura arrituaz begiratu eutsan entzundakoa siñistu eziñik, eta gero,

– Baiña Andoni– erantzun eutsan–, benetan zagoz...? Guda onetan tartekoa izateko, izena emon dozula diñostazu...?

– Bai, Garbiñe, gure erria erasoten dabenen aurka nire barruak agintzen daust, eta anaia erail ebenetik, ori agindutzat artu dot, eta erri-tik onantza nentorreanean, erabagi ori artu neban.

– Emazte ta alabea dozuzan zerorrek, uste dozu gudara joan bear dozunik ainbeste ta ainbeste lokarribako gazte dagoanean...?

– Bakoitzak bere barrukoari erantzun bear dautso, eta orregaitik guda onetan jardutea agindutzat artu dot.

– Etxe onetatik gudara joan zaitezanean, nigan bete-eziñeko utsa sortu izango yat.

Itz oneik entzutean, emazteagana joanda, Andoni'k maitasun biziaz besarkatu eban.

– Garbiñe– esan eutsan–, ondo dakizu beti-beti maite izango zaitudala, baiña aberria ta niretarak be eriotzararte maite izaten dodaz, eta zeuganako ta geure aberriaganako oartzen dodan maitasun onek, arrotzen aurka burrukan egitera eragiten nau. Ondo dakizu noraño maite zaitudan, Garbiñe lastan orrek... Arren eta arren eskatzen dautsut nire erabagia ontzat artu dagizula, bestelan, nire izaerea inpernu baten antzekoa biurtuko litzakit...

Garbiñe'k maitasunez beteriko begi ederrakaz senarra begiztatu eban, eta gero, mintzo gozoakaz,

– Badakit benetan maite nozula, nire biotzeko orrek, baiña nigan-dik alde egin dagizunean, bizitzea mingotsa izango yat...

Andoni'k barriri beasarkatu eban, eta auxe esan eutsan:

– Guda madarikatu onek geure zoriona ondatu dausku, baiña iñoizkorik lotuen bizi bear izango dogu.

Gero, askatxuan egoan alabatxua besoetan artuta, bere aurpegiño zoragarria ta irribarretsua musukaz estali eutsan.

* * * *

España'ko laterrian errepublika zan agintzabidea, eta onek ekarri-tako askatasunaz, Euzkadi'n abertzaletasuna gora andia egiten asi izan zan, lenengo Bizkaia'n, eta gero beste euskal lurraldetan, abertzaletasun-ereintzarako gerturik egozanean. Bost urte irauten eban errepubli-karen araudiak, eta onen etsaiak ez ziran artaratzen, 1.936 urteko autes-kundeetan errepublikatarak agintari azaldu ziranean batez be. Orduan, eskuma ta ezkerreko indarren artean, bortxakeriak eta ilketak asi ziran. Noizbait, eskumatarrek laterriko gudaroste geienaren laguntzaz asalda-tu zan, eta anaian arteko iru urte iraungo leuken guda basati bat sortu

zan. Alderdi biek izugarrikeri asko egin eben, guda-lekuak, eta atzekaldea, ildako ta eraildakoakaz odolduz.

Ez dagokit niri erritarren arteko guda orren edeskia egitea, orretarako nor ez nazalako, eta gaiñera, eleberri au idaztean nire asmoa ez zan arazo ori ukututea. Baiña zillegi bekit, elebarri au ulergarriago izan dai-ten, gure aberriari dagokiozan gorabeera batzuk emotea.

Lenengotik, Naparra eta Araba asaldatuén menpean geratu ziran, eta asiera orretatik basakeri ta erailketa ugari gertatu ziran, Naparra'n batez be, ezkertar eta abertzale asko bide-ertzetan eraillak izanik, iñongo iskillorik erabilli ez egikenean, eta beraz, aurka egiten ez ebenean. Naparra'n lenengotariko eraildakoa Fortunato Agirre, Lizarra'ko (Estella'ko) alkatea izan zan, gudea sortu aurretik asaldatuén suzmo txarreko erabiltetak salatu ebazalako. Gipuzkoa ta Bizkaia Errepublikaren aurka asaldatzen ez zirala ikusirik, matxinadea asi ta bereala Iruña'n agintzen eban Mola generalak gudaroste batzuk igorri zituan abertzaleak ta ezkertiarrek zapaltzeko. Orduan, bakean egondako abertzaleek asaldatuai aurka egitea erabagi eben, baiña lenengo aldi areitan, erriak iskillorik ez izanik, ezin izan eben aurka andirik egin, eta Gipuzko'ra Bidaso'tik sartutako Ortiz de Zarate'k (ekintza onetan il zan teniente koronela) agindutako gudataldeek jarkipen andi barik aurre egin eben; 1.936'ko Irailla'n Uranzu'z (Irun) eta gero Donostia'z jabetu ziran, eta arrezkero, txarto gertaturiko eta are gaizkiago iskilloz ornitutako erri-gudariék adorea galduta etenbarik atzera egiten eben, eta asaldatutako militarrek Gipuzko osoaz jabetu ziran.

Zorionez, baiña, noizbait iskillo batzuk Bizkai'ra eldu ziran, eta oneikaz eusko gudaroste batzuk etsaien aurka bialdu ziran, onein era-soari eten egiñez. Orduko, burruka-lekua, Ondarru aurretik asita, Markiña, Eibar, Elgeta, Kanpantzar, Aramaiona, Legutiano, Gorbea, eta Orduña'raiño edatzen zan. Aipatutako erriak gure eskuetan geratu ziran, baiña onen aurretik Intxorta mendian gure gudariék asaldatuai triskantza izugarria egin eutsien. Onen ondorioz, sei illabetez etsaiak bakean utzi ginduzan.

Etsaiakandik iges eginda, gudariz gaiñera jende asko etorri zan, eta Bilbao'ko kaleetatik areitariko asko ikusten ziran. Ez zan gauza erraza guztientzat lekurik izatea, baiña gudaren eragintzaz sortutako Euzko Jaurlaritza'k arazo au epe laburrean atondu eban. Onezaz gaiñera, Gipuzko'tik etorritako eusko gudariék, noizbait osotu ta ornituak izan ziran guda-lekura barriro biurtu aurretik.

GUDARI

Azken orduan itsasoz Bilbao'ra etorritako iskillorik, gudaren garapencan alde andi bat ekarri eben, eta etsaiaren aurrerapena geldituta, esan daiteke bein-beiñean Bizkaia'k bere burua atara ebalá. Aalik ariñen gudarako gudatalde barriak sortzen asi ziran, eta bein baten, Andoni'k Euzko Gudaroste'tik Eskolapiotarren ikastetxera joateko agindua artu eban. Leku onetan, gudatalde batzuk eratzen ziran, eta ara eldu zanean bere izena emonda, idaztegi txiki batera bialdu eben. Emen, mai baten atzean egoan buruzagi batek auxe esan eutsan:

– Aizu, emen diñoanez, zeuk Euzko Gaztedia'n orain iru illabete, izena emon zenduan gudari izateko, ezta...?

– Bai Jauna, olantxe da.

– Bene-benetan iskillorik artu gura dozuz...?

– Bai, Jauna.

– Esan, zerk eragiten zaitu orretara...?

– Nire abertzaletasuna, baiña onezaz gaiñera bada beste zerbaitek gudari izatera bultzaten nauna... Ara...

Eta jarraian, Otxandiano'n lenengo guda-egunetan jazotako sarraskia edestu eutsan, eta onen ondorioz bere anaiaren eriotza. Amaitu ebanean, besteak,

– Izan be– esan eutsan–, izugarria izan da zure etxekoai gertatutakoa, eta zuen atsekabeen laguntzen dausut.

Buruzagia, agiri batzuk irazean irakurri ondoren,

– Begira, Andoni, zeuk izena emotean, ez zenduan aipatu zure langintza, eta au garrantzi andikoa da gudarostean dagokizun jarduna artu dagizun. Augaitik ba, Egizabal Jauna, emoidazuz zure gora-beera orreik.

– Ona emen... Etxegille-baltzu garrantzitsu baten orain zortzi bat urte lanean asi nintzan, eta aldiaren bidean lan-maisu egin ninduen. Baltzu orren izena “Sendoa” da, eta ez dakit izen ori aditu dozun...

– Bai, ezagutzen dot, eta zure langintza ori aipatu ondoren, nire ustez zuretzat Eusko Gudarosteak eskeiñi dagiketsun lanik egokiena, guda-babeseko talde baten izango litzake. Bakotxari berea emon bear yako, eta zure ezaguerari dakogiona orixe izango litzake onena.

Andoni une batez galduta oartu zan. Bere asmoa iskillu-gudari izatea izanik, orain oso bestelakoa zan jarduna eskeintzen eutsoen. Noizbait, esaten azartu zan,

– Begira, Jauna, nire asmoa iskillu-gudari izatea izan da, eta zeuk eskeintzen daustasuna, ez da nire gogotik igaro...

– Olan da izan be, baiña gudaroste indartsua izateko bearrekoa da guda-babes egokiak izatea, baiña zoritxarrez, iskilloezagaitik ez dogu babes-lan benetakorik egin, eta ikuspegi onetatik gure egoerea negargarria da. Izan be, oso bearrekoa yaku lan orreitara emotea, eta au dala-ta, lan-talde orreitan jardun dagizula eskatzen dautsut. Edozelan be, barriro be badiñotsut zure naiaren aurka ez neukela gura zeu beartzerik...

Apur baten isillune bat sortu zan, eta untzea zapaltzeko ereti ona zalakoan, buruzagiak onetaraxe jarraitu eban:

– Aipatu gura neuskizu beste ikuspegi bat, eta auxe alegia: agiri onetan esaten da, emazte ta alabea dozuzala. Ez neuke gura, ez dagokidan arlo baten sartzea, baiña zure sendiarentzat askozaz ziurragoa izango litzake iskillu-gudaria izan bearrean, atzeko lanetan jardutea, eta areago gure gudarostearen onerako bearrekoa dala jakiniñik... Edozelan be, arazoa zure aukeran dago...

Ordurarte izandako asmotan, Andoni galduta oartzen zan, bere ikuspegia beste guda-ekintzarako gertuta egoalako, eta buruzagi aren ezusteko eskeintzak eta burubideak oarkabez artzen eben.

Andoni’k isillik irauala ikusirik, buruzagia jagi zan, eta,

– Begira, gazte- esan eutsan-, zeregin batzuk betetera noatzu, eta une luze batez bakarrik utziko zaitut. Biurtu naitenean zure erabagiari buruz jakitun ipiñiko nozu. Geroarte ba...

Buruzagia ostendu zanean, Andoni’k gogarte sakon bateri emon eutsan, eta onen ostean, bere eritxiaren aurka bazan be, onartu bear izan eban bestearen burubidea benetakoa zala, emazte ta alabari buruz esandakoa batez be, eta bere barruko zintzoari jarraituz, guda-babesetan jardutea erabagi eban. Buruzagia biurtu zanean,

– Ta, gazte- itaundu eutsan-, zelako erantzuna emoten daustazu...?

– Begira, Jauna, zure eritxi zuurra buruan erabili ondoren, nai-ta ez zuzen zagozala onartu bear izan dot, eta beraz, guda-babeseko lane-tan jarduteko gerturik nagoala esan bear dautsut.

– Ederto mutil...!– erantzun eutsan besteak-. Orduan biar goizean joan zaitez zuzenbide onetara, eta ango gudaletxean aurkeztu zaitez Arredondo buruzagiagana, eta onek egitekoa aginduko dautsu. Agur eta ondo izan...!

– Agur, Jauna, eta eskerrikasko niganako zure ardurezagaitik.

– Ez da zergaitik, eta ondo joan...

Arratsalde aretan Andoni etxera eldu, eta emazteak atea egegi eutsanean, auxe esan eutsan aurpegi irribarretsuz,

– Poztu zaitez, Garbiñe, iskillu-gudari barik, atzeko lanetan jardun bear izango dot-eta, guda-babeseko lanetan, izan be...

Eta alkar estu-estu besarkatu eben. Garbiñe orain zoriotsua oartzen zan. Egun aretan, Eusko Gudaroste’ko deia artu ondoren Andoni etxetik urten zanean, berarentzat amaibako atsekabe-aldia izan zan, orduak azken barik igaroten zirala, eta oraingo barria jakitean, bere poza andia zan.

– Andoni, eskertu dagiogun Jaungoikoari, zure arazo ori orren ederto atontzezagaitik. Jakingo ba’zendu zelako egun izugarria jasan dodan...! Baiña orain baretu naz.

Une aretan, Matxalentu, goseak eraginda berea eskatzen asten zan, eta besoetan artuta, Garbiñe edoskitzen asi yakon. Andoni’k alabataxua lilluratuta begizatzen eban, eta aren eskutxu bat artuta, bigun-bigun laztantzen eutsan. Orduko, Matxalen zazpi illabetekoa zan, eta ama bere bularrak gaiñera beste aiak emoten asi izan zan. Ase zanean, Andoni’k besoetan artu, eta kulunka erabilen bere erriko obauba zar bat aopetik abestuz. Noizbait, umea lo geratu zan, eta askatxuan ipiñi ondoren Garbiñe biurtu zanean,

– Orain zer egingo dozu, Andoni...?– itaundu eutsan–.

– Ara... Goizean, Arredondo buruzagiagana aurkeztuko naz, eta onek dagokidan egitekoa aginduko daust, eta andik laster babes-lanetan asiko naz.

– Edozelan be, Andoni, nire ustez bear izango dozu, “Sendoa”ko zure ugazaba On Peli’gandik agurtzea, eta areago be, zurekin beti ain ondo jokatu dauanean. Autortu bear dogu, zure bizitzaren gora egitean laguntza andikoa izan yatzula.

– Bai, Garbiñe, diñostazun orretan zuzen zagoz, eta biarko nire lenengo egitekoa, beragandik agurtzea izango da.

Urrengo eguncan, etxetik urtetean alabatxuari musu bat emonda, eta emazteari oiko besarkada maitekorra, Andoni “Sendoa”ko idaztegitik igaro, eta On Peli’rekin alkarrikuste bat eskatuta, onen aurrean egoanean.

– Jauna– irautsi eutsan–, badakizu, orain illabete bi-edo guda onetan jarduteko nire izena emon nebana...

– Bai, Otxandio maite ori, eta tamal andia artu neban ori jakitean. Izan be, guda zital augaitik, etxegintza-lana asko urritu yaku, baiña edozelan be, nirekin jarraitu zaitez gura izango neuke...

– Eskerrikasko, Jauna, nigana dozun eraspengaitik, baiña nire barruari men egin bear dausat, eta alde egiteko garaia eldu yat.

– Bai, Andoni, bakoitzak bere deiari jarraitu bear dautso, eta erabagi orrek nire eritxian andiagoa egiten zaitu. Edozelan be, eskertuko neuskizu noizean bein ikustera etorri zakidazan. Ez dausut esan bear, baltzu onetan, oraingo zure jarduna beti zure begira izango dozula.

– Eskerrik asko, Jauna, ori beti gogoan izango dot. Eta orain, alde egin aurretik esan bear dausut gizon arteza eta emonkortzat beti izan zaitudala, eta aita on bategandik alde egiten dodala...

Onen ostean, alkar estu-estu besarkatu eben, eta malkoak begietan, ezer esan eziñik biok banandu ziran. Kanean beera joiala, “Sendoa” baltzuaren alde aal izandako guztia emon izan ebal, baita berak aregandik esku betez saritua izan zala be, gogora etorri yakon.

Atan orretan, gudarostearen basbeski-gudaltegira eldu zan, eta Arredondo buruzagiagaitik itaunduta, ogei ta amabost urteko asmalari (injiniere) baten aurrean aurkitu zan. Orduan onek,

– Zerk zakaz nigana, gazte...?– itaundu eutsan–.

– Ara, jauna...

Eta jarraian, Andoni’k bere gorabeerak emon eutsazan, baita aurregunean beste iskillor-buruzagiarekin izandako alkarrizketeari buruz, jakitun ipiñi eban

Eta onetaraxe amaitu eban:

– Etxegintza baten diardudan ezkeror, buruzagi aren ustez gudarostearen babes-lanetarako egokiagoa izango nintzake, eta ona, zeugana igorri nau.

– Izan be, eraikigintzan ezagulari onak bear ditugu, gure babeskilanak oso atzeratuak dagozalako. Baiña zeuri jardun egokia emon aurretik, on izango litzakigu noraiñokoa dan zure ezaguera jakitea. Zatoz nirekin alboko gelara.

Au esanda, mai andi baten gaiñean egozan marrazki batzuk erakutsi eutsazan, eta gero, areitariko bat erakutsirik,

– Esan dagikedazu, marrazki onek zer adierazoten dauan...?

– Lerro okerrak dira, luraren egitura adierazoten diranetakoak.

– Eta. lerro oker oneik, zelako lur-egitura azaltzen dabe...?

– Lurra oso aldapatsua dala– Andoni’k erantzun eutsan–.

– Zergaitik...?

– Ara...lerro okerrak ur dagozanetan, lurra aldapatsua dala adierazoten dabe, eta ostera, lerro batetik urrengora tarte andia dagoanean, lur leuna dala esan gura dau.

– Ederto, mutil.

Jarraian, buruzagi arek beste marrazki bat erakutsi eutsan. Oraingo leengo baiña askozaz zaillagoa zan, eta Andoni’k une luze batez aztertu bear izan eban, eta onen ondorioz,

– Jauna– erantzun eutsan–, nik ez dot iñoz olako marrazkirik ikusi, baiña nire ustez, gudako babesgintza bat da. Aurreko leio luze ta estua nire ustez, barruko gudariek metralagailuak erabilteko dala, etsaiaren sutik babestuak.

– Bai benetan, guda-izkuntzaz orreri metralagailuen kabia esaten yako, eta gure gudarientzat oso bearrekoak dira, babeseko guda bateri aurre egin bear dausanean, batez be. Orain zatoz nirekin, gure ornitegia ezagutu dagizun.

Itz oneik esanda, Arredondo buruzagiak alboko biltegi bat erakutsi eutsan. Emen, eraikitako guztitariko gaiak ikusi zeitekezan: Saltsarri (cemento)-zorroak, altzairuzko agak eta matasak, olak, untzak, eta esan-eziñeko eraiki-tresnak, esaterako: mailluak, gorrikak, torlojuak, gabikoak, aitzurrak, eta endaiak. Jarraian, gelatxu bateko burnizko atea edegi, eta lerkaiak gordeten ebezan kutxa batzuk erakutsi eutsazan.

– Ona emen, zeuk urrean ezagutubako lerkaiak, atxak zatitzeko, etsaien babesak eta zubiak ondatzeko bear izatekotan. Orain biurtu gaitzen nire idaztegiara, zeozer geiago esan bear dautsut-eta.

Idaztegiko maiaren ondoan jesarrita, buruzagia onetaraxe mintzatu zan:

– Begira gazte, gure babes-lanak urri ta txarrak dira, eta burrukan ari diran gudariak bearreko babesak izan dagiezan, lan andi ta neketsua bete egin bear dogu. Ikusi dodan lez, zeu eraikigintza ondo ezagutzen dozuna zara, eta augaitik sarjentoko jarduna emongo dautsut, lan-talde baten burutzat. Emen, egun batzuk emongo dozuz lerkaien erabiltea ikasi dagizun arte, eta epe ori amaituta, lanari emongo dautsazu, ogei bat gizon zure agintzapean izango dozuzala. Zure illeko saria bosteun laurlekokoak izango da. Lana asi arte, Bilbao'n bizi izaten zarean ezkerro, zure etxean lo egingo dozu. Badakizu, beraz, jardun gogorreko aspaldia zure begira dozula, eta txit garrantzitsua dana, zure menpekoai erakutsiko dautsezu araubidetsuak izanez gaiñera, aalegin guztiaz jardun dagiela. Argi al-dago, Andoni...?

– Bai, Jauna. Ez dot uste nire jokaera dala-ta osterarik artuko dozunik.

– Orduan, agur, eta biarrarte. Barkatu, gazte, baiña oraiandiño zure izena ez dot ezagutzen.

– Egizabal'dar Andoni dot izena, baiña danok Otxandio ezizenaz ezagutzen nabe. Agur, Jauna, eta eskerrikasko neugan jarri dozun uste onagaitik.

Aginduta lez, Andoni lerkaien gaitasuna ta erabiltea ikasten asi zan, egunero etxera lo egiteko biurtzen zala, baiña egunak arin joiazan, eta andik astebete bi, Arredondo buruzagiak urrengo egunean mendira joan egin bear izango leukela esan eutsan. Eguna eldu zanean, Garbiñe'k eta berak alkar besarkatu eben, eta Matxalentu maite-maite musukatu ostein, joateko gertatu zan. Urteteko zorian,

– Noiz biurtuko zara, maite ori...?– itaundu eutsan emazteak–.

– Ez dakit, maitia, lan andia egin bear dogu-ta, baiña ziur zaitezke, aal dodanetan emen izango nozula, zeu ta gure alabatxua nire biotzean etenbarik deika entzungo zaituet-eta. Agur, Garbiñe, ondo dakizu nire gogoetako emakume bakarra zarea. Gau guztietan, oera orduko, emoiouzu gure alabatxuri, nire aldeko mosu bigun eta maitekorra... .

Negarrez geratu zan Garbiñe, eta atsekabe mingotsak jota, Andoni bere gudaltegiara joan zan, egokion lanari asiera emoteko.

Eldu zanean, ogei bat gizoneko taldea bere begira ikusi eban, alboan berebil andi bat ebela areik mendira eroateko. Arredondo buruzagia, idaztegitik urten zan, eta alkarri agur bero bat emon eutsoen. Urten aurretik, bere gizonak deitu eta eta banan-banan begiztatu ebazan. Adin ezbaridiñekoak ziran, ogei ta amar urtetik berrogei urteraiño-ko gizon saiatuak. Bataz beste langille onen itxurea atsegin yakon; jarraian, Andoni'k banan-banan bostekoa emon eutsen, eta arein aurrean jarrita, esaten asi yakon:

– Lagun maiteok, gure erriari bearrekoa yakon arazo bateri asiera laster emongo dautsagu eta izan be ez da makala izango. Guda-lekuan bizitzaren arriskuaz jarduten daben gure gudarietzako babesak eraiki bear ditugu, eta aalik ondoen areik zaintzeko, gure aalegiñik andienak arazo orretan jarriko dogu. Esan bear dautsuet baita be, orain arteko babesak urri ta erdipurdikoak dirala, eta beraz lan asko ta ona aurrean gure begira dogu. Ekintza andi orreri biotzez erantzuten ba'daustazue neugan benetako adiskide bat izango dozue, eta ez dot uste, beraz, zigorreko neurriak artzera beartuko nozuela. Badakit aderez beterik etorri zariela, eta ondo dakizue egin bear dozuen lana oso garrantzitsua dala. Jakin bear dozue guda zital onetan gure erriaren euspenea, neurri andi baten zuekan datzala. Ekiozue ba, gure aberriaren babes-lanari, eta barriro be badiñotsuet, erri onetako gudari askoren bizitza gaizkatu dagikezuela, eta zuekanako zor ori aberriak ez daustuela aztu egingo. Aurrera ba, jo ta ke, lagun maiteok...!

Itz oneik esanda, berebilbusera sartu, eta andik laster bidean zear ostendu ziran. Andoni'rentzat zeregin andiko aspaldia asi zan, egokiozan menpekoak zuzenduz, aginduz, eta bearreko gaiak eskatuz, mugonez eldu zeitezan. Aldi areitan, eta oitubako gudaroste barri bateri egokionez, antolabideak eta bearreko gizakiak peitzen ziran, eta au dala-ta, sarri askotan Andoni'k estu ta larri ikusten eban bere burua bearreko epean babes-lanak amaitzeko. Edozelan be, gizon argi ta ezagulari ona izanik, zelan edo alan, eskatzen eutsoena agindutako epean eskuratzen eban, eta aldiaren bidean, bere gaiñetiko agintariak, Andoni'ren lanera-

ko gaitasuna oarturik, luzaro barik barruti bateko arduradun edo ikuskari izendatu eban, teniente mailla emonez. Eragintza onek, geiago irabazteaz gaiñera, beste alde andi bat ekarri eutsan: etxeakoak sarriago ikusi aal izatea, Garbiñe'ren poz andirako. Barruti zabal bat orain egokitzen yakonez, jardunerako berebil bat eta onen erabiltzaillea, bere aukeran jarri ebezan, eta augaitik, gaba egiten zanean, etxera etorren bere emaztea besarkatzeko, eta Matxalentxu besoetan artzeko. Orduko, burruka txikiak kenduta, gudalekuetan bakea nonoai edatzen zan, frankotarren guda-gerkunak isillean aurrera joiazala.

VIÑALES KAPITANA

Lau anai-alaben arteko nagusia ta argiena zan José Pedro. Aita, Viñales brigadea, errixka batetik Valladolid'era gudari-morroitza egiteko etorri izan zan, eta au amaitzean, besterik ezean, gogotiko gudaritzat jarraitzea erabagi eban, eta aldiaren bidean, amarkariren (cabo) mailla lortu eban, eta urte batzuk geroago, sargento billakatu zan. Orduan, emakume maratz batekin ezkondu zan, eta apapuan ba'zan be (begiratutxuan), uri-inguruko auzo bateko etxe lander baten kokatu ziran. Gero, mutil bat, José Pedro, eta iru alaba izan ebezan. Izan be, estu ta larri bizi izaten ziran, eta sargentoren jardunak illeroko urria ekarten ebanez, besterik ezean, etxeakoandre gaixoak asti-unetan denda baterako galtz-lanetan ziarduan. Noizbait, Viñales sargentoa brigadaren mailaraiño eldu zan, eta sendiko bizimodua obatu arren be, estu ta larri izaten jarraitu eban.

Oso argia zan José Pedro'k, txikitandik bere buruari zin egin cutsan egunen baten zelan edo alan txirotasun aretatik urtengo litzakela, eta orretarako gerturik egoan aalegiñik andienak egiteko. Bere bizimodu estuagaitik, ase egoan erri-eskolako bere lagunak zirikadak jasan bear izatea, eta areik gaintzeko bere aalegiñak liburuetan jarri ebazan, eta izan be arrakasta andiz, ikastaro guztietan, ikaskideen arteko lenengo billakatu zalako. Erriko ikastola utzi ebanean, bere aitak denda-mutillaren jardun bat aurkitu eutsan, eta gogo txarrez bazan be, semeak nai-ta-ez onartu bear izan eban, baiña bizitzaren maillan gora egiteko gerturik, aal ebanetan bere kasa adiraltzen (ikasten) eban, eta polliki-polliki denda-mutiltzat egokion baiño ezagutza askozaz andiagoa jarritsi eban.

Bein baten, amazortzi bat urteko zanean, Viñales brigadeak semea-ri auxe esan eutsan:

– Aizu, Jose Pedro, nire ustez zure etorkiari buruz jardun dagigu-la on izango litzakigu. Begira, ez dot gura ezelan be, neu lako bizimo-du estua jasan dagizula. Gazte nintzanean besterik ezean guda-morroitza amaituta, gogoko gudarizat jarraitu neban, eta asko saiatu arren be, brigada maillaraiño soillik eldu nintzan, ortik gorako igoterik ez iza-nik...

Une batez isillik egon ostean, onetaraxe jarraitu eban,

– Zeuk, ostera, ekiñaren-ekiñez ni baiño ezaguera-mailla askozaz obea lortu dozu, eta orreri dagokion bizimodu on baten duin zara. Baiña zeuk merezi dozun ikasbidea ezin dagiketsut emon, orretarako beste dirurik ez dodalako. Edozelan be, arazo orreri aspalditik ardura andia emon dautsat, eta noizbait, neugan argi pixka bat egin da. Ara... lengo egunean, nire komandanteari arazo ori aipatu neutsanean, berak irautsi eustan zeuri laguntzeko bide bat baegoala, eta auxe alegia: gure guda-taldean gogoko gudarizat izena emon, eta andik urtebete batera- -edo eskeiñitako ikaste-sari bat jaritsita, guda-ikastegira sartu, eta orduan mugabako bidean gora joango zintzakez. Esan eustan baita be, ikaste-sari ori lortzeko, aalegin andiak egin bearke zendukezala bai gudari-araubidetan, bai ikasi bear dozuzan gaietan. Zer deritxazu asmo orreri, seme...?

– Oba ez, aita- erantzun eutsan José Pedro'k-, niketz aalegiñik andienak egingo neukez...

– Ederto seme, orretarako gerturik zagozan ezkeru, utzi egizu ara-zoa nire eskuetan, eta dana atonduko dautsut.

Esan eta egin. Andik egun batzutara Viñales brigadearen semea guda-talde aretan izena emonda, gogoko gudarizat jarduten asi zan. Asierea, gogorra egin yakon, baiña bide barri aretan ez egoan gazte arek egiteko gerturik ez zana, eta bere jarduna ondo ta araubidetsu egi-ten asi zan, agintarien ederrespena irabazten ebala. Umatarik jasandako bizimodu estu ta garratzak bere baitan gora egiteko mugabako andigu-ra itxartu izan eban, eta ez egoan egingo ez leuken aalegiñik bere gora-bidea lortzekotan. Anditasun-egarri augaitik, aldiaren bidean gizaki gogor eta barrubakoa billakatuko litzake.

Ez-arian ez-arian, bere aitak azaldutako asmoa garatzen asi zan, eta oiko gudari-betekizunaz gaiñera, aal ebanetan ikasteari buru-belarri emoten eutsan, orretarako ango idaztitegian egozan liburuak erabilten

zituala. Eta astialdiak emoteko urtetan zanean, etxera ikerraldi labur egin ondoren, gualtegiarra berrero be, liburuetan murgiltzeko. Illabeteak igaro ziran, eta bere sarreratik urte-burua bete zanean, gualtegiarra buruzagiak guda-akademiarako ikaste-sari bat iragarri eban leku aretako gudarientzat. Axe zan José Pedro Viñales'ek eta bere aitak aspalditik itxaroten eben aukerea, eta beste barik, orretarako bere izena emotea erabagi eben. Izan be, gudarostean gora egiteko abagune obaeziña zan. Guda-ikastolara joango litzaken ikaste-sariduna (bekaduna) dana duan izanez gaiñera, dalako saria lortu izateak entzute andia ekarriz gaiñera, bere jardunaldian laguntza andikoa izango litzakio.

Leiaketara bost lagun aurkeztu ziran, eta gudaritzari eta oiko jakin-tzari egokiozan azterketak igarorik, Viñales gazteak leikideen artean askozaz lenengo eritxia lortu eban, baita gualtegiarra koronelaren zoriona, erakutsitako ezagueraren mailla bikaiñagaitik. Egun aretan, Viñalestarren egoitza ezaiñean jai ederra ospatu zan, eta etxekoek José Pedro'rentzat aurreteritxirik onenak azaldu ebezan, aspalditik etxe aretan ezagutubako oturuntza ederrenaz etxeko mutillaren arrakastea ospatzen ebela.

Andik egun batzutara, bide-zorro koipetsu bat azarabaturato janzkiaz, burdinbidez guda-ikastolara abiatu zan, iñoizkorik zorion-tsuen oartzan zala, ludia berea zala oarpenaz,

Jo-mugara eldu zanean, buruzagi-gaiaren (kadeteren) janzkia emon eutsan, eta gero oetegian bere ikastaldi osoan erabiliko leuken oatzera. Andik laster, apaltzera joan zanean, bere ikaskideak ezagutzen asi zan, eta bide batez oartu zan ango janaria lengoa baiño askozaz gozoagoa zala. Ezpaibarik, urrezko aro baten sartzen zan.

Olan jazo zan, eta bere buruari etorki baten anditasun-ekintzakaz iragarten eutsala, lenengo ikastaroari asiera emon eutsan. Eta izan be, aspaldi zoriontsua asi yakon. Aalegin andiak egin bear izan ebazan araubidean batez be, baiña bere andikeri naiak dana garaitu eban. Ikaste-ari buruz lenengokotarikoa azaldu zan, eta irakasleen aldetik txit ede-rretsia zan. Txolarteetan, uri andi aretatik bere lagunakaz egurasten joian, eta euren artean anditasunez alkar kutsaten eben.

Egunak joan egunak etorri, guda-ertia menperatzen joian, eta lenengo ikastaroa ez-arian igarorik, eretxi onenakaz etxera biurtu zan oporraldi labur bat sendiarekin emoteko. Bere aitarekin autu luzeak iza-ten ebazan gudaritzari buruz, eta Viñales zaarra gero ta pozago oartzan zan. Sarri askotan, semea-ri auxe iñotsan:

– Ara, José Pedro, zeuri, alanbearrak edo patuak niri ukatu eustan

aukerea emon dautsu, eta benetan ustiatu bear dozu. Lagunen artean alde andi bat badozu, eta auxe alegia: guda-ikastolara ikaste-sari bataz sartu zareala, au da, aalegiñakaitik, eta zure lagunak aitaren semeak diralako, soillik. Orain arte lez jarraitu egizu, eta egunen baten goiko maillatara iritxiko zara.

Viñales gaztea biurtu zan guda-ikastolara, eta lengo arrakastaz jarraitu eban bigarren ikastaroa, eta urterik-urte buruzagi-gaiaren ikasketak iñongo oztopo barik amaitu ebazan. Azken ikasturtea bete zanean, ikastolako larraiñean jai andi bat egin zan, eta ikasketak arrakastaz amaitu ebezanez, ospakizun andi baten bidez, alferezen mailla artu eban. Ikurriñaren ondoan igarotean, iñoiz ez oarturiko zirrarapean, Viñales alferezak biotza taupada zorotan ebilkiola bularrean lekurik izango ez bai'leuan somatzen eban, eta gero, urrezko izarra artzean, zoriona jabetu eziñik, aurpegian beera malko bi isuri yakozan. Egun aztu-eziña billakatu zan. Gabean, oatzean etzanda gudarosteko gorengo maillak jaristen ebazala ames egin eban. Gaztediko ames zoroak...!

Andik egun gitxi batzutara, akademiko nagusiak dei egin, eta auxe esan eutsan:

– Alferez Viñales, ekiñaren-ekiñez aurtengo alferezen taldean ikastearen gorengo eritxia lortu dozu, eta augaitik merezi dozun sari-tzat, bost lekuko gudaletxe onein artean, nai dagizuna aukeratzeko eskeintzen dautsut.

Une batez, José Pedro'k bost uritako zerrendeari begiratu eutsan, eta bere etxetik urrena zana aukeraturik, onetaraxe erantzun eutsan:

– Nire koronela, zure baimenaz nik Gasteiz aukeratuko neuke.

– Ez bedi esan besterik. Etzi bertan ara joango zara, baiña orren aurretik igaro zaitez idaztegi onetatik, eta ango gualtegiko koronela-rentzat idazki bat emongo dautsut. Eta orain, Viñales alfereza, artu egizu nire agurrik ederretsiena.

– Eskerrik asko koronela, eta zure aginduetara.

Gero, koronelak eskua luzatu eutsan, eta Viñales alfereza idaztegitik ezitan urten zan. Egun bi geroago Gasteiz'era eldu zan, eta ango gualtegiko nagusia zan koronelari, Zaragoza'tik ekarritako idazkia eskuratu eutsan. Nagusiak eskutitza irakurri ebanean, auxe esan eutsan:

– Viñales alfereza. Guda-ikastolako nagusiak zeuri buruz diñoana guztiz goragarria da. Aldiaren bidean ikusiko dogu, gure eritxia orrenbeste ona ete dan.

Au esanik, nagusiak txilin bat jo, eta aurkeztu zan sargentoari,

– Aizu, sargento, eroan Viñales alfereza bere gelara.

– Zure aginduetara, nire koronela– esan eutsan alferez barriak, eta joan zan.

Arrezkero, alferez bateri egokion jarduna egiten asi zan Viñales gaztea, au da, bere taldeko kapitanari ta teniente biari arlo guztietan lagundu: araubideak zaindu, goizean gualgaiari iñarkunak erakutsi, arratsaldetan ikasi bear ebezan gaiak irakatsi, gualtegiko zaintza-lanak jagon, eta beste oiko jardunak egin. Oso zorrotza zan, araubideari zegokion arazoetan batez be, eta augaitik gudariek bildur andia eutsoen, eta maite izan-bearrean, izterbegiko ospea bereganatu eban. Urtebete bi igaro ziran, buruzagi gogorreko ospeak nonai jarraitzen eutsala, eta orduan, aukera bereizi batek bere gudari-bizitzara aldakuntza andia ekarri eutsan...

Bein baten, gualtegiko nagusiak deitu, eta auxe esan eutsan:

– Aizu, Viñales alfereza, guda-agintzatik agiri bat artu dogu buruzagi eginkor bat eskatzen dauskuela, zelataritza (espionaje) lanetan jardun dagian. Ikaste-sari baten bidez, gertakuntza Doitxland'eko erakunde bereizi baten egingo dau urtebete baten epean. Autortu bear dautsut, zelataritzaren arloan oso atzeratuak gareala, eta gure gudarostearentzat eskeintza ori oso garrantzitsua dala. Gualtegi onen nagusi guztiek orretarako egokientzat zure izena abo batez emon dabe, eta neuk be zu ontzat emonda, dei egin dautsut zu jakiñaren gaiñean ipinteko. Urtebete batez emengo izkuntza-ikastola baten doitzera ikasiko dozu, eta epe ori igarota, Berlin'en dagoan erakunde bereizi orretan beste urtebete batez bearreko ikastaldia artuta, ona biurtuko zara atzerrian ikasitakoa gudarostean garatzeko Jakin bear dozu, España'ko beste bost alfereza lagun izango dituzula. Beste gauza bat: Doitxland'era joateko garaian, gudarosteak teniente mailla emongu dautsu. Edozelan be, orreik eta beste gora-beerak idaztiño onetan azaltzen dira, eta nire ustez, zure erantzunaren aurretik, emen jarrita dagozan baldintza guztiak irakurri bear izango dozuz. Astebete baten buruan, erantzuna emongo daustazu, eta onen arauz, bearreko neurriak artuko doguz. Ordurarte, agur.

– Zure aginduetara, nire koronela, eta eskerrik asko berorrek niri egiñiko eskintzagaitik.

Poztasun bakanaren oarpenaz, Viñales alfereza bere gelara biurtu zan, eta ango bakean astiro ta arduratsu idaztiñoaren baldintzak irakurten asi zan. Orren aurretik baekian Viñales alferezak eskeintzea onartu-

ko leukela, bere izaeran ipiñitako altxor baliotsua zalako. Bein eta barririo irakurri eban idaztiñoa, eta oera joan orduko zorioneko oarpen esan-eziña bere gogoaz jabetu zan. Orain baekian aintzaren bidetik abiatzen zala...

Urrengo egunetan danatzaz aztuta, ames baten antzera bizi izan zan, eta gualtegi buruak jarritako astebetean igaro zanean, aregana aurkeztuta bere baietza emon eutsan zelataritza-lanetan jarduteko.

– Ederto, alfereza– erantzun eutsan nagusiak–, nire ustez bide ona aukeratu dozu, eta ez zara damutuko. Gaurdanik, gualtegian egiten dozuzan lan guztietatik baztertu izango zara, eta ez dozu besterik egingo ikastegi baten doitzera ikasi baiño, eta eskubide betea izango dozu gure liburutegiko aleak zure aukeran aztertzeke. Jakiña, ikastegiko eralguntzak gudarosteak ordainduko ditu. Beste azalpenik bear ete dozu...?

– Ez, nire koronela, eskerrrik asko.

– Agur ba, eta biotz on...!

Urrengo astean, Gasteiz'ko izkuntz-ikastegi on baten doitzera ikasten asi zan. Asiera baten zailla billakatu yakon izkuntz barria, baiña ekiñaren-ekiñez oztopoak banan-banan garaitu zituan, eta sei illabeteak ozta-ozta igarorik, berba egiteko gai izan zan. Gualtegiara biurtzean, liburutegian itxita, doitzera lanai buru-belarri emoten eutsen, eta oneik amaitzean, liburuetan guda-ertiak adiraltzen jarraitu eban.

Epetzat emondako urtebetean igaro zanean, polito menperatzen eban doitzera, eta itz emonda lez, teniente maillara eragiña izan zan, munduko gizonik zorionsuena oartzen zala. Andik egun batzutara, gualtegi buruak dei egin, eta auxe esan eutsan:

– Aizu, Viñales tenientea, eldu da garaia Doitzland'era joan zaitez zure zelataritzarako ikasketak asierea emoteko. Datorren astean Berlin'era burnibidez abiatuko zara, eta Gestapo'ren sail bereizi batek atondutako urtebete bateko ikastaroa asiko dozu. Uste dot, Viñales tenientea, españatar gudari on bateri dagokionez, zure jokaerea akatsbakoa izango dala, eta gure aberriko ikurra gorengo maillan ipiñiko dozula, ezta teniente Viñales...?

– Bai, nire koronela. Zin emoten dausat berorreri, niketz gudari on bateri dagokionez jokatuko dodala.

– Ederto, Viñales tenientea. Esan bear dautsut baita be, España'ko ordezkariaren bidez, zure saria illero jasoko dozula. Enparaduko argibideak eskutitz onetan irakurriko dozuz. Agur ba, eta biotz on...!

– Zure aginduetara, nire koronela.

Urten zanean, Viñales tenienteak ezin egikean siñistu bere zoriona. Gelara biurtu zanean, estalkiaren barruko argibideak irakurri zituan. Laburrak ziran, eta geienak bere jokabideari buruzkoak. Jarraian, kalera urten zan bidegiterako gaiak erosteko, munduko gizakirik zorionsuena oartzen zala.

Urrengo astean, burnibidez Frantzia'n zear Berlin'era abiatu zan. 1.935 urteko asiera zan, eta Hitler'ek zapaltzaille basatiak Doitzland jaurtzen eban burdiñezko eskuaz. 1.933 urteko Urtarrilla'n bere laterriko lendakaria biurtu izan zan, judutarren eta komunistarren aurkako eragintza ankerra erabilliz, aurkakoak yakozanak espetxeratuz eta baitu-landetara sartuz. Jakiña, alderdi politikuak debekatu ebazan, berea, Nazitar Alderdia izan ezik. Gestapo'k, erria zapaltzen eban, laterriko ertzaintza gorrotagarri orrek dana menperatuz.. Aipatu bearrekoa da, garai aretan doitztarren geiengoa Hitler-zalea agertu izan zala. Jaurlaritza arek alde on bat erriari ekarri eutsan: lan-eza gitxitu ebala, guda-gaien gintza indartsu bat sortuz, eta gudaroste sendo bat eratuz.

Era onetakoa zan Doitzland'eko laterria Viñales tenientea Berlin'era eldu zanean. Artez-arteaz taxi batez España'ko ordezkari zara joan zan, eta ango idazkari batek agiri bat eskuratu eutsan, eta onekin Gestapo'ren zelataritzaren ikastolara joanda, ango nagusiak txeratsu artu eban, eta jarraian, buruzagi bat deituta, aurkeztu zanean, alkarren aurkezpena egin eban onetaraxe:

– Viñales tenientea, ona emen ikastola onetan zure oartzaillea izango dan Helmut von Spitzberg tenientea.

Eskuak alkarri emon ostean, nagusiak onetaraxe jarraitu eban,

– Viñales tenientea, jakin bear dozu, Helmut von Spitzberg, ikastola onetako oarkari laguntzaillea izango dozula, eta edozertarako zure kamerad (adiskide). Zeozer nai edo bear izatekotan, ez dozu besterik eskatu baiño. Erri adiskidetsu batera etorri zara, eta España'ko gudari bereizitzat erabilliko zaitugu.

Gero, doixtar tenienteari mintzatuz,

– Entzun, Helmut von Spitzberg tenientea, españar buruzagi au benetako adiskidetzat erabilliko dozu, Ikastola-lekoreko arazo guztietan lagunduz. Zure betekizuna auxe izango da: gure aberriko ikusgarriak erakutsi, guztitariko argibideak emon, arazo guztietan lagundu, eta oroz gain gure nazitar izaerea ulertu dagiala, eta España'ra biurtu daitenean, benetako adiskidea izan dakigula. Argi ete dago...?

– Bai, nire koronela.

– Orain, erakutsi egiozu lo-gelea, gero ikastola osoa, onen erabiltea, ikas-gelak, inarkun-aretoa, jatokia ta erakunde onetako zerbitzuen orduak.

– Bai, nire oberkomandant.

Helmut'ek lo gela txukun batera zuzendu eban, eta itz oneikaz agurtu zan:

– Viñales Jauna, txirrioa artu, eta jantzi zaitezanean, ordubete baten barruan zure billa etorriko naz..

Olan egin eban etorbarriak, eta gero Helmut'ekin ikastola ikertu ondoren, uriburutik ostera bat egin eben, ango leku ikusgarri batzuk ikertuz, doixtarrak guztitariko azalpenak emotsazala.

* * * *

Betidanik, laterriek euren barrutian zelataritzea lege zorrotzakaz debekatu dabe, baiña atzerriko laterrietan bide guztiakaz ekintza ori erabilli dabe diruketa andiak txautuz eta makiña bat gizaki erabilliz. Laterriek amaibako argibideak bear dabez, euren gudarosteen gertakuntzarako, gudabideak atontzeko, atzeritarren guda-gaiak ezagutzeko ta bereak obatzeko. Erakunde garrantzitsu au atontzeko amaibako taldeak darabillez, guztitariko bide maltzurak ustiatuz, esaterako, gizakien diruzaletasuna, abertzaletasuna, emakumeen erakarpena, mendekuaren irrika, edo ezkuturen bat agirian ipinteko zemaizta.

Ondo garatutako zelataritzak japonarrak lagundu eutsen (1.904-1.905) errusitarrak garaitzeko. Europa'ko lenengo gudean, doixtarrek amaibako egilleakaz Prantzia bete eben, merkatari-ordezkarriak, irakasleak, lurginak, neskameak eta beste lanbideak eskeiñiz. Oneitariko ospetsuena, Paris'en dantzaritzat ziarduan Mata Hari izan zan.

Laterri askok guda orretan erdipurdiko zelataritza-erakundea ustiatu eben, baiña guda aretan ikasitakoak eta teknikaren aurrerapenak (alkarbideak eta egazkiñak batez be) zelataritzaren arloan garapen andiak ekarri ebezan. Eta zapaltzailleek eta beste lur-lapurrek euren laterriko aalmena lortu ebenean, erakunde indartsu eta bildurgarriak sortu ebezan, esaterako Gestapoa.

Bigarren guda orokorrean, zelataritzeak bere gaillurra lortu eban, argibide benetakoak eta ariñak eskatzen zirala. Guda orretako burruka andi batzuk zelataritzaren argibideek sortu ebezan. Englistarrek, euren laterrian ziarduen doixtar zelatari geienak atxillotu, eta euren aldeko egilleak biurtu ebezan., eta doixtarrek erabilen araudi ezkutuaz jabeturik, etsaiaren argibide garrantzitsu asko estalgetu eben. 1.941'ko Pearl Harbour aurkako japonarren eraso, onein zelataritzaren arrakastea-gaitik gertatu zan, eta oster, amerikatarrek txulut egin eben oarkabez artu izan ziralako. Uts onek ipar-amerikarrak iratzarri ebazan, eta guda amaitu zanean, CIA erakunde aalstu eta eginkorra sortu eben

* * * *

Viñales aldietan, Gestapo erakundea izugarri ta errukibakoa zan, ekintza eta leku guztietan sartu izan zala. Bere kabuz, Europa'ko judutarrak atxillotu, eta milloika erailak izan ziran, Hitler'ek erriaren etsaitzat salatu izan zitualako. Ez zan lekurik erakunde basati orrek erroak sartu ez legikeanik, eta izuaren-izuz, agindutakoari aurka egiteko erria ez zan azartzen. Erakunde orren agintzapean salataritza-ikastola bat Berlin'en egoan, eta orduko teknika ta bide barriak ustiatuz, zelatari eginkorrek eratzen ebazan. Bere irakaspena oso eginkorra zan, zelan edo alan egille onak sortzeko bideai larregi begiratu barik. Erailtea ta alamera zillegiak ziran nai izandako ondoreak lortzekotan; izugarrikeri andienak oztasunik andienaz erabiltea irakasten zan ikastola aretan.

Viñales'ek egilleak sortzen ikasi eban, artutako ezaguerari onurarik andiena zelan atara, benetako argibideak baliobakotik bereiztu, erakundeari alperriko lanaz jareitzeko. Zelan sortu eta erabilli ezkutuko mezuen arauak, eta zelan estalgetu etsaiarenak. Dirua bearreko zanean, ez ibilteko aiko-maikotan, eta egille bat ezbaiko edo etsai-egillea biurtu zala suzmorik izatean, beste barik garbitu.

Gai oneik eta beste asko ikasi ebazan Viñales tenienteak, eta egunen bidean, lelo bardiñak ainbeste entzuteaz, bere barrua gogortu zan, eta ez-arian ez-arian, nazitarren eritxi ta usteak bereganatu zituan. Helmut bere lagun miña biurturik, ikaste-osteko egurastuetan, bere lagunzaille zintzoa izanez gaiñera, asteburuetako txolarteetan bere erakusle utseziña zan. Doixland'eko leku zoragarrienak eta ertilanak bikañenak erakusten eutsazan, eta gero, erriko jaki eta edari aipatuenak alkarrekin

gozatzen ebezan. Helmut nazitar kulturekoa zan, eta etenbarik Viñales'gan nazitar aberriko anditasuna ereintzen eban.

– Aizu José Pedro– esan eroian–, mundu au erri kulturdunek eta enda garbikoek erabili bear dabe; augaitik, geuk doixtarrek, leku bereizia artu bear dogu erabilte orretan. Erri ezaiñek, ostera, judutarra lez, munduko ikuspegitik ezabatu bear izango leukie.

– Baiña Helmut - iñotsan Viñales'ek bere laguna zirikatzeke asmo-tan - nigaz bat etorri bear dozu, judutar asko jakintsu ta ertilari bikaiñak izanik, leku askotan eredugarriak billakatu dirala.

Helmut'ek itxura asarrekoiaz erantzun oi eutsan,

– Ez nigana etorri guzurrekin, adiskide ori. Zeuk diñozunak eskue-tako atzamarrakaz zenbatu daitekez, eta ostera, bizi bear ez diranak milloika aurkituko zendukez. Begira, lagun, judutarrek gure aberriaren kalte guztien errudunak dira, eta lendik, zuok españarrek 1.492 urtean egin zenduen lez, geuk kanpora igorri izan ba'genduz, gure egoera askozaz oba izango litzake. Orain baiña, berandu bada be, gure erria neurriak artzen ari da kaltebakoak biurtu dakiguzan.

– Zelan egiten dozue ori...?

– Kalterik egin ez dagikien tokietan biltzen ditugu.

Bein baten, burnibide bateko geltokian egozala, gestapo'ko SS gudari batzuk judutar talde bat burdinbideko gurdi batzuetara itxura zemaikorraz eta biraoka sartzen eben. Geienak agure-atsoak, gizonen bat, emakumeak eta neska-mutikoak ziran. Batzuk erostaka, baiña geienak begikunea urrutira galduta, etsiak jotakoak egiten daben antzera. Benetan esateko, ikuskai zirrargarria zan.

– Or dozu pizti-talde ori kalterik egingo ez dauan toki batera bialtzen dogula.

Gestapo'ko ikastolea ezagutu aurretik olakorik ikusi izan ba'leu, Viñales asarratuko litzakean, baiña orain basakeri areik begi parkagarriaz begiztatzen ebazan.

Eta egunak joan egunak etorri, eskola aretako ikastaroa amaitu zan, eta egun gogoangarri baten, Viñales'ek leku aretako agiri ospetsua eritxi onenakaz artu eban. Urrengo egunean, burdinbideko geltokian berak eta Helmut'ek alkarri basarkada anaikorra emonda, etxerako bidegitea asi eban. Paris'en geldi-aldi bat eginda, urrengo egunean Gasteiz'era eldu zan. 1.936 urteko Urtarrilla'ren egun otz eta euritsu zan...

Astirik galtzeke, lengo gudaltegira joan zan, eta bere biurpena iragarrita, koronelak bereala artu eban; Viñales tenienteak Berlin'go ikastolan izandako gora-beerak edestu eutsazanean, gudaltegiburuak, auxe esan eutsan:

– Viñales tenientea, zure agiriaren eritxia oso ona da, eta aspaldiz darabildan asmo bat azalduko dautsut: ondo dakizunez, España'n gauzak naastu dira, amaika gataska etenbarik sortzen dirala eskubitarren eta gorrien artean, eta nik ez dakit ondorenak noraiño joango diran. Goiko agintzak esonatu daust, gudaltegi onetan ezkutuko zelataritzatalde bat gertatzea, emengo gudari txarrak eta etoiak argitara atarateko. Onezaz gaiñera, talde orren betekizuna, uri onetako leku agirietan diarduen gorrien talde iskillotuen aurka ekitea izango da. Zure talde ezkutu orrek, arremon estuak izango ditu erri onetako “Falanje”ren agintarriekin, eta zuek oneik zeatz-zeatz jakitun ipiñi ostean, ordaiñez arein argibideak artuko dozue. Jakin bear dozu, zure egitekoa beiñena dala, eta arrakastaz jarduten ba'dozu gora andia egingo dozula gudaritzamaillan. Onartzen dozu nire asmoa...?

– Bai nire koronela - ez titan erantzun eutsan Viñales'ek -, eta benetan nire eskerrik beroenak damotsudaz, eskeintza orrek berorren niganako ederrespena adierazoten daualako.

– Orduan, artu amabost eguneko oporraldia, eta jarraian, asi zaitezke aipatutako talde ori atontzen.

– Bai, nire koronela.

– Eta ez aztu zeure argibideak niri emotea..

– Zure aginduetara, nire koronela.

Viñales andik urtetean poz baten egoan; ezpaibarik, bere aalegiñek bide onetatik eroien, eta luzaro barik, betidanik izandako gurariak beteko leukiez, au da, gudaritzarako mail gorenetaraiño igotea.

Eskeiñitako amabost eguneko oporrak Valladolid'en gurasoekin emon ebazan. Semearen igokunde dizdiratsua egiztatzean, bere gurasoen atsegiña mugabakoa izan zan, eta aitak batez be, berak jaritsi ezin izan ebazan amesak semeagan jarri zituan. Sarritan auxe iñotsan:

– Ai, neuk izan ba'neuz zeure aukerak, noraiño iritxiko ez nintzakean...! Jo ta ke, seme; nagusiekiko esaneko ta apala izan, beekoekiko, ostera, zorrotz eta gogor. Gudaritzan asko jasan dauan batek, badiñotsu ori...

Laster amaitu ziran Viñales gaztearen oporrak, eta adorez beterik bere gudaltegira biurtu zan. Eldu ta bereala, gudallegiaren buruak agindutakoa aztertzen asi zan, eta urrats sendoakaz bere talde ezkutuen asmoak garatzen asi zan. Orduko, Viñales tenientea gazte txairo ta ederra zan, begi baltzaran sarkorrek adimen argia adierazoten ebela. Eta etenbarrik, bere taldeak amarratz edo ologarro baten antzera, erroak zabaltzen zituan, egunen baten arerioen opari ugariak ekarriko leuskiozala...

1.936 urtean Otsailla'n ospatu ziran auteskundeetan errepublikatarak geiengoa lortu eben, eta onek eskubitarrak benetan asarratu ebanzan. Onen ondorioz, gataska ugari sortu ziran alderdi bien artean, erailketa batzuk gertaturik. Egunen bidean arazoak okertu ziran, eta gudalburuek gertaturiko matxinadea Garagarrilla'ren 18'an asi zan, anai-arteko guda basatiari asiera emonez.

Ego Euzkadi'ko Naparra ta Araba asieratik asaldatuaren eskuetan geratu ziran. Gipuzkoa ta Bizkaia, ordea, erriaren aalmenean. Mola zan Iruña'ko gudalburu nagusia, eta Naparra-Araba'tik gudataldeak igorri zituan beste erki biak menperatzeko. Len ikusi dan lez, asaldatuak Bizkai'ko muga gelditu izan ziran.

Gudea asi zanetik, Viñales'ek bere talde ezkutuekin lanari burubelarri emon eutsan. Orduko, argibide asko bildu izan eban, eta banan-banan salatutako opariak espetxeratu izan ziran, batzuk asaldatuaren alde lan egitera beartuak, eta beste asko beste barik iskillotuak. Onezaz gain, Murgia errian zelatari batzuk gertatu ebazan, eta asiera baten mugak ondo bereiztuak ez izanik, bere egilleek menditar errubakoak ziralakoa, batetik bestera ebiltzan eta beste aldeko mendigoizaleak atxillotuta Gaztez'era ekarri ebazan, eta etsaitzat su-iskillotu izan ziran. Ara, Elgezabal, Korta, Estabillo eta beste batzuk. Eta 1.936 urtea esandako gora-beera oneitan amaitu zan, Viñales'ek bere guda-ekintza ezkutuai emotsela. Gabon areitan, eusko gudariak Legutiano erriaz jabetzeko eraso andi bat egin eben, baiña uts eginik, andik egun batzutarera erasoari eten egin bear izan eutsoen.

Euzkadi'ko guda-oïnean, gauzak bare samar jarraitzen eben, gudariak bearreko babesak atonduz, eta etsaiek arein aurkako eraso baten gertu-lanak. Bein baten, Gasteiz'ko gudalburuak, Viñales'eri dei egin eta auxe esan eutsan:

– Arazo bat aurrera eroateko, zure koronelak egokientzat zaituala esan daust, eta augaitik dei egiten zaitut. Ara... Iruña'n dagoan Mola gudalburuak, buruzagi egoki bat salataritzan jarduteko eskatu dausku, eta zeu orretarako bereizia zarean ezker, Iruña'ra joan zaitezala agin-

tzen dausut. Berebil bat begira dozu, or beean, eta beste barik ara eroango zaitu. Biotz on Viñales tenientea...!

– Eskerrik asko nire gudalburua, dei ori niretzat dedugarria da.

– Iruña'ra irixtean teniente Viñales– gudalburuak jarraitu eban–, Mola gudalburuaren aintzindaritzan (Estado Mayor) aurkeztuko zara, eta an aginduko dausue zure egitekoa. Argi dago...?

– Bai, nire gudalburua– erantzun eutsan, bere baitan ausnartuz, beragandik zer nai izango leuken Mola gudalburu ospetsuak–.

Iru ordu geroago, Viñales Mola'ren aintzindaritzan aurkeztu zan, eta bere nortasuna azalduta, koronela zan nagusiaren aurrean egoan. Buruzagi onek, begi sarkorrekaz begiztatu eban, eta etorbarriaren itxureak nasaituta.

– Orduan zeu zara Gasteiz'ko gudalburuak esondatzen dauskuan egille bereizia...?– itaundu eutsan–.

– Bai, nire koronela.

– Edestu egistazuz zure gorabeerak– eskatu eutsan aintzindaritzaren nagusiak, etorbarriaren gudaritzaren agiria irakurri ostean–.

Viñales'ek bere gudari-bizitza koronelari edesten asi yakon, eta amaitzean, onek,

- Orduan, Gestapo'ren zelataritza-ikastola baten jardun dozu...?

- Bai, nire koronela

- Esan, gai izango zintzakez zelataritzari dagokion ekintza garrantzitsu bat garatzeko...?

– Barkatu, nire koronela, baiña erantzun aurretik, zuek asmatutako ekintza orren zertzeladak ezagutu bear izango neukez.

Koronelak une batez, isillik iraun eban, eta gero,

– Ara, Viñales tenientea, arazoa oso ardurazkoa danez, zeure ta neure barruan geratuko da, ezelan be beste iñori aipatu barik. Zure gudari-zifra emoten daustazu...?

– Bai, nire koronela.

– Ara ba...– mintzo astirotsuz jarraitu eban besteak–, Mola gudalburuak aintzindaritza oneri Bizkaia aurkako eraso bat atontzeko agindu dausto. Aren asmoa, erasoak ogei edo geienez ogei ta amar egun iraun bear izango dau. Baiña gure asmoak ondoen billakatu daitezzen, oso bearrekoa da etsaiaren guda-babesen egoera ezagutzea, eta orregaitik

dei egin dautsugu orretarako egokiena zarealakoan. Gure ezaguerara eldu da, etsaiak arin baten bearreko babesak egiten diarduala, arlo onen atzerapenari aurre egiteko. Zure eginkizuna, beraz, zelatarien sare egin-kor bat sortzea izango litzake, eta artutako gora-beera guztiak aintzindaritzaren oneri aalik zeaten eta ariñen igortea. Ez dautsugu garbitasunik eskatuko erabilliko dozun ekinbide orretan. Aske zara zure aukeran jarduteko. Eskatzen dautsuguna, oroz gaiñetik, zeaztasun eta arintasuna dira, eta argi esaten dautsut, ez ibilli aiko-maikotan inor garbitzeko orduan. Argi dago...?

– Bai nire koronela.

Andik laster, eguberdia zan-eta, koronelak Viñales tenienteari Iruñako jatetxe ospetsu batera dei egin eutsan, eta bazkaldu bitartean, gudako arazoaz mintzatu ziran. Kafea, txola., eta txokorra gozatu ostean, agur egiteko ordua etorri zan, eta koronelak Viñales'eri auxe esan eutsan:

– Ara, tenientea, jakin bear dozu, gudaldiak oso egokiak dirala benetako gudari onak gora egin dagien, eta zeuk patu edo alabearra-gaitik oso aldekoak dituzu baldintzok. Agur, eta urrengorarte, Viñales tenientea.

– Agur nire koronela, eta eskerrik asko..

Viñales tenientea Gasteiz'era ez-titan biurtu zan. Ezpaibarik aduak bere alde jokatzan eban, eta asmo barria aurrera eroateko, gogoeta sakon batean murgildu zan.

Gasteiz'ko gudaltegiara eldu ta urrengo egunean, bere asmoaren garapenari emon eutsan, eta guda-buruaren baimenaz, egille talde batekin Legutiano'ra aldatu zan, erri onetan bere lan-lekua egiteko. Oso garrantzitsua zan toki on bat aukeratzea, eta on-gaitz guztiak gogoan erabilli ondoren, aipatutako erria bere asmoetarako egokientzat aukeratu eban. Izan be, Bizkaia ta Gipuzkoa batzen ziran ertzean egoan, eta augaitik, Bizkai'ko, Araba'ko ta Gipuzkoa'ko mugak eskura zituan. Aukeraturiko egilleak muga oneitako errietakoak ziran, eta beraz, etsaien guda-oiñak zearkatzeko gai ziran, eta baituak izango ba'litza-kez, angoak izanik, etxeko lanetan ziarduen atxakia ipiñi legikie.

Eta Viñales Iruña'ra gero ta argibide garrantzitsuagoak bialtzen asi zan, eta bein baten, Mola guda-buruak bere aintzindaritzaren (Estado Mayor) aolkuz, kapitan-maillara igon eban.

ANDONI'REN EZBEARRA

Bein baten, Andoni'ren nagusiak dei egin, eta auxe esan eutsan:

– Begira. Otxandio, gure aintzindaritzatik (Estado Mayor) mezu bat etorri yaku begirale bat eskatuz, eta gure eritxiz, jardun orretarako onena zu izango zintzakez. Zer deritxazu orreri...?

– Ez dakit ba– burua txorkatuz erantzun eutsan Andoni'k– egia esateko oraingo jarduna ondo menperatzen dot, eta beste barri bat artzea, ez dakit ba...

– Begira, Otxandio, neuk be ez dakit zer izango dan, baiña ondo ezagutzen zaitudanez, ziur naz ondo jardungo dozula. Esan bear dautsut baita be, aintzindaritzara kapitan maillaz bialduko zaitugula, eta ori zuretzat aldeak ekarriko dautsuz. Tamal andia dot gugandik joan zaitez, baiña guda irabaztea lenengoa da, eta jardun barri ori artu dagizula ontzat daukat. Badirudi aintzindaritzakoek iradu andia dabela, lenbailen begirale ori bialtzeko esan dauskue-ta.

– Zuen eritxia ara joan naitela ba'da, beste barik joango naz.

– Ez aztu, gure jantzitegian kapitánaren janzki barri bat artzea.

Jarraian, Andoni'ren nagusia aintzindaritzaren elbidea idatzi eutsan, baita beronen komandantearen izena be. Eta gero, besarkada estu bat azkar agurtu eben.

Biaramoan, Euzkadi'ko Gudarostearen aintzindaritzara joan zan Andoni, eta bere etorrera azalduta, ango nagusiak artu eban, eta alkarren aurkezpena eginda, onek auxe esan eutsan:

– Begira, Otxandio kapitana, zure izena emon dauskue betekizun bereizi batentzat. Ara...gure guda-babesak aurrerapenak egin arren be, ez dira bear baizen ziurrak, eta arazo onek aspaldi onetan kezka biziak eragin dauzkuz. Gure eritxiz, arlo onetan nagusia dan Goikoetxea komandanteak, ez dautso benetako ardura emoten bere egitekoari, eta au gure artean geratu daitela, suzmo bat baiño ez dalako, eta askotan zailla da edonoren gaitasun eta zintzotasuna neurtzea. Augaitik ba, bere jarduna ondo dakian babes-lanetan jardundako buruzagi bat eskatu dogu, eta onen ondorioz zu bialdu gaitue.

Isildu zan buruzagia zigarrotxu bat piztuteko, eta gero,

– Zure betekizuna auxe izango da, beraz: Bizkai'ko babes-lanak egu-nero ikertuko dozuz, eta gau guztietan ona etorrita, emen doguzan marrazkietan babes-lanen egoerea zeatz azalduko dauskuzu. Aalmen guztiak emongo dautsuguz edonoren gaiñetik agintzeko. Arazo bat oso garrantzitsua dogu, eta auxe izan be: ondo dakizunez, "Burdinezko Gerria" esaten dautson babes-lanak, Goikoetxea'ren agintza bereziaren pean dagoz, eta oso beiñena da guretzat lan orreïn garapena ezagutzea. Edozelan be, aipatutako Jaun orreri, arazo orren erantzukizun osoa dagokionez, eta adiskitde aaltsuen gerizpean dagoanez, ez genduke ezelan be, bera eta gure arteko iñongo gataskarik sortu daiten. Augaitik ba, arazoa zuurtasunik andienaz eroan bear izango dozu. Argi dago zure egitekoa...?

– Bai, komandante Jauna, dana argi dago, eta zeuk agindutakoari jarraituko dautsat

– Orduan, biartik asi zaitkeez. Goizean etorri zaitzanean, berebil bat aren gidariarekin gerturik izango dozu, eta erabagia dan ezkerro, arratsaldeko azken orduan emen zure begira izango gara.

Andoni etxera biurtu zan, bere buruari itauntzen eutsala zelan billakatuko litzakion egitekoa. Eldu ta bereala, belanuen gaiñean artutako Matxalentxu maitasun gaiñezka kulunkatzen ziarduala, emazteari lanaren eskeintza barria edestu eutsan, eta bidebatez bere itxaropenak eta arrenkurak azaldu eutsazan.

– Andoni– esan eutsan Garbiñe'k–, poztuteko da benetan, orain kapitana zarealako, eta gure ekarriak andiangoak izango dira, baita zure erantzukizuna andiangoa be, eta gudea galduko ba'gendu, txarto ikusiko zenduke zure burua.

– Ez gogora ekarri gauza orreik, olan uste izateko ziorik ez doguta. Gauza bat ziurra da, eta auxe alegia: gau guztietan etxean izango nozula, eta ori ez da auntzaren gaberiko estula...

Eta jagita, bere emaztea maitasunez gaiñezka besarkatu eban, eta lengo gaia saiestuz, itaundu eutsan,

– Aizu, Garbiñe, zelan diardu gure alabatxuak...?

– Alaia ta on-ona da. Badirudi laster ibilten asiko dala. Ba'dakizu gauza bat...?

Nik ez dakit nire amatasunaren ondorea izango ete dan, baiña oso barrekoia da, eta irribarre egiten dauanean, bere aurpegiñoa esan-eziñeko zoramenaz argitzen da.

– Neronek be igarri dautsat ori, eta irribarre egiten dauanean, baderitxat gure alabaxua maitagarri bat biurtzen dala.

Une aretan bertan, Matxalentxu'ren ezpanak irribarre bat az argitu ziran, eta aren lillurak zoratuta, Andoni'k umearen aurpegiñoa musukaz estali eban, auxe iñoala:

– Gure aingerutxu laztana..!

Seiña oera joan zanean, senar-emazteak gudeak ekarritako nekeak eta jangaien urritasunari buruz itz egin eben. Edozelan be, senarra egunoro etxean izateak poztasun andia emotsan Garbiñe'ri.

Biaramonean, Andoni aintzindaritzara joan, eta an egitekoa zeatz azaldu eutsoen, eta ikertu bearreko barrutiaren marrazki argi bat emon eutsoen, leku aretako babesak marrazkira aldatzeko aginduaz, eta babesen egoera zeatz azaldu egian txosten baten. Agindutakoak argi ta garbi bete ebazan Andonik, eta illuntzean aitzindaritzaren idaztegian egoan. Lengo eguneko buruzagiak abetaldu eban, eta artutako marrazkiak eta txostena biok alkarrekin aztertu ebezan. Buruzagiak Andoni'ren azalpenak entzunda gero, auxe esan eutsan:

– Esan bear dautsut, Otxandio kapitana, idazkaritza onek orain arte artu dituan argibederik onena zeurea izan dala, eta erakunde onek bearreko neurriak artuko ditu, zeuk ikertutako babes-lanak osotuak izan daitezzen. Biar, zure egitekoa auxe ta auxe izango da.

Urrengo egunean, Andoni'k agindutakoa egin eban, eta aurregunean lez, illuntze-garaietan idaztegian zan, ikusitakoaren txostena ango buruzagiari emoteko. Era onetan, Andoni'k lan neketsu bateri emon eutsan aintzindaritzarentzat txosten-bilduma aberats eta osoa jaristen ebal. Izan be, gau guztietan etxera biurtzen zanean, bere emaztearen besarkadea ta alabaxuaren laztanak artzean, nekeak ezabatzen yakozan, ludiko gizonik zoriontsuena oartzan zala.

Bein baten, nagusiak auxe esan eutsan:

– Begira, Otxandio kapitana, biar lan bereizi ta arduratsua zugandik bear dogu, eta auxe alegia: Urruzti ta Gaztelumendi izeneko menditontorretan, burdiñezko gerria eraikiten ari dira, eta au gureztat beñena dan ezkeru, zure argibideak bear ditugu. Jakin bear dozu, eta au ez aztu, Goikoetxea'k, guda-asmalari edo babesen injiñeruen kapitanak, lan oneik bere ardurapean dituala. Ez dogu nai, ezelan be ez, aren babes-lanak aztertzen diardugun suzmoa artu dagiala. Orregaitik ba, aalik arduratsuen lan egin dagizula gura dogu. Eta beraz, zure argibideak zuurki egin dagizuzala eskatzen dautsugu. Argi dago, Otxandio kapitana...?

– Bai, nire komandantea. Zure gurarien arauz egigo dot txosten ori.

Txorierri'ko Lezama errira joan zan Andoni, eta erri onetan berebilletik jatsita, iparrerantz egozan Urruzti ta Gaztelumendi'ko ganetxuetara igon zan. Babes-lanetara eldu zanean, aren ikerpenaren zergaitia eskatu eutsan begirari batek, eta berak, etsaiak non jarri egikeazan kañoiak ikustera etorri izan zala erantzun eutsan, eta begirariak beste barik aurrera joaten laga eutsan.. Iru ordubete bear izan ebazan Andoni'k babes-lan arein egoerea zeazteko. Ezin egikeazan ezetariko marrazkiak erabilli, ezta idazketarik egin, beragan begi asko untzaturik egozalako, baiña alako lanetan oitua zan ezkeru, ikusitako zeatz guztiak buruan gordeta, Lezama'ra jatsi zanean, jatetxe baten maian jesarrita, bazkaldu bitartean, ikusitakoaren gora-beera garrantzitsuenak marrazki batera aldatu zituan. Ordubete batzuk bear izan ebazan, bere lana aalik ondoen egiteko, eta oi lez, illuntzean bere idaztegian egoan. Marrazkia zabaldu ebanean, eta egokiozan zertzeladak bere nagusiari emotsazala, onek asarre baten esan eban,

– Siñisteziña da babes-lan onein atzerapena. Uste izaten genduan, leku areitan gauzak polito joiazala, baiña benetan, burdiñezko gerria baiño, kokoloak atzipetzeko sagu-arte bat baiño ez da. Izan be, Goikoetxea Jauna kuku egin bear izango dogu, baiña olan eta guzti be, ez dot uste gauza andirik egingo dogunik, dalako buruzagiak adiskide indartsuak bere alde ditualako.

Andik egun batzutara bere oiko ikerpenaren argibideak azaldu ezkeru, aintzidaritzaren nagusiak dei egin, eta auxe esan eutsan:

– Aizu, Otxandio kapitana. Aspalditik ez dogu Legutiano'ko guda-lekutik iñongo argibiderik artu, eta on izango litzakigu, biar bertan ikeraldi bat egin dagizun gure babesen egoerea zeatz ezagutzeko.

– Biarko gaba barik, Yoseba nire menpekoaren laguntzaz ango gora-beerak izango dozuz.

Ona elduta, esan bearrekoa da, bere lan astunai arintasuna emotearren, bere nagusiak laguntzaille bat izendatu izan eutsala. Dalako mutil au zentzuduna zan, eta berari esker, Andoni'ri oraingo lana askozaz erosoagoa biurtu izan yakon. Laguntzaille au len arrobi baten lan egingakoa zan, eta lerkaien erabiltea ondo ezagutzen ebana.

Urrengo goizean, Andoni berebillean Yoseba'rekin ara joan zan, eta eldu baiño ez, lanari ekin eutsan. Bazkaldu ostean, bere txostena burutu izan eban oiko arduraz eta zeaztasunaz, eta illuntze-aurretik, Bilbao'ra biurtzeko zorian zala, leku aretako gudataldearen nagusiak, dei egin eutsan. Biok lendik alkar ezagutzen eben, eta agintza-lekura eldu zanean,

– Aizu, Otxandio– esan eutsan besteak–, ona eratorri zaitut, arazo larri baten argibidea zeuri emoteko. Begira, or aurrean dogun etsaiaren metraillagailu-kabi batek gorriak jasan-erazoten daukuz. Ara... dagoan lekutik, erabilten dogun bide-zati bat menperatzen dau, eta gure orniketariak, lorketak gabean egiteko beartuak dira, gaiñera, berebilleen argiak amatauta. Onen ondorioz gure orniketak atzeratuz gaiñera, bide-etzbear ugariak izaten dabez, euria dancan batez be.

Une batez isildu zan guda-taldearen burua, eta gero, astiro, bestea- ren erantzunari bildur bai'leutsan-edo, mintzo astirotsuz,

– Zuek lerkaien erabiltea ondo dakizuenok, ez zintzakeze azartuko gabeko illundia ustiatuz, dalako metraillagailu-kabia ezerezteko...?

Onen ostean, isillune bat sortu zan. Izan be, Andoni ez zan beartua guda-taldeko nagusiari men egiteko, beragan aalmenik ez ebalako. Bestaldetik, Andoni ez zan atzera egiten dan orreitarikoa, eta onezaz gaiñera, gudataldeburu aren zioak kabia ezerezteko ulertzen ebazan.

– Erantzun aurretik, adiskide ori, biderik ziurrena ez litzake kabi ori kañoiakadaz ondatzea...?

– Bai, benetan. Lengo egunean orixe eskatu genduan, baiña gure kañoiak beste leku baterako bear andiagokoak dirala, erantzun eusten.

Andoni une batez isillean egon zan, eta gero,

– Begira, adiskide– gudataldeko buruari esan eutsan– nire baietza emon aurretik, arazo ori gogoan erabilli bear dot.

Au esanik, Yoseba'ri dei egin, eta auxe esan eutsan:

– Gerturik al-zagoz nirekin eta beste lagun batekin gau onetan, an aurrean dagoan etsaiaren metraillagailu-kabi bat lerkaiakaz ondatzeko...?

– Bai Jauna.

– Orduan zoaz gure zapadoreakana eta nire izenaz eskatu gogoko lagun bat kabi ori ler egiteko,

Joan zan Yoseba, eta ordubete baten ostean, lagun batekin biurtu zan.

– Aizu, lagun– itaundu eutsan Andoni'k– zein da zure izena...?

– Berriatua'tar Yokin.

– Ezagutzen dozu lerkaien erabiltea...?

– Bai, Jauna, Markiña'ko arnabar-arrobietan lerkaiakaria izan naz.

– Gurekin kabi bat ezerezteko gerturik zagoz...?

– Bai, nire kapitana.

Jarraian, Andoni'k Yoseba'ri ta Yokiñ'eri egitekoaren zertzelada guztiak emon eutsezan. Orduko, gau betea zan, eta Andoni bere bi lagun aurrean doala kabirantz ibilten asi zan. Urreratu ziranean, Andoni'k narraz ibiltea agindu eutsen. Gau illuna zan, eta egitekoa auxe zan: kabitik bost metrora, Andoni'ren agindua entzunik, bakoitzak bere kilo bitako lerkai-lotukia aren barrura jaurti, eta arrapalada baten igesari emongo leuskioe...

Auxe zan Andoni'ren asmoa, baiña lerkaiak jaurtiteko agindua emon-agĩñean zala, ustekabez argi bizi batek itsutu zituan, eta mintzo indartsu batek agindu eutsen,

– Etzan zaitze, ala bestelan garbituko zaituegu.

Besterik ezean, irurok etzanda jarri ziran. Sargento bat urreratu yaken, eta auxe esan eutsen:

– Zuen begira gengozan, ergeltzar orreik. Onantzako arrua zearkatzen zendueta ikusi zaituegu, eta sare-artera sartu zaitezen itxaron dogu.

Eta barre-santzo zaratatsua jaurtirik, iguratzen yakozen lau guda-riai,

– Goazen lagunok– esan eutsen–, eroan dagiguzan iru zorritsu oneik, Viñales kapitanagana, atxillotutako guztiak berak itaundu gura dautsela agindu zorrotza emon daualako. Jagi zaitze, txakurrok, eta abiatu gaitezen.

Sargentoak eta gudari etsaiek inguratuta, iru atxilloak jagi ziran andik urrun ez egoan Legutiano'rantz. Errira eldu baiño ez, espetxe batera sartu izan ziran, eta ateari giltza emon ostean, bakarrik geratu ziran. Andoni lur-jota oartzen zan, bere lagunen zoritxarraren erantzule bakarra zalakoan, eta bere lagunen kezak alperrik uxatzen saiatzen zala, lengo sargentoa azaldu zan, eta Yoseba ta Yokin artuta, eroan zituan, Andoni bakarrik utzirik. Andik ordu erdira-edo, lengo biekin biurtu zan, eta itxura zemaikorraz Andoni'ri auxe esan eutsan:

– Jagi zaitze, ezkabitsu ori, eta etorri nirekin.

– Nora narozazu...?– itaundu eutsan Andoni'k–.

– Ori laster jakingo dozu.

Au esanik, gudari bik alboratuta, erriko itxura ederreko etxe batera eroan eban, eta zurubian gora, gela bateko atean sargentoak baimena eskatuta, mintzo garratz batek sartzeko agindu eutsen. Sartzean, argi dizdiratsu batek lausotuta geratu zan Andoni. Argira oitu zanean, mai baten atzetik jesarrita, irribarre isekaria ezpanetan, kapitan bat ikusi eban. Baltzarana zan, eta itxura aginkorrekoa; aurpegian begi bizi sarkorrak zituan, baiña ezpanen gogortasunak bere karantzari itxura zakarra emotsan. Goiko ezpana, aldi areitan gazte batzuk erabilten marra antzekoa zan suurpeko mee barregarriaz orniduta eban.

Kapitan arek itxura isekariz eta arroaz begiratu eutsan, eta noiz-bait, irribarre mukerraz,

– Gabon, Otxandio kapitana, eta ez arritu nor zarean ezagutzen dodalako, zure menpekoek nor zarean jakiñerazo dauste-ta. Edonork, zuri lenengoa itaunduko eutsun, baiña zure benetako nortasuna ezalzteko edozein izena emongo zeuskionez, zure menpekoai aurretik itaundu dautset.

Isildu zan une batez, eta gero,

– Orain, Otxandio kapitana– esan eutsan–, emoidazuz dagokizuzan gora-beera guztiak, eta ez niri guzurrik esan gero, zure menpekoek zeuri buruz gauza asko esan dauste-ta.

Au esatean, Viñales kapitanak itxura irrilariz begizatzen eban.

Andoni'k une batez isillean iraun eban, bere oldozkunak atontzeko, eta gero, mintzo astirotsuz bere gorabeerak edesten asi yakon, benetako izena ezkutatu, eta onen ordeztu Otxandio izena emonez. Edozelan be, ezin egikean Yoseba'k eta Yokiñ'ek Viñales'eri edestutakoa guzurtatu, eta nai-ta ez, egizko gora-beera batzuk emon bear izan eutsazan. Amaitu ebanean,

– Ez zara edozein gudari– besteak esan eutsan–, emon dautsuen aalmena ez da edozelekoa-ta. Nik esango neuke zure egitekoa oso garrantzitsua dala.

Une batez, Viñales'ek sapaira begiratu eban ausnar sakon baten murgilduta bai'litzan, eta gero, begi baltzaranak Andoni'ren aurpegian untzatuz,

– Badakizu, Otxandio kapitana, gure metraillagailu-kabia ezerez-teko asmotan atxillo egiten doguzanok zelan zigortzen doguzan...?

Andoni isillean geratu zan, erantzuna ondo ekialako. Orduan, itxura gogorraz, Viñales'ek,

– Ori eriotzaz ordaintzen da.

– Jauna– estu ta larri erantzun eutsan Andoni'k– ez dot eriotz orren aurka zer esaterik, baiña arren, nire menpekoak barkatu egizuz, eurok errurik ez dabe-ta...

Isildu zan une batez, eta gero,

– Neuk beartu nebazan nirekin etorteko.

Viñales kapitanak, une batez Andoni begiztatu eban, bere duintasunez arrituta, eta noizbait auxe esan eutsan:

– Biar goizaldean su-iskillotuak izango zarie.

Zirrara batek Andoni'ren barrua astindu eban, eta oi u baten arren-katu eutsan,

– Jauna, benetan diñotsut, erru guztia nirea dala. Arren bai arren badiñotsut barriro be, nire bizitza emoteko gerturik nagoala, baiña nire menpekoek arazo onetan ez dabe iñongo errurik...!

Viñales kapitana bere aulkitik jagi, eta atearen bestaldeko sargentoari dei egiñik, keiñu gogorraz agindu eutsan,

– Sargentoa, eroan atxillo au bere lagunakana.

Andoni erriko espetxera eroaten ebela, iñoiz ez oartutako beste oiñazea jasaten eban, eta ipernu aretan Jaungoia gora eban bere gogoaz errukitsu azaldu zeiten, bere lagunakana batez be. Lagunekin alkartu zanean, oneik, bere aurpegiaren itxuraz gauzak ondo ez joiatzen iragarri eben, eta jazotakoa itaundu eutsoen.

Andoni'k Viñales kapitanarekin izandako alkarrikustea azaldu eutsen, eta zer jasoko litzakien, oraindiño ezin egikeala esan. Bere lagunak, baiña, ezin egikien larritasuna kendu, eta gogapen itunetan murgil-

du ziran. Gaberdia barik, janari batzuk ekarri eutsiezan, baiña ezin iruntsi, eta ia osorik atzera biurtu ziran. Orduak astiro joiatzen, eta Andoni'ren atsekabeak ez eban amaitzerik ikusten, bere etxeak eta alboko lagunak gogotik kendu eziñik. Orduak astiro igaro ziran, eta iñor ez etorrela ikustean, noizbait, Andoni'ren larritasuna baretzen asi zan, egunsentia asten zala oartu zanean batez be. Alako baten, atea edegi zan, eta kafesnea ogitxu batez lagunduta ekarri eutsien. Bearraren-bearrerez, iru lagunok gosariari ekin eutsoen, eta onen ostean, begira geratu ziran. Goizeko bederatzietan inguru, lengo eguneko sargentoa etorri zan, eta Andoni'ri auxe esan eutsan:

– Zatoz nirekin.

Lengo eguneko etxera lagunduta, gela bardiñera sartu, eta itxaron egian esanda, bakarrik utzi eban. Andik laster, Viñales agertu zan, eta mai-ondoan jesarrita, Andoni oiñez egoala, begi sarkorrak atxilloagan jarrita, irribarre izan nai eban ezpanetako keiñu batez,

– Aizu, Otxandio kapitana, zelan igaro dozu gaba...?

– Izugarria izan da, benetan, etxeak eta alboko lagunak burutik kendu eziñik. Entzuten neban edozein kanpoko ibiltea, gu su-iskillotzeko etozala uste izanik...

– Neuk ordea, gau gozo-gozoa emon dot, zeuri buruz amaika ames atsegiñek lagunduta. Eta ames orreitan, burutapen bikain bat gogora etorri yat, eta auxe alegia...

Une batez isillean iraun eban, bere atxilloa irribarre gaiztoz begiztatzen ebala. Gero, onetaraxe jarraitu eban,

– Bai, Otxandio kapitana, ames egin dot bizitza parkatzen neuntzuela. Zer deritxazu orreri...?

Au esatean bere aurpegitik keiñu gaizto bat edatu zan.

– Bai, nire barruko onari jarraituz erabagi ori artu dot, baiña Gestapo'n ikasitakoek baldintza bat ipintera eragiten nau... eta auxe alegia: nire alde lan egin dagizula. Zer deritxazu nire eskeintzari...?

Erantzun aurretik, Andoni gogoeta sakon bateri emon eutsan, eta noizbait, bera ta bere lagunak gaizkatzeko beste biderik ikusi ezean,

– Zein izango litzake nire egitekoa...?

– Ara, neu barruti onetako Mola generala'ren zelataritzaren burua naz, eta etsaiaren aal dodazan guztitariko argibideak biltzen diardut, eta niri dagokidan arazoaren artean. zuek eraikitzen ari zaren "Burdieñzko

Gerrikoa"ren babesak ezagutzea da, eta izan be, zeuk guda-babeslanen begiraria edo arduraduna zarean ezkerro, oso egokia zara lan orreïn zer-tzeladak niri emoteko. Augaitik ba, zure lagunen artera biurtuko zara, eta astebete baten buruan, aipatutako babesen marrazki guztiak eskuratu daustazuz. Gaur barikua da, eta datorren asteko barikuan, zure begira izango nozu emen, marrazkiok artzeko.

– Jauna– erantzun eutsan Andoni'k–, astebete bat oso gitxi da marrazki orreik eskuratzeko; astebete bi, gitxienez, bear izango neukez bilduma osoa atontzeko..

Viñales'ek une batez isillik iraun eban, eta gero,

– Begira Otxandio kapitana, oraingo onetan zeugan nire uste osoa ipiñiko dot, eta datorren asteko esandako egunean, beraz, bildumaren erdia eskuratuko daustazu..

– Olan egingo dot, baiña nire aldetik baldintza bat jarri bear dot,

– Zelako baldintza...?– betoskoa zimurtuz erantzun eutsan Viñales'ek–.

– Ona biurtu naitenetan, nire lagunak ikertzeko eskubidea.

– Ez zaitetz larritu, Otxandio, nire alde lan egin dagizun artean, ez yake iñongo kalterik etorriko. Zure lagunak ikertzeko, beraz, eskubide osoa emoten dautsut. Besterik esan nai dozu...?

– Ez, Jauna.

– Orduan, Otxandio kapitana, bariku guztietan, gure luebakiko "Areitz Andia" esaten dautsan lekuan, illuntzean Ruiz sargentoa zure begira izango dozu, eta nirekin jardun ondoren eta ene aginduak artuta, zure lagunak ikusi aal izango dozuz, eta jarraian, sarjentoak lagunduta, beste aldera biurtuko zara. Zure lagunak ikertu ostean, nire zerbitzuan dagozan gudariekin apalduko dozu, eta gau beteä izan daitenean zure-tarrakana birutuko zara. Argi dago dana...?

– Bai. Jauna.

Jarraian, Ruiz sargentoak Yoseba ta Yokin'gana espetxera lagundu eutsan. Bere lagunek irrika bizian artu eben, eta Andoni'k Viñales kapitaneekin egindako ituna azaldu eutsen, eta noizbait, baretu ziranean, urrengo barikurarte agurtuz, besarkada estu batez banandu ziran.

Apalduta gero, Ruiz sargentoarekin, kilometro bitara egoan "Areitz Andia" izeneko lekura joan zan, eta gautu zanean, abiatzeko gertatu zan. Orduan sargentoak auxe esan eutsan:

– Otxandio kapitana, barikuko gau guztietan emen izango naz zure begira, gure nagusiagana laguntzeko. Giltz-itza "Illargia" izango da. Orain joan zaitetz.

Andoni illundietan ostendu, eta ordu-erdi igarorik beretarren artean egoan. Bereala ango nagusia ikertu eban, eta lengo egunean an bertan utzitako berebilla eskaturik, aalik ariñen Bilbao'ra joan zan, eta egunsentia osertzean marrazten zala, etxera eldu, eta emazteari jazotakoa azaldu eutsan. Gero nekearen-nekez oeratu, eta eguberdirarte lo egon zan. Orduan, bazkalduta gero, Matxalentxu maite-maite besarkatu eban eta emazteari musu bat emonda, aitzindaritzara bideratu zan.

Bereala, nagusiarekin ikustaldi bat eskatu, eta Viñales kapitanarekin jazotakoa azaldu eutsan. Amaitu ebanean, nagusiak, auxe esan eutsan:

– Egindako itun ori bearrekoa izan yatzu zure lagunen eta zure bizitza onik atarateko, eta ezinbestez egiten danean, errurik ez.

Une batez isildu zan, eta gero,

– Orain baiña, Viñales kapitana astero ikertu bear dozun ezkerro, guzurrezko marrazki jokoak gertatuko doguz, zeuk eskuratu dagiozuzan.

– Eta berak dana guzurra izan dala jakingo ba'leu...?

– Ez dot uste ori jakingo dauanik, egia ezagutzea berarentzat oso zailla dalako. Edozelan be, Otxandio kapitana, beste biderik ez dot ikusten.

– Ezta neuk be.

– Joan zaitetz ba, eta jarraitu zure oiko lana betetzen, eta datorren barikurako, zeuk Viñales'eri agindutako "Burdinẽzko Gerria"ren marrazkien jokoaren erdia, goizean gerturik izango dozu Legutiano'ra eroateko.

Andoni nasaiago biurtu zan etxera, eta urrengo goizean oiko lanari emon eutsan. Noizbait, barikua eldu zan, eta goizean bere nagusiagana joanda, onek marrazki-pillo bat emonda, auxe esan eutsan:

– Ona emen, marrazki-jokoaren erdia. Ez galdu astirik ainbeste guzurrai begiratzuz, baiña gure asmotarako laguntzakoa izango da. Agur, Otxandio kapitana, ondo joan.

Andoni'k berebillaren erabiltzailleari dei egin, eta marrazkien lotukiaz Legutiano'ko guda-oñera eldu zan. Gautu zanean, ondo ekian

bidetik etsaiaren luebakian bereizten zan "Areitz Andia"ra eldu zan. Begira egoan Ruiz sargentoa urreratu yakon, eta berebil batez Viñales kapitanaren egoitzara joan ziran. Marrazkien ugaritasuna ikustean, begi onez artu eban Gestapo'ko ikasleak eta marrazkiak irazean begiraturuz, poz baten esan eutsan,

– Ederto, Otxandio kapitana, badirudi lan garrantzitsua egin dozu-la. Datorren, astean "Burdinezko Gerria" osotzeko peitzen diranak eka-
rriko daustazuz, ezta...?

– Bai Jauna.

– Badirudi, Otxandio Jauna, guztiz ondo alkar ulertuko dogula. Jarraitu egizu bide onetatik, eta ez zara damutuko. Orain, unetxu batez zure lagunak ikertu dagikezuz, eta datorren asteke barikurarte.

Gudari batek lagunduta, joan zan Andoni atxillotutako adiskidea-kana, eta alkar besarkatu ondoren, bere menpekoak adoretzen saiatu zan. Bazirudian bere itzak baretzen ebazala, eta alkarrizketea amaitu zanean, Ruiz sargentoa etorri zanean, biok luebakira berebillean biurtu ziran, eta andik laster oiko lekura elduta, Andoni illundietatik ostendu zan.

Viñales'ekin erabakia lez, urrengo astean eskatutako marrazkien beste erdiaz biurtu zan, eta pozaren-pozez, frankotar kapitanak,

– Aizu, Otxandio, lenengo urratsa emonda, bide orretatik jarraitu bear dozu. Augaitik, or gure aurrean eraiki dozuen babes-lanen marraz-
kiak bear dodaz. Orretarako zein luzaro bear izango dozu...?

Gogo sakonetan murgiltzen zalakoa egin eban Andoni'k, eta onen ostean,

– Ez nago oso ziur, baiña bataz beste iru bat aste bear izangi dira.

– Ondo da, Otxandio, baiña datorren astean lenengo eskuraketea gura dot, eta jarraian besteak, amaitu arte. Esan bear dautsut baita be, zure lanaren ederrespenez, atxillo dagozan zure menpekoakanako era-
biltea obatu izan daitela agindu dodala, eta ikertu dagizuzanean egizta-
tuko dozu ori.

Egia zan, eta Andoni'k Yoseba ta Yokin ikusi ebazanean, itxura o-beaz eta adoretuago ikusi ebazan.

Beste aldera biurtu zanean, sasi-marrazkien gertakuntzeari ekin eutsan, eta Legutiano-aurrekoaren eskuraketea amaitzeko zorian zala, Andoni'ren egoereari iraulketa andia ekarriko leuskion ezuste bat sortu zan...

Epaillaren azkenetako egun aretako illuntzean, bere oiko txostena emoteko aitzindaritzara eldu zanean, zeozer ezoitua jazoten zala oartu eban. Eldu baiño ez, nagusiak deitu, eta auxe esan eutsan:

– Otxandio, gauza izugarri bat jazo dala jakinbarri dot... Ara, Goi-
koetxea kapitanak, "Burdinezko Gerria"ren babes-lanen nagusia, ostendu egin da, dirudianez, marrazki-pillo bat etsaiagana eroanez, eta barri au izugarria da guretzat, Mola generalari gure aurkako iskillu kal-
tegarria eskuratzean...

Isildu zan Andoni'ren nagusia, eta aurpegia eskuen artean ezkuta-
tuz, gogoeta sakon baten murgildu zan.

Goikoetxea kapitana... Elorrio'ko seme zana, 1.921 urtean, asma-
lari edo injiñeruen guda-kapitana izanik, bere jardunari uko egin, eta La
Robla burdinbideko baltzuan jarduna lortu eban. 1.937'ko Otsailla'ren
asieran, jagole garrantzitsu bateri esker, "Burdinezko Gerria"ren erai-
kintza nagusia lortu eban. Lan onetan ziarduala, aal eban giñoan guda-
babes au atzeratzen saiatu zan, eta noizbait, Epailla'ren azkenean fran-
kotarrakana iges egiñik, babes-lanaren %40 egiña zanean, argibide
garrantzitsu bataz etsaiagana alde egin eban...

Bere ausnartzetik iratzarria lez, nagusiak onetaraxe jarraitu eban,

– Neuk ez neban beragan ezetariko uste onik, baiña saiatu ba'nin-
tzan be, ezin izan neban bere jardunetik jaurti, adiskide aaltsuak zitua-
lako. Eta orain, berandu danean, eta kaltea atontzerik ez dauanean,
begira egin dauskuena...

Andoni'k baiña, nagusiak iñoanari ez eutsan jaramon andirik egi-
ten. Bere adimen argiak Goikoetxea etoiaren ekintzak ekarri legikion
ondapena argi-argi ekusan... Viñales kapitanak, laster jakingo eban,
jakin be, Andoni'k berarekin erabilitako joko maltzura, eta ordurarte
artutako marrazki-pilloak guzurrezkoak izan zirala jakitean, atxillo
egozan Yoseba ta Yokin eriotzera galdu izango litzakez "Areitz Andia"
alkarlekuan Otxandio kapitana agertuko ez ba'litz. Izan be, Andoni'ri
ez litzakio ezetariko kalterik etorriko, baiña bere barru zintzoak olako
etoikeririk egitea ez eutsan lagaten. Zeozer egin bear eban menpekoen
alde, eta ekintza bat umotzeari emon eutsan. Aintzindaritzatik urten
aurretik, bere nagusiari zizpolet bat eskatu eutsan, eta onek "Star" on
bat eskeiñi ondoren,

– Zertarako nai dozu...?– itaundu eutsan–.

– Oraindiño ez dakit, baiña nire lagun atxilloen alde zeozer egin
bear dot, eta iskillu au ondo etorri daitekik...

– Zaindu zure burua, Otxandio...

Ezer erantzun barik, bere iskillioaz Andoni urten, eta otz zanez, kafetegi batera sartu zan. Akeitesnea artu bitartean, gogoeta sakon bateri emon eutsan. Egun bien barruan barikua izango litzake, eta ezin-egon batek artuta, zer egin legikeanari emon eutsan. Dana egokion Viñales'ek ezagutzen ebanari, eta Andoni'k au jakiten ez ebanez, ezin egikean ezetariko asmorik garatu. Azkenean, arazoa Jaungoikoaren eskuetan lagatea erabagi eban.

Urrengo egunean, jai artuta, bere emazte ta Matxalen'ekin eguna aal eban ondoen igaro eban, eta ordu batzutan, bere ezifnegona baretu yakon. Edozelan be, Garbiñe'k eta Matxalentxu'k egun zoragarria igaro eban. Etxera biurtzean, Garbiñe'k auxe esan eutsan:

– Andoni maitia, aspaldi da gaur lako egun zoragarria igaro ez dogula.

– Guda ustel au amaitu dakigunean, egun zoragarri asko gure begira izango dogu, nire biotzeko Garbiñe.

– Jaungoikoak entzun dagizula.

Urrengo egunean, iradu barik Andoni oetik yagi, eta gosaldue ondo-
ren,

– Aizu, Garbiñe, gaur ardurazko arazo bateri ekin bear dausat, eta ondo urten dakidan otoi egizu.

– Bai, Andoni egun osoan otoi egingo dot.

– Agur nire emazte maite ori

– Agur, Andoni, gaberarte Jaungoikoak lagun.

Onen ostean, Andoni Matxalen'en gelatxura sartu, eta une luze batez ari begira ta begira egon zan. Gero makurtu, eta aurpegiñoan musu bigun bat jarri eutsan.

– Gure alabatxua dan zoragarria...!– esan eban maitasun biziz –.

Jarraian emaztea estu-estu besarkaturik, itz egiteko gai ez zala, kalera jatsi, eta berebilla artuta, Legutiano'ra bidez Otxandiano'tik igaro bear ebanez, gurasoen etxera sartu zan, eta bazkal-ordua izanik, gurasoekin eta arrebekin maican jesarri zan. Otordu atsegiña izan zan, eta bere ezkon-anaia Durango'ko lantegi baten gudarako gaiak egiten ziardua jakin eban, eta zelan edo alan bere arreba biak etxeko lanak egiten ebezan. Bazkaldu baiño ez, besarkada estu bat az etxekoakandik agurtu, eta bidegiteari jarraitu eutsan... Andoni siñismen sakonekoa

zan, eta gudalekura eldu zanean, gudatalde aren kapellaua eskatu eban, eta autortu zan. Onen ostean, kapellauak auxe esan eutsan:

– Zure alde otoi egingo dot. Baiña bere lagunene alde bizitza emoteko gerturik dagoanak, Jaungoikoaren aintza ezagutuko dau. Joan zaitetz, Andoni, eta ziur egon, zeu ona biurtu arte otoi iraungo dodala

Orduko illuntzen ari zan, eta andik laster gaututa, prakaren gerrikoetan zizpoleta eroiala, etsaiaren luebakirantz abiatu zan, an goian, “Areitz Andia”ren ebakunea ozta-ozta iragarten zala

* * * *

Eguberdi aretan, Viñales kapitana amorruez beterik oartzen zan, eta didar bizitan aiñen eta biraoka, bere asarrea kaleraño barreiatzen zan. Izan be, jasaten eban sumiñaldia bidezkoa zan...

Mola generalaren aintzindaritzatik, agiri bat artubari izan eban, eta onetan jakiñerazoten eutsoen, etsaiaren aldetik iges egindako Gokoetxea kapitan etoia, “Burdinezko Gerria”ren babes-marrazkiakaz etorri izan zala, eta oneik erakusten eban, Viñales kapitanaren bidez artutako lengo marrazkiak guzur utsa zirala, eta bera lako Gestapo'n irakatsitako bateri, olako ziria sartu izateak ez eban ezer onik bere alde adierazoten, eta andik iru egunetara Mola generalaren aintzindaritzan aurkeztu zeiten, jazotakoaren garbitasunak emoteko.

Argi egoan ba, bere nagusiek beraganako uste ona galdu izan ebela, eta onek bere etorki dizdiratsuari itzal illunak jaurtiten eutsazan. Asiera baten ezin egikean siñistu, agiriak iñotsana egirik izango ete... baiña luzaro barik dana ulertu eban... Izan be, Otxandio kapitan ezain baten oparia izan zan, eta izan be, ez ekian zelako garbitasunik emon oraingo estutasunetik urteteko. Bere gora egiteari iñongo oztoporik ez egoala uste izaten ebanean, olako makurra bere aurka etortea... eta ori dana guzurtsu bategan bere uste osoa jarri izateagaitik...

Viñales kapitana biraoka aulkitik jagi zan, eta didar baten,

– Etorri daitela Ruiz sargentoa...!– oiuegin eban–.

Laster etorri zan menpekoa, eta,

– Zure aginduetara, nire kapitana– esan eutsan–.

– Otxandio dalako orrek ziri ederra sartu dausku. Guri ekarritako marrazkiak guzur utsa izan dira, bere bizitza ta lagunena onik atarateko, urrean, baiña orain ikusiko dau nogaz daukan...

Isildu zan une batez, eta gero,

– Entzun egistazu ondo, Ruiz sargentoa. Atondu egizu amarreko bat Otxandio ta atxillo diran bere lagun biak, obitegiko ormaren aurrean egunsentian su-iskillotuak izan daitezzen. Gaur, barikua dan ezker, urde- seme ori guzurrezko marrazki pillo bat, oi dan lez ekarriko dausku, eta batzar-lekura etorri daitenean, atxillo egizu, eta espexera sartu bere lagunekin egon daiten... Ez, orren aurretik ekarri egistazu ona, nirekin alkarrizketa bat izateko, eta nor nazan benetan ezagutu dagian... Argi dago...?

– Bai, nire kapitana.

– Agur ba, eta gero arte. Gautu daitenean, emen izango naz zure begira.

Arrastia astiro igaro zan, eta illuntzeko zorian, Ruiz sargentoa batzar-lekura abiatu zan.

ASKATASUNAREN ALDE

“Areitz Andia”ra eldu zanean, oiko itz-giltza esan ondoren, Andoni’k itxaron eban, eta andik laster Ruiz sargentoa agertu zan.

– Gabon– esan eutsan Andoni’k–.

– Baita zeuri be.

Ango argi makalaren pean etorbarriak sargentoaen aurpegia aztertu eban, eta oi-ez-lako keiñu gogorra bestearan karantzan ikustean, biotz-ikara batek artuta, gauzak oker joiakiozala ulertu eban ... eta areago, sargentoa Andoni’ren berbai itz murriz eta zakarrakaz erantzuten eutsela.

Eta atan-orretan, bide-gurutsera eldu ziran. Ezkerretik Viñales’en etxera joaten zan, eta eskoitik espexera. Orduan, Andoni’k esan eban,

– Aizu, sargentoa, gaur, Viñales kapitanaren egoitzara baiño len, espexea ikertu gura izango neuke

– Zergaitik...? Ori gure oituraren aurkakoa da. Viñales kapitana beti lenengoa ikertu dozu, eta gaur be orixe egingo dogu.

Au esanik, ezkerreko bidetik artu gura izan eban, baiña Andoni’k isil-ostuka, gerrikopetik zizpoleteta atara, eta ustekabez. bere biziko zartadea emon eutsan. Tximistak jota lez, Ruiz sargentoa amildu zan, eta berebilla utzita, Andoni arin baten espexera abiatu zan. Eldu zancan, zaintza-gudariari esan eutsan,

– Aizu, lagun, edegi egistazu atea lenbailen, gaur iraduz nabil-eta,

– Barkatu egistazu, baiña sargentoa barik, ez dot edegiterik...

Itz oneik ozta-ozta esan, eta Andoni'ren "Star" zaintzariaren buru-gaiñera amildu, eta konortea galduta, jausi zan. Andoni'k sakelean arakatu, eta giltza artuta, arin baten atea edegi, eta bere lagunak besarkaturik,

– Ariñeketan alde egin dagigun– oi u egin eutsen– gure bizitza arrisku gorrian dago-ta...!

Arrapalada baten urten ziran, eta illundietan zear "Areitz Andia"rantz abiatu ziran, baiña...

Une batzuk lenago, Viñales kapitanak Otxandio'ren etorrerea itxaroten ebala, gelako atea edegi, eta burua odoletan Ruiz sargentoa sartu zan didar bizitan auxe iñoala,

– Otxandio madarikatu orrek ni zauritu ondoren, espetxera joan da bere lagunak askatzeko, urrean...!

Viñales, iñusturi baten antzera jagi, eta une aretan bere egoitza zaintzen eben gudari biai oiuka, auxe agindu eutsen:

– Artu su-iskilloak eta etorri zaiteze nirekin espetxera...!

Irurok ariñeketan joan ziran, eta bideko illuntasunean, ozta-ozta iru igesleen soin-ebakunak iragarri eben, eta bereala tiroka asi yakezan. Sasi baten atzetik, Andoni bere lagunekin gelditu zan, eta zizpoleta gerturik ebala jarratzaillen agerpena itxaron eban. Viñales bi gudariak alboratuta etorren, irurok iskilloen sua eten egin barik. Alako baten, euren soñaren ebakuna gabean marraztu zanean, Andoni'k zizpoleta jaso ta su egin eban; gudari bat bularrean zaurituta, aieneka lurreratu zan. Beste gudaria laguntza emotearren urreratzen yakonean, Viñales kapitana amorrus zoratuta, oi u bizitan igeslarien aurka oldartu zan...Une aretan bertan, Andoni'k "Star" goratu eta aren bularra iskillopean artu eban, baiña su egitera gertatzen zanean, barruko zerbaitek Viñales erailtea eragotzi eutsan, eta iskilloa beraturik, katuari ekin eutsan. Belaun baten aparta egitiik, Viñales kapitana jausi zan, eta lurrean iraulkatzen zala, aienka, zema auxe jaurti eutsan:

– Otxandio madarikatua, egunen baten, mundu guztia arakatu bear izango ba'neu be, arrapatuko ta ilgo zaitut, zital ori...!

Arrapalada baten, Andoni'k bere lagunekin igesari emon eutsan, eta laster, luebakiraiño peitzen ziran kilometro biak ibilli ondoren, "Areitz Andia" aurrean agertu yaken. Orduan, Andoni'k lagunai auxe esan eutsen:

– Nik zaindariaekin itz egin bitartean, igesari emoi ozue eta beeko trokan itxaron ni agertu arte.

Ango zaindaria, lengo tirokadea entzun izan ebana, eta Ruiz sargentoa barik Andoni etorrela ikustean, suzmo txar batek artuta,

– Geldi or...! Non dago Ruiz sargentoa...?– oi u egin eutsan su-iskilloa erabilteko asmoz–.

Baiña onen aurretik, Andoni'k zizpoletaz zemaitzen ebala, su-iskilloa kendu, eta aldapan beera igesari emon eutsan. Laster bere lagun biek batu zan, eta poz baten, eusko gudariakana joan ziran. Gudataldeko buruaren zorion adoretua artu ondoren, baita gudataldearen kapellauarena, Yoseba'k eta Yokiñ'ek etxeok aspalditik ikusi barik iraun izan ebenez, an bertan apaldu ostean, Andoni'rekin onen berebillean Bilbao'ra joan ziran. Bidegite alai izan zan.

Eguzkia sortzean, Andoni etxera eldu, eta gosaria artu bitartean, emazteari gabean jazotakoa edestu eutsan. Garbiñe'k orduan,

– Izan be, Andoni, ozta-ozta onik urten zarie iru lagunok, eta ezta-ki nire otoitzak arazo orretan zer-ikusi andirik izan ez ete daben, etxetik joan zintzazanetik zure alde aterbage otoi egin dot-eta...!

Andoni'k maite-maite besarkatu eban, eta eguberdirarte lotan iraun ezker, arratsaldean, Garbiñe, Matxalen, eta irurok, egurastu zoragarria izan eben.

Urrengo goizean, aitzindaritzara joanda, bere nagusiari azkenengo gora-beerak edestu eutsazan, eta onen zoriona artuta, oi lez, bere oiko lanetara abiatu zan, arratsalde beranduan bere txostena nagusiari eskuratzeke.

Eusko aitzindaritzan oso zabaldua zan ustea, Mola generalak eraso garrantzitsua antontzen ziarduala eta laster egiztatu zan, egia zala. Epailla'ren 31'ganean, Legutiano aurreko gure babesak su-agakaz eta egazkiñakaz eraso izan ziran. Ekintza onek ez eban arritu Andoni, Viñales kapitana'rekin izandako azkenengo alkar-ikustetan, frankotar gudarien eta onen gudagaien orniketa andia ikusi izan ebalako. Eraso gogor onen barriak artu ziran, eusko aitzindaritzak Urkiola-ondoko Saibi mendian babes-lanak sendotzera bialdu ebezan zapalariak, eta izan be, bearreko zan. Etsaiak lenengo eguneko eragintzaz Otxandiano'z jabetu zan. Eraso au asi zanean, egun gitxi barruan frankotarrek Bilbao'ra sartuko litzakezala uste izaten eben. Ames zoroa... ¡ Ia iru illabete bear izan eben elburu ori lortzeko. Lenengo egun oneitan,

Otxandiano'z gaiñera, Durango, Elorrio ta Elgeta lerkaiakaz basaki zigortu ebezan. Egazkiñen eraso oneik, Durango'n izugarriak azaldu ziran, lekametxe bat, elcizea, pelotalekua, eta etxe asko ondatu izan zirala, gizakiak eunka ilten zirala...

BIZKAIA MENPERATUTA

Onen ostean, Euzkadi'tik amaikagarrenez egazkiñak eskatu ziran España'ko errepubikatar jaurlaritzari, baiña alperrik izan zan, eta are-riorearen egazkiñek zeruan nagusiak izaten jarraitu eben. Baiña geutarren jarkipena etsaiak uste izandako baiño gogorragoa izan zan; onen ondorioz, frankotarrek Madrid'eko guda-lekutik bost gudaritalde (batalloiak) eta su-agak gure aurka bialdu ebezan. Otxandiano'z jabetu ondoren, etsaiak Urkiola eraso eban, eta Naparra'ko laugarren brigada-ko txapelgorriak lekuaz jabetu ziran. Leku onetako Saibi mendiko burrukea Jorrailla'ren 7'tik 14'arteko iraun eban, eusko gudariak tontorra galdu eta barriro birjabetzen zirala. Izugarria izan zan ango burraka, baiña azkenean, frankotarrak euren guda-gaien ugaritasunari esker, Saibi mendiaz jabetu ziran, eta arrezkero, astiro bazan be, euren garai-pena osotu eben.

Jorrailla'ren 26'gnean Andoni'k Gernika aurreko Bizkargi mendian babesen egoerea aztertzen ziarduala, eguberdi-osteko lauretan inguru, egazkin bat agertu zan, eta lerkai batzuk Gernika'ra jaurti zituan. Ez eutsan jaramon andirik egin, ekintza ori zoritxarrez oikoa zan-eta. Andik ordu-lauren batera-edo, burrunba gortugarria aditu zan, eta Gernika'ko itsasadarraren gaiñetik egazkin-multzo bat agertu zan, eta iñongo oztopo barik amaibako lerkai ilgarriak uriaren gaiñetik botaten asi ziran. Talde onek bere ekintza eriogarria amaitu ebanean, beste ogei inguruko multzoa sarraskiari jarraitu eutsan. Egazkiñak doixtarrak ziran, eta eguratsean ezetariko jarkipen barik, jaun eta jabe ziarduen. Lurrak oinpetan dar-dar egiten eban, erritik gora ke lodi baltza jagiten zala. Oarpen zirrargarriaz, Andoni'k bere buruari itauntzen eutsan,

orduko zenbat il eta zaurituak izango litzakezan. Onezaz gaiñera, astelena izanik, au da, ze i edo merkatu-eguna, uria jendez mukurru bete egoan.

Noizbait lerkaiaketea baretu zan, eta Andoni'k ekintza ilkorra amaitutzat emoten ebanean, beste egazkin batzuk agertu ziran, eta suzko lerkaiakaz, sarraskia osotu eben. Orain, baiña, lengo lerkaien eztanda gortugarria su-itsasoa biurtu izan zan. Lerkai oneik ez eben zarata andirik sortzen; txistu motel bat, eta gero gar-mordo izugarria. Teillatu amilduen artean, garren miin luzeak zerurantz biurkatzen ziran, gizonen gaiztakeri zentzunbakoaren lekukotzat.

Illuntzean, eraso amaitu zanean, uria eriotz eta su-inpernua biurtu izan zan. Alde guztietatik oparien artean suak bere ekintza ondagarria osotzen eban. Illundietan zear, ozkorri bizia biurtuta, Bizkai'ko ortziak bere ondapan larria aldarrikatzen eban.

Luebaki barri baten ondoan jesarrita, Andoni'k ezin egikean bere negar-gurea jabetu, eta aurpegia eskuen artean, malko isillakaz bere larritasunari bide emon eutsan. Gero, berebillez Bilbao'ra biurtzen zala, argi-argi oartu eban, bere aberri gaixoak ezin egikeala luzaro eutsi, eta laster menperatua izango litzakela... Bear izandako guda-gaiak, egazkiñak batez be, ainbeste aginduak ziranak, ez litzakez iñoiz Euzkadi'ra etorriko, España'ko errepublikak berarentzat bear ebazalako, urrean...

Gau aretan, Bilbao'ra biurtzean, Andoni'k erabagi sendo bat artu izan eban, eta etxera eldu zanean, Matxalen'eri oiko gau-musu samurra emonda gero, Bizkargi menditik ikusitako izugarria Garbiñe'ri edestu eutsan Emazteak, aren gogoeta illunetatik jareitu naiez, auxe esan eutsan:

– Andoni, oraindiño dana ez da galdu, gure gudari zangarrak aberriari eutsiko dautsoe.

– Zangartasuna mugaduna da, eta gaur etsaiaren doitztar egazkiñak gure zeruan jaun eta jabe iñongo oztoporik bage ikustean, nire adorea birrindu da, Garbiñe maite ori...

Emaztea urreratu yakon, eta maitasunez burua laztandu eutsan auxe iñotsala:

– Ain zoriontsuak gintzazanean, ezbear au etorri bear be...!

Andoni'k, emaztearen eskuetan musu bana jarri eutsen, eta gero, astiro, mintzo gozoaz,

– Ez dot nai nik gaur ikusitako inpernua zeuk eta gure alabatxuak jasan dagizuen, eta erabagi sendo bat artu dot... Ara, emendik alde egingo dozue guda au amaitu arte, eta orduan biurtuko zarie.

– Andoni, zeu barik, iñoiz be ez...!

Eta naigabeak artuta, Garbiñe'k negar itun bateri emon eutsan.

Andoni'k samur-samur besarkatu eban, auxe iñotsala:

– Zuekandik alde, nire atsekabea larriagoa izango da, Garbiñe... Begira, gure bereizte ori laster amaituko da, eta orduan, bizirik eta onik alkartuko gara, guda madarikatu onek ukatu daukun zoriona barrero ezagutzeko. Ez negar egin, laztan orrek, nire naigabea sakonduz...

Noizbait, bere malkoen artean, Garbiñe'k irribarre egin eutsan, eta estu-estu alkar besarkatu eben.

Biaramonean, opor-eguna artuta, Andoni Eusko Jaurlaritzak atondutako idaztegi batera joan, eta bere emaztearen ta alabatxuaren izenak emon ebazan itsas-ontziz alde egiteko. Orrilla'ren erdi-aldean, "Habana" ontzi andian joan zeitekezala esan eutsoen, eta bere garaian argibide egokiak artuko leukezala.

Bitartean, Andoni'k bere jardunari emon eutsan, eta andik egun batzutara, ontziratzeko abiamenak egiteko oarra artu eben. "Habana" Santurtzi'tik iru egunen buruan itsasoratzeko zan, eta orretarako, izendatutako kaian goizean aurkeztu zeitezan urteteko.

Eta Orrilla'ren goiz eguzkitsu baten, Andoni'k emazte-alabatxuekin esandako lekura joateko abiamenak egin ebazan.. Urten aurretik, eukan diru guztia Garbiñe'ri emon eutsan, eta guztitariko eskuarteak bide-zorro andi bitan sartuta, trenez Santurtzi'raiño joan ziran, eta gero ontziratzeko lerro luzean jarrita, euren txandeari itxaron eutsoen. Azkenez, irurok ontziratatu ziran, eta andereiño batek bearreko argibideak Garbiñe'ri emonda, alde egiteko ordua egin zan. Orduan, Andoni'k estu-estu besarkatu eban bere emaztea, eta gero Matxalen besoetan artuta onen aurpegiñoa mosukaz estali ebazan. Urtebete ta erdiko zan umea aitaren aurpegi latza esku samurrakaz laztandu eutsan, "taita. taita" mintzo totalaz iñotsala, eta gero, aurpegitxua irribarre zoragarriaz piztuta, andereiñoak lagundutako amaren besoetan ostendu zan.

Andoni kaira biurtuta, ango egurastegiko aulki baten jesarri, eta bere malkoai eutsi eziñik, negar isil eta etsi bateri emon eutsan. Gero, ontziak astiro-astiro alde egin eban, eta noizbait Galea'ko muturraren

atzetik ostendu zanean, Andoni'k ibilte nakarraz etxerakoa egin eban. Bere egoitzan bakarrik, bizitzarako jorana galdu izan ebala iruditua yakon, eta aulki baten jesarrita, emazte-alabatxuekin igarotako une zorionsuak gogora etorri yakozan, eta garaiteziñeko kadentasun batenpean, iñoizkorik bakartien oartu zan.

Baiña gudea aurrera joian, eta Andoni'k bere oiko jardunari emon bear izaten eutsan. Orain, baiña, bere betekizuna aalik ondoen egiten saiatzen bazan be, barruan uts bete-eziña oartzen eban, eta etenbarik Garbiñe ta Matxalen gogora yatorkozan. Onezaz gaiñera, Garnika'ko lerkaiketearen ostean, gudea galdu izan zala ustea bere baitan kokatu izan zan, eta oarpen onek etenbarik jazartzen eban.

Gudeak jarraitzen eban, baiña astiro bazan be, eusko gudariak atzera egiten eben. Joraila'ren 28'ganean, Oiz mendia, Gerrickaitz, Arbazegi, Aulestia, Nabarniz eta Lekeitio galdu ziran. Arerioa Gernika'tik ur egoan, eta izan be, urrengo egunean, 29'ganean, uri onetara sartu ziran. Eusko Jaurlaritzak, Gernika, Amorebieta ta Gorbea'tik igaroten dan marrari eusteko agindu eban. Biaramonean, italiarrak (Azkon Baltzak) Bemeo'ra sartu ziran. Euskotarrentzat arazoak txarto joiazan, eta Agirre lendakariak, gudearen agintza bere kabuz artu eban.

Atzerakadak eta guzti be, noizean bein eusko indarrek aitzierasoren bat egiten eben. Oneitariko bat Bermeo'n jazo zan. Italiarrak erri onetara sartu izan ziran, ezkerreko saietsa ondo babestu barik. Loraila'ren lenengoan, Truende menditik eusko gudariak Bermeo-Mundaka arteko bidezabala ebagi eben. Urrengo egunean, erasoari jarraitu, eta italiarrak Mundaka galdu eben. Eusko Gudarostea guda-tresnakaz ondo ornitua izan ba'litz, ereti onetan italiako "Azkon Baltzak" astiñaldi ederra artu izango, leuken baiña guda-gai urriakaitik gauza andirik ezin egin, eta 3'ganean Mundaka barriri galdu, eta etsaia Bermeo'n tinkatu zan.

Loraila'ren 6'ganean frankotarrek Sollube aurkako erasoasi eben, eta su-agen eta egazkiñen lerkaiketa gogorraz 8'ganean eusko babesak jabetu zan, eta urrengo egunetan aitzieraso gogorrek egin arren be tontorraz jabetzeko, eusko indarrek txulut egin eben. Tontoretik irureun bat metrora egoan "606" gancari, urrengo egunean, etsaiak eraso eutsan, eta irugarren egunean artu eban, baiña berealako aitzieraso baten bidez gudariak barriri artu eben. Etsaiak erasoak jarraitu ebazan, eta noizbait Loraila'ren 14'ganean, tontor ori inguratuta billakatu, eta ango gudariak utzi bear izan eben.

Garaipen onek etsaiari aurrera jarraitzeko, eta "Burdinezko Gerria"ren aurkako eraso egiteko lagundu eutsan. Urruzti ta Gaztelumendi'ko babesak Goikoetxea etoiari esker, ez ebezan bearreko sendotasuna etsaiari jarkiteko. Sollube mendia galdu zanetik, zenbait egun baketsu igaro ziran. Loreilla'ren 11'ganean, ezuste batez baliaturik, frankotarrek Bizkargi-Arburu bizkarraz jabetu ziran, 17'ganean Zornotza'ra sartu, eta 19'ganean, Jata artuta Mungia'ko aldamentaraiño sartu ziran. Egun onetan, Durango-Gasteiz arteko bidezabala galduta, 22'ganean eusko gudariak Lemona'raiño atzeratu ziran, eta 23'ganean Dima'ra sartuta, etsaiak Arratia guztia menperatzen eban.

Loraila'ren 28'ganean, etsaiak Lemona'ko atxaz jabetzea erabagi eban, eta urrengo egunean, buruauste andirik bage, tontorraz jabetu zan. 31'ganean, iru eusko gudataldek atxari eraso eutsoen. Burrekak Bagilla'ren 1'go, 2'garren, eta 3'garren egunetan iraun eban, eta azken egun onetan, oldar indartsuz, eusko gudariak tontorra irabazi eben. Etsaiak galtze andiak jasan ebazan, tontorrean egozan buruzagi guztiak galdurik.

Bagilla'ren (Ekainilla'ren) 11'ganean kañoiketa izugarriaren ondorioz, "Burdinezko Gerria"ren aurrean egozan muru batzuk etsaiak artu ebazan. Egun onetan bertan, gerri-aurreko esi arantzadunetaraiño eldu ziran, baiña gabean atzera egin eben. Alde bietan sarraski andiak jazo ziran. Urrengo egunean, eusko indarrak agintzen ebazan Gamir Ullibarri generalak, aitzierazo bat agindu eban, baiña pot egiñik, etsaiak eusko babesak kañoi eta egazkiñakaz eraso ebazan. Zigor onek esi arantzadunak ondatu ebazan. Erasotzailleek galpen andiak jasan ondoren, azken orduetan eusko babesetara sartu ziran...

Bilbao inguruko esia egunik-egun estutzen zan, eta eusko gudariak Bizkai'ko uriburua babesteko gertatzen ziran. 15'ganean frankotarrek Artxanda'n egoan Erroka Deunaren baseleiaz jabetu ziran. Urrengo egun bietan Artxanda'ko burruka izugarria garatu zan, eta 18'ganean Bilbao aurreko babes oneik galduta, 19'ganean etsaia Bilbao'ra garaille sartu zan...

Bilbao iru egun galdu aurretik, eusko aitzindaritzak Andoni'ri Karrantza'ra joateko esan eutsan, eta an, babes-ekintza bateri emoteko agindua artu eban. Santander aldeko lurraldea, au da, Enkarterriak babesik bage egoan, ordurarteko aalegin guztiak Bizkaia ekialdetiko erasoai aurre egiteko gertatu izan ziralako, eta oraingo zalapartan, Andoni'k aal eban giñoan (gitxi alegia) jarduten eban. Andik egun batzutara, Bizkai guztia etsaiek artuta billakatu zan. Orduko, egoera

oneitan jazoten dan antzera, aberria galduta, eta berrirabazteko itxaropena galduta, euskotarrak ezertarako adore barik oartzen ziran, eta aizeak orbelai lez, gertakizunek eroan egiezan baiño, beste usterik ez eben...

GARBIÑE'REN IDAZKIA

Laredo'ko ondartzaren ondoan, Eusko Gudaroestea'k kokatuta eban idaztegiara, aste guztietan Andoni emaztearen eskutitzen baten billa igaroten zan, eta bein baten pozez beterik, Garbiñe'ren joan zane-tiko lenengo idazkia jaso eban. Ondartzaren alboko aulki baten jesarri-ta, zirrara bizi batek menperatuta irakurten asi zan. Ona emen, iñoana:

“Donepaul'eko Yoldi-eneatik.

Nire Andoni maitia: ordua da nire barriak artu dagizuzala, baiña lenago idatzi ez izatea, nire erruari ez dautsazu egotzi bear, nora idatzi ez nekialako baiño, eta noizbait, lengo baten Baiona'ko Eusko Jaur-lantzaren Ordezkaritzara joanda, zuretzako idazkiak Eusko Gudarostera bialtzea biderik egokiena izango litzakela, azaldu eusten. Eta gaur, Igande onetan iradu barik, gure Matxalen bedar-arteko txibiritak biltzen ari dala, arratsalde eder onetako eguzki pizgarripean idazten dautsut.

“Habana”n izan genduan itsasbidea oso ona izan zan, itsasoa bare-bare egoalako, eta onezaz gaiñera, ontziko itsaslarien aldetik oso ondo erabilliak izan gintzazan, zenbat-gura janari emoten euskuela, eta guz-titariko ardurakaz inguratzen ginduezala. Gautu zanean, oeratu gintza-zan, eta goizaldean itxartu nintzanean, ontzia geldidageldi egoan kai luze baten ondoan, eta esan eusten Pauillak portuan gengoazala, Bordel'etik ez urrun. Gosaldu ostean, kaira jaisteko agindu euskuen, eta lerro luze bat eginda, an itxaron genduan, eta noizbait, burnibidez, Bordel'en zear Baiona'ra iritxi gintzazan, eta leku onetan, berebilbusetan, ikastola batzutara eroan ginduezan. Udaldia zanez, utsik egozan, eta gureztat aukerakoak gertatu yakuzan, leku garbi, eta baratz batek iguratuta ego-

zalako. An jaten emon euskuen, eta gero gure izenak artuta, leku ego-
kiren bat jaritsi arte, an egongo gintzakezala, azaldu euskuen. Gero,
baratzera urten gintzazan, eta bedarraren artean osteratxu bat Matxa-
len'ekin egin neban. Jarraian, askaria artu, eta apalostean, oatze eroso-
tan lo egin genduan.

Leku atsegin aretan egun batzuk emon genduzan, gure lagunak
astiro baiña ctenbarik aurkitutako egoitzetara igorri izaten zirala. Eta
guri be, noizbait, txandea be etorri yakun; ona emen zelan jazo zan: .

Astebete bat-edo an gengozala, erakundearen zuzendaria zan
andra begiko batek dei egin, eta auxe esan eustan:

– Aizu, andra bat etorri da, eta azaldu dautsadanean, emakume bat
bere urtebete ta erdiko alabatxuarekin egoitza baten begira zala, ikusi
nai zaituala eskatu dausku, eta iker-aretoan dago; zatoz nirekin.

Matxalen besoetan artu, eta berak lagunduta iker-aretora joan gin-
tazazan. Berrogei urte inguruko emakume apain bat gure begira egoan,
eta sartu baiño ez, auxe itaundu eustan:

– Orduan, zeuk alabatxuarekin onartu zagizan sendi bat billatzen
dozu, ezta...?

– Bai, Andrea– erantzun neutsan–.

– Esango daustazuz zure gora-beerak...?

Olan egin neban, eta izen-abizenak emonda, baita zureak be,
Andoni, berak auxe esan eustan:

– Begira, Andrea, ni Donepaul'ekoa naz, emendik ogeitamar bat
kilometrora dagoan errikoa, eta Yoldi-enea basetxekoa. Baserritarrak
gara, beraz...

Au esatean, Matxalen'eri laztan bat egin eustan, eta onen irribarre
argitsua artzean,

– Garbiñe– esan eustan–, alabatxu zoragarria dozu benetan. Zein
izenekoa da...?

– Matxalen.

– Izen polita, izan be, eta egia esateko, ez dot iñoiz berea lako irri-
barre aingerukoiarik ikusi.

Eta gero, auxe geitu eban,

– Izan be, aspaldi izugarria jasan bear izan dozue, guda guztiek
ipernua dakarrelako. Nik eskeintzen dautsuet bioi gure etxeko bake ta

ziurtasuna bear dagizuen artean. Arratsaldeko irurretan gure erri-berebi-
lla urteten da, eta gertuten ba'zara, alkarrekin abiatuz illuntzean gurean
izango gara. Baiña egia esateko, ez neuke gura, ezelan be ez, zu orreta-
ra beartu; azke zara, beraz, askatasun betean zure aukera egiteko.

Andra arek benetan erakarten ninduan, eta barrukoak aren eskein-
tzea ez zapuztutea eragiten eustanez, poz baten baietza emon neutsan.
Bazkaldu ta gero, erri-berebilla artu genduan, eta Donepaul'era abiatu
gintzazan. Esan bear dautsut, Andoni, euskeraz egiten genduala, eta
Andra arek erabillitakoa bizkaieraz ezbardintasun batzuk izan arren be,
polito alkar ulertzen genduan, gero ta obeto izan be. Aren euskerea kan-
taritsua begitantzzen yatan, baiña oso atsegiña entzumenerako.

Bidean gaindi giñoazala, Andra arek Baiona'ra etorri izanaren
barriak onetaraxe emon eustazan:

– Begira, Garbiñe - esaten asi yatan -, lengo igandeko meza
nagusia amaitu ondoren, gure parrokoak esan euskun anai-arteko
gudaren ondorioz, Bizkai'tik jende asko etorri izan zala, ango izuga-
rrikeritik igesi, emakume ta umeak batez be, eta giristiño zintzoai
egokigunez, bakoitxak bere neurrian laguntza emon bear geunskiela,
eta areago, anai euskaldunak izanik. Etxera biurtzean, Joanes, nire
senarrarekin, parrokoak esandakoari buruz mintzatu gintzazan, eta
onen ondorioz, gurean atzerriratutako emakume bat bere umearekin
artzea erabagi genduan. Biaramonean, beraz, parrokoagana joanda,
onek Baiona'ko erakunde baten elbidea emon eustan, eta orrexegai-
tik, gaur Baiona'ra etorri naz, eta onen ostean, zu ta zure alabatxua
ezaguturik, gurera zatoze.

Isildu zan une batez, eta gero onetaraxe jarraitu eban,

– Gurekin bizi izatera zatozen ezkerro, egokitzen jotzen dot, gure
gora-beera batzuk ezagutu dagizuzala... Nire izena Alis da, eta nire
senarrarena, Joanes. Lau seme-alaba ditugu; iru neskato, Marie, Pelise,
Jeanne, eta etxeko kutuna dan gure seme Beñat. Basetxea Yoldi-enea
dau izena, gure asaben abizena orixe da-ta. Badogu etxeurrean alor
andi samar bat, guztitariko barazkiak emoten dauskuzana, baita arto-
sail polita be, gure oilloak janaritzeko, oneitan talde andi bat dogu-ta.
Gure egoitza ganetxu leun baten jaikitzen da, erriko enparantzatik kilo-
metro bateko tartera, eta larunbatetan enparantzaz ospatzen dan ze
merkatuan, etxeko zalpurdian gure barazkiak eta arrautzak saltzeko
eroaten ditugu. Onezaz gaiñera, eta garrantzitsuena dana, morroi baten
ardurapean ogei esne-beien taldea zaintzen dogu.

Matxalen besoetan artzeko, Alis isildu zan une batez, eta gero one-taraxe jarraitu eban:

– Esan bear dautsut baita be, gure etxaldeak ekarri ona emoten dauskuala, eta gure bizi-modua aren baten dago. Jainkozaleak gara, eta egunoro apalostean, agurtza edo errosarioa esaten dogu, eta gure alabak, errian bertan dagoan lekaimetxe baten azten doguz, eta Beñat gure kutuna, erriko-ikastolan. Etxean lan andia dan ezkeru, Amele izeneko neskame batek gurekin jarduten dau. Oneik dira ba, zeuk geroago egiztatuko dozuzan gure etxeko gora-beerak. Zer diñostazu, Garbiñe...?

– Dirudianez, Alis, egoera onean zagoze, eta nik ez neuke ezelan be, zuentzako eragozpen andirik izan gura. Nire senarragandik agurtzean, onek diruketa bat emon eustan, eta onetatik zuek egokitzen uste dagizuena emongo dautsuet...

Keiñu bizkor batez, Alis'ek eten egin eustan, asarre-antzean auxe iñostala,

– Ez begi orretzaz besterik esan, nire asarrea eragin nai ez ba'dozu. Gurean etxekotzat artuko zaituegu, eta zuen aukeran bizi izango zarie, jasandako naigabeak eta estutasuna aztu dakizuezan.

Ez neutsan esan, baiña, lanaren bidez ostatua ordainduko neuskio-la erabagi izan nebala. Atan orretan, Baiona'tik urten gintzazanetik ordu bete bat igaro izan zan, eta bidezabala aldatz bigun baten beera joiala, erri andi samar bat agertu zan, eta sartzean, Alis'ek esan eustan,

– Ona emen Donepaul, nire jaioterria...

Sakabanatutako etxeak alkartzen asi ziran, eta kale batzuk zercarkatu ezkeru, eleiza txukun baten aurreko enparantza zabal baten erri-berebilla gelditu, eta jatsi gintzazan. Lotan etorren Matxalen itxartu zan eta nire besoetan, itz totalakaz bere eritxiak emoten asi zan. Alis'ek laz-tan bat egin eustan aurpegian, eta esan eustan,

– Matxalen, gure kutuna, zer deritxazu gure erriari...?

– Uli-ulita (polita-polita)– berak erantzun mintzo totalaz–.

Une aretan, zalpardi bat agertu zan, eta Alis'ek esan eban,

– Auxe da Yoldi-eneako orga, gu etxera eroateko datorrela

Berrogeitak urteko gizon lerdan bat jatsi zan, eta orduan Alis'ek alkarrekiko aurkezpena eginez,

– Aizu, Joanes, ona emen Bizkai'tik gure baitara datorren Garbiñe bere alabatxuarekin.

Eta gero, niri zuzenduz,

– Au nire senarra Joanes da.

Alkarri eskua emonda gero, mintzo gozoaz Joanes'ek esan euskun,

– Goazen ba etxera.

Eta nire eskuartekoak gurdian ipiñita, danok egokitu gintzazanean, errian zear abiatu gintzazan, ikusten genduanaren barriak Alis'ek emostazala. Orain, astiro giñoazala, Donepaul politagoa begitandu yatan, eta Matxalen bere mintzo totalaz ikusten ebanaren eritxiak emoten ebazala, erritik urtenda, aldapa biguneko gurdi-bide zabal baten zear, bedartza eta alorren artetik jarraitu genduan, eta bost bat miñutu igarorik, ganetxu baten egoan Yoldi-eneara iritxi gintzazan...

Etxe aretako edertasun eta txukuntasuna ikustean, zur eta lur geratu nintzan iñoiz ikusi izan ez nebalako orren basetxe ederra. Etxaurrea ekirantza zuzenduta, goitik beerako olakaz apainduta egoan, arteko ormaren zuri-uneak bereizten zirala. Arrizko uztaidun atadi zabala bere ongi-etorria eskintzen euskun, eta goiko sapaillo luzeak egapetiko etxaurre osoa artzen eban. Etxeko albo banatara alorra zabalak edatzen ziran. Zalpurdia gelditu zanean, etxe aretako lillurak erakarrita, une batez isillik geratu nintzan. Ames batetik iratzarrita lez, Alis'en mintzoa aditu neban auxe iñostala,

– Eldu gara, Garbiñe, jatsi gaitezen.

Eta gero, Joanes'ek nire bide-zorroak atadira eroiazala, Alis'ek jarraitu eban,

– Ta, zer deritxazu gure etxeari...?

– Izan be, Alis, ezelan be ez neban uste izaten onen ederra izango litzakenik. Zerura natorrela deritxat...

Berak irribarre gozoz erantzun eustan, eta nire eskuari eutsita,

– Orain, zuen gelara lagunduko dautsuet.

Eta au esanik, atadiaren atzetik edatzen zan olezko zurubi edarre-tik goiko maillara eroan ninduan, eta igarobide zabaleko ate bat edegita,

– Auxe izango da zure ta Matxalen'en lo-gela. Orko txokoan garbitzeko konketea dozu. Jarri zaitzeze nasai, eta ordubete baten buruan, jatsi zaitzeze aparria izateko. Igarobideko muturrean, garbi-gelea dago, eta bustialdi bat artu dagikezue. Zeozer nai izatekotan jo txiliñari, eta bereala jara emongo dautsuegu. Agur, eta gero arte, Garbiñe.

– Eskerrik asko Alis, eta Jaungoikoak ordaindu dagizuela.

Irrabarre batez eskertu eustan, eta gero, Matxalen eta biok txirrio (dutxa) bana artuta, jantzi-aldaketea eginda gero, sukaldera jatsi gintzazan, eta etxeko seme-alabak ezagutu nebazan. .

Len esanda lez, alabak iru ziran, amascitika amaika urterarte: Mari, Pelise, eta Joana; etxeko kutuna, zortzi urteko Beñat, mutiko bizi ta argia zan. Joanes, etxejoauna, maipuruan jesarrita, maia onetsi eban, eta beste aldetik, Alis'ek, apariko zerbitzua zuzentzen eban, neskamearen joan-etorriak aginduz. Alaba nagusiak, Mari'k, gure gudeari buruz itaundu eustan, eta nik onen gora-beerak emon neutsazan, jasandako lerkaiketak (bonbardeoak) eta gosea, baita zuk, Andoni'k, egindako lana be. Gero, aparria amaitu zanean, agurtza esan genduan, eta onen ostean oera joan gintzazan. Neskatoek Matxalen maite-mate erabilen, alkarren leian besoetan musuka ta laztanka artu gura izaten ebela. Izan be, gure Matxalenek guztiari begi ona egiten eutsen, eta bere irribarre zoragarriak guztiak zarrastada andia eragiten eban.

Nekatuta, baita pozik be, oeratu gintzazan. Zurubian gora giñoazala, Matxalen besoetan lotan asi yatan, eta bere askatxuan ipiñi nebanean, Alis'ek une batez samur-samur begiztatu eban, auxe iñoala:

– Badirudi, lotan dagoan aingerutxu bat.

Jarraian, bekokian musu bat emonda, auxe esan eustan:

– Gabon Garbiñe; nekatuta egongo zara, eta biar, beraz, itxartuta gero, jatsi zaitekeze iradu barik gosaria izateko.

– Barriri be, Alis, zuen abegia ezkertzen dautsuet.

Irribarrez agurtu zan, eta bereala oean etzan nintzan. Oatzea guztiz eroso zan, eta benetan nekatuta izan arren be, ezin nengikeazan begiak batu, zure irudia etenbarik agertzen yatalako. Gero, amestxar illun baten etsaiak jazartuta agertu zintzakidazan, iges eta iges ziñoazala, eta nik zeugana joan gura izaten neban, baiña, ondikotz...! urrera-tzen nintzakizunean, ustekabez, zure irudia ezabatzen yatan... Noiz-bait, amestxarra ostenduta, lo gozo batek artu ninduan, eta goizeko argia leioan zear gelara sartzen zanean, itxartu nintzan. Matxalen askatxuan igitzen zan, mintzo totalaz zeozer adierazoten nai ebala. Goizeko zortzirak ziran, eta arrapalada baten, lenengo garbiketea eginda, umea ta biok jantzi, eta zurubian beera sukaldera jatsi gintzazan. An egoan Alis'ek irribarretsu agurtu ginduzan, eta bereala kafesnea berotuta, guriñaz igurtzitako ogi-zigorraz, gure biziko gosari gozo-gozoa artu genduan. Amaitzean, Alis'ek auxe esan eustan:

– Garbiñe, orain goazen kanpora, etxeko inguruak ezagutu dagizuzan.

Goiz ederra zan, eta lekoretik eguzkiak argituta ikusten zan ikuskaia zoragarria zan. An bean, eleizaren joaletegi txairoa erriaren gaiñetik jagiten zan, eta ingurutik basetxeak edo bordak sakabanatzen ziran uso-talde zuriaren antzera, bitxiak bai'litzazan. Ur garbitako erreka batek erria zearkatzen eban, eta gero iradu barik, itxasorantz abiatzen zan, bere ames biziak onen kolkoan isurtzeko...

Baiña oroz gaiñetik ederrena, Yoldi-enearen ingurua zan. Muru orlegiek inguratuta, eta baso ederrak zipriztinduta, egoalderantz mendikate garaituak urrutira edatzen ziran, Ori mendia erraldoi zaindarien baten antzera bereizten zala. Etxetik ikusten zan ikuskaia zoragarria zan, eta nekez asmatu daiteke axe baiño ikuspegi ederragorik.

Orain, Andoni maitia, eldu nintzanetik egun batzuk igaro dira, eta Yoldi-eneak gero ta ederrago derist. Etxaldea aberatsa da, eta larunbatetan erriko enparantzan ospatzen dan zeira, zalpurdia guztitariko barazkiakaz saltzera daroaz Alis'ek baita etxeko arrautzak be, oneik ollotik arakoak diran ezker, eskaera andia izaten dabe. Joanes'ek, zalpurdia erabilten dau, eta zeira eldutakoan, salgaiak erakus-maian egokiturik, etxera biurtzen da, eta Alis'ek goiz-berandurarte saltzeari emoten dautso, eta orduan, Joanes emaztearen billa zalpurdiaz dator, etxera itzultzeko. Ezpaibarik, darabilen bizimoduaren arauz, Yolditarrak aberatsak dira.

Sarri askotan, Alis'ek badiñost ni atsedena artzeko etorri nazala, eta beraz ez dau gura lanik egin dagidan, baiña ez dautsat jaramonik egiten, eta aal dodan giñoan, etxeko lanetan diardut, eta batez be sukaldekoetan. Goizean, oetik jagita gero, nire oea ta Matxalen'en seaskatxua atonduta gero, eta gure oiko garbiketea egiñik, sukaldera jaisten gara, eta gosaria artuta, eguraldia ona izatekotan, lekorera urten, eta eskutik artuta, Matxalen'ekin osteratxu bat egiten dot, eta gero Alis'eri etxeko lanetan laguntzen dautsat.

Len esan dautsut, Yoldi-enean ogei esne-bei azten dirala, eta egunoro, atadian bildutako pegarra zama-berebil batek jasoten ditu, esnelankidetza batera eroateko. Yoldi-enean jaisketa bi egiten dira: goizean bat eta illuntzean bigarrena. Ogei beien jaisketea neketsua dan ezker, xurgatzaille motordun bat erabilten da. Lan au, Joanes'ek eta etxeko morroiak egiten dabe. Goizeko jaisketea amaituta gero, beiak etxe-

atzean dagoan bedardi zabal batera eroaten dira, eta emen, illuntzerar-te alatzten diardue, bigarren jaisketea izateko kortara ekarten dirala. Beiez bestalde, idi-bustarri ederra darabille soloetako lanak egiteko.

Aldia emoteko, eta gure bion ostatu-saria zelanbait ordaintzeko, Alis zeira doanetan, sukaldeko lanetan diardut, eta nire sukaldaritze etxeko guztien eritxiz oso ona dan ezkerro, gero ta geiago diardut, bide batez, Alis'ek. geuk darabilgun sukaldaritze ikasten diardula; augaitik, sukaldeko zeregiñetan jardun dagidala lagaten daust. Lengo baten, makaila bizkaiko erara antolatzea otu yatan, eta ez dakizu zelako arrakasta lortu eban. Ordutik, abo batez, etxekoek jaki ori era guztietan atondu dagidala eskatzen dauste, eta esan dagiket arrotasun barik, Yoldi-eneako sukaldari ederretsia biurto nazala.

Baiña esan bear dautsut, Andoni maitia, etxekoen arrakasta gorena, gure Matxalen biurto dala. Danok gurtzen dabe, eta bera besoetan artzeko ta laztantzeko eztabaidan ari dira, eta nork kortara eroaango gure umeak abereak ikusi ta laztandu dagiazan, edo oilloen txiten atzetik joan daiten, baita etxeko txakurrari uleak teink egin dagitsan, danok alkarren leian diardue.

Esan bear dautsut, gure Matxalen doai bereziki batez apaindua dala: lillura edo sorginkeria. Bere ezpanak irribarre egiteko edegiten diranean, badirudi argi bigun batek dana argitzen dauala, eta bere aurrean naigabeak ostentzen dirala. Auxe diñotsut, zure alabatxuaz arro oartu zaitez... Izan be orko inpernuan zoribakoa oartuko zara, eta zure naigabeak arintzeko badiñotsut Jaungoikoak sari bat emon dauskuala: gure Matxalen zoragarria... Biotzean eroan zakiguz, eta oñaze-aldiak etorri dakizuzenetan, gogora ekarri, nire maitasun osoak eta zure alabearen irribarrearen izarrek, beti-beti laztanduko zaituela...

Emengo barriak diñoenez, gauzak ez doakioz ondo errepublikeari, eta Euzkadi galdu izan dan legez, iparreko alde guztia luzaro barik frankotarrek menperatuko dabela. Barri oneik artogatzen nabe... Zer billakatuko zara, maite ori, orain zagozan Santander garaitua izaten ba'da...? Oldozkun oneik estu ta larri biurtzen nau. Eusko gudariak Jaungoikoaren eskuetan zagoze, eta alatz edo mirari bat jazo ezcan, etsaiaren eskuetara billakatuko zarie. Gau guztietan, oera joan aurretik esaten dogun agurtza, zure alde eskeintzen dot, eta Jaunari auxe eskatzen dautsat: dana galduarren be, zu ta gure Matxalen gorde dagistazala, besterik ez dot bear-eta zorionsua izateko...

Agur, Andoni maite ori; zaindu zure burua, eta Matxalen'en irribarre argitsua ta nire maitasun itzali-eziña, ordu mingotsetan bakea ekarri dagitsuela.

Zure emazte Garbiñe “

Andoni'k negar baten musuakaz estali eban bere emaztearen idazki maitetsua, eta izan be, bakezko oarpen bakan bat beratzaz jabetu zan, ordurarte izandako atsekabeak baretzen yakoazala...

IRU URTEKO ESPETXALDIA

Dagonilla'ren egun baten, frankotarrek italiarren gudaroste indartsu baten laguntzaz Santander lurraldea eraso eben, eta Burgos'ko mugatik asitako ekintza au arrakastakoa billakatu zan. Barri oneik entzutean, latz-ikara batek astindu eban Andoni, eta eiztariak urteera guztiak itxi dautsoezan basabere baten antzera oartu zan. Andik egun batzutara, gudako barriak nekez irazten baziran be, Andoni'k lan egiten eban lekura zurrumuru txarrak etorri ziran. Aitzindaritzatik Asturias'erantz aldatzeko agindua artu eban, baiña onen aurretik, Laredo'n Eusko Gudarosteak eban egoitzara joan zan, eta an, etorteko ziran gertakariak Santoña'n itxaroteko aolkatu eutsoen. Bertanbeera, zorro baten eskuarteko urriak artu, eta berebillez lagun batzukin dalako errira joan zan. Bidean zear joiala, alde guztietatik erreskada luzetan, gudariak Santoña'ra abiatzen zirala ikusi eban. Erri onetara eldu zanean, norabarik ebiltzen gudariakaz beterik egoala ikusi eban.

Batetik bestera norabarik joiala, erriko kaira joatea otu yakon. Une aretan, englistar itsasontzi eder bi urreratzen zirala ikusi eban, onein oskoletan izen oneik irakurri zeitekezała: "Bobby" eta "Seven Sea's Spray". Inguruan egozan gazte batzuk, Euzkadi'ko gudariak erbestera eroateko etorri izan zirala alkarrri iñotsoen, eusko burukideek Italia'ko gudarostearekin itun bat lortu izan ebela, eta onen arauz, eusko gudariak-eta erbestera joango zirala. Barri au entzutean, pozez bete zan Andoni, uste izaten ebalako egia izatekotan, bere biotzeko emazte ta alabatxuarekin batuko litzakela. Gau aretan, ogi-tarteko batzuk jan ondoren, kaleetatik norabarik joiala, ezagutzen eban buruzagi bateri, len ikusitako ontziai buruz berba egin eutsan, baiña besteak,

– Ez uste, adiskide, entzun dozuzan zurrumuruok. Ara... italiarrekin benetako itunpena egin ba'da, eta oneik benetan ba'diardue, gauzak beste modura egingo litzakez, eta izen-zerrendak gerturik egon bear izango leukez, joateko diranai banan-banan dei egitearren. Ez uste, ezezkorra nazala, baiña nik beintzat ziurtzat jotzen dot, atzerrira joateko aukerarik ez dogula izango.

Andoni'k bere baitan ontzat emon bear izan eban bere adiskideak iñotsana egiaren antza erakusten ebela, eta lur-jota, bere ibilte alde-rraiari jarraitu eutsan. Atsekabeak artuta, kaleko aulki baten jesarri zan, eta alako baten, eusko gudataldeek Dueso espetxetik askaturiko frankotarrak, berebilletatik joiazala ikusi eban euron ikurriñek astinduz, eta lau aizeetara auxe aldarrikatzen ebela:

– ¡Vivan los vascos, vivan los vascos...!

Bildur izan ziran, euretarrok Santoña'ra sartu aurretik, erriko milizianoek amorruz eraginda erail egiezan. Baiña orain euren buruak aske ikusita, ezin egikien euren poza menperatu, eta eusko gudariakana eskerrona era orretan adierazoten eben. Luzaro barik, baiña, aizean galdutako alperriko oiua izango litzakez...

Nekez apurtuta, lo egiteko asmoz Andoni aulkian etzan zan, baiña barruko atsekabe uxa-ezin batek, begiak itxiten ez eutsan lagaten, eta Dagonilla'ren ortzi gardena gau eder aretan begiztatzen ebala, estu ta larri bere buruari itauntzen eutsan noiz ikusiko leukezan bere biotzekoak...

Urrengo egunean, Dagonilla'ren 26'ganean, italiarrak Santoña'ra sartu ziran. Orduko, eusko gudariak erreskada luzetan kokatuta itxaroten eben. Itxura gudakoiak italiar buruzagi batzuk euren berebilletan igaro ziran janzki barri baltz txukunetan, aurpegia jasota, bularra arrotuta, eta begiak arranoen baizen menperakaitzak. Oiñetakoak eta ugaldiak dizdirak jaurtiten ebezan, eta antziñako Erroma'ko kaiser garailleen arrotasunaz, andigura ta ikara-eziñak igaro ziran garaitutako eusko gudarienartetik. Jarraian, erriko kaleak guda-berebilletan etorritako italiar gudariakaz bete ziran. Andik ordu bitara-edo, Treto'ra abiatzeko agindua artu eban Andoni'k, eta Santoña'tik urtetezan, "Bobby" ta "Seven Sea's Spray"en irudi bakar eta utsak atzean geratu ziran...

Eguberdiko eguzki astunpean, izerdi patsetan eta nekatuta, Treto'ra eldu zan, eta emen berebil anditan sartuta, Castro Urdiales'era eldu, eta erri onen inguruko kapardi baten kokatu izan zan.

Italiarrek sartutako kapardi aretan, gudariak ondo egozan, benetako guda-atxilloak lez erabilliak ziralako. Italiarrek euren buruak munduko gudaririk zangar eta onenentzat jotzen ebezan, etenbarik esanez, Italia'ra Frantzia'n zear legorrez biurtuko litzakezala. Guda-atxilloak gorroto barik erabilten ebezan, au da, begirunez eta adiskidetsu. Baiña andik amar bat egunetara, gauzak zearo aldatu ziran, aldatu be. Falanjisten talde batek italiarrak ordeztu ebazan, eta ordutik, guda-atxillotzat erabilli barik, arerio gorrotagarritzat artu izan ziran.

Urrengo egunean, bultzaka ta gaizki esaka, zaindari frankotarrek zama-beribil batzutara gudariak sartu, eta berba egiten debekatuta, arein begirada ankerpean, nora ez ekiela abiatu ziran. Noizbait, Treto'ra elduta, Santoña'ra abiatu ziran, eta erri onen gainean datzan Dueso'ko zigor-espetxearen ebakun gorrotagarritan abiatu ziran. Erria zearkatzean, Andoni'k ez eban lengo egunetako "Vivan los vascos" oiua aditzen, eta ango erritarren begirada otzak inguratuta, erritik urtenda, aldatz batetik, Andoni bere taldearekin Dueso espetxera sartu zan, atzetik burdiñezko atetzarra kurrinka izugarriaz ixten zala.

Andoni jatsi zanean, kantoizuzena eratzen eban egal biko eraiki anditzar batera sartuta, an egoan gudarien erreskada bateko atzekaldean, binaka jarriak izan ziran. Zigor espetxe aretako zaindarien talde ugaritsu batek eskoi-ezkerran kokatuak, begi zorrotzakaz aztertzen ebezan atxilloak, eskuetan gomazko idizillak itxura zemaikorraz erabillezala, eta berba zakarrakaz isillik egoteko agintzen eutsiela.

Astiro, baiña etenbarik erreskadea aurrera joian, eta noizbait Andoni burura eldu zanean, an erabilten zan ostuketea argitu yakon. Aurreko burusi zabal baten gainean, guztitariko urrezko bitxiak, domiñak, kateak, ezkontz-erestunak, ordulariak, eta dirua metatzen ziran. Gudariak beartuak ziran guztitariko zemaikaz baliodun eben guztia burusira jaurtiteko. Andoni'ren aurretik joian gudari batek urrezko domiña ta katea ez ebazan bota gura. Orduan, zaindari batek teinkada basatiaz katea eten egin eutsan, eta metara jaurti ondoren, gorriak esaten eutsazala, zigorraren zartada itzel batzuk emon eutsazan. Eta noizbait Andoni'ri txandea etorri yakon...

Ezkondu zanean, Garbiñe'k urrezko domiña ta katea bezuza maitetzat emon izan eutsazan, eta bestela-baitakoan idune-ingurutik kenduta, praka-aurreko sakel txiki batera sartu ebazan. Zaindariaren aurrean egoanean, onek zakar esan eutsan:

– Venga ya bandido, echa ahí tó lo que tenga, que como luego yo te encuentre argo, te mato a palo...

Burusiaren aurrean egoan, eta eroiazan diru-apurrak jaurtita, aldendu zan. Zaindariak orduan, idunea aztertu eutsan, eta ezer ez eroiala ikustean,

– Vaya cerdo, ni siquiera lleva medalla...

Gero, erreskada luze baten jarrita, igarobide luze baten zear ibilten asi zan. Ate bakotxaren aurrean, giltzari batek zabaltzen eban, eta barrura bigiraturaz,

– Emen ainbeste lagun sartu daitezela– iñoan–.

Eta esandako beste atxilloak sartzen ziran. Noizbait, Andoni`ri txandea etorri yakon, eta giltzariak gelatxu bateko atea zabaldu, eta “emen lagun bat” esan ebanean, Andoni barruratu, eta atea itxi zanean, beste sei atxilloekin bere burua ikusi eban. Oraingo lagunak, Guda-lor-ketako erakundean jardun izan eban, eta laster berarekin itz egiten asi ziran betiko lagunak izan bai`litzazan. Gelatxu arek burdiñezko oe bat eban, eta irola bat, besterik ez, eta itxita egoan leio batek zabaldira emoten ebala. Argi egoan, gelatxua lagun batentzako zala, baiña Dueso`ko zigor-espetxean iru milla bat gudari atxilloak ziran ezkerro, au da, espetxeari egokiozan zazpi bidar geiago, gelatxu bakoitzean, zazpi lagun sartu bear izan ebezan.

Andik laster, atea zabaldu zan, eta lapikotzar bat ekarrela atxillo bi agertu ziran, eta irugarren batek barruko bakoitzari burdintzalikada bana latontzi baten isurtzen eutsan. Espetxe aretan, atxilloek ez eban iñongo eskuartekorik artu, eta esku-utsik egozanez, janari-latontzi utsak erabilli bear izaten ebezan, eta egur-zatiakaz landutako koillararak, besterik ezean, erabilten ebezan. Lo egiteko, lastamarragarik eta burusirik ez ebenez, lurreko soruan etzanda lo egiten eban. Aldiaren bidean, batzuk etxetik lastamarragak eta burusiak lortu ebezan, eta areitariko lagun batek andik astebete batera, Andoni`ri burusi bi emon eutsazan, eta oneitan bilduta aal ebanez Andoni`k lo egiñez edo beilan, gabak emoten ebazan.

Egun aretan bazkaltzeko, Andoni`k azpil edo platerarik ez ebala ikustean, areitariko adiskide barri batek, latontzi bat eskuratu eutsan auxe iñotsala:

– Ona emen etxe onetan erabilten dogun azpilletariko bat. Izan be, ez da iñongo erti-lana, baiña lapikotzar orretatik emongo dautsuen lain-ta zikiñarentzat, naikoa ta larregi dozu.

Egia zan lagun arek iñotsana; ur anditan ugeri egiñez garbantzu urri batzuk artu ebazan, eta gosea kentzeko, artutako ogitxu bateri bere biziko aginkadea emon eutsan. Orduan beste lagun batek,

– Kontuz, lagun, ogitxu orrek egun guztirako iraun bear dau, eta onezkero erdia garbitu dozu.

Eta olan, goseari belarriak lenengoz ikusten eutsazala, Andoni`k bere lenengo eguna igaro eban, lagun barriekin itz egiñez eta bidebatez zelako jasekoak ziran egiztatuz. Izan be, Andoni`ren gelakideak mutil onak ziran, eta erdiko kultur-maillakoak. Lenengotik Andoni ondo artu eban, eta aldiaren bidean ezerk ausiko ez leuken adiskide miñak billa-katu ziran.

Gabean, bazkariaren baten egoan apari urri ta ezaiña artu eban, eta garbi-tokira joan ostean, bera be atxilloa be zan turutalariak lo-deia jo, eta burdiñezko oatzea jabetzen ebana izan ezik, enparaduko beste seiak burusietan bilduta soru-gaiñean etzanda lo egitera gertatu ziran. Bere espetxeko lenengo gau aretan, Andoni`k oso txarto lo egin eban, batetik soruaren gogortasuna zala-ta, eta bestetik emazte ta alabatxua gogotik kendu eziña. Eta olan, txandaka lo ta itxartua irauala, lenengo gau amaibakoa igaro zan, eta goizaldean turutalariak argi-deia jo ebanean, beste lagunekin garbi-gelara joan zan, eta onen ondoren, gosaria banandu yaken. Ur margoduneko burdintzali bana artuta, Andoni`k bere buruari itaundu eutsan zerezkoa izango ete ur margoduneko edari epela, baiña bere aurpegiko keiñua ikusi izan eban bere lagunetariko batek, auxe esan eutsan:

– Begira, Andoni, gure artean asko erabilli dogu zerezkoa izango dan emoten dauskuen edakeria, eta eretxi bi azaldu dira: bata garbantzu erreekin egiña dala, eta bestea, ardi-txirriakaz. Edozelan be, eta gosariaren ezkutua azaldu arte, berotsua dala aitortu bear dogu, eta ori bada zeozer gure urdaillaren ongi-etorria artzeko. Artu dagigun ba eskerro-nez, frankotarren gosari bikaiña.

Goizerdian, larraiñera (patiora) urten ziran eta an, aspaldiz ez ikusitako adiskide batzuk begiz jo ebazan Andoni`k, eta ordubete bat igarota, gelatxuetara barriro, beste atxilloen txanda zalako, guztientzat era baten naikoa lekurik ez egoalako. Eta gelatxura elduta, zazpi lagunak alkarriketa luzean tartekoa izan zan, beste biderik ez egoala-ta aldi luze amaibakoa igaroteko. Egunak amaibakoa ziran, guztitariko sasi-barriak edatzen zirala. Zorionez, bein baten, euskera ikasi gura eban adiskide bat aurkitu eban, eta itun auxe erabagi eban: Andoni euskal-

dun jatorra zan aldetik, bestearekin euskeraz jardungo leuke eta onek ordaiñez, Lauaxeta'ren eta Lizardi'ren olerki-txortak eta Kirikiño idazle andiaren lanak lagako leuskioz. Izan be, itun au bene-benetan onuragarria azaldu zan Andoni'rentzat, gelatxuko ordu amaibakoak jasankoragoak biurtzen yakozalako.

Bein baten, espetxetik emazteari igorritako bere lenengo idazkieren erantzuna etorri yakon. Ez zan luzea, espetxera ta espetxetik idazkitxuak (bialgo-txartelak) soillik onartzen ziralako. Ona emen emazteak iñotsana:

“Andoni maitea:

Artu neban espetxetiko zure idazkitxoa niri ezagutu-erazoz, Dueso'n atxillo zagozala, eta aldi batetik mingarria ba'yat, bestetik pozgarria, bizirik zaitudala badakit-eta. Geu, oso ondo bizi gara, maitetsu zainduta garealako, Yoldi-eneakoek ezin obeto zaintzen gaituelako. Matxalen, etxeko jostailutzat danok darabille, eta lei bizian diardue umea eskutik oratuta edonora eroateko. Izan be, gure alabatxua gero ta zoragarriagoa azaltzen da guztien kutuna biurtuz. Ez dot lekuri idazkitxu onetan luzeago azaltzeko. Artu egizu nire ta Matxalen'en maitasun betea, eta urrengorarte. Esaidazu zelan zagozan.

Zure emazte maitia, Garbiñe”

Andoni'k bein eta barrero irakurri eban bere emaztearen idazkia, eta Jaungokoari eskertzen eutsan, bere biotzekoak gumatik atara, eta leku ziur batera eroan izateagaitik. Ez ekian noiz arte iraungo leuken bere espetxaldia, baiña ikusitakoaren arauz, luzarorako izango litzake-la somatzen eban.

Espetxera sartu, eta illabete batera-edo, bein baten bere izena aldarrikatzen ebela entzun eban, eta ateko idaztegira joanda, emengo batek jakiñerazo eutsan guda-entzuleak bere azalpena itxaroten ebala, eta aregana eroan eban. Guda-entzulea komplementoko alfereza zan, eta eldu baiño ez, bere gudaldiaren gora-beerak eskatu eutsazan. Gazte onek frankotarren arteko ikusten ez ziranetarikoa zirudian, eta Andoni'k autortu eutsan, bere egoera zuritzeko, gudarako dei egin eutsoenean, ezinbestez, guda-babesen lanetan jardun izan ebala, bere ogibidea etxegintzan izan zalako. Alferezak beste zeatz batzuk eskatu eutsazan, eta noizbait, bere azalpena izenpetu ondoren, gelatxura biurtu zan.

Andik amabost egunetara-cdo, beste berrogeitak atxilloekin, auzigela batera eroan eban, eta orduan iru guda-epaikarien aurrean auzia asi zan. Ordu ta erdi iraun eban epaiketea, au da, buruko miñuto bikoa izan zan, eta amaitu zanean, ogei urte ta egun bateko espetxe-zigorraz epaitu eban maikoak ziran buruzagi areik, eta amabiko lagunek eriotzera galdu izan ziran. Onein etorkia miñutu bitan erabagia zan, eta eriotzak gaiña artu izan eban.

Baekian Andoni'k bere espetxaldiak luze izango litzakela, eta augaitik, bere ikasle emondako euskal liburuetan murgildu zan, inguruko lagun batzuk esaten ebezan ganorabakokeriai jaramon egiteke.

Urrilla'ren 15'gnean, espetxe guztia iñarrosi eban gertaera bat jazo zan. Goizaldean, amalau atxillo su-iskillotu izan ziran, eta barri au zabaldu zanean, eriotz-giro bildurgarriak atxilloak menperatu ebazan. Eraildakoen artean, Azkue'tar Erramun, Eusko Gudarostearen nagusia izan zan, eta Markiegi, Deba'ko alkatea. Egun aretan, atxilloak larrainñera urten ziranean, amalauon azkenaren zertzeladak zabaldu ziran. Eriotzari bildubarik eta adoretu aurre egin eutsoen, eta jaunartu ondoren, aberria goratuz, jausi ziran.

Andik egun batzutara, eriotz-epaituak Bilbao'ko Larrinaga espetxera aldatu izan ziran, eta oneitariko batzuk Derio'n su-iskillotuak

Bere liburuetan murgildu arren be, Andoni'k ezin egikean gosearen mamu baltza uxatu. Zoritxarrez, baiña, gatx au ez zan bakarrik etorri, eta egunen bidean, zorrien ziztadak ezagutzen asi zan, eta gabetan, sabaian begira egozan imitxak atxilloen gaiñera jausten ziran onein odolaz asetu arte, goizaldea barik sabelbete goiko lekutara iges egiteko. Atxilloak gero ta argalago, zorriak eta imitxak oster, gero ta lodiago.

Bein baten, Jaime 1'goko guda-ontziko itsaslari bat igarobidean zear joiala, Castor izeneko espetxelari batek bere ondolik igarotean, buruko kapelea kendu bear ebala esan eutsan. Burutik egiña zan atxilloak, baiña, jaramonik ez. Orduan, dalako Castor'ek itsaslaria ukabilka lurrera bota, eta ostikoka asi yakon. Ekintza au ikusi eban lagun batzuk Castor'eri txistuka ta didarka asi yakozan, eta orduan, espetxelaria aldean eroian zizpoleta atara, eta danbadaka asi zan. Orduan atxilloak, aal eban giñoan gelatxuetara sartu ziran. Gau aretan, “Periodo”ko atxilloak lekoretiko janaria eta ikerraldiak izatea debekatuta zala jakin eban. Eta onezaz gaiñera, gau aretan eriotz-zigorra eban berrogetak atxillo su-iskillotuak izan ziran...

Kanpotiko arremonak eten izateak ondore txarrak ekarri ebazan atxilloentzat, gosearen mamu izugarria agiriago ikusten ebela, etenbarrik janariaz ames egiñez. Zorionez, larraiñera urtetea galozota ebenez, gelatxuan geldirik egoteak ez eutsen indarririk kentzen, eta augaitik bizi-rik jarraitu aal izaten eben. Edozelan be, egoera au oso aspergarria zanez, Andoni aldia emoteko bere irakurketan murgilduta bizi izaten zan, eta gau luzeetan itxartuten zanean, gogora ekarrezan Yoldi-eneako bakean bizi izaten ziran bere biotzekoak.

“Periodo”z beste egozan atxilloak, ez eben esandako oztoporik, baiña egunero taldeka, frankotarren ikurriña goizean aga luzearen muturreraiño jagiten zanean, lekukotzat egon bear izaten eben, eta España ta Franco goratzea beartuak izan ostean, illuntzean barriro biur-tzen ziran ikurriña beeratzean. Bein baten, Sollube’ko erasoan kañoi-jaurtiki batek piñu bateko enborrean ler egin ostean, aren metralla zati batek zauri osatu-eziña eragin eutsan gudari bateri, etenbako oiñazetan bizi izaten zan, eta illuntze baten ikurriña beeratzen zanean, aurreratu, eta “Gora Euzkadi” “Viva la República” aldarrikatu eban. Urrengo goi-zean, ikurriña goratzen ebenean, bere lagunuen aurrean, gudari gaixoa su-iskillotu eben.

* * * *

Viñales kapitana belaunean zaurituta, miñaren-miñez lurean iraulka Andoni madarikatzen ebala, alboko gudariak baillarta baten Legutiano’ko gudaletxera aldatu eben, eta jarraian, berebil baten Gasteiz’era eroanda, emengo guda-geisotegira astirik galtzeke sartu eben. Txandako osagilleak belauneko zauria ardura andiz aztertu eutsan, eta aren eritxiz zauria itxura txarrekoa izanik, eri-berebil baten Valladolid’eko guda-geisotegira eroan izan zan, leku onetako osagilleak ospe andikoak ziran-eta.

Eldu baiño ez, eta Viñales kapitana Gasteiz’eko gudalburuaren aipamenik onenakaz etorren ezkerre, geisotegi onetako zaurilaririk (traumatologos) onenak bereala ardura andienaz, belauneko makurra aztertu eben. Zauria itxura okerrekoa zan, artutako ukaldiak “illargi-adarra” (menisco) amaika zatitan apurtu izan eutsalako, eta onen ondorioz, belaunaren osakuntzea zailla billakatzen zan. Osagille-buruak bere menpekoai batzar batera dei egin eutsen, eta zauria itxura txarra izan arren be, aalegin guztiak erabiltea guztien aburua izan zan, eta

eroapenik andienaz dalako illargi-adarra zelan edo alan lengora biur-tzen saiatu ziran, baiña egunen bidean egiztatu aal izan eben, euron inkezak edo egiñaalak alperrikoak zirala, eta Viñales kapitanari miñak kentzeko, belaunari jokia kentzea bide bakarra zala erabagi eben, eta au ezinbestekoa izanik, zaurituari azaldu eutsoen.

Viñales’ek osagilleen eritxia jakin ebanean, belauna zauritu izan eutsan Otxandio, gorrotoaren-gorrotoz madarikatu eban. Baiña besterik ezean, amor emon bear izan eban, eta egun baten bizitza osorako belaun-elbarritua geratu zan, bere amesak betirako ezereztan yakoza-la...

Baekian Viñales’ek, belaun-motza izanik, gudaritzan ezin egikea-la gora andirik egin, eta Gasteiz’eko gudal-buruaren laguntzaz, bakar-tzea (erretiroa) eskatu eban. Izan be, gudaritzan ederrespen andikoa izanik, eskaturikoa onartu eutsoen, eta gaiñera komandante-maillaz. Orain, ogei eta amar urteko izanik, yatorikon illerokoak ondo bizi aal izaten eban, baiña belauna ondatu izan eutsan dalako Otxandio madari-katu aregana, gorroto itzali-eziña oartzen eban, eta bere buruari zin egin eutsan, zelan edo alan, mendekua artuko leukela.

Eta bere mendeku-ekintza ondo garatu ostean, frankotar agintaria-kandik, espetxeak eta lan-atxillotege guztiak ikertzeko eskubidea jaritsi eban, eta orduan, Euzkadi’ko espetxe guztietako atxilloen izenak eskatzen asi zan, eta onen ondorioz, “Otxandio” abizena iñondik agertzen ez zala egiztatu eban. Orduan, illunpe areitan, iñusturi baten antzera, billatzen eban abizena guzurrezkoa izango ez ete, burura etorri yakon. Eta orduan, espetxe guztiak ikertzea erabagi eban, eta onein atxilloak bere aurrera dei eginda, banan-banan aztertzen ebazan “Otxandio” dalakoa aurkitzeko asmotan, eta bein baten Dueso’ko zigor-espetxeari txandea etorri yakon...

Baekian Viñales’ek espetxe onetan guda-buruzagi asko egoala, eta emen Otxandio madarikatuaren aurpegia ikusi legikeala uste izanik, Urrilla’ren egun baten aratu zan frankotar gudaritzak bere aukeran jarritako berebilleaz. Eldu baiño ez, espetxe onetako zuzendariak zuri-keri guztiak abetaldu eban, eta bere asmoa ezagutu ebanean, bereala, espetxeko atxillo guztiak erreskadatan jarri zeitezen agindu eban.

* * * *

Ez zan lenengoz Andoni dei egiña zala olako azterketak jasateko, eta gelatxuko atea edegi zanean, bere lagunekin larraiñera abiatu zan,

erreskada luze bat eratuz. Atxilloek, "Periodo"ko sarbide nagusiaren aurretik egoan beste atetzar andia zearkatu bear izaten eben larrañiera urteteko. Andoni, erreskada luze aretan urtenbidera abiatzen zala, espetxeko zuzendariarekin belauñ zailduko gizon bat izketan egoala ikusi eban, eta aregan ezaguturiko zeozer egoala begitandu yakon... Andoni ikusmen zorrotzekoa zan, eta bereala begi sarkorrek gizon aregan josita, biotz-ikara batek astinduta, Viñales berbera zala oartzean, iñusturi bizi batek jota lez, zertara etorria zan igarri eban. Bai, "Otxandio"ren billa etorren ezpaibarik, betirako erren biurtu izan ebanari merezitakoa emoteko. Ondo ekian Andoni'k, Viñales'ek ikusiko ba'leu, berarentzat aukerarik ez litzakela egongo, eta beraz, zelan edo alan, joian lerrotik ostentzea ezinbestekoa litzakiola... Zelan, baiña...? Une aretan garbi-gela nagusiko atetik igaroten zan, eta uts ala bete, larritasunak eraginda, sartu, eta iroleko lerrotik agertu yakon lenengo gelatxura sartu, eta atea itxita, an bertan geratu zan, txintik atarateko be azartuten ez zala. Andik laster, espetxelari batek lekua aztertu eban, eta iñor ez egoala ikusirik, garbitegitik urten zan.

Larraña "Periodo"ko atxilloakaz bete zanean, zuzendariak lagun-duta, Viñales'ek an eraturako lerroak banan-banan aztertu ebazan. Astiro joian, iradua eragozpen andia zala-ta berak billatu nai ebana ikusteko, eta bere begi kiskaltsuak atxillo bakoitzagan ipiñita, anka zurruna aal eban antzera erabilten eban. Ia ordubete bat emon eban bere azterketak, eta amaitu zanean, espetxeko zuzendariarekin onen idatzegira biurtu zan. Orduan Dueso'ko espetxeburuak,

– Dirudiane, billaturiko "Otxandio" ori ez dozu ikusi espetxe onetan, ezta...?

– Ez, zuzendari Jauna, baiña jarraituko dot nire billaketea, eta zin dagitsut, zelan edo alan egunen baten estalgetuko dodala, eta orduan dalako madarikatuak, damu izango dau ni erbal biurtu izana...

– Zein asmo dozu orain komandante Jauna...?

– Santander eta Asturias'eko espetxe guztiak ikertuko dodaz, eta leku erreitan ezer lortzen ez ba'dot, España'ko espetxe ta lan-atxillote-gi guztiak arakatuko dodaz. Badakit ori lan andikoa izango yatala, baiña egitan bizitzaldi guztia nire aukeran dot erbal biurtu ninduana aurkitzeko, eta ziñez diñotsut, ereti ori datorkidanean, neronek aginduko dot su-iskillotu dagian taldea.

Eta itz oneik esanda, bere bizitzaldi osoan zear iraungo leuken alperriko billaketari jarraitu eutsan Viñales anka-motzak...

Ikerraldi au amaitu zanean, Andoni lagunekin bildu zan, bere buruari zin egitsala, aurrerantzean arduratsu joko leukela kanpotik etorritakoek egiten ebezan azterketa oneitan.

Noizbait, bere bizitzaren Gabonetako jairik illunenak igaro ebazan, baiña Urtebarrian, atxilloek barri on batartu eben: lengo zigorraldia amaituta, gai izango litzakezala kanpotiko arremonak barriro artzeko. Izan be, Andoni'k ezin eban lekoretiko gauzarik artzen, Otxandiano'ko bere sendi guztia atzerriratu zalako, baiña gelatxuko bere lagun-ek etxetik zeozer artzen eben, eta orretatik, asko ez izanik be, Andoni'ri zatitxu bat etorkion. Olan ba, eta zorrien eta imitxen ziztadak uxatu ezifnik, egunak aurrera joiazan. Udabarrian Aberri Eguna etorri yaken, eta aurreguneko isil-jotean, atxilloa be zan turutalariak "Jagi Jagi Euzkotarrak" soifua jo eban, eta onen eresiak unkituta, Andoni oeratu zan bere maitietzaz ames egiten ebala. Zer ez leuken emongo, bere emaztearen besarkada maitia eta Matxalentxu'ren irribarre zoragarria artzearren...!

Biamonean, euskotarrek Aberri Eguna ospatu oi dabean lez, jai egin eben, gelakide guztien artean etxetik bialitako janariak bananduz, eta jaia biribiltzeko, arrasti-erdian txokolatada ederraz egun ospetsu ori amaitu zan.

Edozelan be, gosea etsairik ankerrena eben. Bein baten, gelatxuko atean janariari itxaroten eutsala, Andoni'k gauza aztueziña ikusi eban: Janari-banatzailleei, ibiltearen bilin-bolakaz, lapikotzarretik goikaldeko txurritada bat isuri yaken. Ozta-ozta lurreratu zanean, andik igaroten zan atxillo batek, isurketeari bere koillaraz eraso, eta azpillera sartu aal ebana ots baten iruntsi eban. Izan be, goseak gizona zitalkeri gorrotagarrietaraiño eroan dagike.

Eta urrats astirotsuz bazan be, egunak aurrera joiazan, eta 1.938'ko udean, espetxetik aldatuak izango litzakezala zurrumurrua edatu zan. Oraingo onetan, barriketa ori egi biurtu zan. Dagonilla'ko egun baten, gelatxuko lagun-ek urrengo egunerako eskuarteoak gerturik egiezan beste iñora joateko agindua artu eben. Zurrumurruek iñoenez, leku barria Puerto de Santamaria'ko zigor-espetxea zan. Biamonean, irureun bat lagun, sei autobusetan ezaugerantz abiatu-rik, Santander uriaren aldamenean egoan geltoki batera'eroan izan ziran. Dagonilla'ren 15'gna zan, Andra Mari'ren eguna izan be. Bidetik joiala, urtebete bat zabaldiko edertasuna ikusi barik iraun izan eban Andoni'k, ezin egikezan begiak edertasun aretatik kendu, jaioterria gomutara etorkiola.

Iru eguneko bidegiterako, atxillo bakoitzak iru ogitxu ta iru latontzi artu izan ebazan. Aal eban giñoan, Andoni'k bialgo-txataltxu baten emazteri jakiñerazoten eutsan, beste espetxera eroaten ebela, eta andik bere barriak artuko leukezala. Jarraigoa edo trena, zortzi bagoietakoa zan, eta bakoitzean berrogeiña lagun sartuta, egorantz abiatu ziran. Bagoiek lau leiatil txikiak eta zearretara ol batzuk ebezan oneitan jesarteko, eta besoak belauetan ipiñita lo egiteko. Gorputzekoak egiteko latontzi batzuk ebezan. Isurkia ba'zan, leitillatik jaurti, eta kitto. Oste-rantzean, zelan edo alan be egin, eta kanpora bota. Zorionez, janari urriagaitik, bearrian au ez zan oso beiñena. Gautu zanean Reinosa'n beera Gaztela'ko lautadara jatsi ziran, eta eguberdian Valladolid atzean utzita, arrastiko lenengo orduetan Plazenzia'ko ildako burdinbide-zati baten jarraigoa gelditu zan. Bero itzela zan, eta gaiñera aizerik ez zanez sartzen, izerdi patsetan eta egarminduta gozan atxilloak.

Eta orduan, gauza siñesteziña ikusi eban Andoni'k. Adiñeko emakume talde bat bagoietara urreratzen zan, bakoitzak txongil bana ekarrela. Areitariko batek bagoiaren leiatillan egoan Andonigana urreraturik,

– Joven– esan eutsan– ¿quieres un trago de agua...?

– Me gustaría mucho, señora, pero no tengo dinero.

– No lo hacemos por dinero, sino por los que sufren falta de libertad, y en memoria de nuestros muertos y encarcelados.

Eta au esanda, Andoni'k leiatillako burdiñagen artean atara eutsan latontzira, emakume arek ur-txurrutada luze bat isuri eban, eta gero txongilla ustu arte beste lagunai bananduta, alde egin eban geiagoren billa, beste emakume batek ur-banatzeari jarraipena emotsala.

Emakume arein artean bazan gazteren bat, begi yorantsuakaz atxilloai begiztaten ebazala, Errepublikaren alde burrukan ziarduala, edo espetxeratuta eban bere senargaiaren gomutaz, urrean...

Ur-banaketea amaitu zanean, noizbait, jarraigoa abiadan asi zan, eta leiatillen zear sartzen zan aizeari ezker, atxilloen egoerea obatu zan. Gaututa gero, Extremadura lurraldea atzean utzirik, Andaluzia'ra sartu ziran, eta atxilloek jesarrita lotan ziarduen aal eben giñoan. Egunsentian itxartu zanean, Andoni jarraigoa geldirik egoala ormatzar baten ondoan oartu zan. Puerto de Santa Maria'ko zigor-espetxera eldu izan ziran. Andik laster, eta eguzki kiskalgarria zeru-ertzetik jagiten zala, zibillek azken atxilloen zenbaketea eginda, bagoietatik jatsita, espetxe barrira abiatu ziran, eta ona elduta, oikoa zanez, iru egunetako “perido”

edo “itxitura” jasan bear izan eben, gelatxutan gau ta egunez giltzape-tuta. Laster oartu zan Andoni leku onetako imitxak, lengo espetxekoak baiño askozaz ziztalariagoak zirala, lekua beroagoa zalako, urrean.

Iru egun aspergarriak jasan ondoren, larrain zabal batera eroan izan ziran, eta “brigada” esaten eutsoen gela zabal batera sartuta, an aal eben lez irureun bat atxillo kokatu ziran, eta antxe esku-artekoak utzita, larraiñera urten ziran. Emengo giroa, Dueso'koaz bekalde-tuta askozaz obea zan, egun guztian aske zirala larrain batetik bestera norberaren aukeran ibilteko, gabeko turutaren isil-jote arte. Eguberdian janaria banandu eutsenean, gosearen mamu erkiña ikusten jarraituko leukela oartu zan Andoni. Edozelan be, emengo giroa lengoa baiño askozaz jasankorragoa zan.

Ango lau larraiñetan guztitariko gauzak salgai ziran, eta ijito-itxurako atxilloak batetik bestera ebiltzen, diruaren truk, zigarroak, liburuak, jangaiak, eta abar salgai ebezala. Arrituta egoala ango gauza barriak ederresten, saltzaille bat urreratu yakon, eta,

– Güeno día compañero, ¿no querrá comprar uno sigarrillo que son “La Flor de la Habana”...?

– No fumo.

– Y no me comprará una camisa nuevita pa quitá esa vieja que lleva pueta...? Te la daría mu barata.

– No tengo dinero.

– Güeno, cuando lo tenga, ven ande “Er Txitxe” y encontrará lo que quiera, desde ropa nueva, un cafelito caliente, libro como “jálé-bras” (álgebras) mu baratas, novela de Gualter Escó (Walter Scott) y otra maraviya. Y ahora hata la vita, a ve si la próxima tie argo de parné.

Gau aretan lo egiteko bere burusian biltzen zala, Andoni oartu zan ozta-ozta lekuri ebala soiña iraulkatzeko, erdi metroko zabal-unea lagun bakoitzarentzat ozta-ozta egoalako. Edozelan be laster oitu zan espetxe aretako bizimodura, jasaten eban gose itzalieziña baretzeko, aal eban giñoan aurre egiñez.

Andaluzitar atxillo batek larraiñen eta irolen garbitasuna bere ardurapean eban. Goiz guztietan egun aretako garbitasuna egokienai, iñarrak banatzean, auxe iñotsen:

– Vamo compañero, a cogé “La Breva” y a dejalo toíto limpio, porque quien ande con remilgo, va a pasá toíta la semana con la breva limpiando el patio.

Augaitik, arduradun areri "El Breva" esaten eutsoen. Baziran atxillo batzuk etxetik dirurik artzen ebenak, eta larraiñaren garbitasunari eta irolena batez be, bearrizana jasaten eben beste lagunei diru batzuk emotsezala lan zikin areitatik jare izateko. Asiera batetik, lekoretiko laguntzarik artzen ez eban Andoni, laster oartu zan, garbitasun-lan arein ordaiñez diru batzuk lortu legikeazala, eta aal ebanetan, ordeztzeregin oneitan jarduten eban. Ekonomato eritxoen denda bat larrain nagusian egoan, eta onetan espetxeko diruaren bidez, jangai batzuk erosi zeitekezan. Olan ba, mutil sendo ta garaia zan Andoni neurri baten gose gorriari aurre egiten eutsan. Onezaz bestalde, asti-unetan bere oitureari jarraituz euskal liburuetan murgiltzen zan, eta olan espetxeko giro zakar eta aspergarriari iges egiten eutsan.

Egunak igaroten ziran, Andoni'k bere emazteagandik etorkiozan idazkiak bein eta barrero irukurten zituala. Ez eban besterik ames egiten askatasuna lortu baiño bere biotzekoekin batzeko, baiña askatasunaren zantzurik ez ziran inondik agertzen, eta zigor-espetxe aretan aldia astiro igaroten zan.

Beste urtebete bat igaro zan, bigarrena izan be, eta gudea frankotarren alde amaituta, Andoni'k ezin egikion bere egoerari amaitzerik ikusi... Bitarte aretan, etsiak artutako atxillo batzuk euren buruak il ebezan. Espetxeko geisotegia iru maillakoa zan, eta bere burua il nai ebana, goren maillatik beeko soruraino jaurtiten zan, gorpu biurtzen zala. Onein artean, Andoni'k ezaguna eban bilbaotar batek bere burua il eban. Gaixoa aspaldiz bere lagunei inotsen egunen baten bere burua ilgo leukela, eta augaitik beti lagun baten zaintzapean egoan. Egun aretan, zaintzallearen ez-uste bat ustiatuz, ariñeketan geisotegira joan zan, eta zaintzailleak urretik erraikiola goitik beera jaurti, eta ler eginda geratu zan.

Bere gorpua larraiñetan zear ataraten ebela, isiltasun osoan, baten batek euskeraz Aita Gure bat esan eban. Eta bere gomutetan bilduta, Andoni'k barrero be olako gauzak eragin izan ebazan guda zitala mada-rikatu eban.

Bazan yosulagun bat, Perez del Pulgar izenekoa, atxilloen pekatuak garbitzeko, lanaren bidez egitea asmatu izan ebana, eta egun bateko lanak, zigorrari beste egun bat kentzen eutsan. Atxilloek, baiña, ez eutsoen asmo geldo orreri inongo yaramonik egiten. Baiña egun baten, dalako Perez del Pulgar il izan zala barria espetxera eldu zan, eta berea-la ango zuzendariak atxillo guztiai agurtza bat bere alde egitea agindu eutsen. Yosulaguna zan espetxeko kapellaua agurtza esaten asi zan,

zuzendaria ta beste agintarien artean, baiña ez eban ezetariko erantzunik artu, eta orduan berak eta espetxelariak bakarrik otoi egiten ebela, isiltasun betean agurtzak jarraitu eban. Amaitu zanean, bere onetatik urtenda, zuzendariak espetxeko zaindariai dei egin eutsen didar baten, esaten ebala gertatutakoa "plante" edo matxinada bat zala, eta neurriak artuko leukezala. Atxilloak isiltasun betean lo-gelatara abiatu ziran, zer letorkiekenaren begira. Baiña zorionez ez eban artu inongo zigorrik, eta urrengo egunean oiko espetxe-biziereari jarraitu eutsoen.

Eta olan, udabarri aretan amiamokoen bikotea espetxeko eleiza zaarreko yoaletegian urtero egiten eban kabia, oi eban lez biurtu zan, eta arrautzak jarri ta gaindu ostean, txita-bikotea jaio zan. Andoni'k bere erriko amiamokoak gogoratuz, sarri askotan begiztutzen ebazan, erri-min yorantsu bat bere gogoaz jabetzen zala..

ETXERA

Udaren asieran, atxilloen zigorren azterketa barri bat egingo litzakeela zurrumurrua edatu zan espetxetik. Ainbeste guzur entzuteaz ase, Andoni'k ez eutsan barri orreri jaramon andirik emon, eta oi eban lez, euskerearen alorrean sakonduz jarraitu eban. Baiña ereti onetan, barria egi billakatu zan, eta atxilloak baldintzako askatasuna lortzen asi ziran, eta Puerto de Santa Maria'ko zigor-espetxea ustuten asi zan.

Arratsalde sargoritsu baten, liburu bat eskuetan ebala, eta beroak erdiz lokartutako Andoni gerizpean egoala, lagun batek urreratu eta didar baten,

– Andoni– esan eutsan– oraintxe bertan emengo idaztegira zure askatasun-agiria eldu da, eta beraz, gertu zaitetz lenbailen kalera urteteko...!

Ikoti bat az Andoni jagi, eta 12'garren brigadara joanda, urduritasunaz jabetuta, bere eskuarteko urriak batu, eta burdiñezko atetzarrara joan zan. Zazpiretan inguru, zaindari batek bere izena beste batzuen artean aldarrikatu eban, eta Bilbao'ra go paper batzuk emonda, onein orde ez etxerako tren-txartelak lortzeko, ur egoan Puerto de Santa Maria'ko errira abiatu zan. Zorionez ler egiteko zorian oartzen zan... Ain luzaro ames egindako askatasuna, noizbait egi biurtu izan zan, eta luzaro barik, Garbiñe ta Mafxalentu besarkatuko leukez. Une aretan ekusan guztia edertasunez betea zan, eta itsas-besoaz bestaldean marrazten zan Cadiz'eko uri nagusia, zidarraren antzera dizdir egiten eutsala begitando yakon.

Garbiketako ordezte-lanak egiñagaitik, Andoni'k bazituan diru batzuk, eta erritik osteratxu bat egin ostean, ostatu merke baten apaldu eta bereala oeratu zan, urrengo eguneko lenengo trena Sevilla'raïño artzearren. Izan be, barruko pozak astinduta ozta-ozta une labur batzuk lo egin eban, eta eguzkia ekialdetik agertzen zanean, jagi, bere axe landerra artu, eta ostatu-saria ordaindu ondoren tren-geltokira joan zan. Emen, bide-txartela lortu eban, eta noizbait Sevilla'rako jarraigoa agertu zanean aal eban giñoan egokitu zan. Aldi areitan, burdinbideko erabilketea oso txarra zan, atzerapena izanik oiko makurra.

Jarlekuak artuta egozan ezker, Andoni bere egurrezko zorroaren gaiñean jesarri zan, eta jarraigoa abiatu zanean, azken iru urte areitan, zabaldua ikusi barik irau eban, orain ekusan guztiak eder-ederra antz emoten eutsan. Eguberdiaren inguru, Sevilla'ra eldu zan, eta Madrid'erako gaberarte trenik artu ezin egikeanez, urian zear osteratxu bat egin, eta gero ogitarteko batzuk erosita, uri aretako egurastegi ederrean jesarrita gaberaiño itxaron, eta noizbait jarraigoa artuta, bidegi-teari jarraitu eutsan. Urrego goizean Madrid'era eldu eta egun osoa emon eban "zeri nakio" gaberarte, Bilbao'rako trena artzeko

Trena beterik etorrenez, igarobidean aal eban egokitu zan, eta noiz lotan, noiz itxarrita, eguberdiaren aurretik Bilbao'ra eldu zan. Dagonilla'ren 15'gna zan, Andra Mari'ren eguna izan be. Meza entzun ostean, ostatu merke baten kokatu zan, eta bazkalduta gero, ainbeste gomutak ekarkiozan urian zear ibilli zan, gogora ekarriz antxiña baten bere emazte ta alabatxarekin egindako ibillaldi zoriontsuak.

Biamonean, espetxean ain luzaro asmatutakoa, egi biurtzera gertatu zan, eta ondo ezagutzen eban bere lengo etxegintza-idaztegiatara joan zan, bere buruari iñotsala On Peli'k lengo lekuan jarraituko ete leuken. Izan be, idaztegiak lengo tokian egozan, eta bere barruko zarrastadea menperatu eziñik, atea edegi eutsan idazkariñeari, nagusia ikusi nai ebala esan eutsan, eta bere izena emonda, andik laster pozez gaiñezka On Peli agerturik, Andoni estu-estu besarkatu eban, auxe iñotsala:

– Au nire poza, Andoni maite ori...! Ez dakizu noraiño uts emon zaitudan. Baten batek espetxean somatzen zindudazala esan eustan, eta zure lengoko elbidera mezulari bat igorrita, etxea utsik egoala, eta iñork ez ekiala zer billakatu zintzazen zeu eta zure sendia.

Orduan, itz laburrakaz Andoni'k iru urte areitan jazotakoa edestu eutsan, eta amaitzean, On Peli'k,

– Eta zer asmatzen dozu orain, Andoni maite orrek...?

– Ara, On Peli, espetxetik urten baiño ez, Benabarra'ko Donepaul'en dagoan emazteari idatzi neutsan esanez, aske nintzala, eta lenbailen Bilbao'ra biurtu zeiten gure lengo bizimoduari jarraitzeko.

On Peli'k une batez isillik irau eban, eta gero, begietan Andoni'ganako oartzen eban ederrespen bizia agiri ebala,

– Begira, Andoni, orretarako etxe bat aurkitu bear izango dozu, bearreko erredizak erosi, eta orretarako diru batzuk eskuen artean erabilli. Esaidazu, Andoni, eta ez zaitez mindu nire jakinguregaitik, zein da zure diruaren egoera...?

Andoni'k lurrean jarri ebazan begiak, eta gero apal-apal,

– On Peli, ezkurrik bage nago...

Une batez errukitsu begiratu eutsan nagusiak, eta gero,

– Jasan dozun inperuaren ostean, ez da arritzekoa. Itxaron egidazu apur baten.

Au esanik, On Peli gelatik urten, eta andik laster eskuan estalki lodi bat ekarrela biurtu zan, eta Andoni'ri eskuratu,

– Andoni, emen dozuz amar milla laurleko, etxe barri bat egokitzeke zure emazte ta alabatxarekin bizi zaitez, eta geiago bear izatekotan, esaidazu eta emongo yatzu.

– Baiña, Jauna– arrituta esan eutsan Andoni'k– zelan biurtuko dautsut diruketa andi ori...?

– Ori erraza da. Etxe onetan irabazi dagizunaz; jakiña, baltzu onetako zure lengo lanean jarraitu gura ba'dozu...

– Jauna - pozez ler egiteko zorian erantzun eutsan Andoni'k -, goiz onetan ona nentorrela, kezka ez beterik nire buruari itauntzen neutsan zuk lan egiteko onartuko ba'ninduzu barriro, eta orra or...

– Begira, Andoni– eten egin eutsan nagusiak–, ez daustazu niri iñongo eskerrik emon bear, arazo onetan irabazten dauana neu nazalako. Begira, Andoni, Aspaldi onetan, eta gudea amaituta gero, etxe barri asko egiten ari da, eta zeu lako langille-taldeko zuzendariak oso bearrekoak dira. Augaitik, beraz, niri dagokit zeuri eskerrak emotea.

Andoni'k ezin egikean siñistu entzuten ebana, eta barriro be Jaungoikoari eskertu eutsan, On Peli lako gizon emonkorra ezagutu izategaitik.

– Aizu, Andoni - itaundu eutsan nagusiak - noiz asi gura dozu lanean...?

– Ondo ba' deritxazu, biar bertan.

– Ez zenduke atsedenaldi bat artu gura orren aurretik...?

– Begira, On Peli, iru urteko atsedenaldia izan dot, eta garaia da lancan asi naiten.

– Gauza bat, Andoni - esan eutsan On Peli'k agurtzean -, gogora yatorrt orain, Bilbao'ko zabalunean (Ensanche) etxe barri bat egin dodala, eta ango boskarren sorua, sabaiko bizitokia, saldu barik dago, eta zeuk nai izatekotan illeroko merke batez emongo neuskizu. Ikusi nai dozu...?

Baietz erantzun eutsan Andoni'k, eta astirik galtzeke On Peli'ren ogipeko batekin ikustera joan zan. Izan be, ezin egikean Andoni'k axe baiño egoitza egokiagorik eskatu. Iru logelakoa zan, sukalde txukuna, eta txirriodun irola eban. Onezaz gaiñera boskarren sorukoa izanik be, igokin ariñakaz egokitua zan. Andoni'k egun aretan bertan baietza emon eutsan nagusiari, eta onek eskatu eutsan alogerea ezerezkeri bat begitandu yakon. Onezaz gaiñera, On Peli'k egun bitako oporra emon eutsan bearreko erredizak erosi egiazan. Eta erabakia lez, irugarren egunean Andoni "Sendoa" baltzuan barriro be lanean asi zan. Emazte-alabak laster ikusiko leukez, eta oldozkun onek bere bizitzaldi latzari itxaropen barri bat emotsan. On Peli'k eskeiñitako etxetxu barrian bizi izaten zan, eta guztitariko apaingarriakaz ornitzen eban bere maitien etorrerea yoranez gaiñezka itxaroten ebalá.

* * * *

Donepaul'eko Yoldi-enean Garbiñe'k bere senarraren askatasun-barria artu ebanean, Alis jakitun ipiñi eban, jakiñerazoten eutsala aalik azkarren Bilbao'ra joan gura ebalá. Iru urtebete ta erdi igaro izan ziran bere senarragandik alde egiña zala, eta itxaropenaz beterik ez eban bereizketa astuna luzarogorik iraun-erazo. Alis'ek aren erabagia jakin ebanean, bene-benetan atsekabetu zan, aldiaren bidean Garbiñe aizpa gogokotzat maite izatera iritxi izan zalako, eta zer esanik ez, Matxalen-txu zoragarria, etxeko guztien kutuna zana.

Bere naigabea menperatu eziñik, Alis'ek auxe esan eutsan:

– Aspalditik kezkatzen ninduan barria etorri yat, etorri be, Garbiñe. Ez dakizu zelako atsekabea eragiten daustan barri orrek. Izan be, bidezkoa da zure senarrarekin bildu zaitezala, baiña iru urtebete ta erdi oneitan, aizpa maitetzat izan zaitut, eta etxe au erabilten laguntza andia emon daustazu...

Itz oneik entzutean, Garbiñe'k eten egin eutsan,

– Alis, zuek zarie guri ezeren ordaiñez iñoiz aztuko ez yatan maitasun eta laguntza emon dauskuzuezanok. Gauoroko nire otoietan Jaungoikoari eskatu dausat ordaindu dagitsueta gure alde egiñikoa, eta bizi izan naiten artean, etxe onetakoak eta zeu batez be, gogoan izango zaituel.

Isillune bat sortu zan, eta gero Alis'ek,

– Noiz joango zarie...?

– Aalik lasterren; biar ez bada, orduan etzi

– Etzi obeto, Garbiñe, zuen eskuartekoak atontzeko, eta guztiak agurtzeko.

– Ondo derist orreri, Alis. Orduan beste barik etzi urtengo gara.

– Neronek lagunduko dautsuet Baiona'raiño, trena artu dagizuen.

Gau aretan, Alis'ek etxekoai Garbiñe ta Matxalen euren errira biurtuko litzakezala iragarri eutsenean, Joanes bere senarrak, eta seme-alabak ezin eben ezkutatu barri onek eragiten eutsen naigabea, eta danok alkarren leian jardun eben Matxalen besoetan artzeko, guztitariko ereguak egiten eutsoezala. Biaramonean Yoldi-enean egun naigabetsua izan zan, eta arrastian, Mari, Pelise, Joana, eta Beñat, erriko ikas-tolatik biurtu ziranean, norlenka bizian ari ziran, nork luzarogato Matxalen'ekin jardun. Noizbait, Joanes'en besoetan Matxalen kortako abelgorria, zaldia ta astoa azkenengoz agurtu ebazan, banan-banan berba gozoak iñotsela, eta egunen baten biurtuko litzakela esanez...

Matxalen, bost urteko umea zan, eta beragan zoramen bereizia kokatuta egoan, inguratzen eban guztiari zabaltzen yakona. Bere irribarrearen erakarpena guztiakan edatzen zan, aren begi ederrai argi bizi bat eriola. Onezaz gaiñera, mintzo gozo bigunekoa zan, eta aurpegiari erion sorgindureari, gitxi, iñor ba'zan jarki zeitekion.

Bidegitearen aurreko gau aretan, Matxalen oeratuta, etxe aretan otoi egin eben agurtza mintzo itunez izan zan, eta Alis'ek ezin ebazan

menperatu begietara etorkiozan malkoak, aizpa bat galtzen dauanaren antzekoa oartzten za-eta.

Urrengo egunean, etxeko neska-mutillak lotan egozala, goiz zan-eta, Garbiñe'k etxekoajaunari esker beroenak emotsazala bere alde egiñagaitik urte areitan, Donepaul'era etxeko zalpurdian umea ta Alis'ekin jatsi zan, eta emen, erri-berebillez Baiona'ra abiatu ziran. Alis'ek burdinbide-txartela erosi eban, eta bidegiterako Garbiñe'ri diru batzuk emotsazala, noizbait trena agertu zanean, bidariak besarkada estu batzuk agurtu ebazan, eta bere atsekabea jabetu eziñik, geltokitik negarrez urten zan mintzo urratuaz auxe iñoala:

– Aizpatzat nebana, eta Yoldienea'n argi gozoa edatzen eban aingurutxua joan yataz. Au nire atsekabe larria...!

Trean Endaia'ra abiatzen ziralá, Garbiñe'k umeari auxe esan eutsan:

– Alaitu gaitzen, Matxalen, gaur gabean aitatxu ikusiko dogu-ta.

Egunero, Garbiñe'k alabatxuari bere aitatxaz itz egiten eutsan, amaika gauza berari buruz iñotsazala. Amaren berbak aditzean, Matxalen'ek,

– Ama, gauza asko esan daustazuz aitatxuri buruz; esan, zergaitik bizi izan da gugandik orren urrun, espetxe baten...?

– Zure aita abertzale andia izan da, eta etsaiek gure lurraz jabetu ziranean, espetxera sartu eben.

– Ama, zer da espetxea...?

– Gaztegia zara ori ulertzeko, eta oraingo utzi dagigun ori.

Andik laster, Matxalen'ek barrero,

– Ama, zelakoa da aita...?

– Gizon ona benetan, bere begi-niniak baiño areago maite zinduzana. Etxera eldu baiño ez, besoetan artuta zurekin jolasten eban, eta etxeko txoko guztiak erakusten eutsuzan gauza guztiak artu zengiazan, eta nekatzen zintzazanean, oiñetan ipiñita kulunkatzen zinduzan, eta bera etxera biurtzean lotan ba'zengozan, zure aurrean aulki baten jesarrita, une luzeetan zuri begira-begira egoten zan nekatu barik. Ibilten erakutsi eutsun, eta zeurez lenengo urratsak emoten ikusi zinduzanean atsegiñez ler egiteko zorian ikusi neban. Urte bete ta erdiko zintzazanean, gudaren bildurrez, ona bialdu ginduzan...

– Amatxu, askotan gudea aipatzen entzun dautsut. Esan, zer da gudea edo ori...?!

– Gizakiak asmatutako gauzarik zitalena, alkarri eriotza emonez, eta geienetan aren ondorioa errubakoenek ordaintzen dabena. Zure aitagürekiko maitasunez aren izuetatik gu atarateko ona bialdu ginduzan. Nik ez neban gura guda basati aretan bakarrik geratu zeiten, baiña zuzen egoan, eta izan be alde-eragin aretan bera izan zan gorriena jasan ebazana, iñozkorik geien bear izaten ginduzanean, geu barik geratu zalako...

Isildu zan Garbiñe, aurpegiaren beera isurtzen yakozan malkoak txukatzeke. Andik laster, Matxalen'ek barrero,

– Amatxu, zelakoa da aitatxu...?

– Itxuraz laster jakingo dozu, gaur bertan ikusiko dozu-ta. Baiña gizaki bategan beiñena, bere barrukoa da, eta esan dagiketsut, zure aita ezagutzen asi nintzanean, gero ta geiago maite izan dodala, aren ontasunak eta zintzotasunak erakarrita. Zeuk eta biok guda doakabe aretan asko jasan genduan, baiña zure aitagü eroan ebana, askozaz andiagü izan zan. Geugandik urrun eta gudea galduta, iru urteko espetxaldi izugarria pairatu bear izan dau...

Garbiñe une batez isildu zan bere senarraren oroitzean murgiltzen zala, baiña umeak barrero be oraingoari erakarri eutsan, xalo-xalo auxe itauntzen eutsala,

– Ainbeste urte igaro ezkeru, uste dozu, ama, ni maite izaten jarraituko dauanik...?

– Zelan ez, maitetxu ori...? Aldiaren bidean bere maitasuna andiagütuko yakon. Ez al-dakizu, Matxalen, zeu aren zati bat zareanik, eta norbaitena dana ez da iñoz aztu egiten...? Aitagü sarri askotan iñostan zure irribarre zeruko bedeinkaziño baten antzekoa zala, eta augaitik, maite ori, gaur, aita ikusi dagizunean, irribarre egiozu, zeuk bakarrik dakizun lez, eta olan berak igarotako oiñazeak ezabatuko yakoz...

* * * *

Arratsalde aretan, Atxuri'ko geltokian, Andoni'k ezin egikean menperatu urduritasuna, bere biotzekoak laster ikusiko leukezala

gogoratu. Noizbait, trena agertu, eta gelditu zanean, Andoni'k begiak jarraigoko galdi guztiak aztertu eban, eta alako baten ... Esku baten bide-zorroa eroiala eta besteaz bost urte iguruko ume baten eskuari oratuz Garbiñe ikusi eban, eta zorioneko oiu bat jabetu ezinik, areikana oldartu eta estu-estu besarkatu eban... Une luze batez egon zan olan ezer esan barik, biotza zarrastada batek artuta. Gero, emazteari begiratu eutsan, auxe inotsala:

– Garbiñe, neure matia, zein luzaro zuen begira...

– Bai Andoni, iru urtebete ta erdi igaro dira, Santurtzi'ko kaitik bereiztu gintzazanetik...

– Eta zeu Matxalen maite ori– alabatxuari mintzatuz–, ez zara nitzaz oroituko, baiña nik gogoan beti eroan zaituet jasandako inpernuan, egunen baten alkatuko gintzakezala itxaropenak eusteko indarrak emostazala ...

Orduan Matxalen'ek aitagan begi andi ederrak ipinten ebazala, irribarrez auxe esan eutsan:

– Zure zati bat nazala amak esan daust, eta orregaitik maite-maite izango nozula...

– Bai, nire kutun ori, eta orain lez zure irribarre argitsua izan dagidanetan, biotzeanago izango zaitut, eta lengo lor guztiak uxatuko yataz.

Gero, urtenbidera joan ziran, eta taxi bat eskaturik, euron etxe barrira abiatu ziran. Bidetik joiazala, Andoni'k emazteari auxe esan eutsan:

– On Peli'k etxe barri bat eskeini daust Bilbao'ko zabaluncan, eta zeuk esango daustazu atsegin yatzun... Gaiñera, bere eskuzabalari jarraituz, oso merke alokatu daust.

Ettxera eldu ziranean, 5'garren maillara igokiñez iritxita gero, etxea aztertu ebanean, Garbiñe arrituta geratu zan, eta senarrari,

– Izan be Andoni– irautsi eutsan–, ez neban uste etxe onen eder baten bizi izango nintzakenik.

– Ez dakizu, zelakoa izan dan On Peli'ren niganako jokaerea. Len baiña jardun ohea emonez gaiñera, mailegu bat edegi daust etxerako tresnak erosi dagidazan, eta gaiñera eperik bage.

Apari ariña artu ondoren, eta bidegiteak nekatuta egoan Matxalen oeratu zanean, aukera betea izan eban Garbiñe'k bere senarraren itxurea aztertzeke, eta oi baiña argalagoa egoala espetxaldi gogorrari ego-

tzirik, bere buruari zin egin eutsan Andoni'ren ondo-izateari buru-belarri emongo leuskiola.

Arrezkero, aspaldi zoragarria izan eben irurok. Andoni bere oiko lanari emonda bizi izaten zan, eta etxera biurtzen zanean, emaztea ta Matxalen artuta, kaleetatik egurasten joiazan edo erriko baratz ederretik. Zoriontsuak ziran, eta Matxalen, bere gurasoen bizitzan argi alaia edatzen eban izar irribarretsua zan.

Garbiñe'ren arrenkurak bere senarraren osasunari buruz baretzen joiazan, eta negua amaitu zanean, bazirudian udabarriak senarrari indar barriak ekarkiozala. Udea igaro zan, eta udazkencan, zugaitzak ostoak galtzen asten ziranean, Andoni gatx ezkutu baten aztarnak erakusten asi zan. Lenengoa oartzeko Garbiñe izan zan, eta beti lez, lengo urteetan jasandako nekai gatxa leporatu eutsen, eta aal eban ondoen Andoni zaintzen eban guztitariko ereguakaz inguratzen eban, “zer gura ta a” emotsala.

Baiña egunak joan egunak etorri, Andoni gabeen batez be, eztul idor batek jota zala oartu zan Garbiñe, eta orduan ekitea erabagi eban. On Peli'ri urrutizkiñez dei egin, eta bere arrenkurak azaldu eutsazan. Amaitu ebanean, On Peli'k,

– Neuk be zezozer oiezkoa beragan oartu dot– erantzun eutsan–, eta lanean betiko arduradun ona izan arren be, nire ustez ez litzakio txarto etorriko, osasun-azterketa zeatz bat izatea. Utzi egistazu arazoa nire eskuetan, eta nasaitu zaitetz.

Onen ostean, On Peli'k Andoni'ri dei egin eutsan, eta ingurukerietan ibilli barik,

– Aizu, Andoni– irautsi eutsan–, aspaldi onetan ez dozu itxura onik agertzen, eta gaiñera eztul idor ori zer dan jakin bear dogu. Ez dot uste gauza txarra izango danik, baiña badaezpadan, baltzu onetako langilleak zaintzen dituan osagilleagana joan zaitzezala gura dot. Esan egistazu bene-benetan zelan oartzen zarean, aiko-maikotan ibilli barik.

– Egia esateko, On Peli, ez nago guztiz ondo; eztulaz gaiñera, barruko gatx batek artuta oartzen naz-eta. Ez dakit zer izango dan, baiña batzutan sukar batek jota oartzen naz...

– Biar bertan gure osagilleagana joanda, ez zara lanera biurtuko erasoten zaituana ezagutu arte. Argi dago...?

– Bai, On Peli, olan egingo dot.

Biamonean, "Sendoa"ren osasun-arazoa zaintzen eban osagille-erakunde batera joan zan Andoni, eta azterketa zeatza jasan ondoren, andik bi egunetara, osagilleburuak, On Peli'ri urrutizkiñez dei egin, eta auxe esan eutsan:

– Begira On Peli, zure talde-buruari guztitariko azterketa-motak egin ondoren, auxe da gure epaia: etika gatx batek jota dago, eta gure eritxiz ez da luzarorako izango, birietan gatx-une andiak agertzen yakozalako. Azterketa egitean, iru urte espetxean emon dauzala autortu dausku, eta badakigu, espetxean izandakoak gose andia jasan dabela, eta auxe izan daiteke makur orren eragillea.

– Ez dakizu barri orrek zelako atsekabea emoten daustan, nire lan-gilleburu ederretsiena dot-eta...

On Peli isildu zan une batez, eta gero,

– Zer egin dagikegu bere alde...?– itaundu eutsan–.

– Lan egiteari uko egin bear dautso beingoan, eta atsedeen beteko biziera eroango dau, janari ona ta ugaria izanik. Onezaz gaiñera, ama-bostero azterketa bat egingo dautsagu gatxaren egoera egiztatzeko.

– Eta berak ba'daki guzti ori...?

– Ez, oba da, zeuk esan dagiozula

– Ori nireztat atsekabe andia izango da, benetan ederresten dodalako...

– Aztu baiño len, berak esan euskun emazte ta sei urteko ume bat zituala, eta augaitik, ume orrek aitagandik bereiztu izan bear dau kutsatu ez daiten. Augaitik, eta aitaren egoera txarra kontuan arturik, "Santa Marina"ko osasuntegiara eroatea onena izango litzake. Gura ba'dozu ara sartzeko agiriak geuk atondu dagikeguz.

– Bai, lortu egizuez bearreko agiriak osasuntegi orretara sartzeko, eta eskerrik asko.

Naigabez jota, On Peli'k une luze batez burua eskuen artean ezkutatatu eban, eta gero, Andoni etorteko agindu eban. Agertu zanean, bere aurrean jesari zeiten eskaturik, astiro eta mintzo txeratsuz, osagilleak esandakoak jakifierazo eutsazan. Andoni'k buru makur entzun eutsan, eta azkenean, bere alabatxuagandik bereiztuta egon bear leukela jakitean, aurpegia eskuen artean ipiñita, negar etsi bateri emon eutsan.

Nagusiak mintzo arraitsuz baretu nai izan eban, baiña ez egoan ezer Andoni'ren oñazea baretu egikeanik, eta noizbait, bere biotz-zirra-jabetu eziñik,

– On Peli– oiuegin eban etsiak menperatuta–, estu ta larri bizi izan naz espetxeko iru urteotan, baiña nire biotzekoak egunen baten ikusiko neukezala, bear nebazan indarrak emostazan, eta orra or nire amesak bete aal izan dodazanean, barrero be inpernuan aurkitzen nazala...

– Baretu zaitez, Andoni, barrero be osatu zaitezke-eta...

– Ez dot uste; benetan esateko, nire osasuna aldapan beera doan galgabako gurdia antzera oartzen dot. Espetxetik urten baiño ez, oartzen asi nintzan nire makur au, baiña gaur, osagilleen eritxia entzunda gero, ez dot uste igesbiderik dodanik... Begira, azken gauotan arnasa artzea zailla yatala oartu dot... Baiña Garbiñe ta Matxalen'gandik urrun bizi bear ori txarrena yat. Eta gaiñera, ni joan naitenean, zer billakatuko dira nire maiteok...?

– Ez zaitez, orren ezezkorra izan, Andoni. Ziñez diñotsut, orregaitik ez dozula ezetariko zalantzarik izan bear. Orain bazkalordua danez, nire etxera bidez, zureru eroango zaitut Esaiozu emazteari, danok aaleginduko gareala osasuntsu biurtu zaitez, eta etorkiari buruz iñongo arrenkurarik ez izateko.

Eguberdi aretan, etxera eldutean Garbiñe'k atea edegi eutsanean, Andoni'ren aurpegian txarrena irakurri eban, eta urduri,

– Zer diñostazu, Andoni...?– kezkatu itaundu eutsan–.

– Etika txar batek jota nagoala - senarrak erantzun eutsan, egia estaldu eziñik.

Garbiñe bere inguruan dana aldarka ebilkiola oartu zan, eta aulki baten jesarten zala,

– Baiña zelan daiteke ori...? Egia esateko, aspalditxu onetan ez zaitut osasuntsu ikusi, baiña orren txarto zengozanik ez neban uste izaten...

Orduan, bere ondoan jesarrita, On Peli'rekin izandako alkarriketea edestu eutsan Andoni'k, eta onetaraxè amaitu eban,

– Osagilleek diñoenez, "Santa Marina" osategira joatea nire osasunerako onena izango litzake, baita Matxalen'entzat be, olan kutsapenaren galtzoritik urrunduko litzake-ta...

Itz oneik esatean, malkoak uxatu eziñik, Andoni'k negar etsi bateri emon eutsan. Garbiñe'k negarrez be besarkatu eban, eta baretu zanean,

– Begira, Andoni – maitasunez esan eutsan–, badakit, etxetik alde bizi bear ori mingarria izango litzakizula, baiña danok zainduko zaitugu, osagilleek eta neuk, egunen baten etxera osasuntsu biurtu zaitez.

Jarraian, lotan zan Matxalen'gana joanda, Andoni une luze batez begira-begira egon zan aren aurpegiñotik soak kendu eziñik, eta gero umea musukatu barik asperenka gelatik urten zan. Eta arratsalde aretan, bere izadian lenengoz ez eban gura umea besoetan artu.

Gau aretan, oeratzean, emazteari auxe esan eutsan:

– Begira, Garbiñe, gure alabatxuaren onerako, osategira lenbailen joan bear izango neuke.

– Bai, Andoni, olan egingo dogu.

Baekian Garbiñe'k, bere senarrarentzat dalako erabagia izango litzakion ukapena, umea gurtzen ebalako, eta isillean musu maitekor bat emon utsan.

Andik egun bitara, eta On Peli'ren eragiñez Andoni “Santa Mari-na”ko osategira joan zan, eta oe biko gela baten kokatu zan, beste geiso baten laguntza ebal. Lekua ikusgai onekoa zan, eta argia parrastaka sartzen zan. Bazirudian lenengo egunetan, ango zaintzaz eta arduraz Andoni'ren egoerea obaten zala. Osategira joan aal izateko, Garbiñe'k umea auzoko emakume batenean lagaten eban, eta arratsalde guztietan bazkalduta bereala osategira joian janari mamintsuak Andoni'ri ekarrezala. Eta arrastia amaitzen zanean etxera biurtzen zan Matxalen'en ardurea artzeko. Senar-emazteen arteko berbagaia umea zan, aren aurrerapenak nekatu barik entzuten ebazala Andoni'k. Sarri askotan, Matxalen'ek aitari buruz itauntzen eban, eta laster etorriko litzakela iñotsan Garbiñe'k, kanpoko lan baten jarduten ebalako aspaldi aretan.

Baiña osategiaren eta Garbiñe'ren zaintzak eta guzti, Andoni'ren osasuna gero ta txarrago joian, eztul idorra gero ta sarriago etorkiola. Noizbait, odol-goitikakoak jasaten asi zan, eta bein baten, Andoni zaintzen eban osagille bereizlariak Garbiñe banazean artuta auxe esan eutsan:

– Begira, Andrea, niretzat mingarria izanik be, egia esan bear dautsut bearreko neurriak artu dagizuzan. Zure senarra egun gitxitarako da. Esan bear dautsut biderik aurreratuenak erabili doguzala jasaten dauan gatxari esi bat ipinteko, baiña dana alperrik izan da. Tamal dot zeuri auxe esan bearra, baiña osagille baten erantzuna egia esatea da.

Itz oneik entzutean, Garbiñe'k itxaropenbako negar bateri emon eutsan. Baretu zanean, osagilleari,

– Nire senarra Jainkozale andia da, eta ondo iltera lagunduko dauzat. Esan, Jauna, zure eritxiz zenbat egunetarako izango da...?

– Zaila da orreri benetako erantzun emotea, baiña nire ustez aste-bete bat inguru...

Au entzunik, Garbiñe, negar-gurea ezkutatu, Andoni'gana joan, eta mintzo maitetsuz auxe esan eutsan:

– Andoni, maite ori, osagilleandik nator, eta...

Isildu zan une batez, eta gero,

– Zeuk eta biok ezkondu gintzazanean, itun bat egin genduan...

– Bai, Garbiñe– atsanka Andoni'k erantzun–, gogoratzen naz eta auxe izan be: eriotz-orduan alkarri egia esateko giristiñoak lez eriotzeari aurre egiteko...

Garbiñe'ri aurpegiaren beera malkoak eriozala, maite-maite besarkatu eban, eta gero,

– Osagilleak egun gitxi batzutarako soillik zareala esan daust...

Eta atsekabeak menperatuta, negar-zotin batez bere larritasunari bide emonik, isildu zan.

– Begira, Garbiñe, ona sartu nintzanetik, banekian eriotz laster bateri aurre egin bear izango neuskiola. Orain, benetan kezkatzen nauana, zeure ta Matxalen'en geroa da. Aurrezki gitxi batzuk egin doguz, baiña edozelan be, zeuk lanean jardun bear izango dozu zeure ta Matxalen'en etorkiari eusteko. Bide batez, zelan dago gure alabatxua...?

– Oso ondo; txitean-pitean zutzaz itauntzen daust. Asko azi da aspaldi onetan, eta betiko ume zoragarria da, guztien begi ona erakartendakiana.

Bere kutuna oroitzean, Andoni'ren begietan alabatxu-min andia igarri eban Garbiñe'k, eta bere buruari zin egin eutsan, bere senarra ez litzakela ilgo Matxalen ikusi barik.

Etxera biurtzeko zorian zala, Andoni'ri auxe esan eutsan:

– Jangai gozo batzuk ekarri dautsudaz gaur, eta goserik ez izan arren be, saiatu zaitez aalik geien jateko.

– Ez naz goserik, baiña aaleginduko naz.

Aterantz abiatzen zala Garbiñe, Andoni'k auxe esan eutsan:

– Bidebatez, ateko andereñoari esaiozu kapellaua ikusi gura dodala

Gau aretan, Andoni autortu zan, eta kapellauaren itz txeratsuek bake andia ekarri eutsoen; jaunartu ondoren lo-kuma batek artuta geratu zan. Etxera biurtzean, Garbiñe'k bere buruari esan eutsan, ezin egi-keala utzi olan beste barik bere senarra il zeiten, eta osagilleen ustearen aurka izan arren be, Matxalen bere aitagana eroango leukela.

Biamonean, udabarriko egun eder aretan, bere soiñeko politaz jantzita, Matxalen amaren eskuari eutsita kalera urten zanean, bazirudian eguzki-zati bat kalera urteten zala guztiai agur egitera.

– Ama, nora goaz ...?– itaundu eutsan Matxalen'ek–.

– Begira, maite ori, aitatu bidegite luze batetik biurtu da, eta bera ikustera goaz.

– Eta zergaitik ez dator etxera...?

– Ara, oso nekatuta etorri da, eta osategi baten dago bere lengora biurtu arte. Augaitik, berarekin ez gara luzaro egongo. Ulertu dozu...?

– Bai, amatxu.

– Aizu, Matxalen, bere gelara sartu gaitzanean, musu andi bat emonda gero, zure begi ederrok beragan ipiñita, eta maite dozula esanik, irribarrerik gozoenaz begizatuko dozu, eta bereala urtengo gara.

– .Orren arin...?

– Bai, Matxalen, Olan izan bear da, bere lengora aalik ariñen biurtu daiten. Ulertu daustazu ondo, eta esanekoa izango zara...?

– Bai, amatxu goazen ba lenbailen. Geisotegira eldu ziranean, Matxalen eskutik artuta, Garbiñe'k bere senarraren gelako atea jo, eta sartu ziran. Andoni besaulki baten jesarrita egoan, eta bere lo-kumatik itxartuta, Matxalen ikusi ebanean, zur eta lur geratu zan. Ain luzaro uts emondako bere aita ikusi ebanean, arin baten Matxalen aren besoetara oldartu zan, pozez beterik auxe inñotsala,

– Aitatu non egon zara, ni ikustera etorri barik...? Amak kanpoan zintzazala esan daust, baiña nik zeu barik ez dot bizi gura...

Andoni'k bere barruan biotza taupada zorotan ebilkiola oartu eban, eta maitasunez zoratuta, bere alabatxua estu-estu besarkatu eban, eta zirrara batek menperatuta, negarrari emon eutsan. Une luze batez

olan iraun eban, eta gero, osagilleen agindua gogoratuz, alabatxua bera-gandik aldendu eban, auxe inñotsala,

– Urrundu zaitez apur baten, obeto ikusi zagidazan nire laztana...

Olan egin eban Matxalen'ek, eta bere aita negarrez ziarduala ikustean,

– Aitatu, zergaitik negar egin...? Ni poz-pozik nago zu ikustean...

– Begira, Matxalen, nire negarra pozezkoa da, noizbait ikusten zaitudalako, ain beste egun zu barik izan naz-eta...

– Ez zaitez inñora joan aitatu, eta bizi izan zaitez gurekin etxean. Yoldi-enean bizi izaten gintzazanean, amatxuk zutzaz beti itz egiten eustan, eta andik etorrita gero, zu ezagutu ondoren maite-maite zaitut, aitatu. Baiña andik laster etxetik joan zintzakiguzan, baiña nik ez dot gura zeu barik bizi izatea...

Arimea begietan kokatuta, Andoni'k bere kutuna begizatzen eban. Baekian azkenengoz ikusten ebala, eta bere gogoaren sakonenetik, Matxalen zorionsua izan zeiten eskatu eutsan Jaungoikoari, baita berak eta Garbiñe'k jasandako bizitzaren garratzasunetik umea jareitu egian... Olan egon zan une luze batez, nekatzen ez zala bere kutunaren zoragarria bein eta barriro ederresten. Gero, Matxalen besoetara oldartu yakon barriro, bere aurpegi margul eta zimela mosukatzen ebala. Orduan, agurra berak uste izandako baiño luzeagoa biurtzen zala, Garbiñe urreratu yaken, eta maitero mintzatuz,

– Gogoratu, Matxalen, len itundu doguna: ikerpena laburra izango litzakela, aitatu nekatuta dagoalako. Emoiozu agurreko mosua...

Olan egin eban umeak, eta amaren agindua gogoratuz, aitari maitasunez begizatzen ebala, bere irribarrerik zoragarriena bialdu eutsan, eta amaren eskutik ateraiño joan zan. Andik, Garbiñe senarragana biurtu, eta auxe esan eutsan:

– Andoni, ekarri dautsudan janaririk aalegindu zaitez aalik eta geien jaten. Agur, maite ori, Jaungoikoak lagun.

Andoni bakarrik geratu zanean, Jaungoikoari barriro eskatu eutsan Matxalen zaindu egian, eta gurasoek ezagutu ez eben zoriona, egunen baten beragana isuri egian; jarraian, bere kutunaren irribarre zoragarria oroitzean kokatuta, erdi-lo baten murgildu zan. Zentzuetara biurtu zanean, Garbiñe'k ekarrirako janaririk jaten nai izan eban, baiña ezin. Orduan, geisozain bateri, idaztekoak eskatu eutsazan, eta On Peli'ren-

tzat ardura andiz eskutitz bat idazten asi zan. Idazkia amaituta, gau luzea asi yakon arnas-estuka ito-agiñean oartzen zala. Noizbait, egun-sentian loak artu eban.

Urrengo egunean, Garbiñe ikertzera etorri yakonean, aurregunean idatzitzako eskutitza eskuratu eutsan, esanez,

– Begira Garbiñe, auxe da On Peli’ri idatzi dautsadan eskutitza, eta ni joan naitenean eskuratuko dautsazu. Idazki onetan, zeuk eta Matxalen’ek laguntza bear dozuela, eta bere ardurapean artu zagiezala eskatzera azartu naz. Izan be, zuckana ez dau ezetariko bearkizunik, baiña barruko zerbaitek idazki ori bialtzera eragiten daust, beti, ederrespenik andienaz erabilli nau-ta...

Bere emazteak negarrari emotsala ikustean, isildu zan une batez, eta gero,

– Garbiñe maite orrek, ez negarrik egin; artu dagigun Jaungoikoaren naiá...

Bere oiñazea menperatu eziñik, aspaldi aretako bere barruan gordetako atsekabe biziak ler egin eban, eta negar-zotinka itzok urten yakozan emazteari:

– Ainbeste ta ainbeste naigabeak jasan ezkeru, zoriontsuak izaten asten gintzanean zorigaitz au etorri bear be... Zeu barik, Andoni, bizi-tzak ez nau erakarten. Zurekin joan aal baneinte...!

– Ez olakorik esan, Garbiñe, Matxalen’ek bear zaitu, eta berarekin zoriona aurkituko dozu.

– Bai, bera izango da bizi izatera eragingo nauana, eta atsekabeak arinduko daustazan izarra...

Gau aretan, etxera biurtu aurretik neskazaiñari gogoratu eutsan lendik eskaturikoa, au da: Andoni’re n egoereak txarrera joatean, urrutizkiñez etxera deitzeko. Urrengo goizean, Garbiñe’k urrutizkiñaren txiliña aditu eban, eta suzmo txar batek jota, entzungaillua jaso ebanean, ariaz bestaldetik, neskazaiñaren abotsa entzun eban auxe iñotsa-la:

– Garbiñe, zatoz lenbailen, Andoni oso txarto ikusten dot-eta...

Arin baten, Matxalen artu eban, eta albokoen atera dei eginda, senarra txarto egoala esan eutsen, eta bera geisotegira joan bitartean, umea eurokin eukitea eskatu eutsen. Umea atsegiñez artuko leukiela entzunda, Garbiñe taxi batez osategira joan zan. Senarraren gelan sartu

baiño ez, azkenetan egoala oartu zan, eta aurpegiaren izerdia txukatuz, berba samurrak esaten eutsazala Andoni lo-zorro astunetik itxartu zan, eta ozta-ozta auxe esateko gai izan zan:

– Agur nire maitia... zaindu egizu gure Matxalen...

Eta bere izaera eriotzaren isillean amaitu zan. Negar-zotin batek menperatuta, Garbiñe’k une luze samar batez iraun eban, eta gero neskazaiñaren laguntzaz bere senarra il-jantzi ondoren, larritasuna bere baitan menperatuz, urrengo egunerako senarraren illetak parrokian atondu ebazan, eta jarraian, cortziketa-etxe batera joanda, lurperatzeko zeatzak. Azken aldiotan, ille-saritik aurrezki batzuk egin izan ebazan, eta oneik, guztiak eralgi ebazan, Andoni’ri illetak eta erortziketa duiñak emoteko.

Etxera biurtzean, Matxalen’eri aitatxu zeruetara joan izan zala esan eutsan, eta andik biok bera zaindari izango leukiela. Illetak-eta amaitu ziranean, Garbiñe’k bere buruari eusan eutsan, zelan edo alan bizi izateko jardun bat lortu bear izango leukela, eta orduan gogora etorri yakon, il aurretik bere senarrak On Peli’re nentzat eskuratutako idazkia; arratsalde aretan, Matxalen artuta, biok “Sendoa”ren idaztegiatara joan ziran. Bidean zear joiatzala, Matxalen’ek auxe itaundu eutsan:

– Amatxu nora goaz...?

– Aitak lan egiten eban lekura.

– Eta zergaitik ez dator bera gurekin...?

– Lengo egunean esan neutsun, zeruetara joan izan zala.

– Zeruetara joan baiño, gurekin egon zeiten naiago izango neuke.

– Ori eziña da, Matxalen, Jaungoikoak dei egin dautsolako, eta Aregana joan egin bear izan dau. Joan aurretik, zure alde aaleginduko litzakela zoriontsua izan zeitez an esan eustan.

– Eta ezin dot berarekin barbarik egin...?

– Bai, otoi bat egunero bialduko dautsagu, eta orduan poztuko da.

– Ama zerua eta Jaungoiko ori, zer dira...?

– Txikiegi zara gauza orrejk ulertzeko, baiña anditu zaitezanean, dana argi ikusiko dozu.

Atan orretan, “Sendoa”ren idaztegiatara eldu ziran, eta Garbiñe’k ango atezaiñari, nor zan azalduta, On Peli’rekin egon gura ebala esan eutsan,

Andik laster, atezaiñak nagusiagana lagundu eutsen, eta onek, txeratsu artu ebazan, Matxalen'eri musu bat emonez, eta alargunari auxe iñotsala:

– Damu dot benetan, Andoni'ren eriotza, nire arduradunik onena zalako, eta bera ordezteza ez yat erraza izango. Baiña, alargun gaztea ta alabatxua mundu onetan bakarrik uztea txarrena da.

Isildu zan “Sendoa”ren nagusia une batez, eta gero, Garbiñe'ri errukitsu begiratzuz,

– Zer egin dagiket zuen alde...?

– Lenengo ta bein, On Peli, eskerrik beroenak emon bear dautsudaz, nire senarraren geiso-aldian bere ille-sari osoa emon dauskuzulako...

– Ori bere alde egin nengikean gitxiena izan da, eta niretzat poztasun andia izan da laguntza ori emon aal izatea.

– Begira, Jauna, nire senarra il aurretik, idazki bat emon eustan zeuri eskuratzeko aginduaz. Artu egizu, Jauna.

On Peli'k esku dardartsuz eskutitza artu eban, eta ona emen iñoana:

“ On Peli nire nagusiari:

Eskerrik andienak emon bear dautsudaz zure esku zabalagaitik, iru illabeteko nire geisoaldian, lan-sari osoa emon daustazulako. Ori ez da edozeiñek egin dagikean gauza, zeu lako gizon emonkorrak baiño. Zerorrek neugan zure uste osoa ipiñi dozu beti, eta gaur, nire emaztea ta alabea mundu onetan bakarrik eta bearrizan andiz geratzen diranean, zeuri areago eskatzera azartzen naz... eta auxe alegia: nire emazteari laguntzen jarraitu dagizula, jardun bat berarentzat billatuz. Zeure armonakaitik, nire ustez, lanbideren bat jaritsi dagikeozu, bizi izaten jarraitu dagian gure alabatuarekin. Bizitza onetan nire alde egindakoa-gaitik asko zor dautsut, eta orain, larrialdi onetan nire etxekoai laguntzen jarraitu dagizula eskatzen dautsut. Origaitik ez dozu iñongo saririk jasoko, baiña noan lekutik aaleginduko naz merezi dozun saria egunen baten artu dagizun. Besterik ez, On Peli maite ori. Artu egizu nire ederrespenik andiena, eta Egun Andirarte”.

Andoni.

Andoni'ren idazkia irakurri ostean, zirrara andi batek menperatu-ta, On Peli'k isillik irauñ eban, bere gogoan eskutitzaren eskaria ausnartzuz. Noizbait, Garbiñe amultsu begiztatuz, mintzo astirotsuz auxe esan eutsan:

– Garbiñe, zure senarra zanak, nire arremonen bidez zuretzat bizi-bide bat lortu dagitsudan eskatzen daust, baiña nire ustez, zuretzat onena, etxe onetan bertan jardun dagizula izango litzake. Begira, zortziretatik arrastiko ordu biak arte lan egiten dogunez, emakume bat bal-tzu onetako langelak garbitzeko arratsalde guztietan dator. Dalako garbitzaillea zarra billakatu da, eta lengo egunean lanari utzi gura cutsalala esan eustan. Augaitik ba, eta zeu gerturik izatekotan, aren zeregiña beteko zenduke. Lan-orduak arratsaldeko iruretatik zortzirak arte dira; zer deritxazu nire eskeintzeari...? Gogoan erabilli egizu ori, eta egun batzuen buruan erantzuna emongo daustazu.

– Jauna, arazo ori ez dot ausnartu bear, oraintxe bertan onartzen dodalako. Begira, Andoni'k eta biok egindako aurrezkiak, aren eriotz-osteko eralguntzetan urtu egin dira, eta bear-bearrekoa yat aalik ariñen jardun bat jaristea.

– Pozik artzen dot zure erabagi ori, eta biar bertatik lan egitera etorri zaitekez. Oraingo garbitzaillearekin egun batzuk emongo dozuz eginbearrekoak ikasi arte, eta gero, zeuk bakarrik jardungo dozu.

– Ederto, Jauna, biar arratsaldean emen izango naz.

– Beste gauza bat, Garbiñe, zeure illeko saria auxe izango litzake...

On Peli'k eskeiñi eutsan ille-saria oso ondo begitandu yakon Garbiñe'ri, bere alabarekin polito bizi izateko zan-eta. Baiña bazan beste arazo bat atontzeko zana, eta orduan Garbiñe'k,

– Orain konpondu bearrekoa da etxeko arazoa. Begira, Jauna, oraiñarte bizi izan garean etxea, auzo barri ta aberatsean dago, eta goi-bizilekua izan arren be, guri ez dagokigun maillakoa da, eta gaiñera aundiegia gu biontzat. Augaitik Jauna, beste egokiago batera aldatuko gara...

Etxegillea zan aldetik, On Peli'k arazoa ondo menperatzen eban, eta orduan,

– Begira, Garbiñe, uste dot zure naia bete dakigedala, eta egun batzuen buruan eskatzen dozuna aurkituko dogu.

– Eskerrik asko, Jauna. Zure erabagiaren zain egongo gara, eta orduan, biar bertan arratsaldean emen izango naz nire jardunari asiera emoteko.

– Agur, Garbiñe, eta biotz on. Aldiaren bidean oraingo zure oiña-zea arindu dakizula Jaungoikoak lagun.

Erabagia lez, Garbiñe “Sendoa”ren lan-gelak garbitzen asi zan urrengo egunean, eta lengo garbitzaillearen laguntzaz, andik egun batzutara, bera bakarrik lanean jarduteko gai izan izan. Oztopo bat aurkeztu yakon, orraitio, eta auxe alegia: Matxalen’ena. Ez eban beste biderik berarekin lanera eroan baiño, baiña erabagi au, ez zan benetako. Bere alabea sei urteko izanik, erriko eskolara bialtzea onena izango litzake.

Areitariko arratsalde baten, bere lan-gelara etorri izan zan On Peli’k Garbiñe’ri dei egin eta auxe esan eutsan:

– Begira, Garbiñe, Bilbao’ko alderdi zaarrean etxe oso bat jabetzen dot, eta ikusi gura ba’zenduke, orain bertan ara eroango zindukedaz.

Joan ziran On Peli’ren berebillean. Bidetik joiazala, “Sendoa”ren nagusiak auxe esan eutsan:

– Ikustera zaroadazan etxea, leku-urriagaitk oso txikia egin bear izan neban, eta sukalde ta gela bi baiño ez ditu. Neuk egindako etxe guztiak saltzen dodaz, auxe nire jarduna da-ta, baiña etxe au bere txikitasuna dala-ta, saldu barik geratu yatan, eta alogeran ipiñi neban. Bigarren soruko eskubian dagoana utsik geratu da, eta atsegin ba’yatzu zuretzat izango da.

Atan orretan esandako etxera eldu ziran. Alderdi zaarrean egoan, naikoa barria izan arren be. Margoztu ta atondu-barria zan etxetxua, Garbiñe’k zeatz aztertu eban eta benetan atsegin yakonez, baietza emon eban. Orduan, On Peli’ri aren ille-saria itaundu eutsan, eta onek eskatu eutsana ezerezkeri bat iruditu yakon.

– Baiña, Jauna, orreri duan emotea lez deritxat...

– Ez bedi besterik esan, Garbiñe. Gura dozunean, etxeko zama-berebillak zure erredizak eta eskuartekoak ona ekarriko ditu bizi izan zaitezten

Garbiñe’k bere biotzetik isillean eskertu eban aren emonkortasuna, eta aalik ariñen etxe-aldaketea egingo leukela esan eutsan. Izan be, andik iru egunetara, Matxalen’ekin bizitegi barrian kokatuta egoan.

Etxea txukuna ta argia zan, alderdi zaarrean eraikia izan arren be; ikuspegi onak zituan, eta beste etxetik ekarritako erredizakaz, itxura guztiz polita artu eban. Oraingo bizi-lekua ez eban igokiñik, baiña bigarren soruko etxea izanik, oiñez igotea ez zan iñongo oztopoa.

Garbiñe’ren jardunak arratsaldeko iruretatik zortzirak arte irauten eban, eta oiko lana zan, au da: lan-gelak isastu, leioko leiarrak garbitu, autsak kendu etab. Izan be, egitekoa ez zan astuna eta eguneroko bost ordutako epea, naikoa zan bere lana astiro ta nasai egiteko. Alde onetatik, eta illero artzen eban lan-sariagaitik, Garbiñe pozik aurkitzen zan, bera ta Matxalen bizi izateko beste ta geiago irabazten ebalako, baita aurrezki batzuk illero egiteko be.

Baeban, baiña, buruaste bat: bere jardunaldian zer egin Matxalen’ekin. Lenengo egunetan, Matxalen berarekin eroian, baiña laster oartu zan bidezkoa ez zala, eta alderdi zaarreko etxera joan zanean, andik ur samar lekaime-ikastetxe bat egoala jakiñik, onetan Matxalen’en izena emon eban. Ikaste-orduak, goizeko bederatzitik ordu batetara arte, eta iruretatik arrastiko seirak arte izaten ziran. Goizean ondo atontzen zan, berak joan-etorria egiteko umeari laguntzen eutsalako, baiña arratsaldeetan, seiretan ikastaldia amaitzen zanez, eta Garbiñe’k zortzirak arte lanean jarduten ebanez, ordu bi oneitan, zer egin bere alabatxuz ...? Zorionez, bere estualdia lekaimeai azaldu eutsen, eta oneik, ordu bi orreitan, Matxalen’ek ikastetxean iraungo leukela bere ikaste-lanak atontzen eta jolasten, erabagi eben, eta zortziretan, Garbiñe umearen billa etorriko litzakela.

Urtenbide au benetan egokia azaldu zan, eta aurrerantzean Garbiñe’k bere bizimodu barriari baretuago emon aal izan eutsan. “Sendoa”n egiten eban lana naikoa nasaia izaten zan, eta onezaz gaiñera, goiz guztietan etxeko garbiketea eginda merkatura joian, eta bearreko janariak erosita, etxean atontzen ebazan. Matxalen ordu batetan ikastetxetik etorrenean, bazkaria gerturik egoan, eta ama-alabak autu nasai bateri emonda, iruretan umea ikastetxera biurtzen zanean, Garbiñe bere oiko zeregiñetara joaten zan, eta zortziretan alabearen billa etorrita, biok etxera. “Gurutzaren Alabak” izeneko ziran lekaimeen eritxiz. umea argia zan, eta gauzak arin baten ikasiz gaiñera, soñuetarako doai bereizikoa zanez, ama aren billa zortziretan etorri arte, neskatoa piano-ikastaldiak artzen asi zan.. Sor Lutxi’k, eresiaren irakasleak benetan ederristen eban Matxalen’en ikasgai onetarako eban doaia, eta luzaro barik “Gurutzaren Alabak”en ikastetxean, neskatoak piano-jotzalletzat arrakasta andia jaritsi eban.

Egunak ezer bereizi barik alkarri erraikioen, baiña bein baten, eta seigarren urtean "Sendoa"ren idaztegieta jarduten ebala, Garbiñe'k ez bear txar bat jasan eban. Idazgela bateko goiko leio baten leiarrak garbitzen ziarduala, alako baten irrist egini, buruz beera sorura jausi zan. Asiera baten arazoak ez eban itxura gatxik erakusten, baiña aste-bete bat geisotegian emonda gero, barrero be lanean asi zanean, zora-bioek artuta ezin egikean betekizunak bear lez egin, eta etxean geratu bear izan eban. On Peli sarritan yatorkon ikustera, eta agindu zorrotza emon eutsan, ez ebala idaztegiaren ikusi gura bere lengora biurtu arte, eta atsedean osoa izan egian, etxeko lanak egiteko emakume bat bere aukerari ipiñi eutsan. Olan, atsedean osoaz iraun eban aspaldi batez, Matxalen lekameen ikastetxera oi lez joiala.

Egunen bidean, baiña, buruan artutako kaska osatu-bearrean, barruko antura bat biurtu zan, eta zorabioak gero ta sarriago jasaten ebazan. Astero etorkion osagilleak erriko geisotegira eroan eban, azterketa zezat bat egiteko, eta guztitariko saioak egin ostean, buruan bizien bat sortu izan yakola azaldu zan.

Osagilleek batzar bat izan eben, eta onetan buru-barruan esku-sartzea ala ez eztabaidatu zan; geiengo eritxia baiña, alperriko izango litzakela dalako ebakuntza egitea izanik, etxera bialtzea erabagi eben. Oneri buruz On Peli jakitun ipiñi ebenean, atsekabe itzela artu eban, eta bere buruari zin egin eutsan, aaleginduko litzakela Garbiñe'ri eriotz duin bat emoteko. Osagilleak egunero ikertzen eban Garbiñe, eta agindu zorrotzak artu izan ebazan aalegin guztiak erabilteko geisoak iñongo miñik jasan ez egian, eta augaitik, egunero lo egin aurretik aringarri bat ziztatzen eutsan.

Bein baten, On Peli ikustera etorri izan zala, geiso-aldian bare-une bat artu izan ebala Garbiñe'k, auxe esan eutsan:

– On Peli, nireak egin dau, et ondo dakit luzarorako ez nazala izango...

– Nasaitu zaitetz, Garbiñe, zure alde aaleginduko gara...

– Benetan, kezkatzen nauana, Matxalen'en etorkia da. Zer egingo dau gaixoak bakarrik mudu onetan...? Amabi urteko neskatoa da, eta ni joan naitenean, zer billakatuko da...?

– Ez zaitetz larritu, Garbiñe, nire zaintzapean artuko dot...

– Eskerrik asko On Peli, baiña nire alabeak benetan bear dauana, ama bat da, eta zeuk ezin dagikeozu ori emon, mutil-zarra zarealako...

– Baiña zelan edo alan ori atondu daiteke.

Garbiñe'k irribarre itun batez erantzun eutsan, eta gero miñak menperatuta, etorbarria zan osagilleari aringarria ziztatzeke eskatu eutsan, eta onen ostean lo-zorro baten murgildu zan.

Eta gau aretan gaixoak ames egin eban... Ames egin eban, Jaungoikoaren mintzo ezkutu batek auxe iñotsala "Ama bat zeure alabearentzat nai dozu eta zuzen zagoz orretan... Ez al-zara oroitzen lengo gudaldian Yoldi-enean zure umearekin emondako aspaldia...? Zuretzat urte neketsuak, senarra espetxean egoalako, baiña autortu bear dozu zeure alabearentzat urte zoragarriak izan zirela on-izatez eta ango sendiaren maitasunaz inguratuta. Ama bat eskatzen duzu Matxalen'entzat... Zer-eta Yoldi-eneako Alis zure alabearen amatzat...? Idatziko ba'zeunskio, ez zenduke gauza andirik galduko..."

Itz oneik Garbiñe'ren gogoan agindu uxa-ezintzat untzatu ziran, eta urrengo arratsaldean, Matxalen ikastetxetik etxeratu zanean, auxe esan eutsan:

– Entzun maitia, ez dakit oartu zanean ama gitxirako dozunik...

– Ama, ez olakorik esan - erantzun eutsan Matxalen negar baten -, zeu joaten ba'zara, neuk ez dot bizi gura...

– Entzun ondo auxe: artu idaztekoak eta jesarri zaitetz mai-ondoan, idazki bat iradatzi gura dautsudalako Gerturik zaitezanean esan egistazu...

Andik laster, malkoak parra-parra isurtzen yakozala, Matxalen'ek esanekoa,

– Gerturik nago ama - esan eutsan -.

– Idatzi egizu auxe...

“ Alis maite-maitea

Gogoan izango duzu orain amar bat urte, Matxalen'ek eta biok zuekin Yoldi-enean emon genduzan iru urte zoragarri areik, zeuen maitasunak ta guztitariko ardurakaz inguratuta. Ordutik ona gauza negargarriak eroan dodaz. Ara... Oña biurtu ta laster, nire senarra, espetxean jasan eban goseagaitik etika artu eta il zan, Matxalen eta biok bakarrik utzita. Zorionez, Andoni'ren ugazaba onak lagundu eustan, eta orreri ezker polito bizi izan gintzazan, arek eskeiñi eustan lanaren bidez. Urte batzuk nasai samar bizi izan gara, baiña bein baten, lanean niarduala,

esku-zurubitik beera jausi nintzan eta buruan zauri txar bat artu neban. Orren ondorioz, minbizi bat sortu yat, eriotzera naroana izan be. Ez dakit noiz arte bizi izango nazan, baiña barruko mintzo ezkutu batek badiñost egun gitxitarako izango dala.

Laster alkartuko naz Andoni nire senarrarekin, eta ori alde batetik pozgarria ba'da, bestetik Matxalen umezurtz geratuko dala nire alamen izugarria da. Aspaldi onetan, Jaungoikoari etenbarik eskatu dautsat lagundu dagistala nire alabarentzat ama bat idoroteko, eta entzun daust entzun be, nire eskaria. Ara, atzo lotan nengoala, burutara emon eustan ama bat bear izatekotan, iñor ez Yoldi—eneako Alis baiño ego-kiagorik, eta Aren aginduari jarraituz, astirik galtzeke eskutitz au Matxalen'en bidez idazten dautsut. Eta ziur naz zeruetako mintzoari jarraituz, nire alabak benetako ama bat zeugan ezagutuko dauala. Amabi urteko da, eta mundu onetan neskato esaneko ta maitetsu ba'da, ezpaibarik beragan doai orreik aurkituko dozuz. Il naitenean, zu etorri arte, "Gurutzaren Alabak"en lekaimetxean egongo da, ango nagusiak Matxalen zainduko dauala berba emon daustalako.

Eta besterik ez, Alis maite ori. Orain burua joaten asi yat, eta laster lokuma batek artuko nau... Agur, araindiko Aintzan batu gaitez an arte,

Garbiñe"

– Orain Matxalen - jarraitu eban -, estalki baten, idatzi egizu norabide au:

“ Yoldi-eneako Alis'eri

Donepaul'en

Basses Pyrenees

Prantzia'n.”

Jarraian, Garbiñe'k agindu eutsan estalkiko atzekaldean euren norabidea argi ipinteko, etortean, Alis'ek iñongo oztoporik aurkitu ez egian.

– Eta oraintxe bertan, Matxalen– agindu eutsan amak–, bialgo-ikurrak (silluak) ipiñi egizuz eta sartu kaleko kutxara, aalik ariñen eldu daiten.

Neskatoari aurpegian beera malko lodiak eriozala, kalera jatsi, eta amak agindutakoa egin eban. Biurtu zanean, geisoa ziztuki aringarria artu ondoren lokuma betean egoala ikusi eban, eta oe-ondoan belauniko, Matxalen'ek negar samin bateri emon eutsan. Neskato gaixoak bae-kian ama egun gitxitarako ebala, eta etsiak artuta olan iraun eban gau berandu arte.

Garbiñe'ren bizitzak iru egun geiago iraun eban, illuntzean eguzkiaren antzera izaerea itzaltzen yakola. Epe onetan, Matxalen ez zan amaren oetik unetxu bat bera be aldendu, eta bere amaren bizitza amatau zala egiztatzean, negar luze ta etsi bateri emon eutsan. Gero, alboko etxera joan, eta ango etxekoandrea jakitun ipiñi eban. Jarraian, bion artean il-jantzi eben, eta Matxalen'ek amaren gorpua il-beila egin bitartean, alboko ezaguna parrokira joan zan urrengo eguneko illetak atontzeko.

Alboko etxekoandreak neskatoatzaz errukiturik bere etxera eroan eban, eta an, baraurik oeratu zan aparirik iruntsi eziñez. Gau amaitu-eziña izan zan berarentzat, eta etsiak artuta, Jaungoikoari bera be amarekin eroan egiala eskatu eutsan, bizirik jarraitzeko adorerik ez ebala-ta. Noizbait, gau-beranduan lo errukigarri bat beratzaz jabetu zan, eta atsedean apur bat artu aal izan eban.

Illetak arruntak izan ziran, ildakoaren ezagun gitxi batzuk etorriak zirala. Gero, On Peli'ren aginduz, zerraldoa Andoni zanaren ondoan lurperatu izan zan, azkenean, senar-emazteak eriotzak batuta. Jarraian, lekaimetxeko nagusiak Matxalen ikastetxera eroan eban, eriotz-aurretik Garbiñe'ri agindu izan eutsalako bere alabearen egoerea atondu arte, lekaimEEK zainduko leukiela. Edozelan be, neskatoaren billa iñor ez etortekotan, On Peli gerturik egoan Matxalen'en ezkuntza bere pentzuan artzeko.

YOLDI-ENEAN ESKUTITZA ARTZEN DABE

Bariku aretako udabarriko arratsalde argitsuan, eguneko betekizunak eginda etxaurrean jesarrita, Alis'ek Yoldi-eneatik ikusten zan ikuskai zoragarria begien aurrean gozatzen eban. Alako baten, Donepaul'etik igotzen zan bidetik etxeoandreak idazkilariaren irudia ikusi eban. Izan be, ez etozan eskutitz ugari etxera, eta bere buruari norena izango ete itauntzen eutsala, bidalgoko mezularia idazki bat emonda, bidean beera galdu zan.

Bialtzaillearen izena irakurtean, biotz ikara batek artuta geratu zan Alis. Izan be, amar bat urte izango ziran Garbiñe etxe aretatik joan izan zala, eta auxe zan arrezkero beragandik artzen eban lenengo idazkia. Zer esango ete...?

Esku dardartsuakaz estalkia urratu, eta yoranez beterik irakurten asi zan. Asiera baten zailla egin yakon Garbiñe'k eskatzen eutsana ulertzen, baiña bigarren irakurketea eginda, arazoa argitzen asi yakon. Il zorian egoan aspaldiko adiskideak, bere alabea Jaungoikoaren aginduztat eskeintzen eutsan....

Une batez, Alis oldozkor geratu zan. Alabetariño bi nagusiak, Mari ta Pelise, bost urte lenago lekaike mixiolariak India'ra joan izan ziran, eta Joana, gazteena, orain ogei urteko zana, erriko dendari aberats batekin arremonetan zan urrengo urtean ezkontzeko. Etxean beraz, laster ez litzake geratuko Beiñat, oñordekoa baiño. Eta Garbiñe'k, il aurretik Matxalen alabatzat lagaten eutsan. Une batez, zauskada esan-

eziña oartu eban, eta bere baitan bilduta burura etorri yakon, dalako eskeintza Jaungoikoagandik etorri leitekiola... Laster alaba barik geratuko zan Yoldi-eneara, neskato umezurtz bat eskeintzen yakon bere alaben utsa ordezteko. Zelakoa izango litzaken...?

Alis'en gomutara amar urte lenagoko ume baten aurpegi zoragarria etorri yakon. Yoldi-eneako bitxi aztu-eziña izan zan, eta ezpanetan bere irribarre argitsua agertzen zanean, bazirudian atsekabe guztiak ezabatzen zirala. Zelakoa izango zan orain neskato biurturiko ume aztueziña...? Eta gaiñera, Jaungoikoaren emokaria zana, zelan uxatu...?

Oldozkun oneitan murgilduta illuntzerarte iraun eban Alis'ek, eta noizbait apalordua zala ikusirik, barruratu zan. Etxe aretan apalostean agurtza edo errosario esaten zan, eta gau aretakoa amaitu zanean, Alis'ek, senar, Beñat eta Joana'ren aurrean auxe esan eban:

- Gomutan dozue, urrean, orain amar bat urte etxe onetan iru urtez mugaz beste aldeko ama ta bere umetxua egon ziranean, ezta...?

Baietz erantzun eutsoen danok, eta Beñat orduan,

- Gogoratzen naz, umearen irribarre goxoak, eguzki-printz bat zirudiala.

- Ona emen ba, ilteko zorian dagoan aren amaren idazkia.

Eta jarraian, idazkia astiro ta itzak ondo ebakiak irakurten asi zan. Amaitu ebanean, Alis onetaraxe mintzatu yakon:

- Niketz neskatoa etxe onetan pozik onartuko neuke, baiña orren aurretik, zuen eritxia jakin gura izango neuke. Zer diñostazue...?

Isillune bat sortu zan, bakoitzak bere gogoetari emonda, eta noizbait, Yoldi-eneako etxejoaunak, mintzo astirotsuz, auxe esan eban:

- Niketz, pozik artuko neuke neskatoa, eta are geiago, Jaungoikoaren emoitza dirudianean.

- Eta zuek- seme-alabai zuzenduz itaundu eutsen Alis'ek- zein eritxiko zarie...?

- Neuk- tartetu zan Beñat- baietz esango neuke, gurean oztopo andirik ez da izango-ta...

- Neu be baietzean nago- esan eban Joana'k-, etxe onetan neska-me on bat izateko abagune ona dalako...

- Jakin bear dozu Joana- ebagi eutsan Alis'ek-, Matxalen etxe

onetan ez dala neskametzat erabillia izango, benetako alabatzat baiño. Eta auxe agirian ondo ipiñi gura dot, gero iñongo makurrik sortu ez daiten.

Alis'en azken itzok danok baieztu eban, eta orduan etxeoandreak arazoari azkena emon eutsan, esanez,

- Zuen guztion eritxia, Matxalen etxe onetan artzea azaldu dan ezkerro, datorren astean beraren billa joango naz Bilbao'ra, gaixoa luzaro bakarrik egon daitela egokia ez da-ta.

Urrengo astea asi zanean, Alis'ek bidegiterako abiamenak egin ebazan, eta goizeko lenengo erri-berebilla Donepaul'en artuta, Baiona'ra eldu, eta astirik galtzeke Endaia'ra abiatu zan, eta emendik Donostia'n zear illuntzerako Bilbao'n zan. Ostatuete baten kokaturik, urrengo egunean, Alis'en eskutitzan azaldutako elbidea urizain baten laguntzaz laster idoro eban. Bigarren soruko ate baten josita, iragarki auxe irakurri eban:

“Matxalen, “Gurutzaren Alabeak”en ikastetxean dago”. Jarraian kalera jatsita, ikastetxe onen zuzenbidea eskaturik, laster eldu zan dalako lekaimetxera, eta ara elduta, lekaime-burua zan Sor Lutxi'k arraiki abetaldu eban.

- Zer nai dozu Andrea...? - itaundu eutsan onek -.

- Ara, lekaime on ori, Matxalen'en billa nator, eta ona emen nire etortearen zegaitia

Eta itzok esanik, Garbiñe'gandik artutako idazkia emon eutsan.

Sor Lutxi'k irakurri eban arduratsu, eta amaitzean,

- Banekian Garbiñe zanak adiskide bateri idatzi izan eutsala, bere alabearen ardura artu egian, eta eskutitz onek aukeratutakoa zu zareala egiztatzen dau.

- Olan da, eta Aste onetan bertan Donepaul'eko gure etxera eroan gura dot. Neskatoa ikusi dagiket orain...?

- Bereala etorriko da, ikaste-ordua amaitu daitenean..

- Bitartean, Matxalen'en gora-beerak jakin gura izango neukez.

- Asmatu daiteken neskatorik esanekoen eta maitekorrena da.

Jarraian, Sor Lutxi'k guztitariko gora-beerak Matxalen'eri buruz emon eutsazan, baiña gauza bakana, aztu yakon eresirako eban joera bereizia aipatzea, eta neskatoaren onoiemenak garatzen ziarduanean, umezurtza agertu zan.

Alis'ek ikusi ebanean, ezin izan eban biotz-ikara bat menperatu. Azken aspaldi izugarri aretan jasandakoa agiri eban neskatoak aurpegiño argalean. Atsekabe neurribakoa kokatzen zan aren begi itun gorrixkatan, eta aztal erkiñak bere makaltasunaren lekukoak ziran. Barruko zarrastadea jabetu eziñik, Alis'ek magalean estu-estu besarkatu eban, eta mintzo amultsuz,

– Nire Matxalen maitia– malkoak ozta-ozta menpaturik esan eutsan -, zure amaren gurariz natortzu, etxe bat eta oroz gain nire maitasuna zeuri eskeintzeko. Berak ezagun guztien artean zure amatzat aukeratu ninduan, eta ziñez diñotsut zeruan dagoan lekutik ez dala damutuko.

Sor Lutxi'ri agur esateko garaia eldu izan zan, eta Matxalen'ekin izandako ardurak, eskertzen eutsazala, neskatoaren eskuari eutsita, kalera urten ziran biok.

– Orain, Matxalen– esan eutsan–, goazen zure etxera, eta nire bidezorroa an utzita, uri andi onetatik osteratxu bat egingo dogu.

Joan ziran ba, neskatoaren etxera, eta leioak zabaldua isasketa arin bat egin eben. Onen jarrian, kalera urten ziran.

– Orain Matxalen - Alis'ek esan eutsan - etxera biurtu aurretik uri andi au ezagutu gura dot, eta zeu bide-erakusle izanik, zatirik nabarmenenak ezagu-erazoko daustazu.

Eta biok kalerik-kale ibilli ebillela, uri aretako ikusgarri batzuk begiztatu ebezan eguberdirarte. Orduan Alis'ek,

– Aizu, Matxalen, otordua da, non bazkalduko dogu...?

– Ara, Alis Andrea, amak iñoanez, jatetxerik onenak eta merkeenak uriko alderdi zaarrean dagoz.

– Joan gaitezen ba.

Matxalen bide-erakusle zala, zazpi kaleetara joan ziran, eta ango itxura oneko jatetxe bat ikusirik, bazkaria izateko sartu ziran.

– Zer artu gura izango zenduke, Matxalen...?– itaundu eutsan Alis'ek -

– Zeuk nai dozuna, Andrea.

– Baiña gaur, alkarrekiko ezagutze-eguna dan ezkerro, jatekoak zerorrek aukeratu dagizuzala nai izango neuke.

Oldozkor iraun eban une batez neskatoak, eta gero,

– Sukua eta lebatza aukeratuko neukez.

– Ederto, Matxalen, aukera oba-eziña egin dozu.

Eta jaki orreik aginduta, itxaron bitartean, Alis'ek,

– Gauza bat esan gura dautsut, Matxalen, eta auxe alegia: ez deritxat ondo Andrea esan dagidazunari, arrotz emoten daualako... Orduan, zer-eta izeko Alis edo izeko soillik niri esatea...?

– Ondo derist, izeko Alis.

Irribarrez erantzun eutsan Yoldi-eneako etxeoandreak, eta sukua arzten asi ziran. Alako baten, Alis'ek,

– Aizu, Matxalen, ainbeste urte igaro ondoren eta alkarrekiko barriak izan barik, zergaitik nitzaz oroituko zan zure ama...?

– Amak zeruko ikuskizun bat izan ebala esan eustan. Sarri askotan Jaungoikoari otoi egiten eutsan ni bakarrik utzi ez nindegian, eta alako baten, amesen artean Jaungoikoak burutara emon eutsan zeu nire amatzat aukeratzea. Eta ames aretatik bere lengora etorri zanean, astirik galtzeke zeuri bialitako eskutitza iradatzi eustan. Orra or dana, izeko Alis.

– Eta zeuk zer uste dozu...?

Orduan Matxalen'ek xalo-xalo auxe erantzun eutsan:

– Zeu ezagutu ondoren, amaren erabagia benetan Jaungoikoaren agindua izan dala esango neuke...

Alis'ek ezin izan eban biotzaren eragiña menperatu, eta maite-maite besarkatu eban. Bazkaria amaitu zanean, Alis'ek,

– Aizu, Matxalen, erosketa batzuk egin gura izango neukez, eta alderdi zaarreko denda batzuk ikertuko doguz.

Erosketara joan ziran ba, eta onen atxakiaz Alis'ek janzki batzuk eta aldagarriak neskatoarentzat erosi ebazan, eta onen ostereai jaramon egin barik, arein duiñean onenatarikoak. Illundu zanean, jatetxe baten apari ariña izan eben, eta onen ostean, egun aretako joan-etorriakaitik nekatuta, Matxalen'en etxera biurtu, eta an lo egin eben.

Urrengo egun bietan, neskatoak lagunduta, Alis'ek uri aretako ikusgarriak ikusten jarraitu eban eta azken egunean, itsasaldera joanda, ango ondartza batzuk ikertu ebezan, eta barruti aren edertasun eta egokitasunak benetan erakarrira oartu zan Alis.

Urrengo egunean goizean goizik, Atxuri'ko geltokitik trenez Donosti'ra, eta Endaia'n zear Baiona'ra eldu ziran. Emen, Donepaul'eko azken erri-berebilla artu, eta irixtean etxeko zalpurdia begira ebela, gau betean Yoldi-eneara eldu ziran. Ango guztiek ikusgurarik andienaz itxaroten eutsoen, eta Matxalen'eri ongi-etorri maitetsua eskeiñiz, danok aalegindu ziran txeratsiak agertzen. Izan be, bidegiteagaitik Matxalen nekatuta egoan, eta apari ariña eginda gero, neskatoa lo-gura zala ikustean, lenengo soruko lo-gela batera Alis'ek eroan eban, eta andik laster, neskatoa lo baketsu batek artuta, urrengo goizalderarte itxartu barik iraun eban.

IRRIBARRE BATEN ITXARKUNDEA

Urrengo egunean, leioan zear irazten ziran eguzkiaren printzek Matxalen iratzarri eben, eta ikoti bat az oea utzita, sapailloaren atea zabaldu, eta onen eskudelean besoak kokaturik, ederrespenak arrituta, andik ikusten zan zoragarriak Illuratuta, begira ta begira geratu zan.

Izan be, ordurarte ez eban alako edertasunik ikusi. An beean Donepaul'en urigunea marrazten zan, kaleak albain meen antzera bereizten zirala. Oroz gain, eleizearen dorrea ta onen joaletegia enparantza zabal baten aurrean bereizten ziran, erritarrak babestu naiean lez, eta enparantzaren bestaldean lekaimetxe bat zirudiana jagiten zan. Uriko mutur urrunenean, jauregi antzeko arri landuzko etxe eder bat ikusi zeitekean baratz andi batez inguratuta.

Baiña benetan ikusgarria, andik ikusten zan Benabarra'ko zati yaukala zan. Urrutian sakabanatuta, erri ta baserrien etxeak uso zurien antzera barreiatzen ziran, mendietako egien babesa billatuz, eta ori dana esmeralezko kabi erraldoi baten erdian... Eskumako ikus-mugan mendi andi batzuk ikusten ziran, eta arein artean, tontor goren batek bere nagusitasuna erakusten eban...

Ango edertasuna begiztaten ziarduala, ustekabez, atzetik baten batek besarkatzen ebala oartu zan, eta orduan Alis'en mintzoa aditu eban auxe iñotsala:

- Ondo egin dozu lo, maite orrek...?
- Bai, izeko, aspalditik ondoen.
- Eta zer deritxazu gure barrutiari...?

– Zoragarria da, izeko Alis, izan be, neuk egundo ikusitakorik ederrera.

Iribarrez, Yoldi-eneako etxeoandreak auxe esan eutsan,

– Onein egunetako baten, urira eroango zaitut bere ikusgarriak ezagutu dagizuzan. Ingurune au Benabarra'ko zati bat da, eta ederrenetarikoa, antxiñatik zan legez iraun daualako.

Onen ostean, Alis'ek ikusten ziran erri batzuen izenak aipatu eutsazan, eta amaitzean,

– Egunen baten– jarraitu eban– banan banan ezagutuko dozuz ...

– Izeko– eten egin eutsan neskatoak–, zein da, an urrutian jagiten dan mendi eder eta garai a...?

– “Ori” izeneko mendia da. Naparra ta Zuberoa'ren mugan jagiten dan mendi ospetsua. Bere egi baten Europa'ko pagadirik ederrena kokatzen da. Orain -, isillune baten ostean jarraitu eban Alis'ek -, eta inguruak zelakoak diran ezagutu ondoren, etxe au erakutsiko dautsut.

Eta au esanik, goiko ganbaratik asita, etxea erakutsi eutsan. Matxalen'ek ederrestu aal izan eban Yoldi-enea etxe aberatsa zala, eta izan be, eritxi au sendotu yakon, beetxeko areto nagusia ikusi ebanean.

Leku zabal onen erdian, areitz-enbor bikaz egindako mai luze bat edatzen zan, antze andiaz landutako aulkiakaz inguratuta. Arasa erraldoi batek orma luze bat alderik-alde estaltzen eban, eta bere erraietan, bikaintasunez landutako troska bikaiñeko ontziteria agiri zan. Bestaldeko orma luzean zear erti bikaiñez landutako euskal kutxa-bilduma ederra ikusi zeitekean, eta gela nagusi aren yaukaltasuna osotzeko, sapaitik bost besotako argi dilindari bat zenbatu eziñeko leiarrezko malkoakaz eskegiten zan.

Areto aretako bikaintsunaz arrituta, Matxalen'ek ezin egikean itz bat bera esan, ederrespeneko isiltasunez dana begizatzen ebala.

– Areto au etxe onetako bitxia da– irautsi eutsan Alis'ek–, eta augaitik, gitxitan erabilten da, esaterako, Joanes eta biok ezkondu gintzazanean, eta gero, gure umeen jaiotzak ospatzeko, eta egubarriko jaie-tan. Kutxa oneik, inguru oneitako bildumarik ederrena ei'da, eta urtean bein, erriko arotzak gai bereziakaz erabilten ditu, zerenak jandakoak billakatu ez daitezan.

Onen ostean, ate bat zearkatuta, Alis'ek neskatoa sukaldera eroan eban, auxe zirautsala:

– Sukalde au ezagutzen dozu, bart emen apaldu zenduan-eta. Gure otordu guztiak emen egiten doguz etxeokok, Monike, gure neskameak, eta Julien morroiak lagunduta.

– Sukaldea izateko, izeko Alis, ederra ta argitsua da.

– Orain– jarraitu eban Alis'ek–, etxeo inguruak erakutsiko dautsudaz.

Au esanik, atadi zabaletik lekorera urten, eta etxeoandreak Yoldi-eneako alor zabalak erakutsi eutsazan. Udabarria zanez, bestaldean, etxejoauna eta bere seme Beiñat buztar-idiakaz alor bat goldatzen ari ziran

– Etxerako bear dogun baiño azkozaz geiago biltzen dogu alor oneitan, eta augaitik erriko merkatari bateri barazkien enparadua saltzen dautsagu. Orain, ikusagun esne-beien ikullua. Aspaldi baten, etxepeko baten kokatzen ziran, baiña beien kopurua anditu-ala, etxetik-at korta andi bat eraiki genduan, eta gaurregun an kokatzen da gure beitaldea. Egunez eguraldi eguzkitsua naiz euritsua izanik, beiak kanpoan alatzen dira, eta illuntzean soillik kortan aterpetzen dira, goizalderarte. Orain ogei ta amar esne-bei ditugu, eta Joanes'en asmoa kopuru au anditzea da. Esan bear dautsut, Matxalen, beiak etxe onetako ekarririk edo mozkiñik andiena emoten dautskuena dirala.

Atan orretan, kortara eldu ziran. Toki ederra ta argitsua zan. Txoko baten, jaisketagailu batzuk ikusten ziran. An, dana txukun agertzen zan, eta Alis'ek bere erakusketea onetaraxe jarraitu eban:

- Tximist-indarrez erabilitako jaisketakiñakaz biltzen dogu esnea, lenengoa goizean beiak alagunetara joan aurretik, eta bigarrena illuntzean barruratzen diranean. Egunero zama-berebil bat gure esnearen billa dator eta emendik amabost kilometrora dagoan esne-lankidetzara daroa. Barrero esango dautsut, Matxalen, esnea Yoldi-enea'ko ekarririk andiena dala, eta augaitik, Joanes'en ardura betea esne-ekarrarian ipiñita dago.

Isillune baten ostean, Alis'ek onetaraxe jarraitu eban:

– Korta onetako beien txisak ontzi txiki baten biltzen dira, eta emendik egunero ur-aga baten bidez, lur-azpiko ontzi andi samar baten biltzen dira, bearreko danean, alorrek ongarrizeko. Beien korotzak, ostera, astean bein gurditxu batek metatzen ditu, alorrek bere garaian zimaurtzeko.

Eta azalpen oneik eta beste batzuk Alis'ek neskatoari emotsazala, etxera biurtu ziran. Orduko, bazkalordua zan, eta sukaldeko mai-ondoan jesarrita, etxe aretako janari mamintsuari emon eutsoen, Matxalen'ek, ikusitakoaren bere arritasuna azaldu eutsen maikideai, eta bere adorea ikusirik, Joanes'ek,

– Aizu, Matxalen– adeitsu esan eutsan–, gaur, atzoko neskatoaren itxura ezbardina erakusten dozu, eta ori benetan atsegin yat.

– Izan be– tartetu zan Alis–, gure Matxalen'ek aspaldi izugarria jasan dau, eta aldiaren bidean lengora biurtuko zara, ezta maite ori...?

– Bai, izeko...

Itz oneik esatean, Matxalen'en begi gorritzat nekatsuetan, ildako amaren oroitzat agertu zan, eta lengo adorea galduta, isillune sakon baten murgildu zan. Alis'ek errukitsu begiratu eutsan, berekiko iñoala: "Matxalen gaixoa, noiz agertuko da zure ezpanetan, antxiñako irribarre sorgingarria, etxe au eguzki-printzakaz beteten zenduanean...? Eta asperen sakona jaurtita, neskatoari auxe esan eutsan:

– Matxalen, nai dozu beiak ikustera joan...? Gero, Julien arein billa joango da, eta bidebatez eroango zaitu.

– Baita pozik be joango naz, izeko.

Bazkalkideak joan ziranean, Alis'ek neskatoari esan eutsan,

– Lagundu egistazu ontziteria maitik jasotera, eta gero, egurra zatitzen diarduan Julien'gana joanda, esango dautsazu beiak ikustera eroan zagizala.

Arratsalde-erdia izango zan, Matxalen etxeko morroiagana joan zanean, eta bere guraria entzunik,

– Ederto Matxalen, egur-zatiok gorde ta gero, joango gara.

Andik laster morroia agertu zan, eta muru txiki baten atzetik egoan alagunera abiatu ziran. Larradi zabal baten ogei ta amar esne-bei agertu ziran, batzuk txal bat alboan ebela. Txalak lenengoz ikusten ebazala zan, eta areitariko bategana joanda, idunetik besarkatu eban itz samurrak esaten eutsazala. Luzaro samar egon zan txalari mintzatuz, eta gero, beiak bilduta, Julien'ek kortarako bidetik eroan ebazan. Orduko illuntzea zan, eta beiak askatara lotuta, morroia jeisketea egiten asi zan. Tximist-indarrak sortutako utsaren bidez, errapatetik esnea pegarretan biltzen zan. Onen ostean, pegarrak ate ondoan batu ziran, biaramonean esne-lankidetzara eroan zeitezatzen. Etxerantz abiatzen ziranean, neskatoaren itaunai crantzunez, Julien'ek esan eutsan,

– Yoldi-eneako ekarri edo obari beina esnea da, eta augaitik gure etxekojaunak ardurarik andiena emoten dautso beien endari, ori lortzeko bearreko eralguntzak egiten dituala. Oraingo bere elburua, beien kopurua anditzea da, berrogei ta amar osotu arte, orrenbesterako alagunerik badaukagu-ta. Onen ondorioz, satza edo ongarrri geiago batuko dogu, eta ortuko emoitza aren baten andituko da.

– Eta txalak anditzen diranean...?

– Zekorrek saltzen dira, eta bigantzarik onenak bei zaarrak ordezteko gordeten doguz.

– Aizu, Julien, zenbat urte dira etxe onetan diarduzula...?

– Ara, amabost urteko nintzala emen lanean asi nintzan, eta orain berrogetak urteko naz.

– Eta zer billakatuko zara aguretu zaitezanean...?

– Yoldi-enearen oitureari jarraituz nire azken urteak emen emongo dodaz zaar-saridunaren antzera...

– Ondo deritxat orreri, Julien; orrenbeste urte etxe onetan lan eta lan, bidezkoa da dagokizun atsedena izan dagizula.

Atan orretan etxera eldu ziran, eta gau bete zanez, etxeko enparaduekin maiaren ondoan batu ziran otordua izateko. Apaldu bitartean, egun aretan beiekin bizi izandakoa gorde eziñik, Matxalen'ek bere oarrikaspenak adore biziaz azaldu ebazan. Neskatoaren azalpenak entzutean, Alis'en aurpegian irribarre bat agertu zan.

Biaramonean, gosaria izateko Matxalen sukaldera jatsi zanean, Alis'ek auxe itaundu eutsan:

– Zelan egin dozu lo, maite orrek...?

– Oso ondo izeko. Oera orduko, nekatuta nengoan, eta bereala begiak batu nebazan, eta ez naz itxartu eguzki-printzak lo-gelara sartu arte.

– Begira, Matxalen, gero errira joango gara erosketa batzuk egin bear dodazalako, eta bide batez gure Donepaul erakutsiko dautsut. Nik abiamentak egin bitartean, artu zure katillu bete esne ogi-xigorrez eta gurin ugariakaz, geroko gure bidea luzetsu izango da-ta.

Andik laster, biok errira jatsi ziran, eta etxerako erosketa batzuk egin ostean, Alis'ek errira erakutsi eutsan. Erdian, kale nagusia egoan, albo banatan beste kale bik lagunduta. Kale onen erdian, enparantza zabala edatzen zan; alde baten eleiza ederra, eta aurrez-aurre lekaimen-

txe andi bateko orma zuria ta leio orlegiak bereizten ziran. Enparantza guztia zugaitzakaz eta jarlekuakaz ormiduta egoan, itxura atsegiña eskeintzen ebala.

– Begira Matxalen, eleiza au XVII'gn eunkian eraiki zan, iru aldeetatik eleizpe zabalak babestua. Orain, barrukoa ikusiko dozu.

Sartu ziran, eta otoi ariña egiñik, biok korura igon ziran, eta organu baten odi dizdiratsuak ikustean, Alis'ek jarraitu eban,

– Organu au, erriak egindako eske-batze baten bidez erosi zan, orain berrogei urte inguru, eta ezagulariek diñoenez, barruti onetan ez dau kidekorik. Datorren igandeko meza nagusian entzungo dozu.

Jatsi ziran korutik, eta aldararantz urreratzen ziralá, aldare-buru edo erretaulan agertzen zan irudi andi bat aipatuz, Alis'ek auxe esan eutsan:

– Orra or Donepaul, erri onen babesle ederretsia. Egunen baten bere edeski entzungarria irakurriko dautsut. Ikusi dagikezuncz, eleiza au landutako arriakaz egiña da, eta argi guztiak piztuten diranean, bere bikaintsuna arrigarria da.

Eta gero beste gaiari aldatuz,

– Ikusten dozu alboko leioetan agertzen dan margotutako leiar-tza...? Bakoitzean Gure Jaunaren bizitzaren jazokun bat itxuratzen da, jaiotzetik eriotzararte.

Ibilli ebillela, leiar-lan aren bikaintasuna begiztatu eben Alis'en azalpenen artean. Noizbait eleizatik urten ziran, eta enparantzaren bes-taldera joizala,

– Orain, Matxalen– esan eutsan Yoldi-eneako etxeoandreak–, gauza bat esan bear dautsut, eta auxe alegia: Joanes eta biok andereiño baten ezkontza artu bear dozula erabagi dogu, ezpaibarik, zure amaren naia orixe izango zalako, eta orra or gure aurrean, Yosu'ren Mirabeen ikastegi bikaiña, inguru oneitako ospetsuena, izan be.

Onen artean, ikastegiko atera eldu izan ziran, eta txiliña jo ondo-ren, agertu yaken atezaiñari, Alis'ek esan eutsan,

– Aizu, Sor, lekaime burua ikusi gura dogu.

– Bereala esango dautsat.

Iker-areto batera eroan ebazan, eta andik laster, itxura gureneko lekaime bat sartu zan, eta,

– Kaixo, Alis Andrea– esan eutsan–, poztuten nau zure ikerpen onek. Baiña lenengoz, zelan zagoze etxeokuok...?

– Ondo, Sor Louise, eta eskerrik asko. Zuei be ondo-izatea opal-tzen dautsuet. Etxekotzat dogun Matxalen izeneko andereiño au, nire senarrak eta biok, ikastetxe onetan ezi daiten gura dogu. Umezurtza da, eta oraintsu galdutako bere ama il aurretik, alabatza artu gengian eska-tu euskun, eta orregaitik gure etxean dago.

– Prantziera ba al-daki...?

– Ez, Sor Louise, Bidaso'z araindikoa da-ta.

Unetxu batez lekaime-burua oldozkor geratu zan, eta gero,

– Ori oztopo andia da, eta ez dakit zelan atonduko dogun...

– Begira, Sor Louise– eten egin eutsan Alis'ek–, gure asmoa bene-tako ikasketak datorren ikastaroan artu dagiazala da. Anartean, ikaste-txe onetan prantziera ikasiko dau, eta datorren ikastarorako, nire ustez, gerturik izango da beste ikasleekin jarraitzeko.

– Orretarako, Alis Andrea, aalegindu bear izango dau, eta oraingoz auxe esondatzen dautsut, Alis Andrea: ikastetxe onetan bere adiñekoe-kin jardun dagiala, eta bitartean emen ikasi dagianari etxean sendotzen ba'dautsazue, zeozer egin aal izango dogu.

– Oso ondo derist orreri, Sor Louise. Etxeko jarduna nire zaintza-pekua izango da, eta nik uste, datorren ikastarorako gerturik egongo da.

– Baiña euskereari utzi barik.

– Gurean, Sor Louise, ez da besterik egiten euskeraz baiño, eta alde orretatik ez da iñongo oztoporik izango.

– Ederto. Aizu, Matxalen, zein adiñeko zara...?

– Amairu urteko, Sor Louise.

– Orduan, Sor Ibonne'kin jardungo dau, eta biartik asi daiteke. Emen, ikastegiko janzkia emongo dautsagu.

Alis aulkitik jagi zan, eta lekaimeari,

– Agur Sor Louise– esan eutsan–, eta eskerrik asko zure laguntza-gaitik. Biar gure Matxalen zortziretan emen izango da.

Urten ziran, eta enparantzatik biok joiazala, Matxalen'ek adeitsu esan eutsan,

– Izeko, benetan eskertzen dautsuet zeuri ta osaba Joanes'eri nigaitik egiten dozuena, eta ziur naz zerutik amatxu poztuko dala... Izan be, orain ikusten dot, zu nire amatzat aukeratzean aparta ona egin ebala...

– Nik benetan ez dakit nork nori eskertu bear dautsan. Ori, etorkiak esango dau, maite ori,

Eta itz oneik esatean, Alis'ek musu samur bat emon eutsan.

Enparantza zearkatu eben, eta kale nagusitik jarraitzen ebela, Matxalen'ek itaundu eutsan,

– Nora goaz orain, izeko...?

– Erriko bitxia ezagutu dagizun.

– Erriko bitxia diñozu...? Diamante-zati bat al-da...?

– Ez, Matxalen, laster ikusiko dozu.

Bidetik jarraitu eben, eta kale nagusia amaitu zanean, aurrez-aurre jarrita, burdin-sare batez inguratutako baratz eder eta zabala agertu yaken. Erdian, arlanduakaz eraikia jauregi eder-ederra ikusten zan. Izan be, Matxalen'ek ez eban iñoiz a lako edertasunik ikusi, eta burdiñezko atearen zear abo-zabalik begiztatzen eban. Jauregiko etxaurreak burdin-laneko sapaillu yaukala eban, eta leio guztiak antzezko burdin-lanakaz ornituak ziran. Atadia, arrizko uztai yaukalaz edertua zan, eta etxeari erion bikaintasun-itxurak, Matxalen txundituta utzi eban.

Eta zur eta lur eginda etxeari begiratzen eutsala, Alis'en abotsa entzun eban auxe iñotsala:

– Auxe dozu, Matxalen, gure erriko bitxia: Doxandabartz'tarren oiñetxea, edo Donepaul'eko Jauregi bikaiña. Ezagularien eritxiz, onen benetako aberastasuna inguraten yakon baratz andia da. Itsaslaria zan oraingo etxekoen arbaso batek, mundu zabaletik guztitariko zugaitz arrotzak ekarri ta landatu zituan, zugazti-bilduma arrigarria sortuz. Urtean bein, jauregi onetako nagusiek, Kepa ta Paul Donecen egunean, baratzaren atea zabaltzen dabe, ikusleek zugaitzen edertasuna begiztatu dagien. Eskubidea dabe egun osoan emen egoteko, eta etxetik ekarritako bazkaria artuta, arratsaldean erromeri bat euskal dantzak eta guzti illuntzerarte ospatzen da, eta gabean, atea barrero itxita, urrengo urterarte.

– Eta nortzuk bizi dira orain jauregi onetan...?

– Orain urte batzuk, jauregi onetako nagusia, erriko osagillea zana, borda batetik dei egin eutsoen, eta zaldia artuta ara joan zan. Eguraldi

oso euritsua zan, eta ikerketa eginda gero, biurtzean, errekarren ondolik joiala, zaldiak laprast egin eban, eta uretara jausi zan. Aal eban lez andik urten zan, eta etxera eldutean geisorik oartu, eta oera joanda, sukari andi batek artuta, andik laster il zan, alargun eta seme bat utzirik. Alarguna, Errose Andrea da, jauregi onetan bizi dana, eta igandetako meza nagusian bere jabetasuna dan deduzko aulkian ikusi daiteke. Oso ongillea ei'da eta erritarrek benetan ederresten dabe.

– Eta semea...?

– Beratzaz ez dakigu gauza andirik; orain Baiona'ko ikastetxe baten diardu, eta dirudianez, osalaritza, aita zanaren bizibide berbera, artu gura ei'dau.

– Orduan bere aita zana osalaria zan...? Nik uste neban aberatsak ez dirala bizibide batera lotzen..

– Benetako gizonak, dirua baiño geiago barruan daukien aberastasuna maiteago dabe, eta Doxandabartz Jauna orreitariko gizona zan; mundu onetan osagilletzat emon ebazan urteetan, geisoak laguntzen aalegindu zan. Sarritan, bearrianak jotako geisoren bat ikertzean, oe-bururpean, agindutako sendakiaik erosteko, bearreko dirua uzten eban. Bere eriotzak, Donepaul errian eta ingurukoetan atsekabe andia sortu eban.

Matxalen'ek baratzeko burdiñezko atean zear nekatu barik jauregia begiztatzen eban, eta berekiko itz oneik urten yakozan: “Benetan, jauregi onetako nagusiak zeruan irabaziko eban merezitako zoriona”

Bere gogoetatik Alis'en abotsak atara eban, auxe iñotsanean,

– Matxalen joan egin bear dogu, berandutxu egin yaku-ta.

Eta errian zear Yoldi-eneara abiatu ziran. Bazkalosteko lanak egin ziranean, mai-ondoan jesarrita, eta biblia bat erakusten eutsala, Alis'ek neskatoari,

– Orain, laztan ori– esan eutsan–, prantzieraren jarduna egiteko liburu onen zati batzuk egunero irakurriko doguz. Badakizu arazo au garrantzi andikoa dala zuretzat, datorren ikastaroa zure adifneko ikasleekin egin gura ba'dozu; orretarako, baiña, izkuntzaren oztopoa garaitzea bearrekoa izango yatzu. Asi gaitzean, beraz.

Alis zati bat irakurten asi zan, eta gero Matxalen'ek birresaten eban, eta olan jarraitu eben luzaro samar.

Biamonean, Matxalen lekaimen ikastetxera joan zan, eta bere adifneko neskatoen ikasgelan, onein irakaskintzari ekin eutsan. Asiera

baten, zailla egiten yakon, baiña ekiñaren-ekiñez, eta eguneko ikastaldia amaituta, apariaren aurretik Alis'ekin egiten ebazan bibliaren irakurketakaitik, ez-arian ez-arian prantzieraren menpetasuna jaristen asi zan. Eta olan, udabarria amaituta, udearen asieraz ikastetxeko oporrak artu ebazan, eta etxeko lanak egiten Alis'eri lagunduz gaiñera, egunoro ordubete bitako irakurketea egin bear izaten eban..

Bajoian udea aurrera, eta jaiegun bateko arratsaldean, etxearen aurrean Alis'ek eta Matxalen'ek barriketan ziarduela, Beiñat agertu zan, eskuan otzara bat ekarrela, eta neskatoari esan eutsan,

– Aizu Matxalen, nai dozu nirekin Basobaltza'ko pagadira mallukien billa joan...?

Ikoti batez neskatoa aulkitik jagi zan, eta,

– Bai benetan, Beiñat, pozik be joango naz.

– Zoaze ondo– esan eutsen Alis'ek– baiña berandu ez etortekotan, egunak laburtzen asi dira-ta.

– Nasaitu zaitez, ama– esan eutsan Beiñat'ek– Illuntzea baiño askozaz aurretik biurtuko gara.

Gazteak etxearen atzetik ostendu ziran, eta Alis urrutiari begira oldozkor geratu zan. Gogora etorri yakon Matxalen'en irribarre zoragarria ume bat izanik Yoldi-eneara etorri zanean. Asko jasan izan eban amaren eriotzaz, eta izan be onen oroitzak itzal bat jarten eben neskatorearen begi gaztainkara ederretan. Noiz biurtuko litzakio ezpanetara irribarre aren zoragarria...? Galdu ete zan betirako, ala biotzetik urteten yakon antxiñako bitxia egunen baten barrero ikusiko leuke...? Eta oldozkun oneitan murgilduta, asperen sakon bat biotzetik urten yakon.

Gazteak mendian gora joiazan Basobaltz'eko pagadirantza. Asiera baten, Matxalen'ek itaun ugariak egin eutsazan mutillari, baita onek pozik erantzun be, baiña aldapak sorturiko arnas-estuak noizbait isillik jarraitzera beartu eban, Eta ordubete bat igarorik, pagadira elduta, mallukien billatzeari emon eutsoen. Garauren bat ikusten ebanean, Matxalen'ek adorez beterik didar bat jaurtiten eban. Basa-mallukiak txikiak eta gorri bizikoak ziran, eta abo-sapairako gozo-gozoak. Olan jarraitu eben gazteek otzara bete zan arte, eta gero pagadiko ertzean jesarrita, andik ikusten zan ikuskai zoragarria begira-begira geratu ziran. Alako baten, Matxalen'ek,

– Aizu– esan eban–, urre-pillo bat ikuskai onen ordaiñez emongo ba'leuste, neuk ikuskizun au naiago neuke. Eta zeuk, Beiñat...?

Mutilla une batez oldozkor egon zan, eta gero,

– Neuk, urre-pilloa aukeratuko neuke. Ara, etxera biurtzean, ikuskaia joana izango da, baiña urrue-pilloak nire sakelean kili-kili gozala egingo leuskit.

– Begira, Beiñat, gaurko arratsalde onen zoragarriak egun batzutan zear nire gogoan altxor baten antzera iraungo dau. Urre-pilloa, aldiz, kutxa baten barruan egongo da ezetariko atsegiña emon barik...

– Bai, Matxalen, baiña urre-pilloa kutxan dagoala jakiteak bake andia emongo leuskit, edozein bearrizanari aurea emoteko gerturik dodala jakitean.

Une batez neskatoak isillik iraun eban, eta gero,

– Beiñat, aberastasun eta maitasunaren artean aukeratu bear izango ba'zendu, zeñien alde erabagiko zenduke...?

– Ori zelan dan; diruaren bidez gauza asko lortu daiteke, eta aberatsa ba'zara, maitasuna be jaritsi dagikezu.

– Diruaren bidez lortzen dan maitasuna, ez da maitekeria baiño. Ni gazte naz, eta oar-ikaste gitxikoa, beraz, baiña auxe benetan badiñotsut: maitasuna biotzerako urre bizia da, eta zure baitan etenbarik laztantzen zaituan zoriona. Dirua, ostera, izaera ona emoteko gai bat, baiña bion artean, biotzaren zoriona gain-gaiñetik daukat...

Era onetan eztabaidatu ebezan gazteek euren ikuspegiak, eta arratsbeera asten zala oartzean, etxerako bidea egiteko mendian beera abiatu ziran. Yoldi-eneara irixtean, Matxalen otzarea artu eta Alis'egana oldartu zan, auxe iñotsala:

– Begira, izeko, an goiko pagadian artu doguzan basa-mallukiok...!

Eta au esatean, arratseko ibillaldiak aurpegian piztutako gorria agiri ebala, eta begi ederrak dizdiraka, otzarea eskuratu eutsan. Eta bapatean, arratsalde aretan bizi izandako zorionak eraginda, Matxalen'en ezpanetan betirako ilda zirudian antxiñako irribarre sorgingarria, mirari baten antzera piztu zan...

Biotz-ikara batek artuta, Alis'ek atsegiñezko didar bat jaurti, eta neskatoa besarkaturik, altzoan estutu eban, auxe iñotsala:

– Noizbait, aingeru baten irribarre zoragarriak, etxe onetako ormak argitzen ditu barrero, nire zoriona dan andia...!

Ordutik, Yoldi-eneako bazterrek bizitza barri bat artzen bide izan eban, lengo irribarre argitsua Matxalen'en ezpanetara biurtu zanetik.

Edu onetan, oartzeke, udea bajoian aurrera, eta Irailla'z batean, lekaimen ikastetxean ikastaro barria asi zan. Onen aurretik, baiña, Matxalen'ek prantzieraren gaitasun-azterketea jasan bear izan eban. Oso urduri aurkeztu zan, baiña gero ta nasaiago jardun eban, eta amaitzean irakaslearen eritxia ona izanik, Matxalen'ek bere adiñekoekin ikastaroari asiera emon eutsan. Orduko, Amalau urteko zan, eta bere edertasunak eta begikotasunak guztien begi ona irabazten ekian.

Ikastaroa goizeko zortziretan asten zan arratsaldeko bost eta erdiak arte. Amabietan, ikastetxean bertan bazkaltzen zan, eta onen ostean, solasaldiko ordubete ta erdi izanda gero, barriro be ikasketara. Goizean eta arratsaldean ordu-erdiko jolas-aldia izaten eban ikasleek.

Matxalen adimen argikoa zanez, ondo oitzen zan, eta aldiaren bidean bere gaitasuna agirian jarri zan, irakaskintzari jarraitzeko oztoporik ez eban-eta. Oiko ikastaldiak amaitzen ziranean, ordu beteko eres-ikastaldia asten zan. Une au aukerakoa izanik, sari-geigarri baten bidez emoten zan. Ikastetxe aretan Solfaka eta piano-jotea Sor Agnes'ek irakasten eban.. Ikastaroa amaitzeko zorian, pianoa ikasten ebanek irakaslearekin Baiona'ko Eres-ikastolan azterketa bat izaten eban egokien gaitasun-agiria lortzeko.

Bein baten, arratsaldeko ikastaldia amaituta urtenbiderantz abiatzen zala, eres-gelatik igarotean, atean zear Matxalen'ek piano bat aurrez-aurre ikusi eban. Une batez gelditu zan, eta gero, gurari bizi batek menperatuta, zer egiten ebana oartu barik, pianoaren estalkia jaso, eta aulkian jesarrira, eres-mailla batzuk joten asi zan, eta gero, cuskal abesti eder au:

OÑAZEZ

Neska gozo ta polit bat nik maite nuan biotzez.
Bere begi baltz ederrak beteten ninduen pozez.
Baiña gaixoa il zitzaidan ni utzirikan negarrez.
Geroztikan beti gau ta egunez, biotza daukat oñazez.

Eta jarraian, Iparragirre'ren abesti aberkoi au:

ARA NUN DIRAN

Ara nun diran mendi maiteak, ara nun diran zelaiak,
Baserri eder , zuri-zuriak, iturri eta ibaiak.
Endaia'n nago zoraturikan, zabal-zabalik begiak.
Oi Euskalerrri, lur oberikan ez da Europa guztian.
Oi Euskalerrri, lur oberikan ez da Europa guztian.

Bigarren abesti au amaitu ebanean, ustekabez, esku bi bere lepoan kokatu ziran, eta izuz burua biurtzen ebanean, Sor Agnes ikusi eban.

– Aizu, neskato– itaundu eutsan– non ikasi dozu onen ondo euskal eresi oneik joten...?

Eta Sor Agnes'en mintzo txeratsuz nasaituta, Matxalen'ek,

– Bilbao'ko “Gurutzaren Alaben” ikastetxean ikasi nebazan ona etorri aurretik.

– Tamal andia da ikastetxe onetan zure piano-ikasketak ez jarraitu izatea. Zergaitik ez dozu emon zure izena pianorako ikastaldi onetan...?

Zer erantzun ez jakiñik, isildu zan Matxalen, eta orduan Sor Agnes'ek

– Zein da zure izena...?

– Matxalen.

– Non bizi zara...?

– Yoldi-enean.

– Baiña zu ez zara Alis Andrearen alabea. Zelan daiteke ori...?

– Begira, Sor Agnes– erantzun eutsan lotsaz–, ni Bilbao'n bizi izan nintzan, eta ama il yatanean, ezaguna eban Alis ni alabatzat artzeko gerturik azaldu zan; orduan Yoldienea'ra ekarri ninduen, eta andereiño baten ezkuntza emon gura eustanez, ikastetxe onetara sartu ninduan.

– Eta zergaitik ez zeustan esan, piano-ikasketak artu gura zenduzanik...?

Isildu zan une batez Matxalen, eta gero,

– Asko aalegindu da nire alde izeko Alis, eta ez neban gura neugan diru geiago eralgi egian...

Une batez Sor Agnes'ek neskatoari ederrespenez begiratu eutsan, eta gero,

– Aizu, Matxalen– esan eutsan– esango dautsazu Alis Andreari, eskertuko neuskiola, ondo etorri dakionean nirekin mintzaldi bat izatea...?

– Bai, Sor Agnes, gaur bertan esango dautsat.

– Agur ba, Matxalen, urrengorarte.

Ettxera joan zan neskatoa, eta gau aretan, agurtzaren ostean, Alis'eri,

– Izeko– esan eutsan–, gaur, pekatu bat egin dot...

– Zelako oben egin dozu, Matxalen...?

– Ara, izeko: ikasketak amaituta eresi-aretotik igaroten nintzanean, piano bat ikusi dot, eta ziltzari jarki eziñik, eresi batzuk joten asi naz...

– Baiña, Matxalen, zelan daiteke ori...? Nik ez nekian pianoa jotzen zenduanik...

– Begira, izeko, Bilbao'ko ikastetxean, ama nire billa etorri bitartean, astia emoteko, lekaime batek solfaka ta pianoa irakatsi eustazan.

– Eta zelan ez zeustan orreri buruz ezer esan...?

Matxalen'k isillik iraun eban, eta Alis'ek arazoa amaitutzat emon eban.

Andik egun batzutara, lekaimetxean eguneko ikasketak amaitu ziranean, Alis agertu zan, eta Sor Agnes'ekin alkarrizketa bat eskatu eban. Laster agertu zan lekaimea Matxalen'ekin, eta iker-aretoan irurok jesarrita,

– Barkatu egistazu, Alis Andrea– asi zan Sor Agnes–, baiña nire ustez Matxalen'entzat garrantzi andikoa dan arazo bateri buruz, mintzatuko naiatzu.

Isildu zan une batez, eta gero

– Lengo egunean– jarraitu eban–, igarobide nagusitik niñoala, baten batek pianoa jotzen ebal entzunik, urreratu nintzan, eta Matxalen'ek ziarduala egiztatu neban. Bene-benetan, jotzen eban ereak ertilari baten aurrean nengoala adierazo eustan. Begira, Alis Andrea, urte asko dira pianoa irakasten diardudala, eta esan dagiketsut, benetako ertilaria jotzen entzuten dodanean, aren atzamarretatik darion gauza

esan-ezin batek, pianolari bikaiña dala adierazoten daust. Eta lengo egunean, zure lobak jotzen ziardunean, zirrara bereizi orrek artu ninduan. Orduan jakin neban, lengo aldietan Bilbao'n piano-ikasketak artu izan zituala...

– Edozelan be, Sor Agnes– eten egin eutsan Alis'ek– esan bear dautsut, ez nekiala Matxalen piano-jotzaillea zanik, oneri buruz ez eustalako ezer esan.

– Augaitik, beraz, Alis Andrea, dei egin dautsut. Tamal andia izango litzake pianorako orren bikaiñez jantzita dana, doai ori betirako galdu dagiala. Eta augaitik zure baimena eskatzera azartzen naz, Matxalen ikasletzat artzeko. Badakizu, Alis Andrea, orregaitik geigarri bat eskatzen dogula...

– Ez bedi orreri buruz besterik esan, Sor Agnes; bertan beera nire baietza emoten dautsut, Matxalen ikasletzat artu dagizun.

Jarraian, azterketa sakona egingo leuskiola esan eutsen lekaimeak, eta onen arauz, zein maillatan ipiñiko leuken ikusi. Au eta beste gorabeerak azalduta, Alis eta Matxalen Yoldi-eneara biurtu ziran. Neskatoa poz baten izekoaren ondoan joiala, onek itaundu eutsan,

– Baiña Matxalen maite orrek, zergaitik ez zeustan ezer esan zeure piano-joteari buruz...?

– Ez dakit, izeko...

Alis'ek itxura bereiziaz begiztatu eban, eta neskatoaren zioak iragarririk, berarekiko ederrespina goratzen yakola oartu eban.

Urrengo egunean, arratsaldeko oiko ikasketak amaituta, Sor Agnes'ek azterketa bat egin eutsan, eta onen ondorioz, ikastaro aretan neskatoak boskarren piano-maillan jardungo leukela erabagi eban. Eta olan, aspaldi atsegiña asi zan Matxalen'entzat, ciresirako eban erakarpenak bizitza beteago bat ekarkiola.

LIXETTE

Eta urteak igaroten asi ziran bata bestearen atzetik, Matxalen'en edertasun eta zoragarria larrosa-pipillaren antzera garatzen zirala..

Orduko, Yoldienea'ko aberastasunak gora andia artu izan eban, etxeko bei-taldea berrogei ta amarrekoa zala. Joanes'ek erabagi izan eban, esne-lankidetzan diruketa andi bat sartzea, eta onen ondorioz batzordean leku garrantzitsu bat artu eban. Ogei urteko mutil txairo ta zerdena zan Beñat, aitaren eragintzaz Baiona'ko ikastegi batera sartu izan zan, lau urteko iraupeneko zan lurgintza ta esnegintzaren ikasketak egiteko, eta baimendun-agiria lortu ondoren, egunen baten esnelankidetzan agintza-jardun bat jaritsi egian. Ogei urteko zan Beñat ikasketa oneik asi ebazanean, eta beraz, ogei ta lau urterarte etxetik-at bizi bear izango leuke, asteburuetan soillik etxera biurtzen zala, igandeko arratsaldeetan Baiona'ra biurtu bear ebala.

Matxalen'ek, iñongo oztopo barik andereiño bateri dagokiozan ikasketak egiten jarraitzen eban, eta urtero Baiona'ko eres-ikastegian, piano-ikasketen maillak banan-banan egiten ebazan. Sor Agnes'en kutuna zan, eta bion artean lotuki bereizi bat sortu izan zan, gero ta alkartuagoak irauten ebela.

Urte areitan, Matxalen'ek beste lagunekin ebazan arremonak sakondu ziran, batzuekin adiskidetasun andia jaritsi arte, onein artean maiteena, Lixette ikaskidea izanik. Donepaul'eko baratariaren (notarioaren) alaba bakarra zan, eta errian azal eta zabal ebillen aita oso aberatsa zala. Izan be, Donepaul barruti garrantzitsu baten burua izanik, idaztegiara lana parrastaka etorkion, eta urteen bidean ondasun andiko

gizona biurtu izan zan. Erriko enparantzako ederrenetariko etxe baten bizi zan bere emazte ta Lixette'rekin. Gurasoek gur egiten eben bere alaba bakarra, eta jakiña, lekaimeen ikastegian ezkontza artzen eban. Lixette ez zan edertasun andiko neskatilla, baiña bere baitatik sortzen zan doai bereizi batek, erakarpen andia emotsan.

Lenengo urtetik, Matxalen Lixette'ganako eraspen andia oartzen asi zan, eta egunen bidean alkarrekiko erakarpena anditzen zala, ikastaroa amaitu zanean, adiskide miñak biurtu izan ziran. Urrengo urteetan dalako eraspina sendotu zan, eta Matxalen amasei urteko neskatilla zala, jaiegun guztietan errira jaisten zan Lixette'kin eta beste lagunekin arratsaldea emoteko. Eguraldi txarra zanean, baratariaren etxean biltzen ziran, eta guztion eskariak etxe aretako piano bikaiñean, Matxalen'ek bere antzea garatzen eban. Laster lortuko leuke piano- irakaslearen agiriña, baiña orren aurretik be, aren esku malgu ariñek cres-maisuen lanik ederrenak jotzen ebazan. Ereslari guztien lanak erabillezan, baiña bere barruko gogo erromantikuak, Txopin poloniar maisuaren eresi samurrek indar bereiziaz erakarten eben. eta ekiñaren-ekiñez, maisu orren eresi yaukalak bere eskuetatik txorta maitagarrien antzera isurtzen ziran.

Lisette'ren gurasoek Matxalen maite-maite eben, eta sarri askotan etxean geratzen ziran aren erti gorena txastatzearren. Arremon oneik, neskatillen arteko ederrespen eta alkartasuna indartu ebezan. Edertasunez, Lisette ez zan iñongo eredia, baiña bere biotzaren ontasuna ezagutzean, beste baldintzak ezabatzen ziran, bene-benetan agertzen zala neskatilla aren urrezko biotza. Sarritan bere buruari iñotsan Matxalen'ek, Lisette'ren biotza irabaziko leuken gizona, zoriontsua izango litzakela. Bein baten, igandeko arratsaldea izanik, neskatilla-lagun biak, Doxandabaratx'tarren jauregitik igarotean, onen edertasun yaukala begiztatzeko gelditu ziran, eta Matxalen'ek auxe esan eban:

– Ona emen Donepaul'eko bitxia. Yoldi-eneara bizi izatera etorri nintzanean, Izeko Alis'ek esan eustan, jauregi onen jaubea baserri batek geiso bat ikertzetik biurtzen zanean, uretara jausi, eta onen ondorioz il izan zala. Gizon on-ona ei'zan jauregi onen nagusia, eta tamal andia da, benetan, guztiek ederresten eta maite eben ongillea il zeiten. Izeko'k esan eustan, ildakoaren seme batek, osalaritza, bere aita zanaren jarduna ikasi gura ebal. Ez al-deritxazu Lixette, ederra izango litzakela, bere aita zanaren bidetik joan daitela...?

– Bai, baiña ori etorkiaren eskuetan dago, eta bakoitzak bere zale-tasunaren arauz aukeratzen dau. Mitxel gaztea, orain Paris'en osalari-

tza ikasten ei'da, eta Prantzi'ko uri nagusi orretan gazte batentzat ziltza edo zirika ugariak dagoz, bere aita zanaren bizimodu ukatuari jarraitu dagian.

– Esan, Lixette, zelako mutilla da Mitxel gaztea...?

– Orain, ogei ta bi urteko izango da, eta itxuraz, mutil txairo ta zerdena da. Bere jaiotetxea dan Doxandabaratx-eneara oso gitxitan dator; udaldian aste bi-edo emon ondoren, beste lekutara doa, Donepaul'eko giroa itogarria bai'litzakion. Emen dagoan aspaldi laburrean, igandee-tan amarekin meza nagusira dator, eta ortik bestalde, ikusteziña izaten da.

– Ederra izango litzake, aita zanaren bidetik joan zeiten...

– Ez da erraza izango, Paris'eko atsegiñen artean bizi izaten dana, aitak eroan eban bizimodu ukatua artzeko gerturik izan daiten.

Isildu ziran une batez, eta gero Lixette'k,

– Aizu, Matxalen, urte geiago igaro daitezenean, zer billakatuko zara Yoldi-enea'n...?

– Gurasotzat dodazan osaba Joanes eta izeko Alis ondoen zaintzea, nire zeregin beiñena izango da, eurok emon daustezan maitasuna ta ondo-izatea zelanbait ordaintzeko.

– Ez yatzu burura etorri noiz edo noiz, etxeko oiñordearekin ezkontzea...?

Matxalen'en aurpegian oiko irribarre argitsua agertu yakon, auxe iñotsala,

– Begira Lixette, Beiñat anaitzat daukat, eta izan be, ez yat iñoiz burura etorri berarekin ezkontzea.

– Eta zer billakatuko zara, Matxalen, Beiñat'ek Yoldi-eneara bere emaztea ekarri dagianean...?

– Begira, Lixette, ori etorkiari dagokio, eta abagune ori aurkeztuko ba'litzakit, orduan Jaungoikoak dagokidan urtenbidea emongo daust. Bitartean, ez gaitezen larritu gure eskuetan ez dagoana gogora ekarten. Eta zeuk, zelako asmoak dozuz etorkirako...?

– Zeuk esan dozun lez, ùxatu dagigun gure gogotik urrun dagoan etorkia. Oraingo nire asmoa, gurasoekin bizi izatea da, besterik ez, eta egunen baten gauzak etorri-ala, egoera barriari gure jokabidea egokitu-ko dautsagu.

Isildu ziran, eta andik laster, Lixette'k esan eban,

– Biurtu gaitezen erriko erdi-gunera. Orain gogora yatort, nire gurasoek ezagun batzuk etxean artuko dabezala, eta aitak esan daust zeuk gerturik izango ete zarean, piano-jotaldi bat eskeintzeko

– Baita pozik be, Lixette, zure gurasoen alde edozer egingo neuke.

Erriko enparantzara abiatu, eta baratariaren etxe ederrera sartu ziran.

PIANO - IRAKASLE

Amazortzi urteko zala, Matxalen'ek bere azken ikastorua beteten eban lekaimen ikastetxean, eta urte aretan bertan, pianoko zortzigarren eta azken maillaren azterketea, ikastarua amaitu aurretik Baiona'ko Eres-ikastegian igaro bear izango leuke piano-irakaskintzan baimendua izateko.

Augaitik, udabarri-azkeneko goiz baten, Sor Agnes'ek lagunduta, Baiona'ra joan zan. Izan be, zoker arrenkuratuta oartzen zan, eta bake-tzeko, eres-irakasleak auxe esan eutsan:

– Matxalen, ez zaitez arduratu gaurko azterketeagaitik. Esan bear dautsut guztiz ondo gerturik aurkitzen zareala, eta uxatu egizu, beraz, bildurra. Garrantzi andikoa da azterketa orretan baretasuna ez galtzea, eta orretarako, pianoaren aurrean egon zaitezanean, ez izan gogoan besterik eresiaren edertasuna baiño, eta onetan murgilduta, aztu egizu inguratzen zaituana.

– Bai Sor Agnes, gomutan izango dot zure burubidea..

Eldu ziran goizetik Baiona'ra, eta Eres-ikastetxera joanda, itxaron eben euren txandea. Noizbait, irakasle baten aurrean, Matxalen'ek agindutako eres-zatia ekin eutsen. Asiera baten, zeozer artega egoan, baiña piano-joteari erraikiola; danaz aztuta, bere antze dizdiratsuak gaiña artu eban, eta eresi-gurenda yaukalaz amaitu eban. Ikasleen azterketa guztiak amaitu ziranean, irakasleen abo batez, Matxalen'ek piano-jotzaillearen agiria lortu eban, eta onezaz gaiñera, deduzko saria.

Poz baten, Sor Agnes eta Matxalen Donepaul'era biurtzen zira-nean, lekaimiak auxe esan eutsan:

– Izan be, Matxalen, zure deduzko sari orrek, zoriontsu egiten nau. Gaur lenengoz, olako saria nire ikasle batek irabazi dau, eta ez dakizu zelako poztasuna oartzen dodan nire barruan. Begira, ikasle maite orrek, pianoa jotzen dozunetan, eskuen atzamarretatik, zure barruko ertiak lore-atalak usaintsuen antzera sakabanatzen dira, entzulcen biotzak laztanduz...

Isildu zan une batez lekaimia, eta gero,

– Nire ikasle kutuna izan zara, eta aurrerantzean tamal ba'yat zu ikasletzat galtzea, bestetik, bitxi bat landu dodala jakiteak atseginez beteten nau...

Eta egun aretako gora-beerak gogora ekarrezala, Donepaul'eko enparantzara eldu ziran. Erri-berebilletik jatsi ziranean, Matxalen'ek Sor Agnes'eri lekaimetxeko ateraino lagundu eutsan, eta alkar agurtzeko zorian, onek auxe esan eutsan:

– Aizu, Matxalen, laster utziko dozu gure ikastetxea, jarraitzerik ez dozulako, eta ori tamal andia izango litzake zuretzat, pianoan jarduteko abagunea ez dozulako izango. Eragozpen ori garaitzeko, ona emen eskeintzen dautsudana: zatoz lekaimetxera arratsaldeko ikasketak amaituta gero, astean bi edo irutan, joteko oiturea galdu ez dagizun. Egingo dozu ori...?

– Baita pozik be; ez dakizu zelan eskertzen dautsudan piano-jotzen jarraitzeko emoten daustazun abagunea.

Poz baten biurtu zan Matxalen Yoldi-eneara, guztioi jakiñerazoteko egun aretan jaritsitako arrakastea ta deduzko saria. Poztu ziran etxeko guztiak, Alis batez be, eta jakiña, baimen osoa emon eutsan ikastaroa amaituta gero, lekaimetxera joan zeiten piano-joteko oiturea galdu ez ekion.

Andik laster, udaren asikeraz ikastegiko jardunak amaitu ziran, eta oikoa zanez, lekaimetxeko jai-gelan, batzar andi bat ospatu zan, ikasle guztiak tartekoak zirala. euren etxekoekin. Ikastaroan lortutako sariak banandu ziran txalo-jote ugarien artean, eta jaiari azkena emoteko, agertokian ipiñitako piano zabal (buztan-piano) bikain baten, launako eskutan Sor Agnes'ek eta Matxalen'ek entzunaldi zoragarria batzarkideai eskeiñi eutsien. Erealdi onen arrakastea esan-eziña izan zan, eta amaitzean, Matxalen'ek etxekoen zorionak eta besarkadak poz baten

artu ebazan, eta gero, beste askoen artean, Lixette'ren eta onen gurasoen gorespen maitetsuak.

Jaia amaitu zanean, Lixette'k eta Matxalen'k, arrastiko eguraldi ederra ustiatuz, erriko ingurunetatik osterata egin eben, eta jaiaren gorabeerak gogora ekarrezala, Lixette'k auxe esan eutsan:

– Lengo zuen launako eskuen joaldia entzutean, nire gogoa olerkiz bete yat, arratsalde eder au loreen usaiñaz jantzita dagoan lez... Oi, nork zeuk bezela jo aal izango leuken... Ara, Matxalen, neu be eres-bidetik saiatu nintzan, baiña alperrik yatala oarturik, uko egin bear izan neutsan...

– Aizu, Lixette, badira ertiaren baiño andiagoak diran doaiak...

– Zeintzuk...?

– Lagun-urkoari maitasuna emoten dakian biotzaren eragintzak.

– Olan izango da, zeuk diñozun ezker... Neuk, baiña, zeozertan bereiztu nai izango neuke, nire urritasunetik iges egiñez...

Matxalen'ek itxura bakanaz begiratu eutsan, bere kautan auxe iñoala: “Zure urrezko biotzari darion ontasuna oroz gaiñeko ogasuna da”.

Eta egun aretako jaiari buruz mintzatuz, arratsbeerak illuntzeari bidea uzten eutsanean, lagun biak alkar agurtu eben.

PARROKIKO ORGANULARI

Sor Agnes'ekin erabakita lez, Matxalen'ek lekaimetxean astean irutan pianoa jokatzen eban, eta oneri esker, bere trebetasunak gora egiten eban, eresgille onenen lanak menperatzen zituala. Bein baten, bere jokaldia amaitutzat emoteko zorian zala, lekaime-burua Sor Agnes'ekin eres-gelara sartu zan, eta,

– Begira, Matxalen– esan eutsan–, goiz onetan parroko Jauna ikustera etorri yat esateko, eleizeko oraingo organularia zaarra billakatu dan lez, jarduna utzi gura daula; eta beraz, orretarako beste bat aurkitu bear izango leukela, esan daust. Estu ta larri egoan gure parrokoa, On Leon, nork ordeztu legiken organulari zaarra ez ekialako, eta gurera etorri da bearreko laguntza emongo dautsagulakoan.

Isildu zan unetxu batez lekaime-burua, eta gero onetaraxe jarraitu eban,

– Arazoa atontzeko lagunduko geunskiola, esan dautsat, eta On Leon joan danean, nirekin emen dagoan Sor Agnes'ekin autu bat izan dot; eta lekaimetxe onetako gure eres-maisuaren eritxiz, organularirik egokiena, zcu, Matxalen, izango zintzakezala esan daust.

Itz oneik entzutean, ikaratuta neskatileak mintzo larriaz auxe irautsi eutsan:

– Baiña Sor Louise Agurgarria, zelan otu yatzu olakorik, ni organuaren erabiltea ez dot ezagutzen-eta...?

– Ara, Matxalen– Sor Agnes'ek txeratsu esan eutsan–, pianolari on batek, ez dau iñoiz oztoporik izango organua joteko. Onezaz gaiñera,

ondo ezagutzen dodan Marianne'ri, oraingo organulariari, eskatuko dauksat bere jarduna laga aurretik, organua erabilten irakatsi dagitsula, eta laster oartuko zara, zeu lako pianolari on bateri, organua erabilteak ez dauksala iñongo oztoporik ekarriko.

– Edozelan be, Sor Agnes, bildur andia naz, eta eskatuko neuski-zu, arren, beste bat aurkitzeko, ni buruauste onetatik jare egiñik...

– Begira, Matxalen– lekai-me-buruak esan eutsan–, ezin zaitugu jardun ori artzera beartu, baiña nire ustez ez dozu iñongo eragozpenik izango, Sor Agnes'ek orretarako gaitzat zaituanean. Parrokiaren onerako, Matxalen, onartu egizu On Leon'en izenean eskeintzen dauksugun jardun ori.

Une batez, isillik egon zan neskatillea, eta gero,

– Mezedez, emon egistazue egun batzuen epea, eta orduan nire erantzuna artuko dozue.

– Ondo da, Matxalen– Sor Louise'k irautsi eutsan–, astebete bateko epea emoten dauksugu, baiña arren, zure erabagia artzean, erri onen onura oroz gain gogoan izan egizu, maite orrek.

Onen ostean, alkar agurtu eben, eta Matxalen Yoldi-eneara eldu zanean, oi eban lez, lekai-meekin izandako autuaz Alis jakitun ipiñi eban, eta amaitzean,

– Izeko Alis– itaundu eutsan– zer deritxazu orreri ...? Egia esateko bildur naz olako erantzukizuna erri guztiaren aurrean artzea, eta gaiñera ezagutzen ez dodan organu bat joteko.

– Ara, Matxalen, zure irakaslea izan dan Sor Agnes'ek, jarduna onartzeko eragiten ba'dautsu, nik ez neuke iñongo kezkarik izango. Onezaz gaiñera, ziur naz, zure esku yaukal orreik oraganuari eresu zora-garriak atarako dauksuezala.

– Orduan...?

– Onartu egizu eskeintza ori, eta ez zara damutuko.

Urrengoko piano-iñarkuna egitera joan zanean, Sor Agnes'eri baietza emon eutsan, eta onek pozaren-pozez estu besarkatu eban, auxe iñotsala,

– Eskerrikasko, Matxalen, Marianne'rekin oraingo organulariarekin mintzatuko naz, eta aspaldi batez organuaren erabiltea irakatsi dagizula eskatuko dauksat, zeuk ereskin barria menperatu arte, beintzat. Zer diñostazu...?

– Ondo derist, Sor Agnes.

– Orduan Marianne'rekin itz egin odoren, jakitun ipiñiko zaitut.

– Ederto, Sor Agnes.

Andik egun batzutara, illuntzeko orduan, Marianne gerturik egoala astean birritan, eguazten eta larunbatetan, izan be, organuaren erabilketea irakasteko esan eutsan lekai-meak, eta Matxalen'ek baietza emonda, urrengo astean erabilketa barriari asiera emon eutsan.

Marianne, irurogeiko emakumea zan, eta organuaren jardunak eskatzen eutsazan nekeakaitik adiñez aspertuta, jardun ori uztea erabagi izan eban. Begi onez artu eban Matxalen, eta biok korura joanda, organua zelan abidan ipiñi erakutsi eutsan, eta gero aldagaillu bakoi-tzaren ekintza doiñu ezbaridiñak lortzeko. Organua tximistindarrez eragiña zan, azken eredukoa, eta bere duiñean onenatarikoa. Batzar aretan, eta urrengoan, gora-beera oneitan aldia emon eben, Matxalen'ek zeatz oneik menperatu arte.

Urrengo irakaskintza, organua bera jotea izan zan, eta Marianne'k aginduta, Matxalen aulkian jesarri zanean, eta eres-zati baten lenengo neurriak ataraten asi zanean, jotan ziarduan soiñuari, oarpen bakanpean bizitasun barri bat ataraten eutsala, eta eres-mundu barriaren murgiltzen zala begitandu yakon. Une zoragarria izan zan, eta ereskin barriak erakarrita, jotan jarraitu eban irakaste-ordua amaitu arte. Eta olan oartu barik, ekitaldi batzuk ozta-ozta egiñik, bein baten ereskin arekin batasun osoa lortzen ebala iruditu yakon, eta bere atzamarrak. tekladi-gaiñean irristaka, organuaren bikaintasuna gorengo maillatara eroan eban.

Egun aretako iñarkuna amaitzean, arrituta egoan Marianne'k auxe esan eutsan:

– Ziñesteziña da organua joteko jaritsi dozun antzea, Matxalen. Zure eskuen bikaintasunak bardinbako soiñu yaukalak erauzten dauksotz. Gai zara, eleiza onetako organu bikaiña joteko, eta benetan esan bear dauksut, Matxalen, parroki onetako eleiztarrek, zure erti ederra gozatuko dabela..

Eta organulari zaarrak iragarrita lez azaldu zan. Igande aretako meza nagusian organua lenengo jo aurretik, Matxalen urduri egoan, baiña aurreko eres-neurriak ots egiten asi ziranean, eres-ertia soillik gogoan ebala, bere barruko guztia eragin bakanak artuta, barruti zoragarri baten zear murgildu zan, eta danatzaz aztuta, bere esku malguk ereskiñari ordurarte eleiz aretan iñoiz ez entzuniko soiñurik yaukalenak

aditu ziran. Bazirudian, eresi areik guztia laztantzen zituala, eta goiko leioetako leiar margodunek biziago dizdir egiten ebela.

Mezea amaitu zanean, On Leon'ek mezu bat bialdu eutsan Matxalen'eri sakristegira joateko esanez. Neskatillea azaldu zanean, parrokoak poz baten artu eban, auxe iñotsala:

– Zoragarria izan da zeure lenengo organu-jotaldia, eta augaitik artu egizu nire gorespenik egitienak. Ene ustez, Jaungoikoganago croan gaitu zure eres-ertiak, eta ori ordainteziña da.

– Eskerrikasko, On Leon, baiña nik gauza bat eskatuko neuskio berorreri.

– Esan, Matxalen.

– Ara, Jauna, Organurako soiñuak oraindiño ez dodaz ondo menperatzen, eta augaitik iñarkunaldiak egin bear dodaz. Augaitik ba, berorren baimena eskatzen dausat koruan jarduteko. Arratsaldeetan bi edo iru bidar izango litzakez.

– Ederto, Matxalen.

On Leon'ek uztai batetik giltza bat artu, eta emon eutsan esanez,

– Ona emen, korupeko ate txikiko giltza. Erabilli egizu zure aukeran.

– Ezker aunitz, On Leon.

– Agur ba, Matxalen, eta zoaz ondo. Badakizu, organu-iñarkunak zure aukeran egin dagikezuzala.

Poz baten joan zan neskatillea, eta eleizpean begira eban Lixette'k, auxe esan eutsan:

– Zoragarria izan da gaur eskeiñi dauskuzun organu-jotaldia, Matxalen. Soiñuen edertasunetik dilindan egon gara entzule guztiok.

– Eskerrik asko Lixette. Aizu, arratsaldean ez dot zurekin egoterik. Osaba Joanes makal dago, eta izeko Alis'en lana arintzeko etxean geratuko naz.

– Tamal dot benetan. Nirekin egurastutera ez ba'zatoz, neu be etxean gurasoekin geratuko naz. Agur ba, eta osaba Joanes osatu daite-la.

– Eskerrikasko, Lixette.

Matxalen'ek organu-iñarkunak astean irutan egiten ebazan, eta

luzaro barik eleizeko ereskiña maisu baten antzera menperatzen ebanez, aldiaren bidean argi azaldu zan, aren erestaldiak entzutearren meza nagusira eleiztar geiago agertzen zirala.

Bein baten, meza nagusiaren ostean, parrokoak dei egin eta auxe esan eutsan:

– Ara, Matxalen, aspalditik arazo bat gogoan darabilt, eta auxe alegia: ni ona etorri aurretik, abestalde bikain bat ei'egoan eleiz onetan, eta talde-burua il zanetik, abesbatza ezereztu zan.

Isildu zan une batez parrokoa, eta gero,

– Orain, Matxalen, auxe eskatuko neuskizu: azartuko zintzakez, Donepaul'eko parrokan abestalde barri bat sortzera...?

On Leon'en eskaereak zur eta lur utzi eban, eta zer erantzun ez ekiala geratu zan neskatillea. Isiltasuna eten egitearren, parrokoak,

– Zer diñostazu, Matxalen...?

Noizbait bere arritasuna garaiturik,

– Begira, On Leon, berorrek eskatzen daustana nire aalmenetik baiño askozaz gorago dago. Egitan, ni ez naz organu-jole arruntza baiño, eta abestalde bat erabilteko ez naz gauza...

– Eta zergaitik ez dozu saio bat egiten..? Onen ostean, gauza ez zareala ikusten ba'dozu, orduan uko egin eta kitto.

– Baiña, On Leon, ez da izango eleiztar guztien artean baten bat ni baiño egokiagorik...?

– Ez, Matxalen; ziurtzat dakidana orretarako gai izan zaitekezala da, eta gaiñera, ori beteteko ez dausut eperik emoten. Artu dagikezu bear dozun beste astiz.

Erantzun aurretik, Matxalen bere baitan bildu zan, eta gero, bere irribarre argitsua ezpanetan agertzen yakola,

– Edozelan be, eta berorren naia dan ezker, aaleginduko naz dalako abesbatza sortzen, eta orren ostean Berori jakitun ipiñiko dot

– Ederto, Matxalen, orixe zan zeugandik entzun gura nebana. Ekiozu ba arloari, eta abestalde gerturik izan dagizunean, esan egistazu. Agur, maite ori, bearreko arrakastea jaritsi dagizun nire otoitzek lagunduko dausue...

Arratsalde aretan, erriko inguruetatik Lixette'rekin egurasten joiala, adiskide miña abestaldeari buruz jakitun ipiñi eban, eta nondik asi ez ekiala esan eutsanean,

– Ez zaitetz larritu– esan eutsan Lixette'k–, laguntzarik bear ba' dozu, zergaitik ez zoaz Sor Agnes'egana...? Ikastetxeko piano-irakaslea, nire ustez, eresiari dagokionetan, edozertarako gai da.

– Izan be, Lixette, ez dakit zelan ez yat lenago gogora etorri. Zuzen zagoz, eta biar bertan beragana joango naz laguntza-eske.

Eta esana lez jazo zan. Biaramonean, Matxalen bere irakasle maiteagana joan, eta parrokoaren naiari buruz, nondik asi be ez ekiala azaldu eutsan. Oldozkor iraun eban une batez Sor Agnes'ek, eta gero,

– Begira, Matxalen– esan eutsan–, On Leon'ek eskatzen dauksuan arazoa ez da erraza, baiña nire ustez aukerakoa da, eta pozik lagunduko neuskizu abestalde ori sortzen. Lenengo ta bein, bearrekoa da talde bat osotzea, eta gero berau atontzea. Bein lenengoa lortuta, leku bat bear izango dogu bearreko iñarkunak egiteko, eta nire ustez oraingotz tokirik egokiena, gure ereskin-aretoa izango litzake; onetarako, baiña, gure lekai-me-buruaren baimena bear dogu, eta saiatuko naz bere baietza lortzeko...

Bere adorea jabetu eziñik, neskatilleak auxe esan eutsan,

– Benetan eskertzen dauksut zure laguntza, Sor Agnes; orain, bade-rist bide onetik doala gure parrokoaren asmoa ...

– Lenengo urratsa, bearreko taldea sortzea dan lez, On Leon'eri auxe eskatu bear dauksazu: meza nagusietan jakiñerazo dagiala, sortzeko dan abestaldean tarteko izatea gura dagienek, sakrisastegian euron izena emoteko. Onezaz gaiñera, gure lekai-me-buruaren onespina jaristen ba'dot, ikastetxean zabalduko dogu parrokiko abesbatzan jardun gura dabenek izena emon dagiela, eta olan, nik uste, abesbatza sortzeko bearreko kopurua bilduko dozu. Zer deritzazu, Matxalen...?

– Oba ez, Sor Agnes, eta eskerrikasko zure laguntzagaitik. Eziña zirudiana, gauza eginkorra biurtu da.

– Ori dana, parroko Jaunari esan aurretik, itxaron gure Lekai-me-buruaren erabagiari. Eta au lortzen ba'dogu, orduan gure asmoa abidan ipiñiko da. Beraz, zatoz biar eresi-ikasketak amaituta gero, eta jakitun ipiñiko zaitut

Pozez gaiñezka urten zan Matxalen, eta urrengo arratsaldean agindutako orduan ikastetxera joan zanean, Sor Agnes'ek, auxe esan eutsan:

– Begira, Matxalen; Sor Louise'k baietza emon dauksu, baita pozik be, abesbatza sortzearen asmoa errirako onuragarria izango dala-

koan. Orain, beraz, parrokoagana joan zaitেকেz esateko, meza nagusi guztietan azaldu dagiala abesbatzarako izen-emotea sakristegian egingo dala. Nire ustez, iru aste igarorik, bearreko kopurua biltzen ba'dogu, abestalde-iñarkunak asi daitekez.

Astirik galtzeke, Matxalen eleizara joan, eta sakristegian On Leon ikusi eban. Azaldu eutsazan ordurarte emondako urratsak, eta parrokoaren baietza artuta, urteteko zorian zala, onek esan eutsan,

– Aizu, Matxalen, lengo egunean arasa zaar bat arakatzean, aurreko abesbatzak erabilten eban eres-zatien mordo bat aurkitu neban, eta zure abestaldearentzat onuragarria izango dalakoan, artu egizuz eta eroan zure aukeran erabilteko.

Atsegin andiz dalako lotukia artu eban Matxalen'ek, eta ikastetxera eroanda, Agnes'eri eskuratu eutsan. Eresi-irakasleak soiñu-zati areik iraisean aztertu ebazan, eta auxe esan eutsan:

– Zati oneik txit onuragarriak billakatuko yakuz, emen bai-dogu soiñu-gai ugari ikasteko, eta lekaimetxe onetan daukaguzanekin, abes-txorta ederra lortuko dogu. Zeuk eskuratu daustazuzan soiñurik geienak lau abotsekoak dira, eta abeslariak uts egiten ez ba'dauskue, abestalde on bat jaritsiko dogu. Orain ez dogu besterik, abesleen izen emoteari itxaron baiño.

Illabete bat igaro ta gero, izena emondakoen kopurua ogei ta zortzi zana egiztatzean, abesbatzaren gertakuntzea ikastetxean asi zan. Lenengo ta bein, taldeari solfaketea irakastea izan zan. Gitxi batzuk ba'ekien idatzitako soiñuak irakurten, baiña geienek ez, eta eragozpen au gaingituzeko, Sor Agnes eta Matxalen amarreko talde bana artuta, solfaketea irakasten asi yakezan. Lan nekagarria zan, baiña ekiñaren-ekiñez, soiñu-irakurtea ikasi eben, eta lau illabete igarorik, taldea gerturik egoan eresbatz-lanetan asteko.

Eta egunen bidean, lau abotseko eresi-zatiak ikasten asi ziran abeslariak. Egia esateko, Matxalen'ek ez eban abesbatzaren gertakuntzea menperatzen, baiña Sor Agnes zuzendaria zala, luzaro barik abestalde baten gora-beerakaz jabetu zan, eta luzaro barik taldea zuzentzen ekiala oartu zan. Bein baten, oiko iñarkuna amaituta, lekai-meak auxe esan eutsan:

– Iñongo zalantza barik, gai zara, Matxalen, gure erriko abesbatza zuzentzeko. Eta nik neuk esondatuko neuskizu, datorren igandean Donepaul'eko eleiz-abiesbatzaren askundea egiteko.

– Uste dozu gerturik gagozala...?

– Bai, Matxalen, eta egun orretan, mezea amaitu daitenean, koru-
ra igongo naz, nire zorionik zintzoena zeuri emoteko.

– Eskerrik asko, Sor Agnes, baiña benetan zoriona merezi dauana
zeu zara, eta au erri guztiak dakian gauza da.

Aste aretan, On Leon, parroko abesbatzaren askudea ospakizu-
nik andienaz egiteko aalegindu zan, errian bertan, eta albokoetan, azal
eta zabal ipiñiz, urrengo igandean Donepaul'eko parroko abesbatza-
ren askudea egingo litzakela.

Egun gogoangarria iritxi zan, eta eleizea mukuru-bete egoala,
Matxalen'en zuzendaritzapean, abesbatzak bere ekitaldiari asiera emon
eutsan. Sei illabete igaroak ziran sortu zanttik, baiña epe aretan jaritsi-
tako ontasuna siñisteziña izan zan. Organuaren agintzapean, abestal-
deak bere jarduna asi ebanean, zirrara batek entzuleen biotzak astindu
ebazan, eta mezearen joanean garatzen ziran soiñuek eleiztarren gora-
naiak piztu zituan.

Igarotako gertakuntza-aldian, Matxalen'ek neskatilla bakar-ables-
lari baten abots zoragarria idoro izan eban, eta sagaratzean Franck'en
“Panis Angelicus” abesteko aukeratu eban; eta ekiñaren-ekiñez, zati ori
maisutanik andienaz aletzen ikasi eban. Eta sagaratzeko-aldian, neskatilla
aren abots yaukal soiñu eder ori garatzen asi zanean, biotz-ikara esan-
eziñak eleiztarren astindu ebazan. Jarraian, Matxalen'ek “Oñazez” ere-
sia organuz jo ebanean, eleiz guztiak maitasunezko joran batek artuta
dardar egiten ebala zirudian. Gero, Jaunartzean, neskatilla bakar-ables-
lariak “Belen'go Portalian” abestu eban, eta gero “Agur Yosuren
Ama”z abesbatzak bere jardunaldia osotu eban.

Mezea amaitu zanean, Sor Agnes'ek korura igonda besarkada
adiskidetsu batez Matxalen zoriondu eban, auxe iñotsala:

– Mezea bikaiña izan da, eta benetan esateko, zure abesbatzak
eleiztarren biotzak inkitu ditu. Neu be zeruan nintzala zauskada batek
artuta izan naz. Ederto, Matxalen, jarraitu olan gure erritarren onerako.
Bide batez esan bear dautsut, gure parrokoak ikusi gura zaituala.
Agur, Matxalen, maite ori, orain argi dago nire laguntzarik ez dozula
bear, nor bazara-ta abesbatza zuzentzeko.

Lekaikea agurtu zanean, neskatillea sakristegira jatsi zan, eta erri-
tar batzuen zorionak artzen ziarduala On Leon'ek ikusi ebanean, bera-
ganatu zan, eta eskuai eutsirik, auxe esan eutsan mintzo unkituaz,

– Matxalen, maite ori, gaur bete izan da nire amesik kutunen bat:
Donepaul'eko Eleizeak merezi dauan abesbatza barrero izan egian, eta
izan be, zeuri zor dautsugu ames ori egi biurtu aal izan ba'dogu. Egia
esateko, sagaratzeko unean, Jaungoikoagandik iñoizkorik urbillen
oartu naz, eta edozelan be, gaurko nire zorionak betirako iraungo dau
nire gogoan.

– Esker aunitz, On Leon, zure berba adoretuakaitik. Nire ustez,
baiña, gaurko gure abesbatzaren arrakastea, Sor Agnes'eri egotzi bear
dautsagu, bera izan dalako, ain zuzen be, gure koruaren eragillea, eta
nik meriturik izatekotan, berari zor dautsat bete-betean.

– Ezin dagikeogu Sor Agnes'eri merezitakoa ukatu, eta au eskutitz
baten bidez jakiñerazoko dautsat. Baiña beragandik zeuk artutako
laguntza ta guzti, argi dago abesbatzaren zuzendaritzat dagokizun guz-
tion ederrespena. Eta orain, Matxalen, esaidazu, zoezer bear izatekotan,
zelan lagundu dagiketsuet.

Unetxu batez, neskatilleak isillik iraun eban, eta gero,

– Ara, On Leon, orain arte gure abesbatzaren iñarkunak lekaike-
txeko eres-aretoan izan doguz, baiña, ez deritxat bidezkoa, lekaikeai
morroitasun ori betirako eskatzen jarraitzeari. Augaitik ba, astegun
bitako arratsaldeetan, koruan bertan gure iñarkunak egiteko baimena
eskatuko neuskizu...

– Orretarako oraintxe bertan nire baimena emoten dautsuet. Zeuk
korupeko atetxuaren giltza badozu, eta erabilli dagikezu abesbatzaren
iñarkunak egiteko.

– Gure taldearen izenean, eskerrikasko, parroko Jauna, eta urren-
gorarte.

– Agur, Matxalen maite ori. Eta barrero be, nire zorionik sutuena.

Andik laster, osaba-isekockin Yoldi-eneara biurtzen zanean, Joa-
nes'ek auxe esan eutsan:

– Ez dakizu, Matxalen, zelako zauskada artu dodan gaurko meza-
tan, abesbatza entzutean... Baneritxon angeru-talde batek zeruetara
nindaroala...

– Bai, Osaba, gure bakar-ableslariaren abots yaukala Jaungoikoaren
doai bat da, eta “Panis Angelicus”, zeruko iradokiaz eragindako eres-
bitxia.

– Ez neukean iñoiz uste izango, Matxalen –esan eutsan Alis'ek–,
gai izango zintzakezanik orren abestalde ederra zuzentzeko. Orain

gogora yator, Sor Agnes'egandik zelan jakin neban piano-jotzaille bikaiña zintzazala. Izan be, gertakizun aregaitik esan dagikegu, gaur abestalde eder bat sortu yakula.

– Eta zeuk be, izeko Alis - esan eutsan Matxalen'ek bere irribarre sorgingarriaz -arazo orretan zer ikusi andirik dozu, gerturik azaldu zintzazalako nire piano-ikasketak ordaintzeko.

Alis'ek beste irribarre bat azaldu eutsan, eta irurok aldatzgora etxerantz abiatu ziran.

Erria ta Yoldi-enea arteko aldapa ez zan gogorra, baiña irurogeitak urteko zan Joanes, arnas-estuka ebillen, eta baretzeko otsean-otsean geldialdiak egin bear izan zituan. Azken illabete areitan, senarganako oartzen eban arrenkurea anditzen yakon Alis'eri, eta etxera iritxi aurretik, biaramonean osagilleari deitzea erabagi eban.

OSABA-IZEKOEN ERIOTZA

Aurregunean erabakia lez, astelen aretan Alis'ek erriko osagilleari Yoldienea'ra etorteko mezua bialdu eutsan, eta arratsalde aretan, oi eban lez zaldiz etorri zan. Orduko, Joanes areto nagusiko besaulki baten egoan, eta alkar agurtu ondoren, osagilleak amultsu auxe esan eutsan:

– Kaixo Joanes, aspaldiko ori, zer dala-ta dei egin daustazue...?

– Ara, Jauna– eten egin eutsan Alis'ek–, aspaldi onetan gure Joanes ez da oikoa, bereala nekatzen dalako, eta ortuko lanai uko egin arren be, arnas artzea otsean-otsean zailla billakatzen yako. Berak biotzari egozten dautso makur ori, baiña gatxa gero ta sarriago datorkiola ikustean, badaezpadan dei egin datsugu aztertu dagizun.

Osagilleak bular-ikuskiñaz azterketa sakona egin eutsan, eta amaitu ebanean, auxe esan eutsen:

– Nire eritxiz, biotzaren gatxa da, baiña ziurrago epaitzeko, biar bertan etorri zaiteze nire etxera, X-izpiakaz iragarki ziurragoa egin dagidan.

Aginduta lez, urrengo arratsaldean Matxalen'ek lagunduta, senar-emazteak osagilleagana joan ziran, eta X-izpien bidez azterketa sakona egiñik, etxera biurtu ziran. Andik egun batzutara, osagillea biurtu zan irrati-argazki batzuk ekarrezala, eta senar-emazteai auxe esan eutsen:

– Somatzen nebanez, biotzak ez dau bearreko odol-isurketa artzen, nire ustez zanen (zaifien) eragozpenagaitik. Au dala-ta, Baiona'ko

biotz-bereizlari bategana joan bear dozue. Nai ba' dozue, ango nire eza-
gun bategana joan zaitekeze.

Onen ostean txataltxu baten aren zuzenbidea ta urrutizkiña idatzi
ebazan, eta esan eutsen,

– Nire ustez, aalik lasterren bereizlariagana joan bear izango
dozue, Joanes'ek jasaten dauan gatxa bapatean larri biurtu daitekkelako.
Nai ba' dozue, Joanes artzeko eguna ta ordua, neronek nire osagilleki-
deari eskatuko dautsadaz.

Baietz esan eutsan Yoldi-eneako etxejoaunak, eta andik egun
batzutara, erriko taxi batez senar-emazteak Baiona'ra joan ziran.
Matxalen'ek eurokin joan gura izan eban, baiña Alis'ek auxe esan
eutsan,

– Tamal dot zeu barik joatea, Matxalen, baiña etxeko lanek zure
zaintza bear dabe, eta ezin-besteko da emen geratu zaitezaz.

– Bai izeko, baiña ango osagillearen eritxia ezagutu baiño ez,
mezedez, urrutizkiñez dei egizu etxera.

– Olan egingo dugu, Matxalen.

– Izeko, Baiona'n dagoan Beiñat'eri nire alde goraintziak emoio-
zuz.

– Bai, maite ori. Zorionez, ango ikasketak amaituta, uda onetan
etxean betirako geratuko da.

Atetik, neskatilleak bidariak agurtu ebazan, eta malkoak begietan
etxera sartu zan, osaba Joanes'en alde otoi gartsu bat esanez.

Andik egun batzutara, Alis'ek etxera dei egin eban, eta Matxa-
len'eri jakiñerazo eutsan, urrengo egunean Joanes'ek biotzeko esku-
sartze bat izango leukela, eta bere alde otoi egiteko. Gau aretan apal-
ostean, Matxalen'ek etxeko morroi-neskameak etxeoandrearen deiaz
jakitun ipiñi ebazan, eta gau aretako agurtza Joanes etxejoaunaren
osasun-alde izango litzakela.

Yoldi-eneako nagusiaren esku-sartzea arrakastaz egin zan, eta
onen ostean, amabost egun igarorik, noizbait, udabarriko egun eguzki-
tsu baten, ugazaba etxera biurtu zan. Eguberdia zan, eta osaba Joanes
berebilletik jatsi zanean, Matxalen aren besoetara oldartu zan auxe iño-
tsala:

– Osaba Joanes, au nire poza zu ikustean...!

Eta bere ezpanen irribarre argitsuaz laztandu eban.

– Egia esateko, Matxalen – poz baten erantzun eutsan osabak -,
zure irribarre zoragarria ikusteko irrika bizian nengoan.

– Zelan zagoz orain, osaba Joanes...?

– Arduraz ibilteko esan daust Baiona'ko osagilleak, baiña orain
askozaz obeto oartzen naz.. Edozelan be, nire biotzari ardura andia
emoteko agindu daust, eta jakiña, indarketarik ez egitea. Augaitik ba,
nire bizitzaldi osoan besteen aalegiñak ikusten igaro bear izango dot.

– Egia esateko, osaba, orain arte lan andia egin dozu Yoldi-enean
oncrako, eta garaia da dagokizun atsedena artu dagizula. Ain zuzen
be, zu emen ikustea etxeko guztiontzat poztasun andia da.

Gero, izekogana biurtuz, auxe esan eutsan maitetsu:

– Izeko, benetan jakingo ba'zendue zein zorionsua oartzen
nazan...Zuek barik egunak oso luze egin yataz, eta etxeko lanak astu-
nak, baiña orain dana ikuspegi barri batez dakust... Aizu, Izeko, zelan
dago Beiñat...?

– Ondo, Matxalen, illabete bien buruan etxean izango da, eta ori
onuragarria azalduko da, gure etxalderako aren laguntza iñoizkorik
bearrekoen danean batez be.

– Benetan, gurari andia dot Beiñat ikustearren, aspaldi luzea igaro
yatalako bera ikusi barik.

– Anditu ta gizondu da onczkero, Matxalen, eta berak esan eusku-
nez, baserriko arazoetan asko ikasi dau, beien eta esne-lankidetzaren
erabilketan batez be.

– Ondo etorriko yaku izeko; berrogei ta amar esne-beien ardurea
artzca, ez da gaberdiko auntzaren eztula.

Bitartean, etxera sartu izan ziran, eta andik laster Joanes etxeko
soiñekoaz jantzita agertu zan; eguraldia ona zanez, atadiko besaulki
baten egokitu zan, eta bere etxalde ederra barriro begiztatzean, gogoa
alaitu zan.

– Bazan garaia etxera biurtu neinten– esan eban Joanes'ek atsegi-
ñezko asperen bat jaurtiz– Baiona'n eta uri andietan edertasun asko
ei'dira, baiña Yoldi-enea lakorik iñon ez.

Eta ezpanetan irribarre zorionsua agertzen yakola, andik edatzen
zan barruti aretako edertasuna begi-biotzera sartu yakon.

Bazkal-ostean, eta sukaldea atondu bitartean, Matxalen'ek,

– Aizu, izeko Alis– itaundu eutsan–, bene-benetan zein da osaba Joanes'en gatzaren garrantzia...?

– Esku-sartze aurretik, osabaren makurra ez eban uste onez ikusten bereizlariak, biotzera doazan zanak ixteko zorian egozalako, baiña dirudianez, zubi batzuk egin ostean, badirudi lenengo galtzoria uxatu dala, eta orain gatxa arintzen ba'yako, sei illabete igarorik osaba barriro aztertuta, itxura ona agertzen ba'dau, bigarren eta azken esku-sartzea egingo dautso. Bitartean, estu-estu zaindu bear izango dogu. Gabaz bere ondoan erdilotan iraungo dot, eta egunez zeuk eta biok jagon egingo dogu.

– Ondo derist orreri, izeko, eta orain osaba atadian egon bitartean aregana joango naz bere astia arinzeko.

Gero, Alis'eri arduraz begiratzan eutsala,

– Izeko, esan bearrean naz, itxura neketsua erakusten dozula, azken aspaldi onetan jasan dozun arrenkurakaitik, urrean. Oraintxe bertan zoaz lotara, gaurko zure beila ariñagoa izan dakizun.

– Bai. Matxalen, orixe egingo dot.

Matxalen atadira joan, eta Joanes'en ondoan jesarrita, auxe esan eutsan:

– Osaba, ez al-dakizu, gure erriko eleiz-abetesatzak arrakasta itzela jaritsi dauanik...?

– Baiona'ko bereizlariagana joan aurretik, meza nagusiko abesbatzaren askundean izan nintzan, eta zoragarria billakatu zala autortu bear dautsut, Matxalen.

– Ordutik, osaba, entzuleen eritxiz etenbarik gora egiten jarraitu dogu. Begira, osaba Joanes...

Eta jarraian, neskatilleak abesbatzari buruz guztariko barriak emon eutsazan, Yoldi-enca'ko etxejoaunak abo-zabalik entzuten eutsala. Neskatillearen barriak entzun ostean, Joanes'k,

– Aizu, Matxalen maite orrek, ez dozu niretzat zeozer abestuko...?

Neskatilleak, abots gozo ta bigunekoa zan, eta eleizakoaz gaiñera, erri-eresi asko ezagutzen ebazan, batzuk Donepaul'eko ta ingurukoak, eta beste batzuk Bilbao'ko "Gurutzen Alabak"en ikastetxean ikasita-koak. Orduan, mintzo samurraz abesti batzuk aletzen asi zan. Joanes'ek

soiñu zoragarri areik poz baten entzuten ebazan, eta oartu barik lo geratu zan. Matxalen'ek burusi batez bildu eban, eta bere alboan zaindari geratu zan.

Gero, illundu aurretik, lo-alditik Alis agertu, eta bere senarra lo paketsuan ikusirik, Matxalen'eri isillez auxe esan eutsan:

– Len entzun dodaz zure abestiak, eta dirudianez, lo-eragilleak dira...

Neskatilleak oiko bere irribarre argitsuaz, auxe esan eutsan:

– Ez nekian doai orren jabe nintzanik.

Jarraian, Alis'ek isilka, Joanes itxartu ez zeiten, esku-sartzearen gora-beera batzuk edestu eutsazan, eta amaitzean, sakeletik kutxatxu bat atara-ta, auxe esan eutsan,

– Bereizlariak sendakai-pildu oneik emon eustazan ezusteko biotz-erasoren bateri aurre egiteko. Olakoren bat etorriko ba'litzakio, astirik galtzeke bere miñaren azpian pildu bat ipiñi, eta gaitzaldia uxatuko da. Augaitik, eta beti eskura izan dakigun, bere jakeko sakel baten ipiñiko dot.

Au esanda pilduak senarraren jake-sakel batera sartu ebazan. Andik laster, Joanes itxartu zan, eta iruen arteko alkarrizketa atsegiñari emon eutsoen. Illuntzea urreratzen zanean, sukaldera sartu ziran, eta apaltzeko orduan, morroiek (Yulien'ez gaiñera beste bat akuratua zan azken aldietako lanai aurre egiteko) nagusiari egun aretako lanen barriak emon eutsoezan.

Ordutik, Alis'ek eta Matxalen'ek Yoldienea'ko etxejoaunaren zaintza atondu eban. Gabaz, emazteak besaulki baten jesarrita, senarraren loa zaintzen eban, eta gero, gosaria artuta gero, Alis'ek lo egiten eban eguberdi berandu arte. Bitartean, Matxalen'ek goizea osabarekin emoten eban, bere mintzo gozoaz erriko gora-beerak edesten eutsazala, edo Joanes'ek eskatuta, abestiak aletzen zituala. Bazkalduta gero, arratsaldeko lenengo ordutan, Alis'ek senarraren zaintzari emotsan, Matxalen'ek bearreko astia izan egian. Edu onetan, neskatilleak abestaldearen iñarkunai emotsen, baita organu-joteari be bearreko-nagusitasuna lortzearren. Sarri askotan, Lixette'k etxea ikertzen eban, eta eguraldi ona izanik, adiskide min areik egurasten joiazan, euren ames eta gurariak alkarrri edesten eutsiezala. Emeretzi urteko izanik, baeben zeri buruz itz egiteko.

Bein baten, erriko enparantzatik egurasten joiatzala, Lixette'k lagunari,

– Aizu Matxalen– itaundu eutsan–, zelan dago osaba Joanes..?

– Aspaldi onetan polito dabil; bakizu, semea etxera laster etorriko yakola ames egiñez, eta itxaropen ori osasungarria da.

– Zelako ikasketak egiten diardu Beiñat'ek...?

– Nekazaritza-ikasketak, eta etorri daitenean, etxeko jabetasunaz gaiñera, esne-lankidetzako arazoetan sartuko da. Badirudi, baltzu orretan diruketa andi bat sartu dauala Yoldi-eneako etxekojaunak, eta augaitik, esne-lankidetzako arazoetan esku-sartze andia dagokio. Augaitik ba, semea etorri daitenean, oneri egokituko yako etxeko arazoak zaintzea.

– Noiz etorriko da Beiñat...?

– Illabete baten buruan, gitxi gorabeera.

– Egia esateko, Matxalen, aspaldi da ez dodala ikusi.

– Ain zuzen be, neuk be gitxitan ikusten dot. Illean bein-edo etxera soillik dator—eta. Mutil ederra biurtu da, eta erri onetako oiñordekorik onenetariko bat izango ci'da.

Une batez Lixette'k oldozkor iraun bean, eta gero,

– Aizu, Matxalen, zer-eta berarekin ezkonduko ba'zintzaz...?

Au entzutean, Matxalen'ek arrituta begiratu eutsan adiskideari, eta,

– Begira, Lixette– esan eutsan–, ori burura iñoiz etorri ez yatan gauza da. Alde batetik, beti anaitzat izan dodalako, eta olan izaten jarraituko be. Onezaz gaiñera, nik ez daukat Yoldi-eneako oiñordekoari ezkon-saritzat zer emoteko...

– Diru-aldetik baliteke, Matxalen, baña zure barruan dozun aberastasanak, ez dautso ezeri zor. Urrezko biotz bat, eta au gitxi bai'litzan, pianoari cresi yaukalak ataraten dakiazan ertilari bikaiñaren doaia. Ez, Matxalen, neuk beintzat, aukeratu bear izango b'aneu, zure barruko ondasuna artuko neuke.

Isillune bat sortu zan, eta gero Lixette'k,

– Bein edo bein, Matxalen, gogora etorri yatzu, zer billakatuko zarean, Beiñat ezkondu daitenean...?

– Sarri askotan etorri yatan oldozkuna da, azken aldiotan batez be, Lixette. Edozelan be orain dagokidana, osaba-izekoai nire alde egindakoa ordaintzea da, eta enparadua, Jaungoikoaren eskuetan laga egin dot...

Isillune baten ostean, Matxalen'ek,

– Eta zeuk, Lixette, zelako asmoak dozuz etorkirako...?

– Niketz, etorkirako ez dot iñongo asmorik egin. Egunen baten, gazte on batez maiteminduko ba'nintz, orduan ikusiko neuke, baiña ori, nire ustez luzarorako izango da.

Illuntze aretan, Matxalen etxera biurtzen zanean, bere buruari itauntzen eutsan zer egingo leuken, Beiñat ezkonduko ba'litz, baiña itaun oneri ezin egikean erantzun egokirik aurkitu. Edozelan be, oso illun ikusten eban bere eginkizuna etxekoandre gazte batekin. Orain Yoldienea'n etxeko alabatatzat jarduten eban, baiña egia esateko, Beiñat ezkontzen ba'zan, eta au ziurtzat emoten eban, azkenean, neskame baten egitekoa egokituko litzakio, eta au bere ezkontzaren aurkakoa izango litzake. Matxalen'en gogoa ikuspegi onetara eldu zanean, au da, Yoldienea'ko babes maitia betirako utzi bear izango leukela, arrenkura andi batek artu eban, baiña etorri bearko zanetik ezin iges egin, eta bae-kian egunen baten eta ez luzaroegei, erabaki garratz bat artu bear izango leukela... Andik illabete batera-edo, Nekazaritza-ikasketak amaituta, Beiñat etxera eldu zan. Orduko, ogei ta bost urteko gazte txairo ta zerden biurtu izan zan, eta izan be, aren ibilkera ziurrak bere buruaren jabetasuna iragarten eban. Oi eban lez, eta egun aretako eguraldiaren ontasuna ustiatuz, Joanes'k semearen etorrerea atadian itxaron eban, eta eldu zanean, biok besarkada estu baten alkartu ziran.

– Bazan garaia etorri zeintezan, seme– aitak poz baten esan eutsan–, lan asko dago gure etxaldean, eta lengo egunean esne-lankidetzako nagusiak, noiz etorriko zintzakezan itaundu eustan. Dirudianez, zure begira dagoz, ondo gerturiko gazte baten laguntza izateko.

– Bai, aita, gauza barri asko ikasi dot, eta gure onerako erabilteko gerturik nozu.

Jarraian. Ama besarkatu eban, eta onek,

– Beiñat, gazte ederra biurtu zara Baiona'n, eta noizean bein soillik etxean ikusten bazindudazan be, orain arte ez naz oartu zelako seme ederraren ama nintzan.

Gero, Matxalen ikusi eban, eta bostekoa emon ostean, neskatillearen irribarre argitsuak crakarrira, auxe esan eutsan:

– Betiko neskatiilla sorgingarria ikusten zaitut, Matxalen.

Orduan Alis'ek,

– Bai seme, eta gaiñera gure erriko eleizaren organulari entzute-sua da. Urrengo igandean bere erti bikaiña ederretsi aal izango dozu.

Beñat'ek Matxalen begiztatu eban itxura arranditsuz, eta gauza bakana, gaztearen karantzetan ordurarte ez igarritako gogorkeriaren edo agintzakeriaren itxura ekusala begitandu yakon neskatileari. Izan be, a ez zan etxetik Baiona'ra ikasteko joan izan zan mutilla. Bazirudian bere baitan aldakuntza bat gertatu izan zala, eta au egiztatzean, zalantza ezkutu batek Matxalen'ez jabetu zan.

Gero, Beñat'ek txirrio bat artuta eta janzki-aldakuntza eginda gero, etxeko morroi biak eta neskamea agurtu ondoren, berandu samar izanik, sukaldeko mai-ondoan jesarri ziran apariari ekiteko. Onen bitartean, eta gurasoen itaunai erantzunez, Beñat'ek Baiona'n izandako ikasketak eta beste gora-beerak edestu eutsezan. Azalpen oneitan, etxeko semearen aldakuntzaren oarpena sendotu zan Matxalen'egan.

Gau aretan senarra oeratuta, eta Alis oiko beila egitera gertatzen zanean, neskatileari itaundu eutsan,

– Matxalen, zer diñostazu gure Beñat'eri buruz...?

– Gizon ederra biurtu dala.

– Eta zer besterik...?

– Ez dakit izeko...

– Ez al-deritxazu bere buruaz arro oartzen danarena...?

– Baleiteke, izeko, baiña bere jakintzan ainbeste aurrerapen egin dauanaren baitan, olakorik jazo daiten ez da arritzekoa...

– Bai, baiña iru urte lenago etxetik Baiona'ra joan zan nire semea, aldakuntza bat jasan dauala esango neuke, eta ez dakit bere onerako izango ete...

– Izeko, etorbarri bat baiño ez da, eta emoigun aldiari bearreko epea.

– Bai, Matxalen, zure abotik zentzuntasuna mintzatu da.

Urrengo iru egunak, Beñat'ek etxeko arazoak ikusten emon eban, eta esne-beien erabilketea ondo aztertu ondoren, laugarrenean esne-lankidetzara joan zan. Ango zuzendariaren azalpenak entzunda gero, eta toki aretako erabiltea ta tresnen egoerea zeatz aztertu ondo-

ren, kontuai begiraldi bat emon eutsen, eta izan be, arazoa txarto ez bajoian be, ezin zeitekean esan oso onuragarria zanik. Iru egun egon zan gintza aren gora-beerak aztertzen, eta noizbait ango nagusiarekin bildu zan, eta,

– Aizu, Jauna– esan eutsan– emengo kontu-liburuen arauz, gure irabazteak urri dira, eta izan be, olan izan bearco leukien darabilgun gintza-bideak aztertu ondoren. Gure tresneria antxiñatua da, eta augaitik esku-lana zama andia da bearreko ekarria lortzeko.

– Egia da ori, Beñat, baiña baldintzak obatzeko tresneria zearo aldatu bear izango genduke, eta ori gaur eziña da lankidetzaren onen mozkiñak orretarako beste emoten ez dauskulako..

– Edozelan be– eten egin eutsan gazteak -, oraingotz, auxe ta auxe da egin dagikeguna

Eta jarraian, Beñat'ek aldakuntza batzuk esondatu eutsazan, eta bat etorrita, urrengo egunetik asiera emotea erabagi eben. Egun aretan, Beñat etxera berebillez biurtzen zanean, lankidetzaren etorkia odeitzar zemaikorpean ikusten eban, eta onek gaztearen betoskoa illundu eban.

Joanes'en egoereak bardin zirauan, eta atzerapenik izan ez arren be, aurrerapenik be ez. Eguraldi ona zanean, etxeko atadian egoten zan Matxalen'en zaintzapean. Asko ederresten eban etxekojaunak neskatilearen laguntza, eta edozein arazogaitik alde egin bear ebanean, luzaro barik geisoak beragana etorri zeiten eskatzen eutsan. Izan be, neskatilearen irribarre gozoak atsegin esan-eziña ekartsan. Bein baten auxe esan eutsan:

– Badakizu gauza bat, Matxalen...?

– Zer, osaba Joanes...?

– Zure irribarre zoragarria erosi nai izango neuke betirako nire ondoan izan zeiten... baiña zoritxarrez, orretarako beste dirurik ez daukat.

Eta Matxalen'ek beste irribarre bardinbako batez ordaindu eutsan. Sarri askotan, Joanes'ek eresi bat abestu egitsan eskatzen eutsan, eta abots bigunez neskatileak euskal eresi bat aletzen eutsan, Yoldi-eneako etxekojauna gero ta zerutik-urrago oartzen zala. Bein baten,

– Baiona'ko bereizlariak obatu neintenean, bigarren esku-sartzea egingo leuskidala esan eustan, baiña benetan, ez dakit abagune ori aurkeztuko yatanik...

– Zergaitik diñostazu ori, osaba...?– abots dardartsuz Matxalen'ek–.

– Ez dakit zer izango dan orretara eragiten daustana, baiña mintzo ezkutua dala esango neuke.

Isillune bat sortu zan , eta gero,

– Aizu, Matxalen– barriro be Joanes'ek–, etzi igandea da, eta parrokoari esango dautsazu, mezedez, autortzera etorri dakidala. Oneri buruz baiña, ez esan ezer Alis'eri, bildurtu ez daiten, naikoa buruauste da berarentzat gau guztietako beila. Egingo dozu ori...? =

– Bai osaba Joanes, baiña nik ez zaitut orren txarto ikusten.

Irribarre aul bat agertu zan etxejoaunaren ezpanetan, eta gero,

– Beste eresi bat, Matxalen, zure abestiek zerura urreratzen nabeta...

Eta esanekoa, neskatilleak bere abots leun eta eresintsuaz “Iruten ari nozu” euskal soiñu samurrari emon eutsan.

Osaba Joanes'ek aginduta lez, urrengo igandean meza nagusiaren ostean, Matxalen'ek parrokoari Joanes'en naia azaldu eutsan. Arratsalde aretan bertan On Leon Yoldi-eneara joan zan, eta atadian Joanes, Alis, eta Matxalen autu nasai bateri emotsela aurkitu zituan, eta ezustekoa egिñez,

– Markos-eneatik deitu egin nabe, eta bide batez Joanes ikustera etorri naitzue. Aspaldi da Yoldi-enea'ko etxejoauna ez dodala ikusi, eta ereti ona dala uste izanik, emen nozue. Zer diñostazu, Joanes, zure osasunari buruz...?

– Polito nagoala esango neuskio, On Leon, eta autortu barik illabete batzuk nagoala izanik, eskertuko neuskio berorreri nire pekatuak entzuteko gertutu daiten...

– Zure autorpena entzutera gerturik nozu, Joanes; ez dot uste, baiña, zama andia izango dozunik, Jaungoikoaren errukia kontuan arturik batez be.

Itz oneik entzutean, Alis eta Matxalen etxera sartu ziran, parrokoa ta etxejoauna bakarrik uzten zituela. Autorkuntza amaitu zanean, emakume biak biurtu ziran, eta On Leon'ek jaunartzea emon eutsan Joanes'eri. Andik laster, parrokoak alde egin eban, eta irurok bakarrik geratu ziranean,

- Pozik nago orain Jauna artu ondoren - esan eban etxejoaunak -. Izan be, il aurretik Jesukristo'k laga euskuen sakramentua, emoitza ordain-eziña da. Orain zorionsua oartzen naz, eta izan be, Berak orain eroango ba'nindu, nire zorionaren andia...!

– Arren, Joanes– mintzo atsekabetuaz Alis'ek esan eutsan–, ez olakorik esan, etxe onetan danok bear zaitugu-ta.

Irribarre aul bat etxejoaunaren ezpanetan marraztu zan, eta gero,

– Aizu, Matxalen, nire oraingo zoriona goraiatzeko, ez al-daustazu abestuko, meza nagusiko jaunartzean aditzen dan soiñu zoragarria...?

Jarraian, bere abots samur eta gozoaz, Matxalen “Panis Angelicus” garatzen asi zan. Egun aretan, biotz-ikara bakanpean, neskatillearen abestiak zerutiko soiñua zirudian, eta amaitzean, zarrastada batek eraginda, Matxalen'en mintzoak negar baten ler egin eban.

– Matxalen– esan eutsan Joanes'ek– gaur, zure abesti orrek nire biotza ukutzean, Jaunaganago eroan nau, eta zure malkoek nire arimea laztandu dabe, egunsentiko intzak larradiak musukatzen dituan legetxe... Jaungoikoak bedeinkatu zagizala, nire maite ori...

Alis'ek be, ezin egikean une aretako zarrastadeari aurre egin, eta zudur-zapiñoaz malko igeslari batzuk txukatu ondoren,

– Edozelan be, Joanes– esan eban–, gaur iñoizkorik ondoen ikusten zaitut, eta luzaro barik, nire ustez, gai izango zara bigarren esku-sartzea jasateko.

Joanes'ek ez eutsan erantzunik emon, eta begiak urrutian galduta, arratsalde aretan izandako zoriona bere aurpegiko baretasunean ispillutzen zan.

Gautu zanean, Joanes oean etzanda, Alis'ek Matxalen banazean artu, eta auxe esan eutsan:

– Aizu, Matxalen, gaur arrenkuratuta lez ikusten zaitut. Zer jazoten yatzu olan egoteko...? Naigaberen bat jasan ete dozu...?

Une batez isillik iraun eban neskatilleak, eta gero,

– Begira, izeko, egunokaz, osabagan gauza bereizi bat oartu dot... Osasunari dagokionean itxura ona izan arren be, mundu onetakoak ez diran bideetatik doala begitantzen yat... Ez zaitut kezkatu gura, baiña...

Alis'ek ez eutsan ezer erantzun, eta lo-gelara sartuta, oe-burukoa ta burusiak atonduta gero, oi eban lez senarrari musu bat emon eutsan auxe iñotsala,

– Ondo lo egin, Joanes, Jaungoikoak lagun.

– Eskerrik asko, Alis. Ez zaitetz arduratu neugaitik, eta atsedeen egizu.

Oi eban lez, ordu luzeak igaroteko Alis agurtza eskuetan artuta, aleak erabilten asi zan. Gau aretan, Matxalen'ek esandakoa ezin egikean gogotik kendu, eta otsean-otsean bere sanarragana makurtzen zan aren arnasa oartzeko, eta gero, otoi egiteari jarraitzen eutsan. Orduak astiro igaroten ziran, eta gau-beranduan, nekearen-nekez, Alis lokuma arin batek artuta egoala, ezustean, itotako zurrunga bat aditu eban, eta argia piztuta senarragana makurtu zanean, ilda egoala ikusi eban, eta lo-gelako atea edegita, didar bizitan etxokoak iratzarri ebazan...

Gau ituna izan zan etxeko guztientzat. Urrengo goizean, Joanes'en eriotzaren albistea errian zear zabaldu zan, eta arratsalde aretan bertan illetak ospatu ziran. Eleizea bete-bete egoan, eta Matxalen organua joteko ezinduta egoanez, il-meza aretan organua atsekabeak mututa, abesbatza bakarrik aditu zan.

Aurreko eliz-aulkietan etxekoak eta aideak kokatu ziran. Matxalen'ek Alis'en besoari eutsia, onen aurpegi zimel eta erkinduari errukizko soak jaurtiten eutsazan. Etxekoandrearen bestaldean Beñat egoan, oi eban lez soñez zutunik, eta begi irmoak aldarera zuzenduak. Yoldi-enea'ko alabea, Joana, Donepaul'en bizi izaten zana, bere senarrarekin eta umekin ezkerreko beste jarlekuan egoan, eta gero, beste aulkietan, Yoldi-eneatarren senitartekoak eta adiskide miñak. On Leon'ek, itzaldi sentikorraz ildakoaren onoiemen eta alde onak agirian ipiñi ebazan, eta Jaunartzearen ostean, bere barruan bilduta, Matxalen'ek Joanes'en alde biotz-biotzez eskatu eban.

Il-mezea amaitu zanean, senitartekoen eta adiskideen dolu-miñak artu ezkerreko, etxekoak iltegitira joan ziran Joanes'eri azken agurra emoteko. Eta noizbait illuntzean, Alis eta Matxalen etxera biurtu ziran. Eldu baiño ez,

– Entzun, izeko– neskatileak esan eutsan–, agiri dozu aurpegian, azken egunotan jasan dozun nekaldi itzela. Zoaz oera, eta katillu bete salda artu ostean, saiatu zaitetz lo-aldi atsedengarria izateko, bene-benetan bear dozu-ta. Bitartean, senitartekoentzat oiko otordua atonduko dot Joana'ren eta neskamearen laguntzaz. Lo egiten aaleginduko zara, izeko...?

– Bai, Matxalen, zeugaitik ze, txarto ikusiko neuke nire burua...

Neskatileak katillu salda beroa edan-erazo eutsan; jarraian leioak itxi ebazan, eta isillean lo-gelatik urten zan, etorriak ziran senitartekoak bana-banan agurtzeko. Gero, neskamearen eta Joana'ren laguntzaz, areto nagusian bildu izan ziran senideentzako aparta mairatu eban. Oituraz eta ekanduz, etxekojaun barria maipuru zala, ona ta naroa izaten zan olako abagunetan eskeintzen zan otordua. Noizbait, danak joan ziran, atsedeen-oarpenaz Matxalen arin baten Alis'en lo-gelara joan, eta lo egoala ikusita, urten zan. Urrengo egunean, goizean,

– Zelan zagoz izeko– txeratsu itaundu eutsan–, lo egin dozu...?

– Nekearen-nekez lo-kuluxka bat baiño ez.

– Orain, izeko, jagi zaitetz, eta gosaldue ostean atsedeen egizu atadian, eguraldi ona da-ta.

Matxalen'ek goiz osoa emon eban izekorekin eta bazkaldu ondoren, auxe esan eutsan:

– Bear dozuna, izeko, bake-une luze bat da, eta orretarako, Biblia Santuaren zati bat irakurriko dautsut.

Eta au esanik, aren zati bat irakurten asi yakon mintzo astirotsu ta eresintsuaz. Gaba asi zanean, bere gelara joanda, noizbait Alis lo geratu zan, eta Matxalen oekoak egokitu ostean isillean urten zan, bera be oeratzeko, indarren mugan oartzan zalako.

Joanes'en eriotzetik, baiña, bazirudian Alis beerakada andia jasaten asten zala, eta egun batzuk oean irauan ondoren, bere oiko bizimoduari emon gura izan eutsan, etxeko ugalka barriro artzen saiatzen zala, baiña indarrezakaitik ezin egikeala oarturik, bein baten udagoiko edertasuna etxeko ataditik begizatzen ebela, Matxalen'eri, auxe esan eutsan:

– Begira maite ori, autortu bear dautsut ez nazala lengoa, lanean asi baiño ez, bereala nekatuta oartzan nazalako barruko gatx ezkutu batek jota lez. Igorri egizu mezu bat erriko osagilleari ikustera etorri dakidala.

Biamonean, Donepaul'eko osagillea Yoldi-eneara etorri zan, eta azterketa sakona Alis'eri eginda, odola atara eutsan kimi-azterketa bat egiteko, eta joan zan, azterketearren ondorioa jakin eta gero, biurtuko litzakela jakiñerazoz. Andik astebe batera-edo, osagillea biurtu zan, eta Alis oean egoala jakitean, Matxalen banazean artu, eta auxe esan eutsan:

– Aizu neskatilla, esan bear dutsut Alis andrea gibel-miñez jota dagoala, eta txarrenetarikoaz izan be. Augaitik, beraz, ocan egon bear izango dau, eta ona emen idatzita eroan bear dauan janari-araua; onezaz gaiñera, egon-eziña eraso izan daitenean, ziztaki oneik zanetan zear ipiñiko dautsazuz. Ba ete dakizu ziztakiok ipinten...?

– Ez, Jauna, baiña zeuk azaltzen ba’daustazu ikasiko dot.

Orduan osagilleak zelan ipiñi zanetako ziztakiak azaldu eutsan, eta gero,

– Esan bear dautsut, Matxalen, zure izekoren egoerea benetan txarra dala, eta egin dagikegun bakarra, bere azkena arintzea da. Berari ez esan, baiña, bere gatxaren garrantzia, eta aalegindu zaitez bere azkena aalik gozoen egiten. Orain goazen bera ikustera,

Alis’en lo-gelara igon ziran, eta osagillea geisoa berba adoretzuek nasaiten saiatu zan, eta urrengo astean biurtuko litzakela esanez, alde egin eban.

Orduan Alis’ek neskatileari auxe esan eutsan:

– Osagilleak, itz gozoak eta adoretzuek esan daustaz, baiña nik ondo dakit auxe nire azken gatxa izango dala...

Matxalen izeko adoretzen saiatu zan, eta gero, gelatik urtenda, bere barruko atsekabeari eutsi eziñik, atadian jesarrita negar mingots bateri emon eutsan. Gero, bere malkoak ezkutaturik, izekoren janari berezia atontzen asi zan. Bazkariaz igon zanean, Alis’ek,

– Matxalen– esan eutsan maitetsu–, agiri dozu aurpegian negarrez ari izan zareala. Ez zaitez nigaitik larritu; egia esateko, Joanes’ek utzi nauanetik, nire pairamenak eriotzean bakarrik izango dabe amaia...

– Izeko Alis, ez olakorik burura ekarri, guztien onerako bizi bear dozu-ta.

– Ai, Matxalen maite orrek, jagingo ba’zendu zein nekatuta nagoan... Onezaz gaiñera, oldozkun larri batek etenbarik kezkatzen nau... Jaugoikoari bein eta barriz lagundu dagistala eskatzen dautsat... baiña ez dakit...

Alis kezkatzen ebana, Matxalen’en etorkia zan. Urteen joanean, neskatilla bere alabatzat maite izatea lortu izan eban, eta aren etorkiak arrenkuratuta bizi izaten zan, gero ta geiago izan be, berarentzat urtenbide erraza ikusten ez ebalako. Zer billakatuko litzake Matxalen etxeoandre gazte bat Yoldi-eneara etortean...? Onen neskamea billakatu

nai ez izatekotan, etxea utzi bear izango leuke... Ain zuzen be, Beiñat’ekin, etxeko oiñordearekin, ezkondu zeiten biderik erosoena izango litzake, baiña orretarako bearreko maitasunik ez eban ikusten Matxalen’gan, Beiñat anaitzat soilik erabilten ebalako. Edozelan be, maitasuna ezkondata gero etorri leiteken gauza zan, eta bein baten, Joanes il zeiten aurretik Beiñat’ekin arazoa argitzea erabagi izan eban.

– Aizu, seme– esan eutsan–, Badira illabete bi ikasketak amaituta etxera etorri zareala, eta mintzatu ez izanik be, nik uste dot abagunea dala zure etorkiari buruz itz egiteko. Adiñonean zagoz ezkontzeko, eta zeuk oraindiño orretzaz aipamenik egin ez arren be, uste dot garaia dala dagokizun erabagia artzeko...

– Ama, egia esateko, oraindiño olakorik ez yat burura etorri. Ogei ta bost urteko naz, eta ez dot iñongo iradurik orretarako.

– Badira or bazterretan neskatilla politak eta maratzak etxe onetara etxeoandre gaztetzat pozik ezkonduko litzakezanak...

Isillune bat sortu zan, eta gero, bapatean,

– Aizu, Beiñat, Zer diñostazu Matxalen’eri buruz...? Neskatilla ederra, ona, ta maratza da, eta nire ustez zoriontsu egingo zindukez...

Beiñat’ek amari betillun begiratu eutsan, eta gero,

– Begira, ama, Matxalen emaztetzat artzea ez yat ezelan be burura etorri, eta gaiñera, zelako ezkon-sari ekarriko leuke...? Uste dozu ainbeste urtez gure etxean bizi izan ezkeru, eta erriko ikastetxerik onenean andereiño baten ezkuntza gure lepotik artu ondoren, etxe aberats onen jabetasuna dagokionik...?

Alis’eri semearen itz garratz oneik gogoaren sakonenean anker untzatu yakozan, eta bere barru-miña gaindituz, mintzo atsekabtuaz,

– Begira, Beiñat, zeuk diñozuna ez da bidezkoa. Matxalen’ek etxe oneri bere maitasun eta ezkerrena emon dautsoz. Zure aita zana, edozein alabak baiño obeto zaindu eban, aren azkenengo egunak ezlituz eta alaituz. Etxe onetara etorri zanetik, bere irribarre argitsua krisaillu alai-garriaren antzera piztuta izan dogu. Nik neuk alabatzat daukat, eta berarentzat zorion guztia opa dautsadanez, zure emaztea biurtu daiten begi onez ikusiko neuke...

Isildu zan une batez, eta gero,

– Lore-pipil baizen zoragarri ta ederra da, baiña oroz gain bere gogoa ta biotz garbia nabari ditu. Aren arimearen anditasuna eresietan

isurtzen da indar garaiteziñaz, zerurantz urreratzen gaituala. Egia da ezkon-saririk ez daula ekarri aal izango, baiña bere baitan altxor ordain-teziña datza ikusi aal dagianentzat... Ai, seme maite ori, ez izan itsu...

Isillune bat sortu zan orren ostean, eta eretia ustiatuz, Beñat gelatik urten zan, bere ama atsekabeturik geratzen zala. Izan be, Yoldi-eneako oiñordeak neurri baten, Matxalen'en doaiak ederresten ebazan, baiña berarentzat baziran beiñenagoak aurkezten yakozan beste arazoak, orain gero ta argiago ekusazanak batez be...

Udakken aretako egun eguzkitsuetan, Matxalen'en laguntzaz Alis lo-gela ederreko sapaillora urten oi zan begiratoki eder aretatik etxeko inguruak eta ikusmen mugaraiño edatzen zan bikaintasuna ederresteko, eta geisotasunak eragindako mintzo aulaz neskatilearekin autu bateri emotsan, bidebatez guztitariko aolkuak emotsazala. Bestetan, eta Matxalen'ek etxeko arazoren bat begiratzeko alde egiten ebanean, agurtza atara, eta otoi isilletan aletuz, Jaungoikoari etxeko guztien alde eskatzen eutsan. Baiña Matxalen'en etorkia illun ikusten eban ezker, bein eta barriro neskatilea babestu egian Jaungoikoari eskatzen eutsan... Lengo ereti aretatik, semeari ez eutsan barriro be aipatu ezkontzearen arazoa, baiña neskatilearen etorkia ezin egikean gogotik kendu, eta Jaungoikoari etenbarik eskatzen eutsan urtenbide egokia berarentzat idoro egian...

Gau guztietan Matxalen'ek geisoaren oe-ondoan irauten eban, eta miñak artzen ebanean, ziztakiak ipinten eutsazan. Bestetan, bare egoanean,

– Aizu, Matxalen– eskatzen eutsan Alis'ek– piztu egizu argia eta irakurri egistazu Bibliaren zati bat, gaua luzea da-ta...

Esanekoa, neskatileak eskatutakoaren zatiren bat irakurtzen eutsan, eta loak Alis artzen ebanean, argia itzungi, eta geisoaren ondoan beila luzeari emotsan. Batzutan, lo-gurak eraginda ezusteko lokuluxka arin bateri emotsan, eta itxartean bere buruari akar egiten eutsan loak oarkabetua izateagaitik.

Goizean, etxeko neskame batek (orain bi ziran), Alis'en zaintzeari jarraitzen eutsan, eta Matxalen lo-gurak apurtuta, oerutzen zan eguberdirarte etxeko jaurbidea artzearren. Arratsaldeetan, dana atonduta egoanean, barriro be geisoaren lo-gelara joian, eta Alis astiro ta ondo garbitu ondoren, oekoak aldatzen ebazan, eta dana txukun egoanean, bere ondoan jesarrita, mintzo leunaz berba egiten eutsan, edo libururen zati bat, geicnetan Bibliarena, irakurri oi eutsan, edo bearreko izateko-

tan, ziztaki bat ipiñi. Batzutan be, Beñat'ek ama ikertzen eban, eta agiri zan onen poza semea bere ondoan ikustean; bazirudian une igeskor oneik on-izate ta pake andia ekartsoczala.

– Seme– iñotsan Alis'ek– zatoz aal dagizunetan; zurekin nagoanean, nire gatxa arintzen yatala antz emoten daust-eta...

– Bai, ama, txit arazopetuta egon arren be, oera joan aurretik biurtuko naz. Badakizu, ama, etxalde onek lan asko emoten dau, eta ozta-ozta nabil danari eutsi aal izateko.

Eta gau aretako semearen ikerpena artzean, Alis'en adorea anditzen zan.

– Begira, Matxalen– Beñat agurtzen zanean iñoan–, nire semearen alde etenbarik otoi egiten dot, etxeko arazoak ondo joan dakiozan... Baita zure alde be, maite ori... alabatza zaitudalako... eta zure maitasuna nire ondoan gau ta egun oartzen dot... Bedeinkatua bedi etxe onetara etorri zintzazan eguna...

Alis'en izaerea itzaltzen joian kandelatxu-mutur bat amatatzen dan antzera, eta arratsalde baten, Matxalen'ek oiko garbiketea egin ostean, geisoak agurtzea aletzen ziariduala, bapatean, eriotz-aldiko korrok bat aditu zan, eta Matxalen beragana makurtu zanean, begiak utsera zuzenduta, eta esku bizibakoak maindiraren gaiñean ebazala ikustean, ilda egoala igarri eban.

Arrapalada baten, zurubiko goikaldetik etxekoai deika asi yaken, Yoldi-eneako ugazabandrearen eriotz-barria emonez. Neskameak eta gero Julien il-barriaren gelara sartu ziran, eta oikoa zanez agurtza bat Alis'en alde otoi egin eben. Gero, Julien parrokoagana igorri eban urrengo eguneko arratsaldean illetak atontzeko, eta bidebatez osagillari esateko Yoldi-eneara etorri zeiten eriotz-agiria gertatzeko. Jarraian, neskameen laguntzaz Matxalen'ek Alis il-jantzi eban, eta onen ostean bere lo-gelara joanda, negar etsi bateri emon eutsan. Ainbeste maite izan ebazan Joanes eta Alis joan izan ziran, eta orain umezurtz baten antzera oartzen zan. Ez eban adorerik negar egiteko baiño, eta an bere gelako bakartasunean malkoai bide emon eutsen, bere bularra negar-zotiñek astinduta.

Gabean, Beñat esne-lankidetzatik etorri zanean, Matxalen lagun ebala, amaren gelara sartu zan, eta itz labur baiña unkituakaz neskatileak amaren azken barriak emon eutsazan, eta gero, ama-semeak bakarrik utzita, gelatik urten zan gau aretako otordu ituna atontzeko. Alis'en eriotz-barria edatu zanean, ezagun asko Yoldi-eneara etorri ziran arein

artean Lixette izanik. Bere adiskide miñaren laguntza benetan ederretsi eban Matxalen'ek eta neurri baten bere atsekabe andia baretu eutsan.

Biaramonean, Alis'en illetak Donepaul'eko parrokian ospatu ziran, eta makiña bat eleiztar etorri ziran. Lenengo aulkietan, Beiñat, onen arreba Joana, eta Matxalen senitarteko batzuekin egozan. Yoldi-eneako etxe-kojaun gazteak bere oiko aurpegi illunaz ospakizunari jarraitu eutsan. Matxalen'ek eutsi gura, baiña ezin mara-mara etorkiozan malkoai. Ilmezea amaitu zanean, Alis'en zerraldoa obitegira eroan eben, eta an Joanes'enaren ondoan lurperatu izan zan. Etxera biurtzen ziranean, Lixette'k Matxalen estu-estu besarkatu eban, eta aal eban lez adiskidea baketzen saiatu zan.

– Etxeraño lagunduko dautsut, Matxalen. Gurean atsekabe andiz artu dogu Alis'en eriotza, benetan maite izaten gendualako.

Isillune luze bat egin zan, eta gero, Lixette'k,

– Matxalen– esan eutsan–, zelako asmoak dozuz etorkirako...?

– Ez dakit, Lixette. Nire ustez biderik egokiena itxarotea da, eta gero Jaungoikoak esango dau. Egia esateko, osaba-izekoak joanda, oso bakarik oartzen naz Yoldi-enean...

– Edozelan be, beti izango dozu Beiñat'en laguntza.

Matxalen'ek ez eutsan erantzunik emon, eta onen isilla oartzean, Lixette'k ostera be esan eutsan,

– Ez zara ondo alkartzen Beiñat'ekin...?

– Benetan esateko, Lixette, ez ondo ez txarto. Ikasketak amaituta Baiona'tik etxera etorri zanean, berarekin ez dot arremon andirik izan, eta askotan baderitxat artotz baten aurrean nagoala. Len adiskidetsuagoa azaltzen zan, baiña orain ez dakit zer uste izan...

– Egia da, aurpegi illun edo benatsukoa dala, baiña orrek ez dau esan gura, aintzakotzat artzen ez zaitunik. Yoldi-enea etxalde andia da, eta beti zeri begira egongo da; gaiñera, esne-lankidetzan buru-belarri sartuta dagoala askotan entzuten dautsat aitari, eta ortik etorri daiteke dana.

– Bai. Lixette, egia da diñostazuna, eta luzaro samar etxetik lekorean bizi izan da. Edozelan be, niri ez daust iñoiz erantzun txarrik emon, adicetasun andiz erabilten ez ba'nau be.

Atan orretan, Yoldi-eneara eldu ziran, eta alkarrengandik agurtzean, Lixette'k.

– Matxalen, sarritan zu ikustera etorriko naz. Augaitik ba, lasterarte.

– Agur Lixette, eta eskerrikasko.

BEIÑAT'EN ARRENKURAK

Nekazaritza-ikasketak amaituta Baiona'tik etxera etorri zanean, etxeko lanak ondoen egiteko, eta esne-lankidetzara sartutako diruketea-ri obari ona atarateko, gerturik oartzen zan Yoldienea'ko oiñordekoa. Aitaren gatxak eskubide osoa emotsan arazo guztietan eskua sartzeko, eta asieratik etxaldeko gauzak aztertzen asi zan. Izan be, esne-beien ekarria ona zan, eta azterketa zeatza egin ondoren, etxerako tresna barri batzuk erostea erabagi eban, baiña arrituta egiztatu eban diru aldetik naikoa estu egoala bearreko eralguntzak egiteko. Aita il yakonean, eta etxaguntzaren jabetasun osoa artuta, diruaren estutasuna aztertzea erabagirik, lan egiten eben Donepaul'eko diru-etxera joanda, zuzendariarekin autu luze bat izan eban.

Orduan ezagutzera etorri yakon, diru-estutasunaren erantzulea esne-lankidetzera zala. Au jakitean, eta erakunde onetan eskubide andia ebanez, Joanes'ek diruketa andia sartu izan ebalako, lankidetzaren zuzendariarekin alkarrizketa bat izatea erabagi eban, eta etxeko berebilla artuta, ara joan zan.

Esne-lankidetzara, barruti aretako leku egokian egoan. Donepaul'etik bost kilometrotara, nekazaritza-lurralde jator baten egoan, eta bide-gurutzone garrantzitsu baten ondoan erakia zan, lorketa erraz baterako baldintza onak billatuz. Eldu zanean, Beiñat'ek bere izena emonda, zuzendariarekin egotea eskatu eban. Laster etorri zan, eta Joanes'en semea adeitsu agurtu ostein,

– Zer nai dozu, Yoldi-eneako etxejoaun gazte orrek...?

– Begira, Jauna, nire diru-etxeko kontu agiria nakarrena da. Azken aldiotan Lankidetzatik artutako obaria oso urria izan da, eta jakin nai izango neuke zeri zor dauzagu ori.

– Bereala jakiñaren gaiñean ipiñiko zaitut, baiña lenago eskatuko neuskizu nirekin ikustaldi bat gure lantegiari egiteko.

Jarraian, esne-artzelekutik asita, kartoi-estalkitan erabillitako gaia urteten zan banakuntza-lekutaraiño ikertu eben astiro ta zeatz, ekinbide guztiak aztertuz. Onen ostean, zuzendariaren idaz-gelan aurrez-aurre jesarri ziran, eta Paul izeneko zan zuzendaria, onetaraxe asi zan:

– Zeuk esan daustazu nekazaritza ikasketan baimendua zareala, ezta...?

– Bai, Jauna

– Orduan, esne-lantegi barriak ikusita izango dozuz.

– Bai, eta gurearekin bekaldetuta askozaz obeak eta eginkorra-goak.

– Orra or untzea, Beiñat Jauna. Aldiaren bidean, gure lankidetzaz zaartu da, eta abagune egokian bearreko barrikuntzak ez egiteagaitik, oraingo egoera larrira eldu gara. Ezin dagikegu beste esne-lantegiarekin leiatu, eta augaitik, gure gaiak sarritan galtzean saldu bear izaten doguz. Egia da, Europa'ko bigarren gudean gure baserritarrek aldi larriak eza-gutu dabezala, baiña beste batzuk aurea artu dauskue, eta ziskuari jaramonik egin barik, zelan edo alan bearreko dirua lortu dabe, eta gaur ezin dagikegu areikin burua bat egin. Orra or gaurko gure egoera larria.

– Eta zergaitik, gure lantegiko jabekideek ez dabe bearreko dirua sartu...?

– Ara, Beiñat Jauna. Orain sei illabete, gure oiko batzar nagusian orixe aipatu genduan batzordekoek, baiña badakizu, gure baserritarrak erabaki bat artzeko astitsiak dira, eta areago ziskuari dagokionetan. Batzar nagusi aretan, batzordekoa zan zure aita Joanes eta gutariko batzuk, diru barria sartzea bearrekoa zala esaten aalegindu gintzazan, baiña dana alperrik...

– Paul Jauna, oraintxe bertan nik ikusi dodan lantegi au, ez da ez-zelan be gai esne-lantegi barriekin leiatzeko. Gure tresneria antxiñatua da, eta augaitik, esku-lanaren azta andiak ondatzen gaitu.

– Orixo bera da nire eritxia.

– Zergaitik ez dogu batzar nagusi oi-ez-lako bat dei egiten...?

– Orretarako domuaren %25 bearrekoa da dei egiteko.

– Ni gerturik nago orretarako, eta zeuk laguntzen ba'daustazu, laster osotoko genduke euneko ori. Onezaz gaiñera, batzar orretara aurre-domu zeatza eroan bear izango dogu, gure jabekideek jakin dagien zenbat eralgi bear izango daben. Niketz, gerturik nozu tresna barrien aurre-domua atontzeko, eta bitartean, zeuk bearreko jabekideen kopurua batzarra egiteko lortzen ba'dozu, illabete bien buruan, dalako batzar nagusia ospatu leiteke.

– Esker aunitz, Beiñat Jauna– poz baten erantzun eutsan zuzendaria–, izan be, ez dakit zelan eskertu zure laguntza.

– Orduan, biar bertan arazoari ekingo dauzagu.

– Esan bear dauzute, Beiñat Jauna, illundi luze baten atzetik, noiz-bait argi apur bat ikusten asten nazala.

Erabagia lez, biaramoneko goizean, Beiñat esne-lankidetzan agertu zan, eta astirik galtzeke lanari buru-belarri emon eutsan. Paul'ek lagunduta, banan-banan tresna guztiak aztertu ebazan, eta onen ostean zuzendariaren laguntzaz, barritu bear leukiezan zerrenda bat egin, eta tresna-egilleai bakoitzaren domua eskatu eutsen. Amabost egun bear izan ebezan dalako zerrenda egiteko, eta andik laster tresna-egilleen crantzunak eta ikerpenak artzen asi ziran, eta illabete baten ostean, barrikuntzaren aurre-domua osotu aal izan eben.

Onen bitartean, Paul'ek, %40 jabekideen baietza jaritsi eban oi-ez-lako batzarrerako baietza emonez. Dana gerturik egoan, eta andik illabete bateko epeaz, zuzendaria deiak bialtzen asi zan.

Batzar-egunean lantegiko areto nagusia beterik egoan, eta agiri zan deiaren aztergaiak jabekideekin erantzun andia sortu izan ebela. Maipurua zala, eta batzordeak inguratuta, zuzendaria batzarrari asiera emon eutsan, eta batzarkideai agur adeitsu bat egin ondoren, lankidetzaren egoera larria azaltzen asi zan, agirian ipiñiz, tresnen zaarkuntzeagaitik, esnea saldu aal zateko gintza-sari azpitik saltzen beartuak ziralara, eta jakiña, ezin egikiela bide orretatik jarraitu. Onen ostean, Beiñat'ek itza artu, eta astiro ta zeatz ordeztu bear izaten eben tresneriaren egoera azaldu ostean, batzarkideai jakiñerazo eutsen, ori egitearren bearreko zan domua.

Izan be, barri txarrak entzuteko gerturik etorri baziran, egin bearreko eralguntzak batzarkideak zur eta lur utzi ebazan, jabe-zati (akziño)

bakoitzagaitik ordaindu bear izango leukiela jakitean batez be. Beiñat'ek bere txostena amaitu ebanean, Paul zuzendariak azaldu eutsen ez egoala beste biderik, dalako eralguntza egitea ala lankidetzeta betirako itxi baiño, len sartutako diruketea galdutzat emonda.

Onen ostean, batzarkideek zer egin eztabaidatu eben, eta noizbait autarkien bidez, geiengo andiak eralguntza egitea aukeratu eban. Tresneri barria artzeko iru illabete igaroko litzakenez, eta onen ordainketea beste iru illabeteen barruan ordaintzeko izanik, batzaz beste, esne-lankideek sei illabete epea eben egokien dirua sartzeko.

Urrengo egunean, Beiñat'ek bere aita zanak arremonak izandako diru-etxeak ikertu ebazan, eta gora-beera guztiak artzean, etxera biurtu zan. Iru diru-etxeen kontu-agiriak bein eta barriro aztertu ebazan, baiña estu ta larri egiztatu eban, ezin egikeala, ez urrik emon be, esne-lankidetzara bearreko diruketea sartu. Izan be, mailegu bat diru-etxeai eskatu legike, baiña onen geroko ordain-baldintzak zelan garbitu...?

Yoldi-eneako oiñordeak egun batzuk estu ta larri emon ebazan, gero ta lur-jotago izan be, urtenbiderik ez ekusalako. Bearreko dirurik eskatutako epean ekarriko ez ba'leu, bereak egingo leuke, lankidetzan eban jabetasun-zatia galduko leukelako... Olan egoala, bapatean tximista alakoa urtenbide bat agertu yakon... Zer eta berak ez egikeana, ezkontza baten bidez lortu...? Orduan gogora ekarri eban Donepaul'eko etxeko-alaben zerrenda, eta bein eta barriro argi ta garbi izen bat bereizten zan... Lixette, erriko baratariaren alabea. Oso aberatsa ei'zan Larreta Jaunaren alaba bakarra, eta ezpaibarik berarekin ezkonduko ba'litz, neskatilla kokoloaren ezkon-sariak lankidetzaren arazoa atonduko leuke. Baekian Beiñat'ek Lixette ta Matxalen adiskide miñak zirala, eta onen laguntza ustiatzeca erabagi eban.

Gau aretan, apaldu ostean, Beiñat'ek Matxalen'eri etxeko areto nagusira dei egin, eta auxe esan eutsan:

– Gaur gogoratu naz, Paul Deunaren egunean datorren astean ospatuko dala, eta jai orretan, oroituko zareanez, Doxandabartz-enearen ateak erritar guztiei edegiten yakez, eta egun orretan bere zugazti ederrean, etxetik ekarritako bazkariaren ostean erromeri ospetsua egi ten da.

– Bai, orixe egiten dala entzun dot, baiña jai orretan ez naz iñoiz egon.

– Zer eta aurren nirekin tartekoa izango ba'zintzaz...? Etxetiko bazkaria eroango genduke, eta bidebatez, nai ba'dozu, zure neska-lagu-

nen bat gurekin etorri daiteke... Zer deritxazu orreri...?

– Ondo derist, Beiñat, eta nire lagun bat aipatu dozun ezkerro, Lixette'eri dei egingo dautsat. Ondo deritxazu...?

– Gogokoa ba'yatzu, nik ez dot iñoiz eragozpenik egingo.

– Biar bertan esango dautsat.

– Ederto, Matxalen, egin zeure aukeran.

Biaramonean, Matxalen errira jatsi zan, eta Lixette'ren etxera joanda jakitun ipiñi eban Beiñat'en eskeintzaz; izan be, baratariaren alabeak poz baten artu eban Beiñat'en izenean bere lagunemeak egiten eutsan deia. Laster eldu zan Kepa ta Paul Doneen eguna, eta goizetik jagita, Matxalen'ek jairako bazkaria poz-pozik atondu eban. Gero, Beiñat'ek lagunduta errira jatsi zan, eta enparantzan egoan Lixette'ren egoitzara joanda, atadian begira eben neskatillearekin parroko meza nagusira joan ziran, eta Matxalen korura igoten zala organua joteko ta abesbatza zuzentzeko, Beiñat eta Lixette erritarren artean egokitu ziran. Egun aretako mezea bereizia zanez, abesbatzaren jarduna aren baten izan zan, eta meza ederra amaitu zanean, adiskideakazu autu bat izan ostean, irurok beste taldeekin Doxandabartz-eneako zugazti ederrera abiatu ziran. Burdiñezko ate ederra edegita egoan, eta irurok, astiro ta zeatz an egozan zugaitz bardinbakoak beste ikerleen artean begizatzen asi ziran. Zugaitz bakoitzaren ondoan onen izena ta jatorria idatzita egoan. Zugaztiaren goikaldeak ikuspegi eder-ederra eskeintzen eban, eta dana ikertu ostean, leku onetan beste taldeek inguratuta, zugaitz baten abaropean irurok jesarri ziran, eta bazkariaren lotukia zabaldua, Matxalen'ek goiz aretan atondutako janari gozoari gogoz ekin eutsen.

Ereti aretan, Matxalen'ek arrituta egiztatu eban oiko Beiñat beti-llun eta itz urrikoa, adeitsu ta irribarrekoia azaltzen zala Lixette'rekin batez be, eta onen itaunai guztitariko zeatzakaz erantzuten eutsezala. Esate baterako, Baiona'n ikasten iraundako aldiari buruz, guztitariko gorabeerak emon etsazan. Izan be, bere buruari autortu bear izan eutsan Matxalen'ek, Yoldi-eneako oiñordekoak ez ebal iñondiko antzik berak len ezaguturiko gazte ezki-belaz.

Bazkal-ostean oiko erromeri alai ospatzen asi zan, eta astirik galtzeke, Beiñat'ek dei egin eutsan Lixette'ri dantzaren egiteko, eta bitartean, Matxalen'ek ezagututako erritar batzuekin autu bateri emon eutsan, eta gero biribilketa alai bat dantzaren egin eban. Biribilketea mai baten aurrean igaroten zan bakoitzean, Beiñat eta Lixette edari ozgarri baten aurrean ikusten ebazan. Ezpaibarik gazte arek alkar erakarrira oartzen

ziran, eta arein autua ez etentzarren, Matxalen ez zan areikin alkartu, baiña orduak igaroten ziran, eta illuntze-irian, areikana biurtu zan. Bikotea dantzan egitetik etorren, eta Lixette'ren begiak ez-ezagaturiko dizdir batek piztuta agertzen ziran. Ordua zan etxera joateko, eta irurok erriko enparantzara itzuli ziranean, Lixette'ren etxeko atadian, Beiñat'ek irribarre gozoaz auxe esan eban:

– Agur, Lixette, urrengorarte. Izan be, gaur egun zoragarria igaro dot.

– Baita neuk be, Beiñat, nai dozun arte.

Neskatilla biak bakarrik geratu ziranean, Lixette'k bere lagunari,

– Ez nekian Yoldi-eneako etxekojauna orren begiko ta adeitsua zanik Nik gazte benatsua zala uste izaten neban, baiña gaurko jaiak bestera uste izaten eragiten nau.

Eta gero matraillak gorritzen yakozala,

– Ez al-dakizu zer esan daustan...? Ara, Matxalen... poztuko litzakeela sarriago ikusiko ba'nindu...

– Eta zeuk...?

– Ni ikustea oso erraza dala...

Illuntze aretan, Matxalen Yoldienea'ra biurtzen zala, bere buruari iñotsan, zerk eragiten eutsan Beiñat'eri orren oi-ez-lakoa izatera... izan zeitekean begiratu bateko maitemiña...? Gogoan luzaro samar erabilli eban Matxalen'ek arazo au, eta erantzunik idoro ezean, etorkiaren eskuetan lagatea erabagi eban.

Gau aretan, apalostean, Beiñat'ek,

– Aizu, Matxalen, zelakoa da Lixette zure neska laguna...? Begiratu baten, oso atsegiña iruditu yat...

– Atsegiña da, ezpaibarik, baiña oroz gain ona ta zintzoa, mundu onetan zintzorik bada. Zazpi urte dira ezagutzen dodala, eta esan dagiketsut urrezko biotzaren jabe dala, eta baten bat zorionaren duiña ba'da, Lixette izango litzake.

Yoldianean, izaereak bardin irauten eban, etxeko erabiltea Matxalen'en ardurapean egoala, eta Beiñat'ek esne-beien ardurea lankidetzaren jardunaz aldizkatzen ebala.

Urrengo jaieguneko arratsaldean, oi eban lez, Lixette'ren gurasoek eskatutako piano-erestaldia emonda gero, bere neska-lagunekin erritik

egurasten ebala, Beiñat alkartu yaken, eta oiko agurren ostean erriko kafetegi dotorenean askaria izateko dei egin eutsen, eta alkarrizketa bateri emoten asi ziran. Laster oartu zan Matxalen, autu aretan bearreko ez zala, eta Sor Agnes ikusi bear leukela atxakiaz, bikotea bakarrik utzi eban.

Urrengo jaiegunean bardin jazo zan, baiña irugarrenean, baratariaren etxetik neska-lagun biak urteten zirancan, Lixette'k esan eban,

– Aizu Matxalen, lengo astean banatzen gintzazanean, Beiñat'ek maite ninduala esanda gero, nirekin arremonak izateko baimena eskatu eustan.

Itz oneik esatean, Lixette'ren begiak zorionezko argi gozoaz piztu ziran, eta izan be, ereti aretan aren aurpegiaren itxureak iñoizkorik ederrren emoten eban. Argi egoan maitasunak bere adiskidearen aurpegia edertzen ebala.

– Eta zeuk zer erantzun zeutsan...?

– Ara, Matxalen, nire biotzaren eragiñari jarrituz, baietz esan neutsan... Jakingo ba'zendu zein zoriontsua oartzen nazan...

Andik laster, kaletik Beiñat agertu zan, eta oiko kafetegira neska baii dei egin eutsen. Atean, Matxalen, agurtu zan,

– Ez dozu gurekin askaria izan gura– Lixette'k itaundu eutsan–.

– Nire ustez, ni barik obeto egongo zarie– irribarrez erantzun eutsan Matxalen'ek–.

Arrezkero, aspaldi zoragarria ezagutu eban Lixette'k maitasunaren lorratzetik ames gozotan bizi izaten zala. Agiri zan bere aurpegi ta begietan batez be, jasandako aldakuntza, eta izan be aurpegiaren karrantzan ispillu baten lez, bere amesen edertasuna agiri eban. Jaiegun guztietan, meza nagusiaren ostean autu bat izaten eban bere neska-lagunekin, eta onek bere zoriona aipatzen eutsan.

Oarpen ezkutu batek, baiña, Matxalen'eri barrua marrazkatzen eutsan. Ikasketak amaituta Baiona'tik etxera biurtu izan zan Yoldienea'ko oiñordea, ez zan lengoa; neskatilleari barru-miñeko zerbaitek iñotsan, lengo mutil xaloe ezabatu eta gazte berekoia sortu izan zala. Zergaitik aldakuntza ori...?' Batek-badaki...! Baiona'n jasandako giroa... lagun barrien eragintza...edo-ta aita il zanetiko etxaldearen buruaustek beragan jarritako lorrak... Bildur zan Matxalen, eta sarri askotan bere lagun-miñaren alde otoi egiten eban iñongo makurrik etorri ez ekion...

Alan-bear batek, baiña, arazo aretan Matxalen'eri bearreko argia ekarri eutsan. Ona emen zelan gertatu zan.

Bein baten, meza nagusiaren ostean, Matxalen korutik jaisten zala, aterpean Lixette alkartu yakon, eta aurpegi dizdiratsuz, auxe esan eutsan:

– Badakizu Matxalen ...? Beiñat'ek nirekin eskontzeko gerturik dagoala esan daust, eta arratsalde onetan gurera etorriko da nire eskua eskatzeko.

– Orren arin ezkonduko zarie...? Ozta-ozta illabete ta erdi igaro da arremonetan asi zariela...

– Bai, baiña gure sendiek aspalditik alkar ezagutzen dabenez, alpe-riko da geiago itxarotea.

– Eta noiz ezkonduko zarie...?

– Gitxi gora-beera, eta nire gurasoek baietza emotekotan, illabete bien ostean.

– Ederto, Lixette, nire zorionik andiena opa izaten dautsut

– Aizu, Matxalen, bene-benetan eskatzen dautsut, ni ezkondu gero Yoldi-enean jarraitu dagizula. Geu guztiz ondo alkartzen gara, eta tamal andia izango litzake, banandu gaitezela.

– Bai, Lixette ori egi andia da, baiña ni etxea erabiltera oitua naz, eta zailla izango litzakit beste bizimodu barri bateri emotea. Gaiñera, Yoldi-enean' n geratzen ba'naz, neskazarra billakatuko nintzake, eta olakorik ez dago nire asmotan. Augaitik, beraz, gure betiko adiskidetasuna bizirik jarraitu dagiala gura ba'dogu, zuur jokatu dagigun...

Etixerako bidetik joiala, Lixette'ren ezkontzea zeozer ustebakoa zala gogora etorri yakon Matxalen'eri. Edozelan be, berak ez eban beste biderik ikusten Yoldi-eneatik alde egitea baiño, eta au mingarria izango litzakio, etxe aretan bizitzaldi maite-maitea igaro ebalako Joanes'en eta Alis'en maitasunak inguratuta. Zelako bizibidea artuko leuke...? Bere zaletasun eta ezaguerea piano-jotea zan, baiña ereskin onek atarako leuke Donepaul lako erri txiki baten bizi izateko beste piano-ikaslerik...? Ez litzake gauza erraza izango, baiña noizbait, Matxalen'ek bere buruari esan eutsan ez geiegi arduratzea, eta gauzak aldiaren bidean euren eifera etorriko litzakezala.

Andik egun batzutara, arratsalde aretako eguraldi ona ustiatuz Matxalen'ek etxaurreko matsarpean josten ziarduala, Beiñat agertu zan, eta,

– Aizu, Matxalen– esan eutsan–, gero Paul izeneko esne-lankide-tza'ko zuzendaria etorriko da, eta areto nagusira sartu egizu, ni antxe egongo naz-eta.

Luzaro barik, dalako Paul berebil batez eldu zan, eta iragarrita lez, Matxalen'ek areto nagusira zuzendu eban, eta gero matsarpean josketari jarraitu eutsan. Neskatillearen ondoan, Beiñat'en idaztegiko leio bat edegita egoan, eta alako baten, Matxalen oartu zan areto nagusitik Beiñat eta Paul idaztegitara sartzen zirala, eta Yoldi-eneako etxejoaunak lagunari auxe iñotsala:

– Begira Paul– esan eutsan– zeuk eskaturiko agiria emen dago.

Une batez dana isillik egon zan, eta gero, arrotzaren mintzoa aditu zan auxe iñoala,

– Agiri onek, esne-lankidetzan dozun jabetasun-zatia agirian ipinten dau, baiña, eta au ez artu txartzat, bear dodana zure oraingo ordainketearen agiria da. Jakin bear dozu, ordain-epea illabete baten buruan amaitzen dala, eta dirua ez sartzekotan zure zatia beste jabekideen artean bananduko da, eta oraingo zure jabetasuna ezerezkeri bat bihurtuko da. Ordainketa barria laster egingo dozula, agindu daustazu, baiña oraindiño orren zantzurik ez... Esku-dirurik ez izatekotan, zergaitik ez dozu diru-maillegu bat eskatzen...?

– Begira Paul, ori baiño askozaz ohea dan beste bide bat aukeratu dot.

– Zelako bidea...?

Irri izun bat aditu zan, eta gero Beiñat'en erdeñuzko mintzoa,

– Ezkontza baten bidez bearreko dirua jaritsiko dot.

Besteak txistu bat jaurti, eta,

– Ez da makala diñostazuna, baiña zelan konponduko zara...?

– Ara, Paul, neska iñuzente ta aberatsa ezagutu dot, eta lilluratuta, maitasunaren–maitasunez ezkon-saritzat ekarri dagiana, esne-lankidetzan sartuko dot.

– Eta bera maite izan barik ezkonduko zara...?

– Ori niri bost ardura, benetan gura dodana aren ziskua da.

Matxalen'ek ez eban besterik entzun gura, eta arin baten bere lo-gelara joanda, negar etsi bateri emon eutsan, eta gero erabaki sendo bat artuta, jatsi zan. Paul joanda gero, Beñat bere idaztegian bakarrik egoan, eta onegana joanda, begiai txinpartak eriezala, Matxalen'ek mintzo asarrez auxe esan eutsan:

– Alan-bear batez, leio orren ondoan nengoala, zeuk Paul'ekin izan dozun autua entzun dot.

Gaztea arrituta egoan Matxalen'en itxurea ikustean. Oiko neskati-lla gozo ta irribarretsua betillun eta bere onetatik atarata zirudian.

– Eta nork dei egin dautsu, zeuri ez dagokizun alkarrizketa bat entzuteko.

– Niri Lixette'rena benetan dagokit, adiskide maite ta miñena dodalako. Ez neban uste izango, ezelan be ez, zeu lako gizon bat gai izango litzakenik neskati-lla baten biotzera sartu, aren aberastasunaz jabetzeko. Gizaki zitala zara, Beñat, eta orain arte anaitzat izan ba'zaitut, aurrerantzean niretzat arrotz bat izango zara. Badakizu benetan zelakoa dan Lixette...? Merezi ez dozun urre-biotzeko neskati-lla da, eta zeuk doillor orrek, beraganako maitasuna itxuratuz lilluratu dozu, bere diruaz jabetzeko. Esaidazu, Beñat, gizon bat zeu baiño beerago jausi ete daiteke...? Eta gaiñera arrotz baten aurrean, ezkontzea asmatzen dozun neskati-lla itz zantarrakaz iraindu dozu. Esaidazu, Beñat, zelan eldu zara egoera zital orretara...?

Matxalen'ek olan itz egin bitartean, Beñat'ek itxura ez-oituaz begiztatzen eban, siñistu eziñik, etxeko uso maitagarria ta esanekoa orren gogor mintzatu ekionik. Bere arritasunak, baiña, asarre bizi bateri laster bide egin eutsan, eta neskati-lla amaitu ebanean, orruka esan eutsan,

– Nor zara zu etxeko nagusiari olako abobetekoak esateko...? Galdu ete dozu zentzuna ganorabako orrek...? Nire gurasoek etxe onetara ekarri zinduezan umezurtu zintzazanean, eta alaba baten ezkontza ta maitasuna cmonda gero, orra or zelan ordaintzen dautsazun arein oiñordekoari, eskerbako orrek. Entzunak entzun, esan bear dautsut etxe onetan ez dagoala lekuri zuretzat. Artu egizuz zure gauzak eta joan zaitez beste iñora, emen ez zaitugu bear-eta.

Arin baten, Matxalen lo-gelara igon, esku dardartsuakaz bere eskuartekoak bide-zorro batera sartu, eta bidean beera errira abiatu zan. Bideko okergune batetik bere Yoldi-enea maitia azkenengoz begiztatzeko biurtu zan, eta parrastaka etorkion atsekabea menperatu eziñik,

negar-zotin luze bateri emon eutsan. Luzaro samar iraun eban antxe, eta gero, nora ez ekiala errira abiatu zan.

* * * *

Andik illabete bitara, Lixette ta Beñat ezkondu ziran, estegu eder-rra ospatuz. Onen aurretik, Beñat'ek aitagiñarrabarekin autu bat izan eban, eta bere alabearen dotea bearrekoa zala Yoldi-enea'k esne-lankidetzan eban jabetasuna ziurtatzeko azaldu eutsan. Baietza emon eutsan Lixette'ren aitak, baiña gizon zuurra izanik, bere alabearen egoerea ezkontza aretan ziurtatzeko, esne-lankidetzan sartzeko zan dirua, Lixette'ren izenean izango litzakela, baldintzatu eban. Izan be, Beñat'ek arazoa beste bide batetik eroan nai izan eban, baiña ezinbestez, aitagiñarrabaren erabagia onartu bear izan eban.

Eztegua ikusgarria izan zan, Matxalen'ek bere eresi-doaiak agi-rian ipiñiz, organuari soiñurik bikaiñenak erauzi eutsazan. Jaunartzealdian, Lixette ta Beñat'en alde otoi bizi bat egin eban, biok sendi alkartu baten bake ta zoriona lortu egiezan. Uste on osoa eban Lixette'gan, eta Beñat'egan ain ona ez izanik be, egunero bion alde eskatu-ko leuke batasun aretan benetako zoriona jaritsi egien.

Mezea amaitu zanean, Matxalen'ek eta Lixette'k alkar besarkatu eben, eta onen ostean, emazte barriak,

– Aizu, Matxalen– maitetsu akar egin eutsan–, zergaitik ez dozu nire eztegu-bazkarian tarteko izan gura...? Niretzat zorion andia izan-go litzakean...

– Begira, Lixette maite ori, nire oraingo jardunak eragotzi egiten daust, baiña orren orde, nire otoiak lagunduko dautsue.

Guzurra zan bere jardunak eragotzi egionik, baiña orretarako Beñat'en jarkipena somaturik, eztegu-bazkarian tarteko izateari uko egin izan eutsan.

– Edozelan be, Matxalen– bere adiskide-miñak esan eutsan– gure eztegu-bidaldiaren ostean, sarrítan alkar ikusiko dogu, ezta...?

– Bai, Lixette, gogoan beti eroango zaitut.

Eta besarkada estu batez banandu ziran.

YOLDI-ENEATIK ALDE

Len esan dogunez, Beiñat'ek etxetik aizatu ebanean, bideko okergune batetik Matxalen'ek Yoldi-eneako kabi gozoa azkenengoz begiztatzean, an igarotako zortzi urte zoriontsu areik, eta oroz gain Joanes'en eta Alis'en gomuta maite-

-maiteak negar etsi bateri eragin cutsoen. Luzaro samar bere atsekabeari bide emon eutsan, eta gero, nora ez ekiala, errira abiatu zan. Aduaren edo patuaren esku ikusgaitzak, baiña, berak oartu barik lekai-meen ikastetxera eroan eban, eta eragintza bakan bateri men egiñez, ateko txiliña jo eban.

- Nor da or...? - bira-leioaren atzetik ate-zaiñak -.

- Begira, Matxalen naz, eta Sor Agnes ikusi nai dot.

- Esango dautsat, Matxalen, sar zaitetz.

Eta atea edegita, iker-areto txiki batera eroan eban. Andik laster, Sor Agnes, bere aolkulari ta irakasle ederretsia agertu zan, eta onen besoen artean, neskatilleak negar larri bateri emon eutsan.

- Nasaitu zaitetz, Matxalen - Sor Agnes'ek errukitsu esan eutsan -, edestu egistazu dana, eta aal dagidan legez lagunduko dautsut.

Noizbait, neskatillearen negarra baretu zan, eta biok aulki banatan jesarrita, Matxalen'ek arratsalde aretan jazorikoa zeatz-zeatz edestu eutsan. Amaitu ebanean, lekai-meak,

- Orduan, Yoldi-eneako etxekojaun gazteak etxetik alde igorri zaitu...?

– Bai, Sor Agnes, eta noraezean ona etorri naz...

– Ondo egin dozu maite orrek. Gaur gabeen, zeuri buruz autu bat izango dot lekaiame nagusiarekin, eta jakiñaren gaiñean ipiñita, zeozer erbagiko dogu. Anartean, nasaitu zaitez, eta gure baratzetik osteratxu bat egizu gabeko otordurarte, eta biar zeozer esango dautsugu. Gaur, barruko ikasle baten gelan lo egingo dozu.

Sor Agnes'ek lagunduta, lekaimetxeko baratzera joan zan, eta an, aulki baten jesarrita, txorien txinta gozoek inguratuta, bere gogoak baretzen asi yakozan.

Biamonean, gosaria artu ondoren, Sor Agnes'ek lekaiame nagusiagana eroan eban. Amultsu artu eban onck, eta,

– Aizu, Matxalen - esan eutsan -, Sor Agnes'ek atzo esan eustan zeuri buruzkoa, eta badirudi Jaungoikoaren eskua arazo onetan dabillela. Lengo egunean, Doxandabartz-eneako alarguna, Errose Andrea, laguntzaren eske ni ikertzer a etorri zan. Ara... neskaitilla gazte bat bear dau andereiño laguntzailletzat berarekin bizi izateko. Goizean, gosaria artu ezker, Baiona'tik egunoro datorren egunkaria irakurriko dautso, gero eguneroko erosketak egitera lagundu, eta arratsaldeetan berarekin izketan edo irakurketan, baita noizean bein bidaldiak egiteko. Jakin bear dozu, Matxalen, Errose Andrea eres-zale andia dala, eta zeugan aukerako piano-jotzaille bikaiña izango dauala. Izan be, gero ta egokia-gotzat zaukat Andre orren andereiño laguntzallea izateko. Gaur bertan joan zaitekez beragana, eta bere baldintzai buruz jakitun ipiñiko zaitu, baita zelako ille-saria emongo dautsun, eta abar. Oraintxe bertan txataltxu baten bidez zure aurkezpena egingo dautsat.

Au esatean, lekaiame nagusiak mezu au idatzi eban:

“Doxandabartz'eneako Errose Andreari.

Txataltxu onen eroaleak, Matxalen Egizabal'eko neskaitilleak, nire ustez, zure andereiño laguntzaillea izateko baldintzak beteten ditu, eta auxe diñotsut ondo ezagutzen dodalako. Edozelan be, buruz-buruko autua gauzarik onena da dagokizun erabagia artzeko.

Nire guraririk onenakaz agurtzen zaitu,

Sor Louise'k”

Txataltxua estalki batera sartu, eta eskuratu eutsan esanez,

– Oena opa izaten dautsut, Matxalen, eta ziur naz merezitakoa jaritsiko dozula. Agur maite ori, nire otoitzetan gogoan izango zaitut.

– Agur, lekaiame nagusia, eta eskerrik asko nire alde egiñagaitik.

Sor Agnes'ek ateraiño lagundu eutsan, eta besarkada maitetsu bat emonez,

– Agur, Matxalen - esan eutsan -, gertatu dakizunaz jakitun ipiñi nagizu.

– Bai, Sor Agnes, eta zeuri esker aunitz nirekin oso ona izan zarea-lako.

Alkarregandik alde egiñik, neskaitillea lekaimetxetik urtenda, erri-ko mutur baten egoan jauregira abiatu zan. Laster iritxi zan baratzeko burdiñezko ate andira, eta txiliña jo ondoren neskame bat agertu zan.

– Zer nai dozu andereiño- itaundu eutsan-.

– Errose Andrea ikusi gura dot, mezu bat dakarkiot.

– Zatoz nire atzetik- neskameak esan eutsan atetzarra zabalduz-.

Jauregiko atadi ederretik sartu ziran, eta iker-gelatxu bateko atea edegirik, neskameak,

– Itxaron emen. Noren izena iragarri bear dautsat Andreari...?

– Lekaimetxeko nagusiak bialitako andereiñoa naz.

– Itxaron apur baten.

Andik laster, berrogei ta amartsu urteko itxura apaiñeko Andra bat agertu zan, eta neskaitilleari itxura adeitsuz auxe esan eutsan:

– Jesarri zaitez, andereiño.

Errose Andrea, emakume txairo ta garaia zan, eta bere aurpegiaren karantza jatorri urenekoa zala adierazoten eban. Aren begi oztin argiek eta bere ezpan gozoek aurpegi eder, atsegiñari, erakarpen andia emotsoen

Biok jesarri ziranean, eta Sor Louise'ren txataltxua irakurri ondoren,

– Orduan lekaiame-buruak nigana bialtzen zaitu...?- esan eutsan jauregiko Andreak- Esaidazu zeure izena eta zein adiñekoa zarea.

– Nire izena Matxalen da, eta ogei urteko naz.

– Nongoa zara...?

– Jaiotzez bizkaitarra naz, baiña badira zortzi urte Yoldi-enean bizi izaten nazala.

– Zelan daiteke ori...?

Orduan, Matxalen'ek gora-bera guztiak azaldu eutsazan bere ama il zanetik, Alis Andreak bere etxean artu eban arte.

– Eta zergaitik Yoldi-enea uzten dozu, andereiño laguntzaillea izateko...?

– Etxekojaun gaztea ezkontzeko da, eta augaitik, etxetik joateko garaia uste izanik, lan baten billa asi naz.

– Eta zelako ikasketak burutu dozuz...

– Batxillerraz gaiñera, piano-irakaslea billakatu naz. Eta orain gure parroko organu-jotzaillea naz...

– Ez niri esan, gero - Errose Andreak eten egin eutsan -, gure parroko organulari bikain-bikaiña zareanik...

– Bai, Andrea. Lengoak bere jarduna utzi ebanean, aren ondorengo izatea eskatu eusten, eta orra or zelan billakatu nazan parroko organularia.

– Jaiegun guztietan meza nagusia entzuten dot, eta esan bear dau sut, zeuk jotako organu-eresiek lillurutzen nabena. Zelan jaritsi dozu maisutasun ori...?

– Sor Agnes irakasle izan neban.

– Begira Matxalen, aurretik, zeugandik eskatzen dodazan egitekoak azalduko dautsudad, eta ontzat emoten ba'dozuz, illabete bateko saio-aldi batez etxe onetan jardungo dozu, eta orren ostean biok bat etorten ba'gara, itunpen bat izenpetuko dogu.

Isildu zan Doxandabaratzen-encako Andrea, eta gero, onetaraxe jarraitu eban:

– Goizeko zortziretan gosaria biok izango dogu, eta onen ostean, Baiona'ko egunkaria amarrak arte irakurriko daustazu, nire begiak bizi-tasuna galdu dabe-ta. Jarraian, eguraldia ona ba'da ostera bat egingo dogu etxe onetako baraztetik, edo errira erosketak egitearren joango gara. Eguraldi txarra izatekotan, nik galtza- -lanak egin bitartean, irakurketa egingo daustazu, edo-ta izketan jardungo dogu. Amabietan bazkal-ordua, eta onen ostean laurak arte biagoa egingo dot; asti-une onetan aske izango zara zure aukeran jarduteko. Lauretan askaria artu-

ko dogu; gero, niri igorritako idazkiak irakurriko daustazuz, edo neu-reak idatziko, eta arratsaldea egurasten, edo izketan emongo dogu, baita zeuk gogokoa izatekotan, pianoa jotzen. Jakin bear dozu, Matxalen, eres-zale andia nazala, eta areto nagusian piano bikain bat zure aukeran dagoala.

Isildu zan jauregiko Andrea, eta gero,

– Jakin bear dozu, noizean bein egun osorako edo erdirako bidaldiak egingo doguzala, Baiona'ra edo Donibane'ra, baita batzutan egun batzutarako be. Ereti orreitan nire laguntzaillea izango zara. Orain esai-dazu, baldintza oneik onartzen dozuz...?

– Bai, Andrea, egia esateko ezin naitekio jarki bizimodu orretara.

– Ederto, Matxalen. Aztu egin yat zure saria aipatzea.

Onen ostean illerokotzat artuko leukena esan eutsan, eta onen ostean,

– Zer deritxazu, Matxalen, sari orreri...?

– Oso ondo derist, Andrea, eta eskerrik asko.

Gauzak argitzen jarraitu eben, eta atan orretan, bazkal-ordua izanik, sukalde ondoko jatoki txiki baiña erosoan bazkaria izateko joan ziran. Otordua izan aurretik, Errose Andreak Matxalen eta etxean ziarduen sukaldariñea eta oiko neskamea alkar aurkeztu ebazan, auxe iñotsela:

– Matxalen andereiñoa, aurrerantzean laguntzaillea izango dot, eta nire sendikotzat erabiliko dozue.

Eta gero Matxalen'eri,

– Au, Marie, etxeko suskaldariñea da, eta beste au, Ane gure nes-kamea.

Bazkaltzeko jesarri ziran etxekoandrea ta Matxalen. Janaria, baku-na baiña gozoa izan zan, eta gero, biagoa egiteko Errose Andreak alde egin ebanean, Matxalen lekaimetxera biurtu zan, bere eskuartekoak jauregira ekarteko, eta bidebatez, Sor Agnes jakiñaren gaiñean ipinteko, jauregian onartua izan zala.

Arratsaldeko lauretan askaria izanda gero, Errose Andreak areto nagusira eroan eban, eta an piano zabal ederra erakutsi eutsan, auxe iñotsala:

– Matxalen, creskin au aspalditik mutu dago, iñork erabilten ez dualako. Zeozer joko zenduke...?

– Zelako eresia entzun gura izango zenduke...?

– Ori zure aukeran utziko neuke.

Matxalen'ek piano yaukala estalgetu eban, eta une batez tekla batzuk eta oinpekoak aztertu ondoren, Chopin'en vals bateri ekin eutsan. Pianoa onenatarikoa zan, eta Matxalen'en antzeak ereskin areri ataraten eutsazan soiñuak amesgarriak ziran. Bazirudian, neskatillea ta poloniar maisu andia bat egiten zirala, eta aretoak ordu-erdi batez dardar egin eban eresdi zoragarri aren pean. Amaitu ebanean, Errose Andreari biurtuz,

– Atsegin izan yatzuz eresiok...? - itaundu eutsan -

Edertasunezko ugin arek lilluratuta, une batez ez eutsan erantzun aal, baiña gero, neskatilleagana urreraturik, mintzo unkituaz,

– Zoragarria izan da, Matxalen– esan eutsan–. Une batez uste izan dot aingeru batek zerutik etorrita, pianoa niretzat joten ebala.

– Egia esateko, Errose Andrea, piano oneri soiñu yaukalak eragitea, ez da gauza zailla, bikain-bikaiña dalako. Orain arte nik jotako pianorik onena da.

– Ez dautsut ukatuko, baiña edozein pianolari batek ezetz zeuk atara dautsazun eresi zoragarriok sortu... Izan be, Matxalen, zeruatzaz ames egitera eroan nozu... Oi nork zeuk lez jokatuko leuken...!

Matxalen'ek irribarre batez erantzun eutsan, eta onen argitasunak eraginda, Errose Andreak, esan eutsan,

– Len zure eres-ertiak areto au edertasunez bete egin dau, eta orain ezpanetan agertu yatzun irribarre argitsuak eguzkia ekarri dau.

Arrezkero bion arteko alkar-ulertzea sendotu zan, eta onekin batera euren arteko erakarpena. Errose Andreak Matxalen'egan benetako laguna idoro izan eban bere eguneroko astiuneak beteteko. Gosariaren ostean, neskatilleak egunkaria irakurten eutsan, eta gero, eguraldia ona zanean, egurasten eben baratzean zear edo errira joiazan erosketak egiteko. Etxean geratzen ba'ziran, areto txiki baten izketan euren gauzak alkarri edesten eutsoezan, eta arratsaldeetan Errose Andreaken biagoa amaituta gero, eta onek galtz egin bitartean, Matxalen'ek bibliaren zatiren bat bere mintzo argiaz irakurten eutsan. Zazpiretan, apalduta gero, areto nagusian Matxalen'ek piano bikaiñari eresi amesgarriak ataraten eutsazan oeratzeko ordurarte.

Jauregia, ederra, zabala, eta ondo egokitua zan. Etxazpian, sukalde ederra, eta alboan burdin-lisatzeko gela, eta bi berebillentzako gordetegia. Kale sestran egoan edapena, ikergela, egongela txukuna, areto-jatokia, eta onen alboan eres-gela bere piano bikaiñarekin. Gela oneik guztitariko margozi ederrak erakusten ebezan, onein artean azkenengo Mitxel Jaunaren margo-argazkia bereizten zala. Goiko soruan, zortzi lo-gela zabal eta txukunak, etxeoentzat baita senitarteko ta ikerleentzat be. Aipatutako gela guzti oneik, egurra erretzeko kebideakaz gaiñera gas-oriko beroketaz orniduta egozan. Izan be, Doxandabartz jauregia egoitza eder eta erosoan zan. Lenengo gautik, Errose Andreak, Matxalen bere lo-gelako alboan egoan beste baten egokitu eban, eta gabeto, neskatilleak bere Andrea oeratzten lagundu ondoren, oiko irribarre argitsuak “Jaungoikoaren laguntzaz “ gau on bat izateko opaltzen eutsan.

Jauregi-inguruko baratz-zatia bedar laburrekoa zana, bere garaia etorkionean, guztitariko lorakaz edertuta agertzen zan. Erritik etorritako barazlari on batek egun osoa an emoten eban.

Sarri askotan, Errose Andreak bere semeatzaz itz egiten eutsan. Bere Mitxel, osalaritza-ikasketak Paris'en eginda gero, eta biotz-bereizlaria billakatuta, beste lagunekin osategi bat jarri izan eban, eta zirudianez, arrakasta andiaz ziarduen. Ama, baiña, semearen bakar-miñaz bizi izaten zan. Sarritan, Matxalen'eri auxe iñotsan:

– Nire izaeraren atsekabea, Mitxel'gandik baztertuta bizitzea da. Nik uste izaten neban, ikasketak amaituta etxera biurtuko litzakela, eta emen edo inguruetan osagilletzat jardungo leukela. Baiña nire amesak ustel billakatu yataz... berak diñoanez, bere etorkia Paris'en dagoalako eta ez beste iñon.

Errose Andrea isiltzen zan, aurpegian beera jausitako malkoren bat txukatzeke, eta gero, mintzo unkituaz,

– Bera da mundu onetan daukadan maitasun guztia. Nire senarra, Mitxel be eritxana il zanetik, seme bakarregan nire maitasun osoa ipiñi dot. Baiona'ra eta gero Paris'era joan zanetik, uda guztietan, ona biurtzen zan, nirekin iru illabete zoragarriak emoteko, baiña osagille billakatuta Paris'en osategi ori beste lagunekin jarri ebanetik, etxe onetara ez da azaldu... Eta auxe da nire izaerari mingostasun uxa-eziña dakarkiona...

Onetaraxe sarri askotan, jauregiko etxeoandreak semeari buruz itz egiten eban.

Matxalen bere aldetik, ildako gurasoetzaz, eta Bizkai'ko gudaldian eroandako ezbeurrak; aitaren eriotzaz espetxean jasandako goseagaitik; bere amaren azkena, eta onen ostean zelan artu eben Yoldienea'n, eta ona etorri ezkeren zelan Sor Agnes'en eragintzaz piano-irakasle, eta gero parroko organulari billakatu izan zala. Jakiña, ez eutsan azaldu Yoldienea uzteko eragin izan eutsan benetako zio edo zergaitia, Beñat'ekin izandako eztabaida ain zuzen be, euren arteko isilleko arazoa zala uste izaten ebalako, eta gaiñera, ori zabaltzea Lixette'ren kaltez izango litzakean.

Areto nagusian, Errose Andrearen izandako senarraren margo-argazki ederra leku nabarmenean agertzen zan. Irudi arek Matxalen'egan erakarpen andia eragiten eban. Gizon txairo ta itxura zardaiko aregan, aurpegi uren eta ederretik begi gaztainkarak, sarkorak, aurrera begiratzan eben amultsu ta biziak. Irudi arek nai-ta-ez neskatilleari gogoa crakarten eutsan, eta maiz aren aurretik igarotean, une batez gelditzen zan ari begiratzeko. Bein baten, olan egoala, Errose Andreak urreratu, eta auxe esan eutsan:

– Sarritan, nire senarra zanaren argazkiari begira ikusten zaitut. Itxura ederrekkoa zan, izan be, baiña beragan agiriena: barruko ontasuna, lagun-urkoari laguntzeko guraria, eta bere baitan egoan onena eskeintzeko beti gerturik...

Isildu zan une batez, eta gero, neskatillearen besoari eutsirik, esan eutsan,

– Jesarri gaitezzen gure oiko aretoan, berari buruz itz egin gura dautsut-eta.

Besaulkietan egokitu ziranean, Errose Andrea onetaraxe asi zan:

– Ni Donibane Garazi'koa naz, eta ango onenatariko sendi batekoa. Bein baten, nire errian euskal jaiak ospatzen zirala, Mitxel, Doxandabaratz'eko nagusia ezagutu neban, eta esan bear dautsut asiera bate-tik maitemindu nintzala, baita bera nitzaz be. Andik illabe batzutara ezkondu gintzazan, eta jauregi eder onetan bizi izaten asi nintzan. Nire senarra aberatsa zan, eta neu be sendi dirudun batekoa izanik, dote andi bat ekarri neban.

Isildu zan etxeoandrea une batez bere gogoak taiutzeko, urrean, eta gero,

– Nire senarra Mitxel– jarraitu eban– osagillea zan, soin eta muiñez osalaritzari emoten eutsana. Lan egiñez artzen eban diru guztia eta

are geiago, geiso beartsuakan eralgiten eban, eta gaiñera gau-ta-egunez edozein geisoren deia artzean, dana utzita aregana joian. Dalako geisooa bearrizanak jota izatekotan, eta sendakaiak erosteko dirurik ezcan, oeburu azpian bearrekooa lagaten eutsan. Erritar guztiek maite-maite eben...

Ona elduta, une batez isildu zan etxeoandrea, eta gero mintzo unkituaz, onetaraxe jarraitu eban,

– Bein baten, gau gordiña zala, “Etxepareborda” izeneko urrutiko basetxe batetik dei egin eutsoen, eta zaldiz indriska gogorpean aratu zan. Geisooa aztertu ta zaindu odoren etxerantz biurtzen zanean, goizaldeko argi motelpean zaldiak irrist egin eta nire senarra errekatxu bateko uretara jausi zan. Aal eban giñoan uren joiara zakarretik urten eta etxera eldu zan. Soin osoa dar-dar gatx batek artuta eban, eta berecala oe berotuan sarturik, osagille lagun bateri dei egin geuntsan. Alborengo txar batek jota egoala zan lagunaren iragarkia, eta ziztati batzuk ipiñi-ta gero, bazirudian obatzen zala, baiña andik iru egunetara, besoen artean il yatan...

Egun arctako oroitzak eraginda, Errose Andrea'ri negar-zotin batek mintzoa eten egin eutsan. Matxalen aal eban lez baretzen saiatu zan, eta noizbait, bere lengora biurtu zanean,

– Amazazpi urtez zoriontsu izan nintzan, eta gero jauregi isil onetan nire senarraren gomutakaz bizi izan naz. Amasei urteko zan Mikel-txu, nire semea, sendalaritza-ikasketak asteko garaia zanez Paris'era aldatu zan, eta ordutik nire bakartasunak ez dau mugarik ezagutu...

Une batez jauregiko alarguna bere oroitzetan murgildu zan, eta guenez, bere ondoan Matxalen egoala oartzean, auxe esan eutsan:

– Parkatu egistazu Matxalen maite orrek, baiña ezin dagikezu uler-tu nire senarra lako gizon bat galtzea zer dan...Zein utsak billakatu yatazan egunak eta urteak, biurtzerik eziña dana gogora ekar-ten...Badakit egunen baten berarekin alkartuko nazala, baiña bitartean, aldiaren luzea...!

– Andrea– eten egin eutsan Matxalen'ek– ez aztu seme bat dozu-nik.

– Bai, olan da, eta sarritan berarekin Paris'era bizi izatera joatea otu yat, baiña indar ezkutu batek jauregi onetara atxikiten nau... Ezin dagiket “Doxandabaratz”-nea maite au utzi, nire senarraren oroitz biziakaz lotuta nagoalako, eta emendik joatea burutara yatordanetan,

nire senarra zanaren gomuteari saldukeri bat izango litzakela gogora yator... Augaitik ba, emen iraungo dot, eriotzak nire senarrarekin alkartu nakion arte

Errose Andreak gero ta maiteago eban Matxalen, eta etxera etorri zan eguna bedeinkatzen eban. Arrezkero, eta aren laguntzari esker, aldia ariñago ta baketsuago igaroten yakon. Neskatillearen aurpegi ederean irribarrea agertzen zanean, gogoko laiño itunak igesi joiakiozan, eta pianoa jotzen ebanean arimea edertasunez beteten yakon.

Matxalen'ek be oso gogokoa eban Doxandabaratz-eneako alarguna, eta askotan burura etorkion aregan bere amaren eta Alis'en antzeko zeozer aurkitu izan ebala. Eta jauregi aretako bizimodu paketsuan egunen jarraigoa igaroten zan. Batzutan, Andreak egun batzuk irauten eban bidegite batera, berarekin eroaten eban, esaterako, Donibane Garazi'ko aideak ikertzeko, edo urrunago Bordele'n ebazan ezagunak. Leku oneitan Matxalen adeitsu artu izaten zan, eta danok neskatillearen edertasuna ta pianoa joteko eban gaitasuna abo batez ederresten eben.

Eta olan, Matxalen'en egunak gora-beera andi barik igaroten ziran...

JAUREGIKO OIÑORDEA

Ogei ta lau urteko zan Doxandabaratz'tar Mitxel sendalaritza-ikasketak Paris'eko Ikastola Nagusian amaitu ebazanean, eta Donepaul'eko jauregian illabete bateko ikerketa amari egiñez, barriro be Paris'era biurtu zan. Biotz-osagille bereizlaria billakatzea zan bere asmoa, eta Ikastola Nagusian jaritsitako bere ikaste-eritxiak oso onak izan ziranez, irakasleek Paris'en egoan Saint Louis'eko geisotegian barruko-osagilletzat biotz-saillan jardun bat lortu eutsoen. Eta Ikastola Nagusian lez, Mitxel gazteak bereiztasun oneri buru-belarri emon eutsan. Gora egiteko irrikaz jabeturik, atsedean artu barik lanari emotsan, eta bere lagunen batek jaia bear ebanean, an azaltzen zan Mitxel aren ordezkaria izateko gerturik.

Itxura onekoa zan, zardain eta giza-karantz ederrekoa, igikun txairoduna, eta emakumeen begiak erakarten ebazanetarikoa. Saint Louis'en geisotegian barneko osagilletzat iru urte emonda gero, bere ordua zala uste izanik, urratsak emoten asi zan bere kabuz lan egiteko. Bein baten, boulevard batetik joiala, Saint Louis'eko geisotegian ezagututako Ander izeneko narru-bereizlaria ikusi eban, eta kafetegi bateko kale-maitxuaren ondoan jesarrita alkarrizketa bateri emon eutsoen. Mitxel'ek bere asmoetzaz jakitun ipiñi eban, eta orduan, Ander'ek,

– Alagala zatozkit Mitxel. Ara...sei osagillek bereizlari “L'Espoir” izeneko geiso-erabiltegi bat sortu dogu, eta zazpigarrena dan biotz-bereizlaria bear dogu; augaitik, zeuk gura izatekoan gurekin lanean asi zaitkez. Lan egiteko balditzak oneixek eta oneixek dira...

Jarraian Ander'ek guztitariko gora-beerak emon eutsazan, eta amaitu ebanean, Mitxel'ek,

– Baldintzok gogokoak yataz; zein lekutan jarri dozue dalako geiso-erabiltegia...?

– Uste izan dogu bezero aberatsekin lan egitea, eta orixegaitik, gure aldetik eralguntzari begiratu barik, Champs Eliseés'en etxe oso bat akuratu dogu. Toki ederrean dago, eta uriburu onetan aberats asko izanik, ezpaibarik guretzat mauka ona izango da.

– Biar bertan joango naz ikustera.

– Zaillena, bearreko sartze-dirua da, baiña gero atzeko aizez ibilliko gara.

Urrengo egunean, Mitxel geixo-erabiltegia ikustera joan zan, eta aren egokitasunak eraginda, baietza emon eban. Amabost eguneko epea eban diru-sartzea egiteko, eta bereala amari urrutizkiñez dei egin eutsan dalako diruketea bildu egian. Andik astebete batera dirua artu, eta bere osagillekideekin oiko itunea egiñik, bere jardunari adorez beterik emon eutsan.

Arrakasta andia izan zan "L'espoir" geiso-erabiltegia, eta aberatsak parrastaka etorten asi ziran. Mitxel osagille ospetsua izaten asi zan, gero ta bezero geiago beragana osasun billa etozala. Itxura zardaiñekoa izanik, eta gaiñera, Saint Louis'eko erri-geisotegian jardun izanak emoten eutsan ospe andia bide zala, biotz-etzbearrak jotako andikiak etenbarik geitzen yakozan obari andiak jaristen ebazala, berak iñoiz ez asmatu-rik bizimodu ona ta ospetsua etorkiola.

Paris'eko osteria (trafico) zailla uxatzeko, geiso-erabiltegirako joan-etorriak egiteko lurpekoa erabilten eban. Bein baten, ostatura itzultzen zanean, gurdira sartzean, euskeraz egiten eben gazte-talde batekin alkartu zan. Aspaldi zan aberriko mintzaira aditzen ez ebalta, eta atsegiñez nortzuk ziran itaundu eutsen. Paris'en ziarduen neska-mutil euskaldun batzuk zirala, eta ordu aretan eguneko jarduna amaituta, "Euskal Etxea" izeneko euron batzar-lekura joiatzala azaldu eutsen. Gazte begiko areik, Mitxel'en euskerarekiko zaletasuna ikustean, eurokin batzokia ikertzeri dei egin eutsen, eta gazte arein begikotasunak irabazita, onartu eban. Montmartre'ko Sacré Coer eleizeatik ur samar egoan Rue Marcadet'eko mailla bitako etxetxu batera sartu ziran, eta an azaldu eutsen leku aretan euskal abestiak, dantzak eta oiturak irakasten zirala, eleizeak babestutako alkar-lekua izanik. Gazte areik ozgarri bat artzeko dei egin eutsen, eta leku aretako gora-beera batzuk azal-

tzen eutsoezala, berrogei ta amartsu urteko gizaki bat alkartu yaken. Taldeko batek Mitxel'eri auxe esan eutsan:

– Ona emen gure gogo-zuzendaria, Aita Etxepare yosulaguna.

Etorbarriak, Mikel agurtu eban, eta gero, tinko-tinko begiratu,

– Zeure itxuraz eta jasaz ezin daiteke ukatu euskaldun zareanik.

Bitartean, gazteak euren zeregiñctara joan izan ziran, Mitxel eta josulaguna bakarrik uzten ebezala.

– Aizu gazte–yosulagunak itaundu eutsan–, zure itxureak nik eza-gutu neban gizon batena gogora dakarst. Esan, nongoa zara...?

– Donepaul'ekoa.

Au entzutean, besteak zirrara jarki-eziñiak artuta,

– Zein etxetakoa...?

– Doxandabartz-eneako seme naz.

Au entzutean, yosulagunak didar bat nekez menperatu aal izan eban, eta mintzoa biotz-ikara batek menperatuta,

– Bai–oiu egin eban–, asieratik begitandu yatan zure aurpegia eza-guna yatala... Nork esango, emen, Paris'en, Mitxel Doxandabartz'en semea aurkituko neukela... Nire gogoan norbait gizaki anditizat izan ba'dot, zure aita zana izan da...

– Orduan– Mitxel'ek eten egin eutsan abots unkituaz -, zeuk eza-gutu zenduan nire aita...?

– Bai, ezagutu neban. Donepaul'eko Etxepareborda'ko semea naz...

Yosulaguna une batez isildu zan, eta gero onetaraxe jarraitu eban,

– Gure ama geisotu izan zan, eta etxekojauna zan nire anai nagusiak Donepaul'eko osagilleari mezu bat bialdu eutsan. Arratsalde aretako giroa izugarria zan, indriski ta tximistak alkarri etenbarik erraiki-ezala. Gomutan dot gaur bezala izango ba'litz, zure aita zaldi batez Etxepareborda'ra etorri zanean... guztiz bustita etorren eta sukaldean legortu ondoren, gure ama aztertu eban; onen ostean, osakai batzuk agindu ebazan, eta gero, oi eban lez, oe-ondoan jesarrita, gure ama ta etxekoak nasaitzen saiatu zan. Gero, berandu izanik, nire anai nagusiak gurekin apaltzeri dei egin eutsan. Eguraldiak zakarra izaten jarraitzen eban, baiña egunsentiaren aurretik baretu zan, eta zure aita etxerakoa egiteko

gertatu zan. Azkenengoz ikusi neban ataditik, bere zaldi gorrixkan gauko lañoaren artetik aren irudia ezabatu yatanean...

Beste isillune bat, eta gero,

– Urrengo eguncan jakin genduan, muño-egi batetik joiala, zaldia irrist egin, eta errekatxu baten ur orrularietara jausi izan zala. Etxera blei-blei eginda eldu zanean, otz-ikara batek artuta oeratu zan, eta andik iru egunetara il egin zan...

Aita Etxepare'k, begiak urrutian galduta une luze batez iraun eban, eta gero,

– Zure aitaren eriotza gure errirako ezbear andia izan zan, gizon ona, jakintsu ta lagun-urkoaren bearrianak arintzeko bizi izan zana galdu gendualako... Jaungoikoaren doaiak artuta mundu onetatik onegiñez igaro zana... Illetak ospatu ziranean, Donepaul'eko eleiztarrentzat ez egoan lekurik, ezta euren biotzetan ainbeste samiñarentzat. Eta egun aretan, zure aita zanaren zerraldoaren aurrean nengoala, dei ezkutu bat entzuten nebala iruditu yatan... Urte batzuk geroago abadetu nintzan, eta ordutik ona, egun guztietan Jaunaren gorputza sagaratu ondoren zure aitaren oroitzua gomutara yatort...

Barrero be, yosulaguna isildu zan, eta gero gaztea amultsu begiztatu,

– Esaidazu, Mitxel, zure ama bizi al-da...?

– Bai, beti lez Doxandabartz-enean.

– Eta zeuk, Mitxel, zer egiten dozu emen, Paris'en...?

Orduan, gazteak luze ta zeatz, bere bizitzaren gora-beera guztiak emon eutsazan.

Amaitu ebanean, Aita Etxepare'k,

– Aizu, Mitxel– esan eutsan– zeutzaz gauza asko esan daustazu, baiña auxe jakin nai izango neuke: zoriontsu al-zara...?

Mikel'ek besteari arrituta begiratu eutsan, auxe iñotsala,

– Gazte batek irrikatu dagiken guztia eskura dot. Ara... osagille ospetsua naz, danek begirunez erabilten nabe, dirua gero ta geiago irabazten dot, eta Paris'eko biotz-bereizlari ospetsuenetariko bat billakatzeko bidetik noa...

Aita Etxepare'k itxura bakanaz begiratu eutsan, eta gero,

– Bene-benetan, Mitxel, daroazun biziera orretan, zoriontsu al-zara...?

Une batez, isillik iraun eban Mitxel'ek, eta gero,

– Ez dakit norberaren zoriona zertan datzan, baiña niketz auxe esan dagiketsut: zenbat-gura lortzeko ez dot oztoporik.

– Eta bene-benetan zeuk or billatzen dozunak zoriotsu egiten zaitu...?

Au esanda gero, josulaguna bere baitan bildu zan une batez, eta jarraian,

– Berrogei ta amar urteko naz, eta izaeraren zati andi bat ezaguturik, benetan esan dagiketsut, Mitxel, egizko zoriona lagun-urkoari laguntzean datzala. Maitasuna, gure Jaunaren agindu bereizia da, eta orreri jarraitzen dautsanak, zorionaren zatiak ordaintzat artzen ditu, mundu onek eskeñi dagikeozanak baiña andiangoak izan be. Zure aita zana jakintsu ta andikia zan, eta bide onetatik arrakasta andia lortu egitean, baiña berak maitasunaren bidea aukeratu eban, eta geisoen lorrak arinduz, bere zoriona jaritsi eban...

Isillune baten ondoren, yosulagunak onetaraxe jarraitu eban:

– Gau aretan, Etxepareborda'n nire ama aztertu ta zaindu ondoren, gurekin apaltzen ebala, etxejojaunaren esker zintzoak artzean, inpernuko eguraldi aretan gurera etorri izateagaitik, irriabarre amultsu batez, auxe erantzun eutsan: “Inpernuko eguraldiak zerurako bideak dira”.

Beste isillune bat sortu zan, eta gero, Aita Etxepare'k itxura arraiatz,

– Barkatu egistazu, Mitxel, zurekin gogor izanagaitik. Izan be, aitaren goratzarrez, semca bigunago erabilli bear izango neukean, baiña orren osterera, zakar erabilli zaitut, sartu bear ez neban arloa aipatuz...

Gero jagi zan, eta Mitxel'eri atera lagundu bitartean,

– Berandutxu da, eta nire lekaidetxera biurtu bear dot; edozelan be, Doxandabartz'eko oiñordea ezgutzeak poztasun andi-andia emon daustala esan bear dautsut, eta nire otoiartzaldietan gogoan izango zaitudala ...

Atean, agurtzat eskua alkarri emonez,

– Zatoz ona aal dagizunetan, Mitxel– esan eutsan–, eta urrengoan, “Euskal Etxea”ri buruzko gorabeerak emongo dautsudaz.

– Eskerrikasko, Aita Etxepare, nire aitatzaz esanagaitik. Aal izatekotan, datorren asteko larunbat-arratsaldean emen izango naz.

Gau aretan, bere ostatura biurtzen zanean, bein eta barriro Aita Etxepare'k zorionari buruz esandakoak gogoan erabillezan osagille gazteak. Ain zuzen be, izaereak ondo erabillia zan, baiña ortik zoriontsu izatera... Zer zan gizaki baten benetako zoriona...? Munduak emon egiozan nai ebazan gauza guztiak...? Ala lagun-urkoari lagundutik etorri leitekion barruko zoriona...? Gero, bere gogoak aitagana joan yakozan. Sarri askotan, amari entzun izan eutsan, aita zanak erritarrak laguntzean bere amesik bizienak bete izan zituala, eta mundu onetan ez ebalá beste ordaintzarik gura...

Oldozkun onetara elduta, Mitxel'ek asperen bat jaurti, eta bere buruari esan eutsan, erantzuna etorkiari uztea zuurrena izangi litzakela, eta buruausteak alde batera bein betiko baztertea.

Aginduta lez, urrengo larunbateko arratsaldean "Euskal Etxea"ra biurtu zan, eta mai baten aurrean jesarrita kafe bat txastatzen ziarduala, Aita Etxepare urreratu yakon,

– Ikusi dagikedanez, agindua beteteko berbakoa zara.

– Ori– irribarretsu erantzun eutsan Mitxel'ek–, eskaldunen bereiztasuna da.

– Bai benetan, eta gaur ezaugarri orrek ez dau utsik egin.

Yosulagunak maitzaiñari beste kafe bat eskatu eutsan, eta gero,

– Lengo batzarrean– esaten asi zan– sermolari aspergarria izan nintzaizun, baiña gaur, osterá, atsegiñago izango naz. Gure erakunde onen gorabeera batzuk emongo dautsudaz. Esaera batek diñoanez, ezagutetik maitasuna dator, eta nik etxe au maite izan dagizula nai izango neuke.

Isildu zan edariari txurrutada bat emoteko, eta jarraian,

– Etxe au Paris'eko gongotzaingopean sortu zan, Euskalerrit'ik uriburu onetara lan-billa datozen auskaldunai laguntzeko. Euskal etxe onetara datorrenean, batzorde batek etorbarriari ondoen datorkion lan bat billatzen dautso, eta gaiñera, bere euskaltasuna galdu ez dagian, gure dantzak, oiturak, abestiak, etabar, bere aukeran ditu baita euskal liburutegi bat. Ondo dakizu uriburu onetan gazteai jazarten dautsiezán zirikaldiak. Neskatillak dira galtzori geiágo jasaten dabezanak, eta emagalduek billakatu ez daitezen, jagoten doguz ardurarik andienaz, eta aragi-merkatu zikin orretan jausi arren be, lokatzetik atarateko aale-

gintzen gara, lan duin bat eskeintzen dautsegula. Batzutan txulut egiten dogu, baiña besteetan, bide onera barriro dakarkiguz...eta orduan, gure pozaren andia...!

– Eta zein da zure betekizuna leku onetan...?

– Lenengo ta bein, gogo zuzendaria nazan aldetik, banaka edo taldeka eurokin alkarrizketak izaten ditut, baita illero itzaldi bat goiko areto ederrean. Alboko lekaimeen kaperatxu baten, igande guztietan euskal meza ospatzen dot, eta jakiña, onetan ebanjelioa euskeraz azaltzen dautset. Aldiaren bidean, adiskide asko egin ditut, beste batzuk, osterá, aztarnarik utzi bage nire bizitzatik ezabatu dira... baiña batá beste nire izaerea bizi izateko gai izan dala oartzén dot nire barruan, eta orrek indar barriak jarraitzeko emoten daustaz...Egia esateko, aika egiteko ez dot astirik...

– Orren arazopetuta ete zagoz...?

– Egunak beste ogei ta lau ordu geiágo ba'leuz, oraindiño naikorik ez. Egunero, nire gosaria amaitzean, etxerik-etxe noa geisoak eta nire gogo-laguntza bear dabenek ikertzeko, eta ozta-ozta bazkalduta gero, barriro be goizekoari jarraitzeko. Arratsaldeko seiretan "Euskal Etxera" nator zortzirak arte, eta orduan, aparía izateko ta lo egiteko, lekaidetxera. Ez, Mitxel, ez dot astirik aspertzeko...

Alako baten, gizon bat kafetegiaren erdian jarri zan, eta txilin bat jotén ebalá, auxe aldarrikatu eban:

– Lagun maiteok, orain, goiko aretoan "Euskal Etxea"ko abestaldeak joaldi bat eskeiñiko dausku, eta augaitik dei egiten dautsuet guztioi entzuteko.

Yosulaguna ta Mitxel an egozan lagunekin goiko maillara joan ziran, eta aulki banatan jesarri ziran. Abestaldeak polito jardun eban, eta Mitxel'ek aspalditik entzuten ez ebazan aberriko eresi eder areik, zirrara batek artuta entzun ebazan. Abestaldiak ordu ta erditsu iraun eban, eta amaitu zanean, adiskide biok etxera joateko gertatu ziran.

– Zer iruditu yatzu, Mitxel...?– itaundu eutsan yosulagunak–.

– Ara... euskal eresiak entzuten dodazanetan, Euskalerrit'ko zati bat biotzera sartzen yatala deritxat, eta aren edertasunak indar jarkieziñaz etxera crakarten nau...

– Ondo diñozu, Mitxel– irribarreka esan eutsan yosulagunak– ez da ezer erri baten nortasuna ondoen adierazoteko, eunurteetan zear aren arimeak sortutako eresiak baiño.

Atean banatzeko zorian ziralara, yosulagunak,

– Etorriko zara ona barrero be...?

– Ez dakit, Aita Etxepare...

– Beste loturaren bat badozu-edo...?

– Ez, ondñoarren ez, baiña eguraldi ona danean, makilla baten laguntzaz zabalditik egurastea atsegin yat.

– Ez aztu, Mitxel, aberri zati bat dan etxe au, zure begira dozula

– Ez dot aztu egingo.

Arrasalde aretan Mitxel ostatura biurtzen zanean, Euskalerra bio-tzeanago sartuta ebala begitandu yakon, eta Donepaul'eko inguruek, muñoek, errekatxuek, bideek eta zugaztiek, urrunditik dei egiten outsoela indar biziz...

Astebete batzuk igaro ziran, eta bein baten, Mitxel'ek "L'espoir"en lanean ziarduala, Aita Etxepare'gandik urrutizkin-dei bat artu eban.

– Kaixo, Mitxel– yosulagunak esan eutsan–, aspaldi onetan ez zai-tut ikusi "Euskal Etxea"n, eta izan be ez neban uste izango orren arin aztu gindukezuzanik.

– Barkatu Aita Etxepare, baiña azken aste-buru oneitan, lagun batzuekin Paris'eko inguruetatik txango batzuk egin dodaz, baiña dato-rreren larunbatean alkar ikusiko dogu.

– Ezin dot orren luzaro itxaron, Mitxel, arazo txar bat eskuetara etorri yat, eta zure laguntza bear dot. Etorri zaitezke gaur bertan "Eus-kal Etxea"ra...?

– Emengo lana amaitu baiño ez, zazpiretan inguru or izango naz.

– Gero arte ba, Mitxel, eta eskerrikasko.

Agindutako orduan, lurpekoa artuta an azaldu zan osagille gaztea, eta eldu baiño ez, yosulagunak auxe esan eutsan:

– Mutiko geiso bat aztertu dagizula gura dot, eta orretarako erri-berebillaren bidez aren etxera joango gara. Sacré Coer eleizearen atze-tik edatzen dan auzunean bizi da.

Alboko kale baten erri-berebilla artu, eta astirik galtzeke abiatu ziran. Kaleetan zear joiazala, yosulagunak,

– Lenengo, arazoari buruz jakiñaren gaiñean ipiñiko zaitut– esan eutsan–. Biotz-makur batek jotako mutiko baten ama euskalduna atzo etorri yatan negar baten, bere semea ilteko zorian zala esanez, eta aren alde zeozer egiteko eskatu eustan. Orduan, zutzaz gogoraturik, gaur dei egin dautsut dalako mutikoa aztertu dagizun. Barkatu egistazu arazo orretan zu sartu izatea, baiña baten batek zeozer egin aal ba'dau zeu zara egokiena...

– Ondo egin dozu Aita Etxepare, eta eskertzen dautsut neugan dozun uste ona

– Mutiko ori, "Euskal Etxea"ko dantzaria zan, baiña geisoak artu-ta, orain gitxi dala, dantza egiteari uko egin bear izan eutsan, eta atzo bere amak gero ta txarrago egoala ikustean, nigana jo eban. Orain urte batzuk, aren senarrak ama-semeak bertan beera utzirik, etxetik alde egin eban. Gure batzordeak ama gaixo orreri lan bat billatu eutsan, eta arrezkero burua atara dau.

Atan orretan, erri-berebilletik auzune beartsu baten jatsi ziran, eta andik laster, yosulagunak etxe bateko bigarren soruko atea jo eban. Emakume batek atea edegi eban, eta, ikerleak ikustean,

– Sar zaitezke– esan eutsen–, eta eskerrikasko, Aita Etxepare, nire etxera etorri izanagaitik.

– Begira, Andoliñe– yosulagunak esan eutsan–, zure dei larriari jaramon egiñik, gaur Paris'eko onenatariko osagille bat ekarri aal izan dutsut.

– Eskerrik asko, Jauna...

– Ez niri eskerrik emon, berari baiño; nik eskatuta dana utzi eta zure semea ikustera etorri da.

Etxekoandreak gela batera croan ebazan etorbarriak. Oe baten etzana, mutiko bat albetan egoan, aurpegi zurbil baten bere ezpan ube-lak bereizten ziralara. Geisoa ikusi baiño ez, Mitxel'ek zorrotxutik bular-ikuskiña atara, eta azterpen arin bat egin baiño ez, auxe esan eban:

– Nire geisotegira eroan bear dogu oraintxe bertan. Eskatu egizue taxi bat lenbailen, eta bitartean urrutizkiñez "L'espoir" geiso-erabiltegi-ra dei egingo dot, larrialdi baterako biotz-azterkin guztiak eta geiso-zai-ñiak gerturik izateko.

Au esan baiño ez, kaleko urrutizkin batetik osagille gazteak osate-gira dei egin eban, eta andik laster, mutikoa burusi baten bilduta, taxi baten, ama, yosulaguna, eta Mitxel, arin baten abiatu ziran.

“L’espoir”era eldu ziranean, bearreko azterkiñak eta onein erabillariak gerturik egozan, eta Andoliñe ta Aita Etxepare itxaron bitartean, Mitxel’en zuzendaritzapean, mutikoa zeatz-zeatz aztertu eben. Andik ordubete batera, irrati-argazkiak eta biotzaren ibiltekezunak ondo aztertu ondoren, arazo larria zala azaldu eutsen Mitxel’ek. Biotz-txaramil (válvula) bat itsututeko zorian izanik, bearreko zala esku-sartze berealako egitea.

– Ori da nire eritxia– amari esan eutsan Mitxel’ek– baiña arazo onetan zure baimena bearrekoa dan ezkeru, zeuk erabagiko dozu.

– Ez dago beste biderik orixe baiño ...?– larri itaundu eutsan Andoliñe’k–.

– Ez, Andrea, eta gaiñera lenbailen eginbearrekoa.

– Orduan nire baimena dozu. Aurretik esan bear dautsut, baiña, ezeukia nazala...

– Origaitik ez larritu, eta utzi egizu dana nire ardurapean.

Bereala. Mitxel’ek Saint Louis’eko erri-geisotegiko biotz-saillera dei egin eban. Arratsalde aretako zaintza-osagillea oso ezaguna eban Mitxel’ek, eta auxe esan eutsan:

– Aizu, urlia, biotz-txaramil bat itsututeko zorian etorri yat mutiko bat, eta larrialdi benetakoa izanik, orra eroango dot dagokion esku-sartzea egiteko. Onezaz gaiñera, mezede anditzat eskatzen dautsut ikusle izan gura dodala.

Baietz esan eutsan besteak, eta dana gerturik izango litzakela geisosa etorri zeitenean. Gabeko bederatziak izango ziran, mutikoa Saint Louis’eko geisotegira eroan ebenean, eta biotz-saillera sartu ta bereala, txandako osagilleak Mitxel’ekin irrati-argazkiak eta biotzaren ibiltekezunak aztertu ta gero, berealaxeko ebakizuna egitea erabagi eban. Eta mutilla kirofanora sartuta, sorgor-erazoteko ziztakia sartu, eta esku-sartzea asi zan. Ordubete amaibako bi igaro ziran, eta noizbait mutikoa larri-zaintzako gelara sartu eben. Geisosa iñork ikusi ez egikianez urrengo goizerarte, Aita Etxepare’k Andoliñe’ri etxera lagundu eutsan, eta Mitxel bere ostatura joan zan.

Urrengo egunean, “L’espoir” geiso-erabiltegiko bere jarduna arratsaldean amaitu zanean, Mitxel Saint Louis’eko geisotegira joan zan, eta an jakiñerazo eutsoen, mutikoa ondo egoala. Gero, Andoliñe’kin egon zan, eta onek semea ordu-laurden batez ikusi ebala esan eutsan; itxura ona ebala, lengo atsanka ostendua izanik, eta oraingo arnasa

oikoa zirudiana. Pozik egoan ama, eta itz unkituaz eskertu eutsan semearen alde egiña. Esan eutsan baita be, urrengo egunean oiko areto batera aldatu izanik, emen ikertu egikiela.

– Aizu, Andoliñe, zure barriak poztuten nau benetan. Baiña esaidazu, atzoko estutasunaz zure semearen izena itauntzea aztu egin yatan. Zein da...?

– Martintxu.

– Zure semea zaintzen dauan osagillearekin berba egin dot, eta onen eritxiz urte askotarako seme izango dozu.

– Ori, zeuri eskertu bear dautsut, Mitxel Jauna, eta nire otoitzetan gogoan izango zaitut bizi izan naiten artean...

– Agur, Andoliñe, biar biurtuko naz Martintxu ikustera.

– Agur, Mitxel Jauna, eta barrero be, eskerrikasko...

Mitxel’ek egunero ikertzen eban Martintxu, eta andik egun batzutarata etxera bialdu eben. Mutikoa lengora laster biurtu zan, eta jarraitu eban ikastolara joaten. Mitxel “Euskal Etxea”ra joianetan, bereala aurkezten yakon Martintxu, eta irribarre zabalaz agurtzen eban. Baekian mutikoak osaketea zelanbait osagille gazte areri zor eutsala, eta bere oroimenean leku bat gorde eutsan betirako. Aita Etxepare’ren eragintzaz, Martintxu’k josulagunen ikastetxe baten ikaste-sari bat lortu eban, eta mutikoa ernaiia zanez, bizitzaren bidean gora andia egiten asi zan.

Eta bide onetatik, yosulagunaren bitartez Mitxel’ek beartsuen onegiteari jarraitu eutsan, eta lan aregaitik dirurik artu ez arren be, zorion bakan batek menperatzen eban.

Illabete batzuk olan jarraitu eban, geiso-erabiltegiko bere lanak eta yosulagunak ekarkion bearrizanikoen zaintza aldizkatzen zituala, eta bein baten, udearen eragintzapean Mitxel’en barruan aberriaganako joran bizi bat piztu yakon, eta gurasoen etxean aspaldi bat emotea erabagi eban.

DOXANDABARATZ - ENEAN

Gau betea zan Mitxel Baiona'tik etxera eldu zanean. Neskameak atea edegi eutsanean, zur eta lur geratu zan.

– Mitxel Jauna...!– begirunez esan eutsan–, ez genekian berori etorteko zanik...

– Olan da; iragarri barik etorri naz amari ezuste atsegiña emotearren. Eroan nagizu beragana.

– Oeratu da, Jauna, baiña oraindiño atzarri izango da, urrean.

Neskameak lagunduta amaren lo-gelara sartu zan, eta samur-samur,

– Ama, emen nozu– esan eutsan mintzo isillez–.

– Mitxel, nire maitea– poz baten esan eutsan estu-estu besarkatzen ebala–, zergaitik orren ustekabez zatozkit...? Lenagotik jakin izan ba'neu...

– Bapateko yoran bizi batek etxera erakarri nau, eta dana bertan-beera utzita emen nozu, ama... Etxetik urrunago ta beti maiteago...

– Egia esateko, seme maite ori– irribarre batez amak esan eutsan–, ez neuke esango zeuri buruz ori egia izan daitenik...etxe onetarako eraspena aspalditik galdu dozula esango neuka-ta...

– Etxe onetako nire guraria lotan egoan, ama, baiña ezustez nire barrukoa itxartu da, eta zeuganako nire joera txarra barkatu dagistazun etorri naz.

– Au nire poza, Mitxel, zu barriro ikustean...! zein luzarorako etorri zara...?

– Gitxienez amabost egunetarako.

– Niretzat zeru antzekoak izango dira. Esan, seme, zelan yoatzun Paris'eko zure jarduna...?

– Oba ezin, ama... Begira...

Eta jarraian, Mitxel'ek bere gora egitearen zertzeladak emon utsazan. Errose'k semearen ezpanetatik dilindan egoan, eta olan igarri barik gabeko amabiak ordulari batek jo ebazan.

– Ama– Mitxel'ek esan utsan–, berandu da, eta atsedean artu bear dozu. Biar Jaungoikoak lagun, jarraituko dogu.

– Bai, seme, onezkero zure lo-gela gerturik izango dozu. Biar arte ba.

Bidegiteagaitik zeozer nekatuta, Mikel bere lo-gelara joan zan.

Urrengo goizean, berandutxuan Mikel itxartu zan, eta jantzita gero, oiko jatoki txikira jatsi zan. Ama begira eban, eta alkarri agurtuta, gosaltzen asi ziran, goiz aretako eguraldi ederra mintzagaia izaten ebela. Alako baten, areto nagusitik eresi zoragarri baten soiñuak aditzen asi ziran...

Goiz aretan, Matxalen jagi ondoren oiko ikustaldia Errose Andrea-ri egiteko joan zanean, lo egoala ikusirik, bakarrik gosalduta eban, eta gero, erosketa batzuk egin bear ebazala gogoratutik, errira joan, eta goiz-erdian jauregira biurtu zan.

Errose Andrea laster jagiko litzakela itxaropenaz, astia emoteko areto nagusiaren piano-ondoan jesarrita, Sergei Rachmaninoff'en piano ta ereskontzarako 2'gn erestaldia jotzen asi zan. Oso atsegiña eban Matxalen'ek ereskontzaren zati goren au, soiñu samurrez asten dana, gero goraldi geldieziñez oiñazkar baten antzera amaitzen dana. Eta danatzaz aztuta, Matxalen'ek joteari emotsan...

Eres-neurkin areik entzutean, Mitxel'ek,

– Ama, nor jotzen ari da onen bikain etxe onetan...?

– Zoaz eta ikusiko dozu, seme– amak irribarrez erantzun utsan–.

Mitxel jagi, eta eres-aretora joan zan. Ate zabalaren zear piano-ondoan jesarrita, neskatilla baten ebakun lerdana ikusi eban, eta oiñaz-piko motelgarrian zear astiro joiala, urreratu yakon, eta geldiegi une

batzuk itxaron eban. Noizbait, eres-zatia goraldi yaukalean amaitu zanean,

– Ederto, neskatilla– esan utsan Mitxel'ek bere ederrespena jabetu eziñik–, Rachmaninoff'en eresi ori bikain jotzen dozu. Esaidazu, nor zara eta zer egiten dozu etxe onetan...?

Itz oneik entzutean, Matxalen biurtu zan, eta gaztea ikustean, jagi, eta didar bat jaurtita, esan eban,

– Ai ene, uste izan dot iker-aretoan dagoan margo-argazkiko Jauna ustekabez agertzen yatala...!

– Ez, andereiño, etxe onetan ez dago iñongo iratxorik. Ni, margo-argazkiko Jaun orren semea nozu, eta ez nator beste mundutik, Paris'etik baiño...

Matxalen'en arritasuna joanda, gazteari begi illun ederrakaz begiratu utsan, eta gero bere ezpanak oiko irribarre argitsuaz zabaldua, mintzo gozoaz esan utsan,

– Errose Andrea ez eustan zeuri buruz ezer esan...

– Ez, andereiño, biozkada bateri jarraituz, nire ama jakiñaren gaiñean ipiñi barik bart etorri nintzan, eta orra or, pianoari eresi yaukalak atara dakiazan irribarre zoragarriko neskatilla ikusgarri bat aurkitzen dodala...

Limurkeri oneik entzutean, Matxalen'en aurpegia oskorri samurraz estaldu zan, eta zer esan ez ekiala begiak beeratu ebazan.

– Aizu, andereiño– Mitxel'ek esan utsan–, oraindiño zein izenekoa zanean eta zer egiten dozun etxe onetan, jakin barik nago.

– Ara, Jauna... Matxalen izenekoa naz, eta jauregi onetan, Errose Andrea-aren andereiño laguntzailletzat diardut

– Izen polita da, emengo Maialen antzekoa. Nongoa zara...?

– Euskalerriko egoaldean dagoan Bilbao'n jaio nintzan, eta patuak edo alanbearrak olan nai izanda, erri onetara etorri nintzan. Orain iru illabete-edo, erri onetako lekaimetik, zure amak laguntzaille bat bear ebala jakiñerazo eusten, eta jardun ori ondo yatordanez, jauregi onetara etorri nintzan.

– Baiña andereiño laguntzaillez beste, pianolari bikaiña zarena egiztatu dot. Non ikasi zenduan pianoa orren ondo jotzen...? Rachmaninoff'en piano ta ereskontzarako erestaldi ori jotean, arrituta utzi nozu.

– Begira, Jauna– esaten asi zan Matxalen... baiña ezustean Doxandabaratz'eko oiñordeak eten egin eutsan auxe iñotsala–,

– Mezedez, Matxalen, ez ni Jauntzat erabili, ogei ta zazapi urteko baiño ez nazalako, eta olan erabilten ba'nozu aguretzat artuko nabe. Aurrerantzean esan egistazu Mitxel soilik. Adu dozu ondo...?

– Bai, Mitxel– esan eutsan neskatilleak bere irribarre zoragarriaz.

– Eta nire adiña aipatu dautsudan ezkerro, zein adiñekoa zara...?

– Ogei urteko naz.

– Adin orretan, neskatillak pipil izatetik larrosa izatera irixten dira.

Une aretan, Errose Andrea alkartu yaken, eta orduan semeak,

– Aizu ama, zergaitik ez daustazu esan onen neska zoragarria andereiño laguntzaille zenduanik...?

– Zeuk be, seme orrek, dirudianez ez zenduan asti naikorik izan zure etorrerea niri adierazoteko. Eta orain zure uts ori ordaintzeko, eza-guerazo egiskuzuz Paris'eko zure gorabeerak

– Egia esateko, ama, ez dot gauza askorik esateko, oso arazopetutata nagoala baiño. Goizetik gaberañoko nire bezeroen ikerpenek burubelarri lotzen nabe. Onezaz gaiñera, “Euskal Etxea” deritxan euskal erakunde baten geiso batzuk be azken aldiotan zaintzen dodaz, eta au aipatu dodan ezkerro, gogoan dozuz erri onetako Etxeparebor-da'koak...?

– Bai, seme, basetxe orretako ikerpena zure aita zanaren azkena izan zan...

– Begira, ama, etxe orretako etxejojaunaren anai bat josulaguna billakatu zan, eta Paris'eko “Euskal Etxea”n ezagutu dot, eta bera ango gogo-arduralaria dan ezkerro, dirubako geisoren bat ezagutzean, neugana dator ikertu dagidan, eta olan “L'espoir” zaintzategiaz gaiñera, neuk billatu barik beste buruauste bat etorri yat.

– Osagille batek egin dagiken onik andiena, beartsuai laguntzea da, eta ori ondo ekian zure aita zanak.

Isullune bat sortu zan, eta gero Mitxel'ek,

– Ba al-dakizu gauza bat, ama...? Beartsuren bat zaintzen dodanean, aberatsek emoten dausten diru guztia baiño askozaz zorientsuago oartzen naz.

– Zoriona, seme ori, biotzean sortzen dan doai berezia da.

Atan orretan, eguberdia zan, eta irurok etxokoen jatoki txikian bazkaltzeko bildu ziran. Mikel'ek bazkal-une osoa amaren itaunai erantzuten emon eban, Matxalen'ek isillik zirauala. Bazkalostean, eta Errose Andreak oiko biagoa egiteko besaulki baten jesarten zala, Mitxel'ek neskatilleari auxe esan eutsan:

– Aizu, Matxalen, baratzetik osteratxu bat egitea atsegin izango litzakit, eta zeuk gauza bereizirik egiteko ez izatekotan, eskertuko neuskizu nirekin ba'zentoz.

– Baita pozik be, Mitxel.

Urten ziran gazte biok, eta baratz ederraren zear ibilten asi ziran. Arratsalde eder aretan, eguzkiak zugaitzak eta bedarra urrez beteten ebazan. Neskatillearen ibilte txairo ta malgua bere ondoan oartzean, zorion bakan batek artuta egoan Mitxel, eta baratzeko goikaldera aldatz bigunetik ibilli ebillela, zugaitz ikusgarri bakoitzaren etorkia Matxalen'eri edesten eutsan, eta olan astiro-astiro baratzeko tontorrera eldu ziran, eta ango begiratokiko aulki baten jesarri ziran. Une luze batez andik edatzen zan edertasunak lilluratuta, isillean egon ziran. Eguzkia gingatik itsasorantz makurten zan, itzalak luzatzen zirala esmeralezko edatze zoragarri aretan. Baratzaz bestaldean Donepaul erriak baketsu ta lotan zirudian, eta muiño txairo bigun baten baten goikaldean, Yoldi-enea uso zuri baten antzera ikusten zan. Bere lengo etxea ikustean, oroi-min gozo bat Matxalen'ez jabetu zan, eta une luzean zear an egon zan aldiaren ibilteaz aztuta. Bitartean, lilluratutako Mitxel'ek neskatillearen aurpegi ederraren ebakune garbia begizatzen eban, eta gero, mintzo leunaz,

– Esaidazu, Matxalen, amesetan al-zagoz...?

Neskatilleak begi illun yaukalak beragana biurtu ebazan, eta gero, mintzo gozoaz,

– Ikusten dozu, erriaz bestaldean etxe zuri bat uso baten antzera muiño txairo baten gaiñean kokatuta...?

– Bai, ondo dakust, Matxalen.

– Axe izan da urte askotan nire etxea...

– Esaidazu dana, Matxalen; esaidazu zelan gertatu zan ori.

Orduan abots gozoaz, neskatilleak bere gurasoetzaz, egoaldeko anai arteko gudaz, eta bere aitaren criotzaz eta gero amaren azkenatzaz mintzo unkituaz berba egin eutsan, eta zelan Alis'en errukiaren bidez Yoldi-eneara etorri izan zan, eta gero onen ondoreak. Oroimifñez jota-

ko mintzoaz, Matxalen'ek bere barrukoa ustu eban, eta amaitu ebanean, neskatillearen ezpanetatik dilindan egon izan zan Mitxel'ek,

– Eta esaidazu, Matxalen, zergaitik utzi zenduan orren maite-maite izandako Yoldi-enea...?

Une batez ezpaitsu geratu zan neskatillea, eta egia erdiz esatea erabagirik, auxe esan eutsan,

– Etxekojaun gazteak ezkontzea erabagi ebanean, etxe aretan niretzat lekurik ez egoala oartu nintzan, eta andik alde egin neban, neska-me bat biurtu nai ez nebalako...

– Ondo egin zenduan, Matxalen, zeu lako piano-ertilaritari iñongo neskametzarik onartzea ez dagokiolako, ez urrik emon be...

Arratsbera zan orduko, eta Mitxel'ek,

– Aizu, Matxalen, berandutxu da onezkero...

Neskatilleak begi illun yaukalakaz begiztatu eban, eta gero irribarre argitsuz,

– Bai, Mitxel, onezkero zure ama berantetsia egongo da.

Eta biok isillean biurtu ziran. Matxalen'en ondoan joiala, osagille gaztea iñoiz ez oartutako bake andi batek artuta egoan, eta noizean bein zearretara begiratuz, neskatillearen aurpegi-ebakun zoragarria ederresten eban.

Errose Andrea begira eben jauregira eldu ziranean, eta andik laster apariari ekin eutsoen. Bitartean, Mitxel'ek lurraldea ikertu gura ebala, eta egunero etxeko berebillean osterata egingo leukiela azaldu ondoren,

– Ama, biar Donibane Garazi'ko zure sendia ikertuko dogu, zer deritxazu orreri...?

– Oba ez, seme, aspaldi da andik azaldu ez nazala, eta poz baten artuko gaitue.

Jarraian, aretora joan ziran, eta Mitxel'ek eskatuta Matxalen Berlioz'en Silfideen Dantza joten asi zan. Besaulkian begi itxiakaz, Mitxel'ek eresia aditzen eban, Matxalen'ek arrasti aretan esandakoak banan-banan gogoratzen zituala.

Biamonean, jai-eguna izanik, goizeko amarretan eleizara joan ziran, eta ama-semeak antxiñatik etorkien duiñezko jarlekuetan egokiturik, Matxalen korura igon, eta oiko meza-sarrerea organuan jotzen asi

zan, lekua eresi yaukalaz beteten zala. Mezea amaitu, eta urtenbidera abiatzen zala, Lixette urreratu yakon, eta,

– Aspaldiko, Matxalen - amultsu esan eutsan -, ordua da ikusi zagidazan. Ezkondu aurretik jakin neban, Yoldi-enea utzi izan zenduala, eta jauregiko Errose Andreamen zerbitzuan ziarduala.

– Bai Lixette, nire onerako oba litzakidala andik joatea uste izanik, lekaimeek aren andereño laguntzaillearen jarduna eskeiñi eustenean, onartu neban.

– Pozik al-zagoz, Matxalen...?

– Bene-benetan, orain zorionsua naz. Eta zeuri, zelan yoatzun ezkonduetako bizimodu barria...?

– Ondo. Asiera baten, nire senarra etxeko arazoak zirala-ta, arrenkuratuta bizi izaten zan, baiña nire dotearen bidez arazoak atondu yakozan, eta ordutik niganako gero ta maiteminduago ikusten dot.

– Ziur naz, Lixette, merezi dozun zoriona jaritsiko dozula.

– Eta, nire zorionaren andia...azur-barritan nago...!

Itz oneik entzutean, Matxalen'ek estu-estu besarkatu eban, auxe iñotsala:

– Zure ondorengoa, ezpaibarik, senarrarekin alkatuko zaituan urrezko lotura bat izango da. Zorionak, Lixette maite ori...!

– Esan, Matxalen, egunen baten Yoldi-eneara ni ikustera ez zara etorriko...?

Une batez Matxalen bere barruan bilduta egon zan, eta gero,

– Batek-badaki, Lixette; maite-maite izan nebazanak, Joanes eta Alis, joan ziran, eta an ez dot besterik aurkituko, arein oroi-miña baiño...

Izan be, Beñat'ek Yoldi-enea'tik jaurti ebanetik, Matxalen ez egoan gerturik ara biurtzeko, eta Lixette'ri emondako azalpena ez zan atxaki bat baiño.

Eleizpera urten ziran, eta an besarkaturik, gazte biak banandu ziran. Une batez, Matxalen'ek bere adiskidearen irudi maitea begiztatu eban, eta gero, asperen batez ludi onetan itxaro daiteken zoriona biotzez opa izan eutsan.

Andik laster, ezagun batzuekin alkar-izketan ziarduen Errose Andrea ta Mitxel'ekin alkatu zan; orduan onek,

– Aizu, Matxalen– esan eutsan– ez nekian organua orren ondo joten zenduanik. Gaurko mezea eraspen andiaz entzuteko zure eresertiak lagundu daust. Esan, zelan billakatu zara parroki onetako organularia...?

– Ara, lengo organularia, zaarra billakatu zanean, nire piano-irakaslea zan Sor Agnes'en bitartez, uts geratutako jarduna gure parrokoak artzeko eragin ninduan, eta orra or erri onetako organularia biur-tuta.

Au esatean, neskatillearen ezpanetan bere oiko irribarre sorgingaria agertu zan.

– Esaidazu, Matxalen– lilluratuta esan eutsan Mitxel'ek–, zelan ikasi dozu orren zoragarriro irribarre egiten...?

– Ez dakit, Mitxel, baiña izeko Alis'ek zeruko doia zala esan eroian, eta iñoiz galdu ez nengiala sarritan esaten eustan.

– Izan be, zuzen egoan.

Eta irurok, Garagarrilla'ren (Utzaiilla'ren) eguberdi eder aretan jauregira biurtu ziran. Bazkalostean, eta Errose Andreak biago laburra egin baiño ez, Mitxel'ek etxeko berebilla gertatu eta Donibane Gara-zi'rako bidea artu eben. Aurreko aulkietan Mitxel eta bere ama joiazan, eta atzekoan Matxalen. Bidean zear joiazala, osagille gazteak ezagutzen ez ebazan errien izenak eta onein bereiztazunak Matxalen'eri erakusten eutsazan, eta olan, ordubete bat igarorik, Errose Andreaken jaiotetxera eldu ziran. Andre onen jatorri garaiari egokion jauregi ederra zan, eta atean nortzuk ziran iragarririk, andik laster, etxekojauna zan Errose Andreaken nebak eta onen emazteak etorbarriak adeitsu abetaldu, eta askari batez adiguri egin eutsien. Onen ostean, Donibane Gara-zi Matxalen'eri erakusteko gurariz, erritik ostera bat egiteko dei egin eutsan Mitxel'ek. Erri ederra zan, benetan, eta goikaldean egoan gaztelua, eta gero aldapan beera jauzika erria zearkatzen eban erreka, ikusgarriak ziran, eta neskatilleak edertasun areik begi-biotzean gorde zituan.

Doxandabaratzeneara biurtu ziranean, itsasoaren seaska-billa eguzkia ilten zan. Apaloste aretan, ikusitakoak eraginda, Matxalen'ek pianoari eresi yaukalak atara eutsazan, gogo-barruan ebilkiozan sentipen gorenai urrtenbide bat emon gura izango bai'leutsen. Gau aretan, Errose Andrea'ri oera laguntzen eutsala, onek itaundu eutsan,

– Aizu, Matxalen, zelakoa iruditu yatzu nire jaioterria...?

– Eder-ederra benetan, goiko gaztelu zaarra, eta errekatxua ikoti bizietan maldan beera oldartuz, aztu-eziñeko gaiak begitandu yataz.

– Ederra da benetan nire jaioterri maitea. Gabon, Matxalen, eta ondo lo egin Jaungoikoak lagun.

– Baita zeuk be, Errose Andrea.

Arrezkero, astebete bi iraungo leukien eguncroko bidegiteak asi ziran. Goiz guztietan, gosalduta gero, Mitxel'ek etxeko berebilla erabilten ebala, bere ama ta Matxalen artuta, iparraldeko Euskalerrria ikertzen eban. Olan ba, Baiona ta onen inguruak ikusi ebezan. Gero, Biarritz, Donibane Loitzun, Endaia, Askain, Sare, Arkanges. Jarraian, Benabarra'ko lurralde ederra, Irati'ko oianeraiño, eta noizbait Zuberora'ko barruti ezezaguna. Onenbeste ikustez Errose Andrea nekatzen zanean, edozein baratzeko aulki baten jesarten zan, semeari iñotsala,

– Aizu, Mitxel, eroan egizu Matxalen erri onetako ikusgarriak eza-gutu dagiazan.

Eta gazteak batetik bestera joiazan, neskatillearen itaunai Mitxel'ek erantzuten eutsela. Eta olan ez arian-ez arian, astebete bi igaro ziran, neskatillearen gogoia ikusitako edertasunaz beteten zala, eta bere biotzean ordurarte iñoiz ez ezagaturiko yoran bizi bat sortzen yakola...

Eta uxaeziña, Mitxel etxetik joateko eguna eldu zan. Atean, osagille gaztea Baiona'ra eroango leuken berebilla egoan, emendik Paris'era joateko. Ama besarkatu ondoren, neskatilleagana biurtu zan, eta onen esku biak artuta,

– Agur, Matxalen, urrengorarte... Esan bear dautsut zeu ta zeure piano-eresiak benetan uts emongo dodazala...

– Agur, Mitxel, neuk be gogoan izango zaitut...

– Azkenengoz, Matxalen, joan aurretik zure irribarre argitsua ikusi nai izango neuke...

Baiña aalegindu arren be, neskatillearen ezpan gozoak ezin zeitekezan zabaldu, eta begi eder andiakaz gaztea begiztaten eban. Ustekabez, Mitxel makurtu zan, eta Matxalen'en esku bigunetan musu bana jarri eban, eta ezer esan barik, berebillera sartu, eta etxetik urrundu zan.

Zer egiten ez ekiala, Matxalen'ek bere lo-gelara joanda, negar etsi bateri emon eutsan. Azken une aretan, oartu izan zan Mitxel maite ebala, eta beragandik urrun, zoribakoa izango litzakela...Bapatean, une batez zoriona agertu izan yakon, eta igarri baiño ez, ostendua zan...

PARIS'EN BARRIRO

Bakartasun-oarpen batez, Mitxel'ek Paris'en bere oiko jardunari emon eutsan, etorkion geisoen kopurua etenbarik anditzen yakola. Izan be, biotz-bereizlaritzat eban ospeak gero ta bezero aberatsagoak ekar-tsozan, baiña olan eta guzti be, zoriontsu izatetik gero ta urrunago oar-tzen zan.

Bein baten, Etxepare yosulagunakin izaten ebazan alkarrizketan, onek auxe esan eutsan:

– Gurregun osalaritzak aurrerapen siñisteziñak egin ditu, eta oba-kuntza onetan, bereizitasunai asko zor yake baita sendagai barriai be. Baiña aurrerapenak beste aurpegi itsusia be badabe, eta auxe izan be: geisoak gauza baten antzera erabilliak izaten dira, eta osagilleen abade-kuntza edo apaizkuntza galdu egin dabe, eta onek geiso askoentzat, beartsuenentzat batez be, utsune bete-eziña sortu dau. Jende bakunak osagille bategan ez dau sendabide bat soillik billatzen, bere arimari aringarri bat ekarri dagiola billatzen dau; atsekabeak jasateko bearreko eroapena emongo dautsan osagille-adiskidea; estualdietan sorospena emoteko gerturik dagoan oe-buruko osagille-laguna; izaera onetan artu-tako iraiñak arinduko dautsazan osagille-aolkularia; zaartzarorearen bakartasun illunean argi bat ekarriko dautsan osagille maitetsua...

Isildu zan lipar batez yosulaguna, eta gero,

– Bai Mitxel, osagilleek orain bide asko erabilten dabez geisoak osatuteko, eta orren aurka ez dot zer esaterik, baiña beartsuenak eta zaarrenak batez be, etxeko osagille-adiskidea galdu dabe... Ara, etxe-

ra, Etxepareborda'ra noanetan, eta Donepaul'eko adiskideak ikertzen dodazanetan, danok aipatzen dauste zure aita zanak geisoen etxeetan egiten eban ona. Beartsuek eta zaarrek batez be, Doxandabaratz-eneako osagillea gogotik ezin dabe kendu, eta orain danok uts emoten dabe aren laguntza...

Mitxel'ek itz oneik eraspén andiaz entzuten ebazan. Bere aita zanaren oroitzak begirune ta maitasun bizia sortzen cutsazan, eta sarritan bere buruari inñotsan, aitaren jokaerea berearena baiño askozaz duiñagoa izango ez ete zan... Baiña ospea ta dirua parrastaka etorten yakozanez, bere barruko arrenkurak laster ezabatzen ziran, Paris'eko bizike-ra dizdiratsuak gaiña artzen ebala.

Bein baten, "Euskal Etxea"n aita Etxepare'kin alkarrizketan ziar-duala, onek esan eutsan,

– Aizu, Mitxel, lengo egunean, erakunde onetako laguntza artzen dauan Sara'tik gazte zanean ona etorritako atso bat zurubian beera jausi zan, eta erri-geisotegi baten zaindu ondoren, etxera ekarri eben, eta orain bakartasunak jota gaixoak laguntza gura dau.

– Uste dozu, lagun orrek– irribarreka esan eutsan Mitxel'ek–, neu lako biotz- bereizlari ospetsu bat, dalako atso orrek bear dauana danik...?

– Emakume gaixo orrek, bere bakartasunari aringarri bat emon dagiona bear dauana da, eta zeu izan zaitezke dalako onegillea. Etorri gura dozu nirekin...?

– Aita Etxepare, zeuk eskatzen dozunari zailla da ezetz esatea. Goazen ba, atso ori ikustera.

– Ez dago urrun, oiñez joango gara.

Andik laster auzo aretako etxe zaar bateko atadira eldu ziran, eta zurubi drangala batetik igonda, sabaiko ate bat jo eban yosulagunak. Urrats neketsuen otsa aditu zan, eta adiñeko emakume batek atea edegi eban. Yosulaguna ikustean,

– Sar zaiteze– esan eutsen–.

– Zelan dago zure lagun Zezile...?

– Oraintxe bertan etorri naz bera laguntzearren, eta bardin dagoa-la esango neuke.

Itz oneik esanda, lo-gela batera lagundu eutsen, eta leiatilla bateko errezela alde batera bilduta argi geiago sar zeiten,

– Begira, Zezile– esan eban–, nor etorri dan zu ikustera.

Yosulaguna-ta ikustean, irribarre-antzeko keiñu batez,

– Zure etorrerea irrikatzen neban, Aita Etxepare; ez dakizu nire orduak zein luzetsuak egiten yatazan...– mintzo aulaz esan eban–.

– Aizu, Zezile, nirekin datorren Mitxel izeneko gazte au osagillea da, eta gaiñera euskalduna.

– Ordua da osagille euskaldun batek ikusi nagiala. Nongoa zara gazte ori...?

– Donepaul'ekoa,

– Neu, Sara'koa naz, eta bein baten gazterik, ona etorri aurretik zure erri polit orretan izan nintzan. Ez dakizu zelako atsegiña artzen dodan euskeraz diardudanean...

– Begira, Zezile– Mitxel'ek esan eutsan–, Aita Etxepare'k zeugana ekarri nau ikusi zagidazan.

Au esanik, aren aztal bateri loturea kendu eutsan, eta zeatz aztertu ondoren,

– Zezile– adeitsu esan eutsan–, zauri onek itxura ona agertzen dau, eta zaindu zinduzan osagilleak bere betebearra ondo egin eban.

– Bai, baiña arek ez eban euskeraz egiten, zeuk bezela...

Jarraian, Mitxel'ek bere esku-zorrotik gantzuz bat atara, eta zauria ondo igurtzi ondoren, aztala ardura andiz lotu eutsan, auxe inñotsala:

– Zezile, zure zauria polito doala esan bear dautsut, eta amabost bat egunen buruan, neskaitilla baten antzera kaleetatik ibilliko zara.

– Bai, baiña ordurarte nork zainduko nau...? Orain ez naz gauza inñora joateko...

Orduan Aita Etxepare tartetu zan

– Ez zaitez larritu, Zezile, osagille gazte au noizean bein etorriko da zure zauria zaintzearren...

– Noizean bein, diñostazu...eta zer egingo dot bitartean emen, danok utzita...?

Aita Etxepare'k orduan mintzagaia aldatu, eta Sara'ko bere gazta-rotzaz itaundu eutsan. Zezile'k orduan, bizi barri batez bizkortuta bai'litzan, oroi-miñak jota antxiñako urte areik gogora ekarri ebazan. Luzaro samar iraun eban gomuta areik aletuz, eta noizbait, onetaraxe amaitu eban,

– Uri onetako dizdira izunak andik erakarri ninduan, baiña urteak igarota, nire buruari diñotsat, askozaz onuragarriago izango ez ete litza-kidan, an bertan geratu izan ba'nintz...

Ordu bete bat igaro eben etxe aretan Zezile'ren oroi-miñak entzuten, eta agurtu ziranean, biotz-eragin bateri jarraituz, Mitxel'ek,

– Aizu, Zezile, egunero etorriko niaitzu zure aztal ori ikustera.

– Au nire poza, Mitxel Jauna. Jainkoak ordaindu dagizula...!

Etxe aretatik urten ziranean, Aita Etxepare'k abots unkituaz, lagunari auxe esan eutsan:

– Ondo egin dozu, Mitxel, emakume orreri esatean, egunero ikustera etorriko zareala. Zezile'ren benetako gatxa bakartasuna da, eta beste iñori bere oroitzak edestu dagikeozanean, atsekabeeatetik iges egiten dau. Osagille baten bearrean dago emakume ori, baiña areago abade antzeko osagille bat, oneri bere barrukoa ustuteko. Zoritxarrez, gaur nekez aurkitzen dira arima-osagille orreik. Gaurko osalaritzak aurrerapen andiak eta onuragarriak egin ditu, baiña oe-buruko osagillea etxe guztietatik ostentzen ari da, eta ori gizarterako kaltegarria da.

Eta ordutik, Mitxel eguneroko lana "L'espoir"en eginda gero, aginduta lez, Zezile ikustera joian, eta aztala zainduta gero, ordubete batez alkarrizketa bateri emotsoen. Amabost bat egun iraun eban Mitxel'en eguneroko ikerpena, eta noizbait Zezile osatuta, berez kaleetatik ibilteko gai izan zanean, Mitxel'ek amaitutzat emon eban bere zaintza... baiña Aita Etxepare'k luzaro barik beste adiñeko geiso bat aurkitu eutsan, eta ezarian-ezarian dirurik ekarten ez eutsan beste ekin-tza barri bateri emoten asi zan. Eta, bere geisotegiko lana amaituta gero, iñongo obaririk ez ekartsan, bai ordea neke ta buruausteak, Paris'eko auzune beartsu aretan egiten jarraitu eban.

Sarri askotan, ostatura biurtzean nekatuta egoan, eta bere buruari iñotsan:

– Baiña Mitxel, zergaitik dirurik emoten ez dautsun zeregin neke-tsu oneri emon...? Ez litzakizu askozaz zuurrago, zure oiko lana "L'espoir"en amaituta, lagunekin boulevard baten astia emotea, ozgarri baten aurrean gizarterko barriak alkarri edestuz...?

Mikel baiña, gero ta erakarriago oartzen zan ekintza barriari, eta Aita Etxepare ezagutu ebanean, onek egindako itauna: "Zoriontsua zara, Mitxel"...? Orain obeto ulertzen ebal begitantzen yakon, eta zoriona zirudian oarpen esan-ezin batek bere barrua laztantzen eban...

ZILTZA TA BURRUKA

Mitxel'en lanak arrakasta andiaz jarraitzen eban "L'espoir" geiso-erabiltegian, bezero aberatsen kopurua etenbarik anditzen yakola baita bere irabazteak be; izan be oneik andiangoak izango ziran, Aita Etxepare'k ekarkiozan geisoakan ainbeste diru ta astirik eralgiko ez ba'leu, baiña emoitza oneik gogoz egiten ebazan, eta bere osagillegoari poztasunik andiena emotsoenak.

Bein baten, neskatilla pertxenta bat etorri yakon biotz-gatx batek jota egoan bere amarekin, au aztertu egian. Guztitariko ezagubideak erabillita gero, Mitxel'ek zain-andiaren estutasuna iragarri eutsan, eta beraz esku-sartze bat bearrekoa zala. Au, edozein erri-geisotegian egingo leuskiola, edo naiago izatekotan, antxe bertan. Ama-alabak "L'espoir"en bertan izatea erabagi eben, eta andik astebeite bitara, osakai batzuk artuta gero, andreak esku-sartzea jasango leukela. Andik urtetean, andereiñoak iker-txataltxu auxe emon eutsan:

Colette de Saint Avit
Comtesse de Boursand
Chateau de Boursand
La Champagne

Oi eban lez bezero guztiekin, Mitxel'ek atadiraiño lagundu eutsen eta alkar agurtuta, morroi-soiñekoz jantzitako berebillari batek, ama-alabak "Rolls Royce" batera sartzen lagundu eutsen. Izan be, itxuren arabera bezero aberatsak izan bearko leukie, bere buruari esan eutsan Mitxel'ek, eta oiko zeregiñetara biurtu zan, burutik kendu ezifnik, neskatilla aren edertasun, eta leñargiko jasa.

Andik astebete bitara, Colette de Saint Avit "L'Espoir" geiso-erabiltegiaren amarekin aukeztu zu erabagitarako esku-sartzea egiteko. Aurretik, Mitxel'ek geisoaren egoera aztertu eban, eta ona zala ikustean, esku-sartzeari emon eutsan. Izan be, ekintza azter-firu bat zanetatik sartu, eta ormetako itsaskiak kentzea zu. Erabilte oneri oitua zu Mitxel, ardurarik eta trebetasunik andienaz egin eban. Gero, ango oebatera geisoa eroan eban, eta Colette bere amaren zaintzari emonda, an bertan geratu zu.

Esku-sartzeak arrakasta osoa lortu eban, eta andik zenbait egunetara, geisoa bere lengora bihurtu, etxera joateko gerturik egoan. Egotaldi aretan, Mitxel'ek geisoa ta Colette ikusteko ere izan eban, eta neska gaztearen edertasunak eta leñargiko itxureak lilluratuta, une luzeak berarekin emoten ebazan, gero ta neskeagana erakarritakoago oartzen zala. Ederra zu benetan Saint Avit'eko kontemea, eta izan be, begien eta mintzoaren erabilteaz argi egoan gizonen erakarle jarkieziña zala, eta au gitxi bai'litzan ondasun andiko jabea. Berarekin ezkonduko litzakenak, ez leuke lan andirik egin bear izango bere aukeran ondo bizi izateko...

Colette'ren amak osasun-agiria jaritsi ebanean, bere geroagoko egoera egiztatzeko, aspaldi batez amabost egunero, "L'Espoir" geiso-erabiltegiaren ikertu izango litzakela erabagi zu. Egun aretan agurtzean, neskatilleak osagille gazteagan begi lilluragarriak samur-samur ipiñita, irribarretsu, auxe esan eutsan:

– Eskerrik asko osagille Jauna. Orain La Champagne'ko gure gaztelura joango gara, eta udea laster asiko dan ezkerero, garairik egokiena izango da ango giro garbian, nire ama lengora biurtu daiten.

– Benetan, aukerarik onena da orixe, andereiño de Saint Avit, eta niretzat tamal andia izanik be, zuen erabagia ontzat emon bear dot.

– Zergaitik, tamal izan, Mitxel...?– itaundu eutsan Colette'k, beginini sorgingarriakaz osagille gaztea lastanduz–.

Mitxel'ek ez eutsan erantzunik emon, eta makurtzen zala, aren eskuan musu bat jarri eutsan. Gero, une batez atadian geratu zu, ama-alaben berebil bikaiña Champs Elisées'en bera ostentzen zala.

Une luze batez antxe untzatuta lez geratu zu, eta gero, asperen bat jaurti, eta oiko bere zeregiñetara biurtu zu.

Illabete bat igaro zu, eta aginduta lez, Colette de Saint Avit "L'Espoir" zaintzategira biurtu zu amarekin, oneri azkenengo azterpe-

na egiteko asmotan. Mitxel'ek zeatz-zeatz aztertu eban aldi luze batez, eta amaitzean,

– Andre agurgarria– esan eutsan–, zure lengo gatxaren aztarnak ezabatu dira bein betiko.

Eta gero, alabeari mintzatuz,

– Colette de Saint Avit andereiñoa. Zure ama lengora osorik biurtu da, eta onezkeron nire zaintzarik ez dau bear. Aurrerantzean, oiko bizimoduari emon dagikeo, baiña neuk esondatuko neuskio, gaztelu ingurutiko ibillaldiak egiteko, eta oroz gain atsekaberik artu ez dagiala.

– Alde onetatik– ebagi eutsan Colette'k– nasaitu zaitez, Doxandaratz Jauna, iñongo naigaberik artu ez dagiala saiatuko gara-ta.

– Orduan, agur, andereiño de Saint Avit. Benetan esan bear dautsut, Boursand'eko conteme Agurgarria, tamal andia dala niretzat zeuri betiko agurra esatea...

– Nork esan dau, auxe gure arteko azken agurra izango danik...? Begira, Mitxel, datorren illeko Garagarrilla'ren (Uztailla'ren) 14'gna, Prantzia'n laterriko jaia dogu, eta augaitik, nire amaren osasuna ospatzeko, iru egunetako jai andi bat izango dogu, eta ospakizun gogoangarri au galdu ez dagizun, ona emen argibide batzuk: Vitry burdinbideko geltokian aurreranean arratsaldeko bostetan gure berebil bat zure begira egongo da, eta Aube ibaitik ur dagoan gure gaztelura ekarriko zaitu. Etorriko zara, Mitxel...?

Itz oneik esatean, Colette'ren begiak osagille gaztearen aurpegi gizonkian, arek ekian itxura zirikatzaileaz untzatu ziran, eta osagille gazteak zearo lilluratuta,

– Bai Colette– erantzun eutsan–, egun orretan Vitry'ko geltokian esandako orduan izango naz. Edozelan be, Colette, zure deiagaitik artu egizu nire eskerrik beroena.

– Orduan, Boursand'eko gazteluan azalduko zara...?

– Bai, Colette andereiñoa, eragozpenik ez izatekotan...

Colette de Saint Avit'ek ezpanen keiñu Illuragarri batez,

– Ez dot iñongo eragozpenik onartuko, Mitxel– esan eutsan–, eta auxe jakin dagizula nai dot: zu ez ba'zentoz, niretzat ez litzake jairik izango...

Berba oneik esatean, Colette'k ume asarratuaren aurpegiaz begiratu eutsan, eta Mitxel'ek aren lillurari jarki eziñik, mintzo unkituaz,

– Bai, Colette, ez dot utsik egingo. Agur.

Saint Avit'eko andereñoaren aurpegia irribarre argitsuaz piztu zan eskuan Mitxel'en musu biguna artzean, eta bere amarekin etxeko berebillez Boulevard'en beera ostendu zan, atadian, zearo sorginduta, une luze batez osagille gaztea birloratuta lez egoala, eta gero bere lengora biurtuta, sartu zan.

Egun batzutan Mitxel bere oiko oreka galdurik bizi izan zan. Barruko oarpen bakan batek baiñotsan bere izaeraren bide-gurutz baten egoala, eta nai-ta-ez, benetako zuzenbidea artu bear izango leukela... Lillura ezezagunaren pean oartzen zan; eta antza, epaitua zan aren sarean atxillo izatea.

Eta noizbait, Garagarrilla'ren 14'gnaren aurregunea eldu zan, eta bazkal-osteko burdinbidez Vitry'ra joan zan. Bostetan inguru eldu zanean, geltokian, Joseph, Saint Avit'en etxeko berebillaria begira eban, eta oneri bidezorroa eskuratuta, zabalduan zear abiatu ziran.

– Aizu, Joseph– itaundu eutsan Mitxel'ek– urrun al-dago gaztelua...?

– Amabost bat kilometrora, Jauna.

Eurrez ikusten ziran areizti usuak, eta larradietan alatzten ziran abelgorri-talde ugariak. Mitxel'en itaunai erantzunez, Boursand'eko contemearen jabetasuna zirala, Joseph'ek azaldu eutsan, eta irazean bazan be, osagille gaztea oartu zan, Colette de Saint Avit'eko andereñoa, aitaren eriotzaren osteko contemea zana, oso aberatsa zala. Noizbait, Aube ibaitik ur samar, ganetxu baten kotatuta Boursand'eko gaztelu bikaiña agertu zan. Eldu ziranean, eta berebillariak Mitxel'en bidezorroa atadiko areto zabalera sartzen ebanean, ate batetik Colette agertu zan, eta irribarre gozoaz, Mitxel'en eskuak artuta, esan eutsan,

– Ongi-etorria Boursand'eko gaztelura Mitxel. Dei egindakoak etorten asi dira, eta biar, gitxi gora-beera berrogei ta amar bat senitarteko ta adiskide alkartuko yakuz.

Itz oneik esatean, aren begi eder urdiñakaz itxura sorgingarriaz begizatzen eban. Izan be, berekiko autortu bear izan eban Mitxel'ek, Saint Avit andereñoa gaur iñoizkorik ederren dizdiratzen ebala.

– Mitxel, zer deritxazu gure gazteluari...?

– Izan be, orain arte ikusitakoaz txundituta nozu, Colette andereñoa. Ez neban uste izaten, ez urrik emon be, leku ta egoitza onen zoragarrian bizi izango zintzakezanik...

Boursand'eko kontemeak irribarre dizdiratsu batez inguratu eban, auxe iñotsala:

– Zazpi ta erdietan aparria izateko zure begira izango gara.

Eta jarraian neskame bateri deituz,

– Aizu, Marie, lagundu egiozu Mitxel Jaunari bere gelara.

Neskameak etorbarriaren bide-zorroa artu, eta zurubi bikain bate-tik lenengo maillako gela batera lagundu eutsan, eta agurtu ondoren urten zan. Lo-gela ederra zan, alboko garbitegia txirrio batez orniduta, eta txoko baten idazmai bat ebala liburutegi ta guzti. Txirrio bat artu ondoren, Mikel jantzi, eta sapailora urten zan. Andik, gaztelu-ingurukoa edertasun beteaz bereizten zan, eta zabalduetik etorkion usain gozoa biri beteaz ausnartuz, esandako ordurarte itxaron eban, eta orduan beeko sorura jatsi zan. Neskame batek jatoki aurreko areto bikain batera lagundu eutsan, eta sartu baiño ez, Saint Avit'eko andereñoa urreratu, eta an egozan amabi bat lagunai, Mitxel'en aurkezpena egin eutsen onetaraxe:

– Ona emen, Paris'eko biotz-bereizlari ospetsua dan Doxandabaratx Jauna, eta nire amak jasaten eban makurretik onik atara dauana.

Lenengoa agurtzeko Colette'ren ama izan zan. Irribarre gozoaz etorbarria agurtu eban Andra onek, eta gaztearen itaunari erantzunez,

– Oso ondo nago Doxandabaratx Jauna, eta lengo itoaldiak ostendu yataz bein betiko. Ongi-etorria gurera.

Gero, Colette'k aurkezpena egiten jarraitu eban. Argi egoan Mitxel'en itxura ederrak eta jas txairoak an egozaren begi ona erakartzen ebela, eta alkarren ezagupena amaitu zanean, Mitxel'en besoari eutsita, Colette de Saint Avit jatokira abiatu zan, eta albo baten ama, eta bestean Mitxel ebazala, maipuruan jesarri zan. Apari bakuna izan zan, baiña jakien ontasunak, ontziteriak, mai-orniketearen bikaintasunak, eta maikideen benetasunak, aparri atsegin-atsegiña biurtu eben. Bederatzi-tan inguru aparria amaitu zanean, apailiarrak lekoreko egutera baten akeita artzeko egokitu ziran, eta amaika loreen usaiñakaz inguratuta, kafea ta edari biziak txastau ebezan, eta gero, ozkorriak gabeari bidea egin eutsanean, izarren keiñuak agertu ziran, iretargi zuritan dana amesezko kutsu sorgingarria artzen ebala.

Gau aretako lillurapean, Mitxel'ek beragan Colette'ren begiak laz-tan isillen antzera somatzen ebazan, eta oartu barik, erakarpen bakan batek artuta oartzen zan. Bazirudian, bere barrumiñeko zerbait lo-zorro baten murgilduta egoala... Gaberdian, urrengo egunean zeregin andia begira ebala-ta, Colette'k batzarra amaitutzat emon eban. Mitxel bere lo-gelara abiatzen zanean, Colette urreratu yakon, eta mintzo gozoaz,

– Aizu Mitxel– esan eutsan–, biar gosalduta gero, bederetziatan zure begira izango naz, eta gaztelu-ingurukoak erakutsiko dautsudaz.

– Bai, Colette, eskerrik asko. Ordu orretan gerturik egongo naz.

Bere lo-gelara sartu zanean, sapailloko atea edegi eban, eta une luze batez gabeko usain bigunak inguratuta egon zan. Gau zoragarria zan, udaroari egokiona izan be, eta oartu barik otoi bat urten yakon egoan bide-gurutz aretan laguntza eskatuz.

Biaramonean, bederatzietan gerturik egoan, eta Colette agertu zanean, auxe esan eutsan:

– Aizu Mitxel, goiz ederra danez, gazteluko zati batzuk erakutsiko dautsudaz..

Au esanik, gaztearen besoari cutsirik, berebiltegiara eroan eban. Joseph'ek beste lagun batekin berebil batzuk garbitzen ziarduan.

– Begira, Mitxel– neskatilleak esan eutsan– gurean lau berebil doguz, eta Joseph'ek eta bere lagunak arratsaldean etorriko diran ikerle batzuk Vitry'ko geltokian billatu bear izango dabez. Orain goazen zalditegiara,

Alboan egoan beste atetik sartu ziran, eta ango zaldiak ikustean Mitxel arritu zan. Izan be, ezagularia ez izan arren be, an ikusten ziran ereduek zur eta lur utzi eben.

– Ara, Mitxel– esan eutsan Colette'k– gure zaldi-kopurua amalaukoa da, eta Prantzi'ko lasterketa batzutara aurkezten ditugu. Nai dozu zeuk eta biok zaldiketa bat inguruetatik egin dagigula...?

– Barkatu, Colette, baiña zaldi baten gainean barregarri billakatu nintzake. Egia esateko, ez dot inoiz zaldirik erabili.

– Tamal andia da. Orduan, zer deritxazu zalpurdi baten osterata egiteari...?

– Ori gogoz egingo neuke.

Orduan neskatilleak andik agertu zan morroi bateri,

– Aizu Tony– esan eutsan–, atondu egiskuzu lenbailen, zalpurdi bat.

Olan egin eban morroiak, eta andik laster Colette'ek zigor bat eskuan ebala, gurdibide baten zear abiatu ziran.

– Orain Aube ibaira eroango zaitut.

Eta zaldiaren draka-draka alaiaz ibairantz joan ziran, neskatilleak ikusten eben guztiaren barriak emotsazala. Noizbait, ibaiaren ertzera eldu ziranean, kai txiki bat agertu yakon eta onetan estekatua ontzi polit bat.

– Motordun ontzi au gurea da, eta noizean bein, askotan ez baiña, arraintzetara joan oi gara.

Une labur batez biok an egon ziran, eta gero, Colette'k

– Orain Mitxel, Boursand erria erakutsiko dautsut.

Beste gurdibide batetik biurtu ziran, eta Gaztelua saiesturik, erri txiki ta polit batera sartu ziran. Colette oso ezaguna zan, antza, ikusten ebezan oinkari guztiak txeratsu agurtzen ebelako. Enparantza baten eleizka erakutsi eutsan, eta gero, erriaren albo baten lantegi bateko itxura eban etxe luze bat erakutsi eutsan auxe inñotsala:

– Boursand erria erdi-arokoa da, eta ordutik datorkigu Saint Avit'arrai kontearen izendapena, eta or berton ikusten dozun lantegi orretan, gure jabetasuna dan “txanpan” ospetsu bat egiten dogu. Orain, berandutxu da ikusteko, baiña beste ereti baten ikertuko dozu. Biurtu gaitzen ba gaztelura, jatordua laster egingo yaku-ta.

Biurtzen zirala, Mitxel'ek itaundu eutsan,

– Aizu, Colette, gaztelua andi-andia da. Zelan atontzen zarie or bizi izateko...?

– Ara... Guztiz, berrogei ta amar lo-gelakoa da, baiña lenengo maillakoa izan ezik, enparaua itxita dago. Soru onetan amabi lo-gelata ditugu, oraingo aldietarako naikoa ta lar be.

Atan orretan amabiak ziran gaztelura biurtu ziranean, eta andik laster, lengo gabeko lagunekin alkartu ziran bazkaria izateko. Bazkalostean, lekoreko eguterean akeita artu eben, eta onen ostean, Colette'k Mitxel'eri auxe irautsi eutsan:

– Begira, Mitxel, arratsalde onetan gabeko aparira ta jaira etorriko diran deitutako ezagunak abetaldu bear dodaz, eta Joseph zure aukeran

dozu nai dozunera eroan zagizan. Neuk abategi ospetsu baten utzikiñak ikertu dagizuzan itarantzungo neuskizu.

– Eskerrik asko Colette, zure esondapenari jarraituko dauosat, eta abategi orren utzikiñak ikertuko ditut.

– Zortzi-zortziretan jai-apariari asiera emongo dauzagu, eta danok jai-soiñekoz jantzita aurkeztuko dira. Onen ostean, gazteluko areto nagusian jai-dantzaldia ospatuko da. Ez aztu ori, eta gero arte.

– Ez dot aztuko, Colette andereiñoa.

Andik laster, Joseph’ekin itarantzuniko utzikiñetara joan zan, eta ara elduta,

– Aizu Joseph– berebillariari esan eutsan– ordubete bi emongo dodaz utzikin ikusgarri oneik ikusten. Aske zara beraz, ordurarte zure aukeran ordubete bi orreik erabilteko.

– Emendik ur samar dagoan osaba bat ikertuko dot.

– Geroarte ba, Joseph.

Bakarrik geratu zanean, Mitxel’ek abategiko utzikiñak ikertu eban, eta gero, zugaitz baten gerizpean jesarrita, gogo-ausnartze sakon bateri emon eutsan.

Egia esateko, Boursand’eko gaztelura eldu zanetik, zalantza andi baten pean atxillo oartzen zan, eta orain bere buruari itauntzen eutsan oba izango ez ete litzakion izan Paris’en geratzea... Izan be, edertasun eta erakarpenaren aldetik Colette emakume zoragarria zan, eta berarekin ezkonduko litzakenak bere bizimodua betirako ziurtatuko leuke... Baiña Mitxel’ek baekian bere zoriona orren askozaz gaiñetik egoala, eta ez ebala iñongo emakumeren dirurik bear, etorki ospetsu ta aberatsa jaristeko. Colette de Saint Avit’en ondasuna alde batera utzita, bere buruari auxe itaundu eutsan: emakume ori bene-benetan maite eban...? Une aretan ezin erantzunik emon. Colette’ganako erakrpen andia oartzen eban, eta batzutan aren begi urdiñen lillurak sorgindua oartzen zan... baiña berak billatzen eban izaera guztirako emazte ona, zintzoa, maitetsua, eta bere semeen ama leiatsua, izago litzake...? Ona elduta, Mitxel’ek ezin egikeon bere barruari erantzun egokirik emon, eta noiz-bait, bere biotzetik otoi isil bat sortu zan...

Zazpiretan gaztelura biurtu zan. Orduko, sarrera ta areto nagusia etorbarriakaz irakiten egozan, eta astirik galtzeke bere lo-gelara igon, iradubako txirrio ozgarria artu, eta jai-janzkia ipiñita, onen papar-ega-

leko begitean, ur-edontzi baten berariz jarritako mao (clavel) zuri ederra sartu eban.

Zortzirak lauren gitxiago izango ziran, Mitxel zurubi yaukaletik sarrerako aretora jaisten zanean. Izan be, gazte zarden eta itxura ederrekoa zanez, an egozanan ederrespena erakarri eban, eta luzaro barik Colette irribarre argitsuz urreratu yakon, mintzo ozenaz auxe iñotsala:

– Ona emen, eusko zaldun baten irudi yaukala. Zatoz nirekin barruti onetako andiki nabarmenai zure aurkezpena egiteko.

Eta talderik-talde joiala, Mitxel’en aurkezpena onetaraxe egiten asi zan:

– Urli Jaun eta Andrea, ona emen Mitxel de Doxandabarat, Paris’en diarduan euskal biotz-bereizalari ospetsua.

Era onetan, barruti aretako jaurliari ta onen emazteari, osagille gaztea aurkeztu izan yaken, baita Vitry’ko alkateari, eta ospe andiko beste Jaun-Andreai. Oso ondo artu eban danok itxura ederreko osagille gaztea, ederrespen andiz erabilten ebela. Zortzi-zortziretan alboko jatorria deitu izan ziran apalkide guztiak, bakoitza bereiziki izendaturiko bere lekuan kokatzen zala. Egun aretan, orduko oiturari jarraituz, Colette bere amarekin maipuruan jarri zan, albo baten barruti aretako jaurliaria ta onen emaztea, eta bestean alarguna zan Vitry’ko alkatea bere arreba batekin. Mitxel’ek alde baten adiñeko andra bat eban, eta bestean Colette’ren lengusiña zan neskatilla bat.

Jai-aparia bikaiña izan zan, bai jakien eta ardoen ontasunagaitik, baita ontziteriagaitik be. Sei argidi dilindariiek berrogei ta amar lagunentzako mai bikaiña argitzen eban, agirian ipiñiz mai-zapiaren edo zamauaren orratz-lan oi-ez-lakoa. Apariak ordubete ta erdi iraun eban, eta Mitxel’en alboko laguneme biak oso begiko ta non-ze-barri ziranez, osagille gazteak ez eban abagunerik izan aspertzeko. Olan ba, bere bizibidearen barriak emon bear izan eutsezan, eta aldi berean areikandik gazteluaren eta lurralde aretako barri asko jakin aal izan eban Aparia amaitzeko zorian, Colette de Sain Avit jagi zan, eta mintzo gozoakaz txanpañeko topaldi bat eskatu eban “Pour La France” eta an egozan guztien alde, eta maikide guztiak jagita, edontziak klinka ta klinka asi ziran barre ta oiuen artean. Jarraian, Colette’k alboko areto nagusira dei egin eutsen, jaikideak talde txikitari mai-inguruetan banatzen zirala. Mitxel lengo lagunemekin zortziko talde baten egokitu zan, eta kafea txastatzen ziarduala, Colette’k keiñu batez erakarri eban eta banazean artuta, Saint Avit andereiñoak auxe esan eutsan:

- Aizu. Mitxel, dantzaldirako ereskontza eldu da, eta bereala deduzko lenengo zatia asiko da. Pozik zurekin dantzan egingo neukean vals au, baiña oitura ta ekanduz barruti onetako jaurlariarekin dantzaldia edegi bear dot. Bigarrena, Vitry'ko alkatearekin txandea izango da, baiña - itxura zoragarriz begiztatzen ebala jarraitu eban -, irugarrena zurekin egingo dot, baita boskarrena be. Besteak, inguruko beste gazteekin beartuta dodaz. Ez zara asarratuko, ezta...?

Mitxel'ek aren begi andi urdiñai begiratu eutsen, eta irribarretsu,

- Ez, andereño- esan eutsan-, bakoitzak dagokiozan zeregiñak bete bear ditu.

Saint Avit andereñoak begikada lilluragarriaz alde egin eban, otsean-otsean gelditzen zala ezagunen bat agurtzeko.

Andik laster, deduzko dantza vals batez asi zan, Colette'k jaurlariarekin edegiten ebala. Boursand'eko kontemeak oso ederra izanez gaiñera, gaurko jai-janzkiak bere yaukaltasuna nabarmentzen eban, eta ango gazteek gazteluko jabea ederrespenez eta maitasunez begiztatzen eben. Mitxel'ek Colette'ren lengusifeari dantzaldia eskeiñi eutsan. Urrango dantzaldian, Mitxel bere maitxura biurtu zan, eta dantzan egiteko guruaria ez izanik, ango andra batekin izketan emon eban. Irugarren dantzaldian Colette urreratu yakon, eta eskua emotsala, auxe esan eutsan,;

- Doxandabaratz Jauna, auxe da zure dantzaldia.

Saint Avit andereñoak basoko maitagarri baten antzera dantzan egiten eban, eta gaztearen besoetan bazirudian lumatxu bat. Ez eben itz andirik egin, baiña Mitxel'ek begiratzen eutsan bakoitzean, Colette'ren begi ederrak beragan josita ikusten ebazan, beragandik erantzun bat itxaroten lez.

Boskarren eta gau aretan Mitxel'ek Colette'rekin dantzatuko leuken azkena zan, eta lengoan bezela, itz gitxikoa izan zan, Colette'ren begi urdin andiek Mitxel'gandik erantzun bat billatuz antzera dizdir egiten ebela... Amaitu zanean, neskatilleak Mitxel bere ondoan une batez atxiki eban, eta mintzo gozoaz,

- Onezaz amaitu da gaurko gure dantzaldia, baiña beste baten jarraituko dogu, ezta Mitxel...?

- Bai, Colette, eta eskerrik asko nirekin izan dozun adeitasunagaitik...

Neskatilleak beste une batez begiztatu eban samur-samur, eta gero banandu ziran. Mitxel barru-miñez nekatuta oartzen zan, eta ustekabez ango zarateaz eta abotsen zurrumuruaz ase, isil-ostuka aretoa utzi, eta bere lo-gelara abiatu zan...

Sapailloko atea zabaldu, eta loreen usaiñek eta illargiak edatzen eban mamutar antzeko argiaz inguratuta, luzaro samar bere barruan bilduta iraun eban. Ereskontzaren ots itoak urrunditik lez aditzen ziran, eta gero, asperen bat az oeratu zan.

Erabagi sendo bat artzeko unea zan... baiña baekian baita be, dalako erabagia ezezkoa izango litzakela. Colette ez zan berak bear izaten eban emaztea. Gaztelu aretako izaerea ta sendalaritzari jarraitzea alkar-teziñak ziran. Colette'rekin ezkonduko ba'litz, ezin egikeon ordurarte emondako izaereari jarraitu, eta txulut egindako osagille bat billakatu-ko litzake...edo ostera, bere ezkontzea ausi... Ez, ezin egikean bide aretatik joan, eta oba zan egoera areri azkena emotea...

Luzaro egon zan Mitxel lo egin eziñik, eta oean batetik bestera iraulkatzen zala, noizbait, ereskontzaren ots motela eten egin zanean, lo urduri batek artu eban... Alako baten, Rachmaninoff'en "Piano ta ereskiñaren arteko erestaldia"ren azken eresneurri yaukalak aditzen ebazala begitandu yakon, eta pianoaren aurrean Matxalen'en soin-ebakun txairoa agertu yakon... Eta zer egiten ebala oartu barik, aregana besoak luzatu zituan... Bera zan baiki, bear eban bizitzarako laguna, emazte zintzoa, bere osagilletzan lagunduko leuskion lagun maitetsua... Eta bere izena oiukatuz, itxartu zan...

Sapailloan zear egunsentiaren argi larroskara igazten zan, eta jauzi batez oetik urtenda, orain dana argi barri batez ikusten eban. Idazmaia-aren aurrean jesarrita, txartel auxe idatzi eban:

Sain Avit adereño ederretsia:

Gaztelu eder onetatik alde egitea erabagi dot, eta txataltxu au irakurri dagizunean, joana izango naz. Zeuganako erakarpen andia oartzen dot, baiña zure izaeraren eredu eta nire osagillaren ekintzak alkar-teziñak dira, eta augaitik alde egitea erabagi dot. Zure begi ederrotan gauza zoragarriak irakurri dodaz, baiña bion onerako oba da dana amaitutzat emotea. Oso ona izan zara nirekiko, eta zure ontasunak nire gogoan betirako iraungo dau.

Agur, Colette andereiñoa, mindu ba'zaitut barkatu egistazu, eta jakin egizu neugan adiskide bat betirako izango dozula.

Doxandabaratx'tar Mitxel'

Txataltxua estalki batera sarturik, bide-zorroa artu, gelatik urten, eta isillean zurubian beera ate-ondoko aretora jatsi zan. Neskame batek arrituta begiratu eutsan, eta,

– Jauna, orren goizetik ...?

– Mesedez, esango dautsazu Joseph'eri etorteko...?

– Bai, Jauna, baiña bitartean gosaria ekarriko dautsut.

– Eskerrikasko.

Gosaria ozta-ozta amaituta, Joseph berebillaria agertu zan, eta,

– Jauna, zer nai dozu...?

– Paris'era joan egin bear dot, eta eskertuko neuskizu Vitry'ko gel-tokira eroaten ba'nozu.

– Bai Jauna, berebilla bereala gerturik egongo da.

Andik laster, biok gaztelu-inguruko zabaldi ederrean zear joaia-zan, eta bederatzietako trena artzeko garaiz eldu ziran.

– Agur Joseph– easan eutsan Mitxel'ek len idatzitako txataltxua emotsala–, eta eskerrikasko danagaitik. Mezu au Colette andereiñoari emongo dautsazu...?

– Bai, Jauna, gaztelura biurtu ta bereala emongo dautsat.

Laster eldu zan burdinbideko jarraigoa, eta Paris'era abiatzen zala, Mitxel'ek bere egitekoa ausnartu eban. Eldu zanean, taxi batez "L'espoir" geiso-zaintzategira joan zan. Eldu baiño ez, Ander, ango zuzendariarekin alkarrizketa bat eskatu eban, eta auxe esan eutsan:

– Ander, zaintzategi onetako nire jarduna amaitu gura dodala esan bear dautsut, eta augaitik...

– Baiña Mitxel– eten egin eutsan besteak–, burutik eginda ete zagoz, emen dozun etorki bikaiñari uko egiteko...? Prantzi'ko osagillerik ospetsuenetariko bat billakatzeko zorian zagozan orrek, ondo ausnartu dozu erabaki ori...?

– Bai, Ander, eta atzera egiterik ez dot. Nire jaioterrira biurtuko naz, an osalaritzari emoteko nire aita zanak egin eban legetxe.

Ander'ek arrituta begiratu eutsan, eta gero,

– Benetan zagoz, Mitxel...?

– Bai, eta augaitik, beste biotz-bereizlariari nire jarduna utziko dautsat emen dodazan tresnakaz, sari egoki baten.

– Zaintzategi onen ospeagaitik, ez yatzu zaila izango esku-aldaketa ori egitea.

– Emon egizuz ba, bearreko urratsak aldaketa ori egiteko, eta dana gerturik izan daitenean, bearreko izenpetzea egiteko biurtuko naz.

Andik astebete batera-edo, Ander'ek dei egin eutsan esanez biotz-bereizlari bat gerturik egoala esku-aldaketea egiteko, eta ara joanda, diruketa egoki batez Mitxel'ek osagille barriarekin aldaketa-ituna izenpetu eban. Oraindiño, baiña, zeozer egiteko zan, eta Aita Etxepare'ri dei egiñik, urrengo egunean "Euskal Etxea"n alkartuko litzakezala erabagi eban.

Udako arratsalde bero aretan yosulaguna begira egoan, eta osagille gaztea agertu zanean,

– Aizu, Mitxel –itaundu eutsan– zer dala-ta orren iraduz nirekin itz egin gura izate ori...?

– Erabagi garrantzitsu bat artu dot, eta zeu jakiñaren gaiñean ipiñi gura izan zaitut.

– Esaidazu dana, lagun maite orrek.

Bere barruan bildu zan une batez osagille gaztea, eta gero,

– Oroitzen zara, Aita Etxepare, bein baten zorionsua ete nintzan itaundu zeunstanean...?

– Bai, Mitxel, etxe onetan lenengoz alkar ezagutu genduanen izan zan.

– Orduan ez neutsun orren erantzunik emon, ez nekialako, baiña gaur noizbait, esan dagiketsut zorionsua ez nazala. Ara, Aita Etxepare...

Eta jarraian, Colette'rekin jazotakoa zeatz guztiakaz azaldu eutsan, eta amaitzean,

– Gau aretan, dantzalditik alde egin nebanean, gogora etorri yatan ezin neintekeala ango izaerarekin bizi izan, nire benetakoa deia sendala-

ritza zalako, baiña ez orain darabildana, nire aitak eroiana baiño, lagun-urkoari emonda aren soñaren gatzak zaintzeko eta bidebatez arimare-nak...

Isildu zan une batez, eta gero,

– Zeu izan zintzazan, Aita Etxepare, etxe onetako ezeukiakana nire urratsak zuzenduz, aita zanaren bidera ez-arian ez-arian eroan nindua-na, eta orain nire zoriona non datzan ikasi dot...

Yosulagunak osagille gaztea isillean begiztatzen eban biotz-ikara esan-eziñak menperatuta, eta orduan, isillune baten ostean, Mitxel'ek onetaraxe jarraitu eban:

– Baiña ori ez da guztia... Gau aretan nire barrukoari argia eska-tzen neutsanean, ustekabez, amesen artean edertasun yaukaleko neska-tilla bat pianoan Rachmaninoff'en ereski zauskagarri bat joten agertu yatan, eta orduan nire arimea beragana joiakidala indar jarki-eziñaz oartu nintzan, eta areganantz nire besoak luzatuz deika ta deika asi nin-tzakion, barruko larritasuna baretu ekidan...

– Nor zan bera...?– eten egin eutsan yosulagunak–.

– Matxalen izeneko nire amaren andereño laguntzaillea. Orain urte bete bat ama ikustera joan nintzanean Doxandabartz-enean ezagu-tu neban, eta ni oartu barik, aren edertasunak, ontasunak, eta eresirako eban erti gorenak gogoa eroan eusten. Andik Paris'era biurtu nintza-nean, oiko jardunari emonda, nire biotzean lo antzean egon da, baiña amesetan agertu yatanetik, aren irudia edonora jazarten nau, eta orain badakit bera nire maitasun osoa dala, eta nirekin izatekotan, aitaren urratsetatik jarraitzera lagunduko daustala...

Une batez isillik iraun eben, eta orduan Aita Etxepare'k,

– Eta orain zer egingo dozu...?

– Nire Paris'eko atzoaz amaitu dot, eta Donepaul'era bizi izatera joango naz antxe nire jardunari emoteko, eta Matxalen'eri nire maita-suna eskeintzeko... Oi berak maite izango ba'nindu...!

– Noiz joango zara...?

– Etzi abiatuko naz.

Agur egiteko eretia zan; biok alkar besarkatu eben, eta orduan Aita Etxepare'k

– Gau oro nire gogoan izango zaitut, zure asmo orreik onik urten dakizuzan...

Gau betea zan, eta Mitxel ostatura kaleeatatik egurasten joiala, bere biotz-miñean Matxalen'en begi eder illunen laztanak agertu yako-zan...

MITXEL'EN BIURPENA

Goiz aretan, Matxalen'ek egunkariaren barriak Errose Andreari irakurri ondoren, onek esan eutsan,

– Atzo asitako galtza-lanari jarraitu gura dauzat, eta eskertu neuskizu pianoa jo dagizula; augaitik mezedez, aretoko atea zabalik laga egizu entzun dagikedan.

– Bai, Errose Andrea.

Au esanik, neskatillea areto nagusira joan, eta pianoaren aurrean jesarri zan. Egun ederra zan lekorean, baiña Matxalen'en barru-miñean negu antzekoa. Bazan urtebete bat Mitxel etxetik joana zala, eta ordutik ez eban beragandik ezer jakin. Isillean maite izaten eban, ezer itxaron barik... Bera lako osagille ospetsu ta zerdenak zelan lekurik emon oroimenean, andereiño laguntzaille ezain bateri...? Zorua, besteren zorua...!

Esku dardatsuakaz ereskitagian aztertu eban eta “Maitia nun zira...?” idororik, pianoan jarri, eta eresia irakurri ondoren jotzen asi zan abots gozoz eta kadenaz beterikoa, onetaraxe:

MAITIA, NUN ZIRA...?

Maitia, nun zira...? Nik ez zaitut ikusten, ez berririk jakiten.

Nurat galdu zira, nurat galdu zira...?

Ala aldatu da zure guraria. Itz eman zenereitan
Ez bein bai berritan, enia ziñela. Enia ziñela...!

Goiz aretan, Paris'eko gabeko bidegite ariñean Baiona'ra eldu zanean, astirik galtzeke Mitxel taxi bat artu eta Doxandabaratz-encara abiatu zan. Goizeko bederatziak izango ziran, eta oi eban lez, ezustean etorran etxekoai ezer esan barik. Eldu baiño ez, amagana joanda galtzalanetan ziarduala ikusi eban, eta alkar besarkatu ondoren, Errose Andreak asarre izuneko mintzoz akar egin eutsan auxe iñotsala:

– Betikoa izango zara, seme; zergaitik ez daustazu aurretik barri-rik emon...?

– Bakizu, beti arazopetuta nozu-ta... Esan, ama, non da Matxalen...?

Irribarretsu, Errose Andreak,

– Ez al-dozu entzuten aretotik datorren eresia...?

Ezer esan barik, Mitxel areto nagusira joan zan, eta oiñazpikotik isilllean ibilliz Matxalen'en irudi txairoagana urreraturik, aren sorbalda-gaiñean eskuak bigun-bigun jarri eutsazan. Ikaratuta, neskatillea biurtu zan, eta etxeko oiñordekoa ezagutzean, jagi, eta zirrara batek artuta,

– Mitxel... noizbait etxera etorri zara...! Zure amak eta biok uts emoten zinduguzan - eta itz oneik esatean, bere ezpanetan oiko irribarre dizdiratsua agertu yakon -

– Zeuk be, uts emoten ninduzun, Matxalen...?

Aurpegia gorri zoragarriaz estaltzen yakola, neskatilleak ez eutsan erantzunik emon.

Mitxel'ek eskutik artu eban, auxe iñotsala,

– Goazen nire amagana, gauza bateri buruz jakitun ipiñi gura zai-tuet-eta.

Errose Andreagana joan ziranean,

– Oraingo onetan- esaten asi zan Mitxel- barri on bat emoteko etorri naiatzue, eta auxe aalegia: ona biurtu naz betirako.

Asiera baten, Errose Andreak ez eban ulertu semeak iñotsana, eta,

– Doxandabaratz'eneara bizi izateko etorri zareala diñostazu, seme...?

– Bai, ama, erri onetako osagillea izateko asmotan etorri naz. Ara, ama...

Eta jarraian, Mitxel'ek mintzo argiaz azaldu eutsen zelan Aita Etxepare'ri esker osalaritzari buruz eban bere ikuspegia aldatu izan yakola, eta orain bere aita zanaren urratsetatik jarraitu nai ebala, erritarren oe-buruko osagillea izateko, eta onetaraxe amaitu eban bere berbaldia:

– Ez dot irabaziko lengo beste, ezta urrik emon be, baiña dirua baiño oba dan zeozer aurkitu dot, eta dei orreri zintzo jarraitu gura dau-sat.

Errose Andreak ezin egikean siñistu semeak iñotsana, eta birlora-tuta,

– Seme- esan eutsan -, etxetik beste iñora joan zintzazanetik, atsekabetua bizi izan naz, baiña orain baderitxat jauregi onetara zoriona biurtu dala.

Bitartean, Matxalen'ek isil-isillik bere begi illun ederrakaz Mitxel begizatzen eban, osagille gaztearen etorrereak berari zer ekarriko leus-kion bere buruari itauntzen eutsala... Berak maite izango ez baleu, len-bailen etxe aretatik beste iñora joango litzake...

Atan-orretan, otordua zan. eta irurok bazkaldu bitartean, Mitxel'ek illabete bateko oporrak artu gura ebazala, eta igaz lez, ingurukoa iker-tuko leukiela azaldu eutsen amaika asmoak egiten ebazala. Bazkaria amaitu zanean, eta Errose Andrea oiko bere biagoa egiteko baztertzen zala, Mitxel bide-zorroak ustuteko bere lo-gelara joan zan, eta amaitu ebanean, irakurten ziarduan Matxalen'gana joanda, esan eutsan,

– Zer deritxazu, andereiñoa, baratzetik osteratxu bat egiteari...?

– Ondo derist, Mitxel, arratsaldea zoragarria da orretarako.

– Goazen ba baratzaren goikaldera, ango ikuspegia zoragarria da-ta.

Gazteak ibiltzen asi ziran astiro-astiro, noizean bein Mitxel geldit-zen zala zugaitzaren baten izena gogora ekarteko, baita bidebatez onen jatorria azaltzeko be. Eta polliki-polliki aldapa leunean gora joi-zala, goiko aulkira eldu ziran, eta ango ikuspegi ederra ikustearren jesa-rrri ziran, une batez isillik irauten ebela. Erriaz bestaldean Yoldi-enea ikusten zan, eta oi eban lez, lengo bere etxea ikustean Matxalen'en gogoa samurtasunez eta naigabez bete zan.

– Esan, Matxalen, zer gertatzen yatzu...? Naigabetua ikusten zaitut.

– Yoldi-enea ikusten dodanetan, amaika oroitz burura yator. An ezagutu nebazan osaba Joanes eta izeko Alis aztu-eziñak...

Mitxel'ek samur-samur begiztatu eban, eta gero, isillune baten ostean,

– Len esan dautsuet, Aita Etxepare izan zala nire aitaren urratsak jarraitzearen ona etorteko eragin ninduana, baiña ori ez da egiaren erdia baiño; bazan beste zerbait...

Dardar baten neskatilleak begiak apaldu ebazan, eta gero mintzo isillez,

– Zer zan beste ori...?

– Zu izan zintzazan, Matxalen maite ori, etxera erakarri ninduana. Paris'era biurtu nintzanean, ni oartu barik biotzean zeroadazan, eta gau baten, etsia nintzala zeu agertu zintzakidazan... Len zeuri entzundako eresi zoragarri bat jotzen zenuan, eta orduan bear zindudala oartu nintzan, maite ori... Nik benetan ez nekian zeu onen sakon nire biotzean zintzazanik, baiña gau aretan dana argi ikusi neban, eta zure billa ona etorri nintzan... Esan Matxalen, egunen baten maite izango nozu...?

Neskatilleak begi illun ederrak jaso ebazan, eta bere irribarre argitsu ezpanetara agertzen yakola, samur-samur esan eutsan,

– Aspalditik maite zaitut, Mitxel. Igazko zure egotaldia amaitu zanean, eta joateko orduan, oroitzen zara...? Esku biak artu zeunstazan, eta orduan lenengoz jakin neban maite zindudazala...

– Orduan nirekin ezkontzeko gerturik zagoz...?

– Bai Mitxel, baiña zelako dotea ekarri dagiketsut...? Nik ezin dautsat jauregiko onetako oiñordeari merezitako dotea ekarri...

– Dotea aipatzen dozu, nire maitia...? Ba'dakizu zure ezpanetako irribarreak zenbat balio dauan...? Eta zure ertia pianoa joteko...? Zeugan, Matxalen, altxor andi bat dozu, eta izan be, amaika dote baiño ederragoa dana...

Au esatean, Mitxel'ek neskatillea erakarri eban eta musu maitekor bat emon eutsan, esanez,

– Matxalen, goazen nire ama jakitun ipinteko

Eskutik oratuta, eta alkarri maitasunez begiratzen eutsoela, jaure-

gira biurtu ziran, eta atadian arratsaldeko edertasuna gozatzen ziarduan Errose Andreari, euren maitasuna jakiñerazo eutsoen.

– Au nire poza ...!– esan eutsen–, bikote zoragarria eratzen dozue, eta gaur, bigarren barri on au entzutzean, nire biotza ler egiteko zorian oartzen dot...

Arrezkero gauzak arin garatu ziran. Dagonilla'n illabete zoragarria emon eban, igaz lez inguruko leku ederrak ikertuz. Eta Urrilla'ren asikerako egun eder baten ezkondu ziran Donepaul'eko eleizean. Erritarrek baekien osagille gazteak aita zanaren bidetik errian jardungo leukela, eta barri onek atsegin esan-eziña guztiakan eragin eban. Mitxel'ekin eleizatik urtetean, Lisette urreratu yakon eta estu-estu alkar besarkatzen ebela, auxe esan eutsan:

– Matxalen, zorionak. Iñoizkorik ederren emoten dozu, maite orrek. Izan be, jauregiak badau benetan, merezi dauan etxeokandra gazte ta zoragarria.

– Eskerrikasko Lisette, zelan dagoz Beiñat eta zure aurra...?

– Oso ondo; Beiñat, gero ta pozago, eta nire aurtxua lenengo urratsak emoten ikasten ari da.

– Agur, Lisette maite ori, eztegu-bidalditik biurtu gaitenez, zatoz Doxandabartz'eneara zure aurtxuarekin ezagutu dagidan.

– Bai, Matxalen, etorriko naz berarekin. Orain, agur, eta merezi dozuen baizen zorionsuak biok izan zaitezela.

Eztai-bidegiteak illabete bat iraun eban, eta Italia'tik aberrira biurtzean, Matxalen'ek jaioterria ikusi nai ebanez, astebete bat geiago emon eban, Bilbao, eta Bizkai'ko inguruak ikertzeko. Azken egunean. Matxalen'en gurasoen illobiak ikustera joan ziran. Gurutz bat eta illarri bakun bi euren izenakaz ikusi ebezan. Otoi bat egiteko, biok belaunikatu ziran Matxalen'en aurpegiari malkoak mara-mara eriozala. Mitxel'ek ondo ekiazan bere emaztearen gurasoen bizitza ta nekeak, sarri askotan Matxalen'ek edesten eutsazalako.

Zutundu ziranean, Mitxel'ek samur-samur emazteari malkoak txukatu eutsazan, eta gero, auxe esan eutsan:

– Begira, Matxalen, illobj au oso ez-gauza deritxat zure gurasoen tzat, eta etxera biurtu aurretik, emeko argin bateri edertu dagiala aginduko dautsat.

– Ez, Mitxel, utzi dagigun dagoan bezelaxe. Eurok apalak izan ziran, eta izan be ez ziran zorionsuak emengo anai-arteko guda zitala-

gaitik. Zan legez utzi dagigun euron azken egoitza au. Eralgiko genduken dirua, erabilli dagigun urtean bein ona etorteko eta euron alde otoi egiteko, alkartasun betean Jaungoikoaren Aintzan zoriontsuak izan daitezzen...

Mitxel'ek maitasunez apa-laztandu eban, eta gero,

– Biar bertan Doxandabaratx'enean izango gara, eta izaera barri bateri asiera emongo dautsagu, zeuk jauregiko etxeoandra gaztetzat, eta neuk Donepaul'eko eta onen inguruko erritarrak zaintzeko. Nire egitekoa batzutan zailla izango yat, baiña zeuk laguntzen ba'daustazu onik urtego naz...

– Badakizu, Mitxel, zurekin beti izango nozula...

– Bai, Matxalen, eta orrek aurrera ekiteko lagunduko daust...

Doxandabaratx jauregira biurtu ziran, udazkeneko eguzkiaren laztanek Euzkadi'ko bazterrak urrezko margoakaz beteten ebezela, eta oianetako zugaitzai aize epelaren eragintzapean, orbelak urrezko asperanak bai'litzazan jalgiten yakiezala...

Eta areitariko egun baten, Matxalen'ek pianoari eresi yaukalak erauzten eutsazanean, bere erraietan bizi barri baten sorkundea oartu eban, eta bere biotzeko zauskadea jabetu ezifilik, zorionez negarrez asizan...